

GIPUZKOAKO HERRITARREN PARTAIDETZA

2021-2022




Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA



Hitzaurrea 3

Udalerriak 4

DEBA BEHERA	5
Eibar	6
Elgoibar	9
Itziar	12

DEBA GARAIA	15
Arrasate	16
Bergara	19
Elgeta	22

DONOSTIALDEA	24
Urnieta	25
Usurbil	28

GOIERRI	31
Ataun	32
Beasain	35
Gaintza	38
Idiazabal	41
Itsasondo	43
Ezkio	46
Urretxu	49
Zaldibia	52

TOLOSALDEA	55
Amezketeta	56
Anoeta	59
Baliarrain	62
Irura	65

UROLA KOSTA	68
Getaria	69
Zestoa	72
Zumaia	75

GFA 78

Udako Ikastaroak	79
Aurrekontu Irekiak 2021	85

Elkarteak 91

Arrats	92
Cear	96
Elhuyar	100
Elkartu	104
Eva Campo Muller	108
Garaion	112
Gehitu	116
Herribizigune	120
Hezkide	124
Iturri Zahar	128
Kaebnai	132
Kali Dor Kayiko	136
Landetza	140
Lau Haizetara	144
Lleno De Naranjas	148
Mugan	152
Politki	155
Topagunea	159
Ulía	163

HITZAURREA



Eider Mendoza Larrañaga

Gobernantza Diputatua – Gipuzkoako Foru Aldundia
2019-2023 Legegintzaldia

Herritarren parte-hartzea azken urteetan elementu gako bihurtu da edozein administrazio publikotarako, funtsezko tresna baita herritarrek erakundeekiko eta, oro har, politikarekiko sentitzen duten lotura falta gainditzeko. Urruntze hori lehen mailako arazoa da demokrazia modernoentzat, horien iraupena bera arriskuan jartzen baitu.

Herritarren parte-hartzea egun mendebaldeko herrialde gehienetan indarrean dagoen sistema demokratikoaren berezko elementu izan arren, orain arteko parte hartzeko bideak ez ziren nahikoak geratzeko herritarren urruntzea eta, horrekin batera, populismo berriak.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, herritarren parte-hartzeko modu berriak ikertu, esploratu, diseinatu eta egituratzea funtsezkoa da gure demokrazien osasuna hobetzeko, baina baita iraungo dutela bermatzeko ere. Kanal berriak zabaltzea eta irekitzea, gipuzkoarren ahotsak lurraldeko administrazio publikoetan arrastoa utz dezan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren agendan ez ezik, gure lurraldeko erakunde guztien agendan ere lehen mailako gaia da.

Foru erakundearen kasuan, aurreko legegintzalditik gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredu berri baten aldeko apustua egiten ari gara. Eskema horrek esan nahi du herritarren eta eragile ekonomiko eta sozialen lankidetzeta eta parte-hartzea jarduera politiko eta instituzionalaren erdigunean jartzea, Foru Aldundiaren eta haren ekosistemaren egunerokoan.

Gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredu berri horren adierazlerik onena Etorkizuna Eraikiz programa da. Programa hori 2016an jarri zuen abian foru erakundeak, eta aldundiaren beraren agenda estrategikoaren erdian ez ezik, lurraldearen agendan ere sendotu da: Etorkizuna Eraikiz, gizarte berrikuntzako eta esperimenezko benetako ariketa da, guztion artean etorkizuneko Gipuzkoa eraikitzeko.

Praktikan, Etorkizuna Eraikiz gonbidapen irekia da enpresentzat, elkarteentzat, ikastetxeentzat, teknologia zentroentzat eta, nola ez, herritarrentzat berentzat ere bai, guztion artean gaurtik aurrera Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei aurre egiten hasteko; alegia, lan dinamikak aktibatzea biharko nahi dugun lurraldea diseinatzeko eta, proiektuaren izenak berak adierazten duen bezala, eraikitzeko.

Beti ere gobernantza eredu ireki eta kolaboratiboari jarraiki, Etorkizuna Eraikiz-en asmoa da orainalditik erantzutea Gipuzkoaren epe ertaineko eta luzeko erronkei: aldaketa demografikoa, mugikortasun modu berriak, klima aldaketari aurre egitea, ekonomia jasangarriagoranzko bidea egitea,

bizitzen ari garen iraultza digitalaren aukerak aztertzea eta, nola ez, COVID-19aren pandemiari lotutako gai guztiak. Funtsezko erronka izango da Gipuzkoa kokatzea gizartearen, ekonomiaren, hizkuntzaren eta generoaren arloan desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean.

Hartara, Etorkizuna Eraikiz programaren bidez burutzen ari garen lanaren xedea da erantzutea lurraldeak orain edo laster aurre egin beharko dien gai sakonei, bereziki azpimarratuta nola egingo den: elkarrizketa, elkar ulertzea, lankidetzeta eta gardentasuna baliatuta. Praktikan guztiok parte hartzeko zabalik dagoen atea da, sare publikoan inplikatzeko gonbita.

Ahalegin horretan, Etorkizuna Eraikiz-en helburua da Gipuzkoaren parte hartzeko tradizioari heltzea eta berraktibatzea, elkartegintza sare oso aktibo eta dinamikoa baitu ia esparru guztietan: arlo guztietako elkarteak, kooperatibismo sendoa, eskualde eragile indartsuak, boluntario sare oso sendoa, inizatiba duten administrazio publikoak, eta, batez ere, parte hartzera ohituta dauden eta horretarako bokazioa duten herritarrak.

Esku artean duzun liburua ere horren erakusgarri ona da, xehetasunez jasotzen baititu udalek, gizarte antolatuak edo Foru Aldundiak berak azken urtean Gipuzkoan gauzatutako partaidetzako esperientzia nabarmenenak; esparru horretan dugun aberastasunaren eta potentzialaren berri ematen duen katalogoa da. Harrotasunez begiratu behar diogu altxor honi, eta zaindu eta sustatzen jarraitzeko betebeharra ere badagokigu. Hori da gure konpromisoa.

Udalerriak





DEBA BEHERA

Deba Behereko eskualdeak 180,3 km²-ko lur eremua hartzen du Gipuzkoako hego-mendebalean. Bizkaia du mugakide mendebaletik; ekialdean Urola-Kostaldea; hegoaldean Deba garaia; eta iparraldean, itsasoa. Eibar da eskualde honetako herririk nagusia. Bere eraginpean bizi dira: Elgoibar, Deba, Sorluze-Placencia de las Armas, Mutriku, Mendaro eta Bizkaiko Ermua eta Mallabia. Eskualde honetako hondartzak dira: Mutrikun, Ondarbeltz, Mutriku, Zazpi hondartzak eta Saturrarán, eta horiei Debako hondartza gehitu behar zaie. Deba ibaiak bere ur barrenean bihurtune handiak egiten ditu Altzolara heldu bitartean; hortik aurrera, Arnoko alderdira sartzen da berriro ere. 58 km egin ondoren, estuario bat sortzen du itsasoratzean. Komunikabide egokiak ditu. Bilbao-Behobia A-8 autobideak eta kostaldeko N-634 errepideak lotzen dituzte herri nagusiak, eta euskal itsasaldearekin nahiz Donostia edo Bilborekin harreman bideak jartzen dituzte. Bizkaiko hiriburua hurbil izanik, merkataritzaren aldetik eskualde honetako herri gehienek Bilbora dute joera, ez Donostiara. Oinarritzko sareko GI-638 errepideak Mutriku eta Ondarroa Debarekin lotzen ditu. GI-2634 errepideak Elgoibar Azpeitiarekin lotzen du, eta GI-2636 errepideak Elgoibar Markinarekin. Eskualdea burdinbide bakarrak zeharkatzen du, Donostiatik Bilboraino doan bide estukoak; garrantzi handia dauka Elgoibar, Eibar eta Ermua bitarteko aldiriko zerbitzu gisa. Eskualdeko trenbide bakarra Donostia-Bilbo bide estukoa da, Elgoibar-Eibar-Ermua ardatzean aldiriko zerbitzu gisa garrantzia hartzen duena. Deba Beherean industrian ari diren langileak biztanleria aktiboaren erdia dira gutxi gorabehera; hirugarren sektoreak ehuneko berrogei hartzen du, eraikuntzak ehuneko bost eta lehen sektoreak ehuneko hiru. Pisurik handiena metalen transformazioko industriak dauka. Turismoari lotutako jarduerak Deban eta Mutrikun bakarrik dauka pisurik. Mendaron dago eskualdeko ospitalea, eta Eibar eskualde osoko epea barrutiko burua da; lehen instantziako eta lehen instrukzioko bina epaitegi ditu. Itsasoko arrantza Mutrikun egiten da.

EIBAR

Ipuruako merkatu plaza eraikinaren erabilera adosteko prozesua

HELBURUA

Ipuruako auzoa indartu, Kultura eta baliabideen irisgarritasuna ahalbidetu, Elkarrekintza eta belaunaldi-artekotasuna landu, Aisia hezitzailea sustatu

Eraikinaren erabilera adostu, Aurrera begirako antolaketa eta kudeaketa adostu, Ipuruako merkatu plazaren erabilera gida sortzea

PARTE-HARTZAILEAK

79 (43 emakumezko eta 36 gizonezko) - 5 udal ordezkariak

IRAUPENA

2020ko urtarrilatik – 2021eko urtarrilera

ALORRA

#Hirigintza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Udala eta auzotarrez osatutako talde sustatzailea,

TOKIA

Eibar

BIZTANLERIA

27.474 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorra(k):

Ipuruako auzoa indartu
Kultura eta baliabideen irisgarritasuna ahalbidetu
Elkarrekintza eta belaunaldi-artekotasuna landu
Aisia hezitzailea sustatu

Zehatza(k):

Eraikinaren erabilera adostu
Aurrera begirako antolaketa eta kudeaketa adostu
Ipuruako merkatu plazaren erabilera gida sortzea

Esperientziaren azalpena

Hiru saio irekitan oinarritutako prozesu parte-hartzailea diseinatu da. Parte hartzeko gune nagusia saio ireki parte-hartzaileak izan dira, baina prozesuaren gidaritza egiteko, talde eragile bat sortu da. Talde eragilearen egitekoak izan dira prozesuaren diseinuaren gainbegiratzea eta jarraipena egitea.

Bi parte-hartze gune hauen bidez, proiektua bera zehaztu, antolaketa ereduaz erabakiak hartu eta bestelako beharrak identifikatu dira.

Saio irekietan, edukiarekin zerikusia duten erabakiak hartu dira. Talde eragilean adostu diren langaiak eta eztabaidagaiak eraman dira batzar hauetara. Saio hauek, parte-hartze dinamika eta fasilizazio tekniken bitartez garatu dira bertaratutako kide guztien iritziak jasotzeko asmoarekin.

Ezaugarriak: 3 saio:

- 2020ko otsailak 5ean, landutakoak: Erabilerak multzokatu, baliabide beharrak eta garapen mailak identifikatu
- 2020ko martxoak 4an, landutakoak: Espazioaren antolaketa, dinamizatorako aukerak eta antolaketari buruzko analisia.
- 2020ko azaroak 19an (online), landutakoak: Antolaketaren oinarriak zehaztu, espazioaren definizioa eta aurrera begirakoak zehaztu.




**Ipuruako
Merkatu
Plaza**


Zer lortu da

Esperotako emaitzak lortu dira:

Espazioan garatu beharreko ekintza eta jardura motak, horien balioak eta horiek gidatuko dituzten printzipioak definitu dira. Ipuruako merkatu plazaren kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratuko den taldea antolatua: elkarte moduan eratu dira. Eraikinaren erabilerarako gida egin da



PROPOSATUTAKO JARDUERAK, MULTZOKATUTA - ACTIVIDADES Y PROPUESTAS, POR GRUPOS



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Euskara lehenetsi da bileretan eta komunikazio guztiak (deialdiak, oharrak...) elebitan egin dira. Parte hartze prozesuan bertan, espazioan jarduteko moduaren printzipio gidari moduan zera adostu da, ekintzak euskaratik abiatuta egitea, beti ere gainerako hizkuntza guztiei zabalik. Euskara izango da harremanetarako eta komunikaziorako hizkuntza nagusia, beti ere pertsona guztien ulergarritasuna bermatuz. Kasuan-kasu erabakiko da zein hizkuntzatan eramango diren jarduerak emailen eta xede taldearen arabera.

Berdintasuna

Talde sustatzaileko kideak emakumeak izan dira denak eta Udalaren partetik koordinazio lanetan ibili den ordezkaria, baita. Emunek, bere aldetik, ekipo parekidea ibili du prozesu osoan.

Genero ikuspegia kontuan hartu da prozesu osoan. Gainera, adostutako balioen artean, zera ezarri da: genero berdintasuna ardatz izango du jarduera orok, bai eta funtzionatzeko moduak ere. Guztion ahotsak entzun ditugu eta guztion ahotsek izan dute garrantzia bera. Emakume sortzaileen lanei eta jarduerari lekua eskaini diegu eta euren lana ezagutzera emateko ahalegina egin da.

Aniztasuna

Adostutako balioen artean, zera ezarri da aniztasunaren inguruan: zentzurik zabalenean, bai merkatu plazan biltzea nahi den jendearen izaeraren ezaugarrien eta jatorriaren aldetik, bai eta antolatuko diren ekintzen aldetik ere.

Ingurumena

Eraikinaren jarduerak ingurumen aldetik ahalik eta inpaktu negatiborik txikiena sortzeko lanketa kontzientea egingo dela adostu da.

Balorazio atala

Egokia, hasieran finkatu ziren helburuak betetzat ematen dira. Saio irekietan, orotara, 78 pertsonak (3 saioetako pertsona kopurua kontuan hartuta), 43 emakume eta 36 gizonetako parte hartu dute. Horrez gain, Eibarko 16 talde edo elkarteetako kide ere egon dira presente.

Komunikazioa eta koordinazioa, orohar, ona izan da eta, nahiz eta COVID-19aren ondorioz etenaldi bat egon eta pandemiak berak denon animoan izan duen eraginak lagundu ez duen, azken hilabeteotan prozesuaren talde eragileak lanean segitu du eta barne-bilerak izan ditu hainbat alderdi zehazten jarraitzeko. Prozesuaren helburuen betetze maila ontzat ematen dugu bai Udaletik zein talde eragilean parte hartu duten auzotarrek ere, nahiz eta denboran luzatu den pandemiaren eraginez. Udalak aurrekontua birplanteatu behar izan du, krisi ekonomikoaren eraginak modu larrienean pairatzen ari diren gizarte eta ekonomia sektoreei laguntzeko. Hurrengo pausoak (eraikina birgaitzeko proiektua egin eta gauzatu) mantsoago eman beharko dira, baina talde eragilean parte hartu duten auzotarrei ulertaraztea ez da erraza izan.

Prozesu guztian zehar garrantzia handia eman zaio proiektuak partekatu dituen balioak lantzeari. Egitasmoaren jarduera zehazteko gida izango direlako eta erabakiak hartzen lagunduko duelako. Saio ireki guztietan eman zaio lekua gai honi eta ekarpenak egiteko aukera zabalik egon da. Euskara, berdintasuna, aniztasuna, inklusibitatea eta ingurumena balio moduan ezarri ziren lehenengo unetik.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik

Hasierako plangintza goitik behera errebisatu/birpentsatu behar izan genuen pandemiak bete betean harrapatu gintuelako, baina indarrak ateratzeko gai izan gara prozesua ixteko.

Emaitzaren ikuspegitik: Egoera kontuan hartuta, definizio maila nahikoa lortu dugu aurrera jarraitu ahal izateko.

Ikasitakoak

Prozesuak denboran larregi luzatzeak motibazioari kalte handia egiten diola. Zoritxarrez, oraingo honetan ez da gure esku egon plangintza betetzea.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

udal teknikariak gehiago inplikatzeko, bai aurreko fasetan (diseinuan) bai prozesuan bertan ere euren ezagutza eta kudeaketan duten esperientzia lagungarria izango zaigu politikari, herritar eta aholkularitza lanak egiten dituen enpresari ere, baldin badago.

ELGOIBAR

Elgoibarko
2020-2021erako
aurrekontu
parte-hartzaileak



HELBURUA

Helburu orokorra herritarrak udal-aurrekontuarekin lotzeko bidea finkatzea eta Udalarekin partekatutako konpromisoak hartzea da.

PARTE-HARTZAILEAK

100 (51 emakumezko eta 49 gizonezko) - 3 udal ordezkariak

IRAUPENA

2020ko urtarrilatik – 2021eko urtarrilera

ALORRA

#Aurrekontu parte hartzaileak

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Udala eta auzotarrez osatutako talde sustatzailea,

TOKIA

Elgoibar

BIZTANLERIA

11.540 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BU EE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorra(k):

Helburu orokorra herritarrak udal-aurrekontuarekin lotzeko bidea finkatzea eta Udalarekin partekatutako konpromisoak hartzea da.

Zehatza(k):

- Herritarrak udal-gobernuarekin konektatzea, eta haien lana eta kudeaketa ezagutaraztea.
- Gure bizilagunen lehentasunak eta beharrak ezagutzea, eta guztion benetako eskaerekin bat datozen konponbideak eskaintzea.
- Elgoibarko herritarren protagonismo aktiboa bultzatzea, herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle soilak izan ez daitezen.
- Udal arrazional, eraginkor eta gardena finkatzea kudeaketa publikoan, herritar ahaldunduekin.
- Gogoeta aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako bideak irekitzea, herritarren eta toki-erakundearen arteko elkarriketa eta komunikazioa hobetzen laguntzeko.
- Herritarrekin, ordezkari politikoekin eta teknikariekin kontrastatutako aurrekontu irekiak onartzea.
- Horrek guztiak kalitate demokratikoa hobetzeari eta udalerrian gobernu onean aurrera egiteari egiten dio erreferentzia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuaren ildo estrategikoei jarraituz.

Esperientziaren azalpena

Covidek 2020ko martxotik aurrera sortutako egoera dela eta, parte hartzeko prozesua ezin izan zen gauzatu horretarako ezarritako epeetan, eta, beraz, posible izan denean, 2021ean a posteriori prozesuari berriz ekitea erabaki zen. Horrela, orain arte, prozesuaren lehen fasea egin ahal izan da. Fase horretan, herritarren ekarpenak jaso dira, eta, orain, udal-teknikariak teknikoki eta ekonomikoki baloratzen ari dira, ondoren, prozesuaren 2. fasean, herritarrek lehenetsi ahal izan ditzaten lehen fasetik eratorritako proiektu interesgarrienak.

Prozesuaren metodologiari dagokionez, aurreko desberdintasun batzuk daude, prozesuak hainbat partida izango baititu:

- Kirolarekin, gazteriarekin eta kulturarekin lotutako proiektuak gauzatzeko, kolektibo gazteenak bereziki landu dira.
- Landa-auzoetarako + Sigma eta Alzola auzoetarako proiektu zehatzak egiteko.
- Udalerrira hobetzeko hainbat mailatako obrak egiteko. Partiden zenbatekoa analisi-fasean finkatuko da, eta, beraz, parte hartzeko 1. fasetik 3 zerrenda aterako dira:
 - Obrei lotutako proposamenak. Udalerri osorako irismena duten obra txikiak (gehienez 40.000 + BEZ proiektu bakoitzeko)
 - Beste udal-arlo batzuekin lotutako proposamenak. Kultura, berdintasuna, kirola, gazteria)(gehienez 15.000+BEZproiektuko)
 - Landa-auzoen eta/edo Alzola eta Sigmaren hobekuntza espezifikoekin lotutako proposamenak.

Zer lortu da

Lehenengo fasea azaroaren 13tik 29ra arte izan zen. Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren 1. fasearen emaitzak honako hauek dira:

Parte-hartzeari buruzko datu orokorreari dagokionez, 1. fasean 100 pertsonak parte hartu dute, eta guztira 107 galdetegi jaso dira eta 229 ekarpen egin dira prozesuaren esparruan. Generoari dagokionez, 51 emakumek parte hartu dute prozesuan, eta 49 gizonek.

1. fasean parte hartu zutenek aukeratutako hizkuntzari erreparatzen badiogu, %57,9k gaztelania aukeratu zuten, eta % 42,1ek euskaraz.

Erabilitako bideen parte-hartzea aztertuz gero, 69 galdetegi iritsi zitzaizkigun on line, 22 kalean jarritako informazio-karpen bidez, eta 16 Elgoibarko merkatuaren barruan dagoen hauteskontziaren bidez.

Herritarren parte-hartzearekin, 229 ekarpen biltzea lortu da, udal-kudeaketaren esparru jakin batzuetan proiektuak eta baliozko alderdiak sartu nahi dituztenak.

Gai desberdinak planteatzen diren arren, azkenik, espazio publikoaren hobekuntzekin lotutako obrak eta alderdiak izan dira proposamen gehien bildu dituztenak.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Prozesuan zehar, euskara izan da komunikazio-hizkuntza, erabilera lehenetsiz, eta herritarren artean irekitako gobernu-metodologia zabaldu da, parte-hartzea eta gardentasuna adierazten duten kontzeptu eta tonuen ezagutza sortuz.

Prozesurako sortutako dokumentu guztiak elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz) izan dira, euskararen erabilerrari eta presentziari buruzko arauak lehenetsunez betez.

Prozesu osoan herritarrekin harremanetan egon diren langileek, dinamizatzen edo hitzaldi informatiboetan, bi hizkuntza ofizialetan harremanak izateko gaitasuna zuten. Prozesuan lehentasuna eman zaio euskarazko lehen hitzari, baina parte hartzeko hizkuntza parte-hartzaileak aukeratu du beti. Arestian aipatu dugun bezala:

1. fasean parte hartu zutenek aukeratutako hizkuntzari erreparatzen badiogu, %57,9k gaztelania aukeratu zuten, eta % 42,1ek euskaraz.

Berdintasuna eta aniztasuna

Diskriminaziorik eza bermatzeko, aniztasuna bermatu da, bai parte hartzeko prozesuetan, bai informazioa itzultzeko eta transmititzeko bideetan. Horretarako, herritar heterogeneoen ekarpenak eta parte-hartzea, honako kategorian hauen arabera: generoa, adina, aniztasun funtzionala, jatorri nazionala eta egoera sozioekonomikoa.

Informazio- eta dibulgazio-materialen eta edukien produkzioan irakurketa errazeko irizpideak txertatu dira, udalerriko biztanle guztientzat ahalik eta ulergarrienak eta eskuragarrienak izan daitezkeen. Material horiek euskaraz eta gaztelaniaz egon dira eskuragarri.

Gainera, aurreko aurreko kanalen eta kanal birtualen bidez parte hartzeko aukerak dibertsitate funtzionala duten auzotarren parte-hartzea bultzatuko du.

Bestalde, prozesuaren ondorioz udalerrian egiten diren hobekuntzek beti hartuko dituzte kontuan irisgarritasun-arauak kolektibo guztientzat, eta lehentasuna emango zaie alderdi hori bultzatzen duten proposamenei.

Ingurumena

Ingurumena ahalik eta gehien errespetatzeko, prozesurako beharrezkoak diren materialen ekoizpena minimizatu da, eta, gainera, materialen eta formatu digitaleko parte-hartzearen aldeko apustua egin da.

Aurten, osasun-egoera dela eta, bereziki nabarmendu behar da sare sozialak erabili direla prozesua zabaltzeko, Elgoibarko herritarren artean irismen handia izan duela eta ingurumenean inpaktu mugatua izan duela.

Balorazio atala

Prozesu osoa ezin da bukatu dokumentu hau betetze momentuan. Ekarpenean analisisia martxan dago.

Proiektuaren lehen fasean lortutako parte-hartzea positiboki baloratu daiteke, prozesua garatu den ezohiko osasun-egoera dela eta.

Prozesu osoak irauten duen bitartean, alkatetzak, hirigintzako zinegotziak eta partaidetzako zinegotziak osatutako talde eragile bat egon da, bai eta kontratatutako enpresa ere, prozesuaren inguruko aholkularitza tekniko gisa. Horiek harreman etengabea izan dute prozesuaren martxa egokirako eta kronograman planifikatutako urratsak lortzeko.

Osasun-inguruabarrak kontuan hartuta, prozesurako aurreikusitako exekuzio-epeak atzeratu egin dira, eta dokumentu hau idaztean ezin izan da prozesu osoa egin.

Hala ere, martxan dago, eta 2021eko bigarren hiruhilekoa amaitu baino lehen, prozesuaren bigarren fasea egitea eta prozesu osoa amaitzea aurreikusten da.

Prozesurako diseinatutako metodologiak emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzea errazten du termino absolutuetan.

Aurrez aurreko eta online parte hartzeko ereduak banakako

parte hartzea errazten du, hau da, Focus Group eta abar erakusketa publikoekin lotura txikiagoa du, gizonen parte-hartzean gehiago laguntzen baitute.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik, positibotzat jotzen da Elgoibarko herritarrek udal-gastuari buruz duten ezagutza, bai eta beren aurrekontuak definitzen laguntzeko proposamenak egiteko inplikazio handiagoa izatea ere.

Osasun-egoerak urratsak aldarazi ditu, eta, ondorioz, ezin izan da prozesua amaitu justifikazio hori itxi arte.

Emaitzen ikuspegitik, Elgoibarko herritarren inplikazioa eta parte-hartzea gero eta handiagoa da partaidetza-prozesuetan, eta balio handiagoa dute jasotzen diren ekarpenek.

Ildo horretan, herritarrek herritarren parte-hartzearen arloan duten ahalduntzea aitortzen da, bai eta haien erakundeekin gero eta harreman handiagoa izatea ere, haiekiko harremanak estutzea ahalbidetzen duena.

Ikasitakoak

Elementu kritiko gisa, prozesuen hauskortasuna nabarmendu behar da, inguruabarrak ezin hobeak ez direnean.

Parte-hartze prozesuen finkapena diskretua da oraindik; beraz, zirkunstantzien edozein aldaketa, eta are gehiago COVID 19ren pandemiaren kasuan, atzeratutako epeak aldatu eta atzeratu egiten dira.

Hurrengo prozesuetan kontuan hartu beharrekoak

Hurrengo edizioetan, herritarrenganako pedagogian sakontzeko eta, ahal den neurrian, adin eta interes talde desberdinekin dibulgazio saioak egiteko beharra planteatzen da.

Adingabeekin egindako dibulgazio-saioak, gizarte ahaldundua eta parte hartzeko gai dena sortzen laguntzeko, erakundeekin harremana hobetuz.

ITZIAR

ITZIAR 2030

Plan Estrategikoa

HELBURUA

Itziariko Auzo Udalak hurrengo hamarkadan landu beharko dituen ildo estrategiko nagusiak zehaztea.

Herritarren beharrak identifikatzea

Beharretan lehentasunak identifikatzea

Implementatuko diren neurri zehatzak proposatu eta definitzea

Auzo Udalaren zerbitzuen karta egitea

Herritarrak politika publikoen prozesuaren parte egitea

PARTE-HARTZAILEAK

21 (13 emakumezko eta 8 gizonezko) - 5 udal ordezkariak

IRAUPENA

2020ko ekainetik – 2020eko azaroarte

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Itziarreko udala

TOKIA

Itziar

BIZTANLERIA

830 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUÉE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorra(k):

Itziarko Auzo Udala hurrengo hamarkadan landu beharko dituen ildo estrategiko nagusiak zehaztea.

Zehatza(k):

Herritarren beharrak identifikatzea

Beharretan lehentasunak identifikatzea

Inplementatuko diren neurri zehatzak proposatu eta definitzea

Auzo Udalaren zerbitzuen karta egitea

Herritarrek politika publikoen prozesuaren parte egitea.

Esperientziaren azalpena

Lehen deialdia ekainean 4an egin zen eta bertara herriko eragile ezberdinen ordezkariak deitu ziren. Bilera honetan, Itziarren egoeraren diagnostikoa egin zen eta etorkizuneko erronkak identifikatu ziren.

Bigarren bilera ere, hau uztailearen 4an, bilera irekia izan zen eta kasu honetan neurri zehatzen zirriboro bat osatu zen Auzo Udaletik ekarritako zirriborroari ekarpenak eginda.

Bi bilera hauen ondoren, aukera eman zen ekarpenak etxetik aberasteko. Uda ondoren, irail, urri eta azaroan, talde txikiago eta tematikoetan bilduta proposatutako neurri horiei forma eman zaie.

Ekarpen hauek presentzialki egin dira, talde murriztuetan, baina baita modu digitalean ere, horretarako propio martxan jarritako plataformak erabilia.

Emaitza guztiak txosten batean bildu dira eta 2020ko abenduan aurkeztu ziren Auzo Udalaren baitan.

Zer lortu da

Zuzeneko emaitzarik erabilgarriena atera diren ondorio konkretuak dira.

Auzo Udala txosten batean 2020an zehar Itziarko Auzo Udala, Siadeco kooperatibaren zuzendaritza teknikoarekin, ITZIAR 2030 PLAN ESTARTEGIKO diseinatzeke egindako lanketaren emaitza nagusiak. Hau burutzeko, 2020 urtean zehar Itziarko herritar eta elkarten artean kontsulta eta parte-hartze prozesu bat burutu da.

Saiakera berezia egin da txostenean prozesutik ateratako proposamen eta lehentasunak neurri konkretu modura planteatzeko, bereziki, Itziarko Auzo Udalaren eskumenak eta aurrekontu gaitasuna kontua edukita.

Honen emaitza modura, 60 puntuko zerrenda bat osatu da datozen urteetan martxan jarri beharreko neurriak biltzen dituen.

Erakundearen ikuspegitik:

Auzo Udalaren eskumenetan oinarrituta, Itziarko herritarren lehentasunak identifikatzea lortu da.

Hori, neurri zehatzekin osatutako 60 puntuko zerrenda batean islatu da eta berau betetzera konprometitu da Itziarko Auzo Udala. Zerrenda horretan neurri zabalenetik hasi (eskola eredu propio bat lantzea) eta oso konkretuetara arte (baserri bide jakin batzuk asfaltatzea) daude zehaztuta eta hainbat alor lantzen dira: kultura, azpiegiturak, landa garapena, urbanismoa, elkartegintza...


Herritarren ikuspegitik:

Erakundearen sorreran ahalegin handia egin ondoren, herriko gizarte zibila eta erakunde jaio berriaren arteko nolabaiteko deskonexioa antzematen zen azken urteetan, herri mugimendu bat erakundetzen denean sarri gertatzen den modura.

Prozesu honen bidez erabakietan herritarrei protagonismo zuzena emanda zubi berriak eraiki dira.



Itziarko Auzo Udala



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Prozesu guztian zehar lan hizkuntza ia bakarra euskara izan da. Naturaltasunez hartu dute parte herritarrek, beren ohiko hizkuntzan. Parte hartu duten guztiak izan dira euskal hiztunak. Horregatik, ez da neurri berezirik hartu behar izan hizkuntza berdintasuna bermatzeko.

Berdintasuna

Emakumeen parte hartzea bereziki bultzatu da. Horrek emaitza onak eman ditu: prozesuan parte hartu duten pertsonen artean %70 inguru emakumeak izan da. Are gehiago, zenbait lantaldetan emakumeek soilik hartu dute parte.

Maila kuantitatibotik haratago, dinamiketan emakume izateak ez ditu baldintzatu parte hartzeak. Kontsulta zuzena egin izan zaien emakumeek aitortu dute beren iritzia emateko ez dutela testuinguru mugatzailerik eduki.

Aniztasuna

Horrelako prozesuetan gertatu ohi den moduan, kasu honetan ere herritar aktiboak izan dira ekimenean gehien inplikatu direnak. Zentzu horretan "betiko" herritarrak gerturatu dira eta zail suertatu zaigu ikuspegi horretatik aniztasuna bermatzea, are gehiago osasun neurri zurrunik indarrean egon diren garaian.

Nolanahi ere, genero, auzo, maila sozioekonomiko eta lanbide ezberdinetako herritarrek hartu dute parte.

Ingurumena

Itziarko lurren ehuneko handi bat landa lurra izanik, ingurumenaren gaia oso presente egonda uneoro eta ez da beharrezkoa izan dinamizazio taldetik alor honen inguruan dinamika propiorik martxan jartzea.

Balorazio atala

Itziarko Auzo Udalarentzat eta bere eraginpeko auzoetako biztanleentzat, guztiz garrantzitsua da une honetan datozen urteetan egin beharreko ibilbidea zein izango den definitu eta ibilbide hori nola egin adostea. Zentzu honetan, lortu da politika-plangintza bateratu bat adostea, neurri konkretuak dituen. Auzo Udalaren gobernantza eredu indartzeko ere balio izan du. Orain arte parte-hartze batzordeetan edo auzolanean erabilitako balore berberak proiektu honetara eramango dira, baina kanpoko profesionalen laguntzaz, baita gobernantza eredu berri baterako oinarriak ere ezarri dira.

Asistentzia, zoritxarrez, COVID19ren erruz hartu beharreko osasun neurriek erabat baldintzatu egin da.

Ikusita prozesu guztia talde txikietan egin beharko zela, gonbidapen zuzenen bidez proposatu zen ekimenean parte hartzea. Honela egin ziren ekain eta uztailako lehen saioak. Hortik aurrera, talde txikiagoetan eginda lan.

Lehen harreman eta deialdiak whatsapp eta email bidezkoak izan dira. Deialdia eta egin diren bilera irekietako aktak ere emailaz bidali izan dira.

Gerora, behin lan taldeak egonkortu direnean eta antolatzaileen eta parte hartzaileen arteko harremana sendoagoa izan den

heinean, whatsapp bidezko harremanak ugaritu dira.

Parte hartzaileen espektatibei dagokienean, informazioa ondo bildu denaren irudipena dago; hau da, asmatu dela bileretan planteatu dituzten arazo eta irtenbideak neuri zehatzetan bilakatzeko.

Auzo Udalaren espektatibei dagokienez, esperientzia positiboa izan da eta aurrera begira ere gobernantza eta partaidetza eredu berberarekin jarraitu nahi da.

Zeharkako politiken kudeaketaren baloraziari dagokionez, orokorrean positiboa izan da. Aniztasunaren alorra geratu da landu beharreko puntu modura, aktiboak ez diren herritarrengana iristeko ahalegin handiago egin izan balitz emaitza anitzagoa izango zen.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik: Urte bereziki konplexua izan da horrelako prozesu bat martxan jartzeko, izan ere, zalantza betetako ekimena izan da eta jende pilaketa murriztuekin aritu gara lanean. Horrek prozesuan interesa izan duen talde murriz baina inplikatu bat egituratzera asko lagundu du, jende konkretuaren iritzien bila joateak asko erraztu du prozesua.

Emaitzaren ikuspegitik: Emaitza positiboa izan da. Lortu da hartu beharreko neurrien zerrenda bat egitea herritarrek emandako idatzietan oinarrituta dagoena. Horrek, asko lagundu du metodologia neurri konkretuetara bideratuta egotera.

Ikasitakoak

Gizarte segmentu bakoitzean pertsona lider edo traktore bat edukitzea funtsekoa da, batetik, bere talde edo elkarte bereko jendea mobilizatu, prozesuaren parte izan eta ekarpenak egina-razteko. Bestetik, Itziarko herritarren ordezkartza funtzioa bete dezaten.

Prozesuaren hasieran antolatzaileen beharra ondorio orokorregiak ateratzearena zen; zaila ikusten baikenuen herritarrek politika konkretuak eskatu eta diseinatzea. Zorionez, honekin ez dugu arazorik izan, metodologian argi geratu delako gai konkretuak landu nahi genuela.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Aurreko puntuan azaldutako arrazoiengatik, 2021ri begira gai baten inguruan antolatzea erabaki da. Horregatik, prestatu den partaidetza prozesua alor sozioekonomikoa eta honen inguruko politikak lantzerantz bideratuko da.



DEBA GARAIA

Gipuzkoako hego-ekialdeko 348,4 km²-ko lur eremua hartzen du. Iparraldean Deba Beherea du muga; ekialdean, Goierri; mendebalean, Araba eta Bizkaia; eta hegoaldean, Arabako lurraldea. Zortzi udal dira eskualde honetan, Arrasate buru dutelarik. Arrasatekiko mendekotasun urbanoa oso agerikoa da Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan. Bergarak berriz eskualdeko bigarren buru izateko joera dauka; Bergararen eraginpean dira Antzuola eta Elgeta, nahiz azken herri hori nolabait Eibarrekin ere lotua egon. Soraluze Deba Behereko eskualdean egonda ere, Eibar eta Bergararen eraginpean bizi da. Donostiarekiko komunikabideak kaskarrak direnez, eskualde honetako hego-mendebaleko muturra askoz ere gehiago lotzen zaio Gasteizeri. Deba Garaiko komunikabide nagusiak oinarriko errepide sareko GI-632 (Beasain, Zumarraga, Bergara eta Durango lotzen dituena) eta GI-627 errepideak dira (Maltzaga, Bergara, Arrasate eta Gasteiz lotzen dituena); azken errepide hori aurki Maltzagatik Urbinarainoko autobideak hobetuko du. Abiadura handiko trenak eskualdea E-W norabidean zeharkatuko du, Bergararen inguruan, esku artean den proiektuaren arabera. Industriak eskualde honetan duen pisu nabarmena, neurri batean kooperatiben mugimenduari zor dio eta sorlekua 1941ean Arrasaten zabalduko Lanbide Eskola izan zen. Eskolan izan ziren bost ikaslek ULGOR sortu zuten, lehendabiziko kooperatiba. Kooperatibetan lanean ari ziren langileen behar sozial eta ekonomikoek eraginda, 1959an kreditu kooperatiba sortu zuten, Lankide Aurrezki Kutxa; hortik aurrera, kooperatiben mugimenduak urrats handiak egin zituen, langintza anitzagoetara zabalduz eta Arrasatez kanpora hedatuz. Gaur egun, Mondragon Korporazioak berrehun bat kooperatiba elkartzen du industrian, agro-elikaduran, irakaskuntzan eta zerbitzuetan. Osasun zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoa da Euskal Herriko ospitale psikiatriko handiena Arrasaten dagoela.

ARRASATE

TAO sistema ezarri aurretik proiektua herritarrekin sozializatzeko prozesua

HELBURUA

Arrasateko erdigunean TAO sistema ezartzeko herritarrei informazioa eman, eta haien kontrastea jasotzea, betiere oinarrizko proposamena, proiektuaren helburuan dagoena, mugen barruan osatzeko eta moldatzeko asmoz.

PARTE-HARTZAILEAK

463 (162 emakumezko eta 301 gizonezko) - 5 udal ordezkariak

IRAUPENA

2020ko urtarrilatik – 2020eko martxorarte

ALORRA

#Hirigintza eta Mugikortasuna

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Arrasateko Udala

TOKIA

Arrasate

BIZTANLERIA

22.082 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Arrasateko erdigunean TAO sistema ezartzeko herritarrei informazioa eman, eta haien kontrastea jasotzea, betiere oinarrizko proposamena, proiektuaren helburuan dagoena, mugen barruan osatzeko eta moldatzeko asmoz.

Zehatza(k):

Helburu zehatzei dagokienez, lehenik eta behin diagnostiko bat osatu da Arrasateko kotxe parkearen, garajeen eta aparkalekuaren zein trafiko fluxuen egoerari buruz. Horrekin batera, herritarrei TAO sistema berriaren inguruko informazioa helarazi zaie etxeetara, sistemaren ezaugarri nagusiak zein diren eta aplikatuko den eremua zein den ezagutu dezaten. Herritarrek beren aldetik haien iritziak eman eta oinarrizko proposamenari ekarpenak/eskaerak egiteko aukera izan dute, horretarako euskarria eta kanalak ahalbidetu zaizkielako. Amaitzeko azken helburu zehatz eta garrantzitsu bezala talde hausnarketa eta deliberazioa izan da ausaz hautatutako herritarren Ordezkaritza talde batean. Talde edo lan mahai honek berebiziko zeregina eta funtzioa izan du prozesuan, kontsentsuatu behar izan baititu sortu diren eztabaidagai eta gako nagusien inguruan proposamenak.

Esperientziaren azalpena

Partaidetza eta Kudeaketa partekatuari dagokionez: Udalaren eta herritarren parte hartzea bermatu ahal izateko lan sendoa egin da. Horretan, herritarren partaidetza lan fase bakoitzeko diseinatu eta egituratu da: lehenik partaidetza irekia, eta geografikoki antolatua; bigarrenik ausaz hautatutako herritarren lan taldearen partaidetza zehatza; aldi berean sektore jakinen hartu emanaren jarraipena izan da (zerbitzu zehatzen arretari dagokionez: komunikazio zerbitzuak, gremioetako zerbitzuak, dendari eta ostalarirena, hezkuntza zentroena, kanpoko auzoena). Azkenik, azken lan fasean, itzulketarako ere herritarrei deialdia irekia egin zaie.

Elkarlaneko lankidetzari dagokionez, udal barruko sailen artean elkarlana izan da, Udalean teknikarien lana Hirigintza eta Mugikortasun sailean garatu da, Kontsumo eta merkatal

gaiaren teknikaria, Udaltzaingoak ere egin ditu bere ekarpenak. Maila politikoan sail berdinarekin Batzordean landu da. Gainera, alkateak ere parte hartu du prozesuaren zati batuetan. Herritarren aldetik ere parte hartze zabala egon da, auzo eta kolektibo desberdinekin lan egitea izan da helburua. Bestalde, ausaz hautatutako herritarren lan talde berezi bat sortu da, 25 pertsonakoa.

Zer lortu da

Orohar, Arrasateko erdigunean jarriko den TAO sistema diseinatzeke eta zehazteke ekarpenak eta proposamenak jasota eta aztertuta, hasiera batean egindako proiektu zirriborroa eraldatu da. Horrela, azken diseinua eta dagokion ordenantza, herritarrengandik jasotako iritzi, ekarpen eta eskaeren baitan osatu da.

Herritarren inplikazioa: hasiera batean egindako proiektu zirriborroa eraldatu da. Horrela, azken diseinua eta dagokion ordenantza, herritarrengandik jasotako iritzi, ekarpen eta eskaeren baitan osatu da.

Guztionez berria den politika publikoen definizio zehatza, maila anitzeko partaidetzaren bidez, elkarlanean eta elkar eraginez zehaztea eta adostea.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Prozesu osoan zehar, barne lana udalari dagokionez, erabat euskaraz egin da, eta horrela jaso da horren dokumentazioa ere. Herritarrekin egindako ekintzetan, Aurkezpenak eta lan mahaiak euskaraz eta gazteleraz egin dira, euskara lehenetsi delarik kasu denetan. Online euskarriak nahiz fisikoak bi hizkuntzatan egin dira, euskara lehenetsiz. Herritarrek, hautatu duten hizkuntzan parte hartu dute.

Publikoa egin den dokumentazioa dena euskaraz lehentasunez, eta gaztelaniaz bigarren mailan izan da.

Berdintasuna

Ausazko herritarren ordezkaritza lan taldea osatzeko orduan, adineko emakumezkoaren perfila betetzea ezinezkoa suertatu da (65 urtetik gorako emakumezkoen 3 perfil), aukeratutako inork parte hartu ahal edo nahi izan ez duenez perfila huts geratu da; aldiz, adin ezberdineko gizonzkoen 3 perfiletan partaidetza bikoitza agertu da, momentu berean eta kanal ezberdinen bidez bina pertsonak baietza eman baitote konpromisoari. Hori dela eta, taldean gizonen aldeko desoreka izan da. Balora daiteke ere gaia dela eta, gizonzkoak, eta batez ere adin batetik gorakoak, gertuago eta interpelatuagoak sentitu direla emakumezkoak baino gaiarekin.

Bestalde, jasotako iradokizun eta eskaerak ezin dugu jakin emakumezkoak edo gizonzkoak diren.

Hori guztia dela eta, prozesuaren azken bi lan faseetan lan kualitatiboa egin da emakumezkoak diren berezko gune eta egituretara jotzeko, eta horietan, gaiari buruzko haien iritziak eta ekarpenak jasotzeko.

Aniztasuna

Saiakera egin zen geografikoki eta adinarekin aniztasuna lortzeko. Zehazki, kolektibo zehatzekin hitz egin da, partaidetza irekian deituak izan zitezten.

Auzo ezberdinetan eragin da, eta horretan ere, irizpideetako bat jatorri aniztasuna izan da.

Ausaz hautatutako herritarren lan taldean, zoriz, hautatutako eta jatorri anitzeko hiru pertsonak eman zuten baietza parte hartzeari, zehazki, bi emakumezkoak eta gizonzko bat. Beraz, ikuspegi hori programatu eta gertatu da.

Ingurumena

Itziariko lurren ehuneko handi bat landa lurra izanik, Ez da zeharkako gaia izan, zuzeneko gaia baizik, proiektuaren fundamentazioa ingurumen oinarrietan osatuta baitago.

Balorazio atala

Partaidetzari jarritako helburuen maila ehuneko ehunean betetzea lortu da, uste baino jende gehiagok parte hartu baitu, eta horrek ere aurreikusitako baliabideen kolapsoa ekarri du, batez ere herritarrei zuzeneko arreta emateko orduan.

Ekarpenak egiteko momentuan, aurreikusitako partaidetza bikoiztu egin da.

Edukiei dagokionez, TAO proiektuaren informazioa zabaltzea lortu da, eta esan daiteke egun herritarren %oso handi batek badakiela proiektua martxan jarriko dela.

Proiektuaren diseinuari dagokionez, herritarren ekarpenen ondorioz, hasierako zirriborroa aldatu da, eta oso ezaugarri esanguratsuetan moldatua izan da, ondorioz, herritarren ekarpenak eragin dute, eta lekua izango dute proiektuan.

Asistentzia uste baina handiagoa izan da, partaidetzaren maila berean aldiro, eta giroa ere egokia izan da, elkarrizketak ematea kasu guztietan baimendu delarik.

Metodologian zehar, lan dinamika eta ekintza ezberdinak diseinatu eta gauzatu dira, ahalbideratu ahal izateko herritar ezberdinen partaidetza. Horietan guztietan, lan egiteko modua ere ezberdina izan da, eta horrek guztiak ahalbideratu du iritzi eta ikuspegi aniztasunarekin osatzea TAO proiektua.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Lan faseko definituak eta osatuak izan dira. Horiek presentzialak nahiz onlinekoak izan dira.

Koordinazioa maila ezberdinetan izan da: -Udal ordezkariekin eta teknikariekin.

-Ausaz hautatutako herritarrekin

-Ekarpenak egin dituzten 400tik gorako herritarrekin.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-mailari dagokionez, proiektuarekiko interes pertsonalen eta onartuak izan diren eskaeren eta ekarpenen artean, oreka bat gertatu dela ziurtatzen da, eta beste kontu bat da herritar zehatzek, haien eskari edo helburuen betetze mailan, kasu batzuetan izan duten hutsunea. Aldiz, partaidetzari dagokion helburuak, erabat bete eta gaingitu dira.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa:

Koordinazio lan taldean zian dira presente, eta aldiro errebisatu eta landu dira (hizkuntza, generoa eta aniztasuna).

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuaren diseinua eta zehaztutako metodologia egokiak izan dira lortu nahi ziren helburuei begira. Kanal eta gune anitzak jarri ziren martxan, ziurtatu ahal izateko askotariko partaidetza aukerak (orokorrak, zehatzak aldagai ezberdinen arabera)

Emaitzaren ikuspegitik:

Politika publikoetako proiektu oso esanguratsu eta garrantzitsu baten definizioa, herritarren eskari eta ekarpenekin moldatuta izan da, eta hasiera batean, horrela exekutatu da, aldiro errebisatzeko konpromisoarekin.

Ikasitakoak

Ezinbestekoa dela prozesuak maila eta dimentsio anitzeko partaidetza aukerekin diseinatzea, eta dinamika ezberdinen bidez aukera ezberdinak eman behar direla partaidetzarako. Oso zaila dela asetzea herritarrek eskatzen duten erantzun eta arreta indibidualizatua txertatzea honelako prozesuetan, horretarako zerbitzu zehatza jarri beharko litzatekeelako.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Agian baloratzea errekurtsu gehiago jartzea, arreta zuzena eman ahal izateko herritarrek aldarrikatzen zuten erantzun indibidualei. Horrela, herritarrek, paradigma indibidualetik kolektibora jauzi egitea errazagoa izango delakoan, hots, herritarrek dauden lekura joan, eta hortik eraman partaidetza gune kolektiboetara. (horrek errekurtsuak bikoiztea ekarriko luke):

BERGARA

Bergara 2030 Egin herrixa plan estrategikoa

HELBURUA

Herritarren parte-hartzearekin udalerriko errealitate desberdinen diagnostiko konpartitu bat egitea da, udal-kudeaketa GJHein uztartzeko hausnarketa bultzatzea, parte-hartzearen, elkarlanaren eta adostasunaren bidetik gaurko eta biharko beharrei modu eraginkorren erantzungo dien proiektuak definitzea eta hauen gauzatze-mailaren jarraipena egitea.

PARTE-HARTZAILEAK

114 (34 emakumezko eta 80 gizonezko) -22 udal ordezkariak

IRAUPENA

2020ko irailetik – 2021eko urrirarte

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Bergarako Udala

TOKIA

Bergara

BIZTANLERIA

15036 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburuak:

Orokorrak

-Herritarren parte-hartzearekin udalerriko errealtate desberdinen diagnostiko konpartitu bat egitea da, udal-kudeaketa GJHekin uztartzeko hausnarketa bultzatzea, parte-hartzearen, elkarlanaren eta adostasunaren bidetik gaurko eta biharko beharrei modu eraginkorren erantzun-dien proiektuak definitzea eta hauen gauzatzeko-mailaren jarraipena egitea.

Zehatza(k):

Urte, legegaldi, zein ideologiaren gainetik dauden erronkei modu antolatua eta eraginkor batean erantzuteko iraunkortasunerako eta GJHen aldeko udal-kudeaketarako tresnak eguneratzea. Udal barneko eta kanpoko parte-hartzea sistematizatzea.

Udalak duen informazio guztia gardentasunez zabaltzea eta komunikazio-bide berriak aztertu eta erabiltzea.

Udalaren iraunkortasun egoeraren inguruko datuak jaso eta interpretatzea. Prozesuan zehar genero ikuspegia eta giza-eskubideak zeharkakotasunez erabiltzea.

Esperientziaren azalpen atala:

Prozesua luze joan da. Diagnostikoa egiteari garrantzia handia eman zaio eta diagnostikoa osatu da. Partaidetzari dagokionez, prozesua Covid-19ak erabat baldintzatu du.

Txosten hau egiten den momentuan prozesua oraindik bukatu gabe dago, baina adjudikazio hartzailearekin dagoeneko konpromiso ekonomiko guztiak kitatu ditu udalak.

Urriari egingo da azken herri batzarra eta plan estrategikoaren aurkezpena azaroan egitea aurreikusten da.

Zer lortua da

Momentuz ez dago behin betiko dokumenturik. Politikoki gora beheratsua izan da prozesua, oposizioaren parte hartzerik gabekoa. Helburuak, jarduerak, ekintzak zehaztu dira

Plangintzarako ondorengo helburuak definitu dira:

1

hiri-eredu inklusibo eta jasangarria sortzea

herritarren ongizateari begira dagoena eta klima-aldaketa arintzeaz gain, horretara egokitzen dena.

2

trantsizio sozio-ekologikoan oinarritutako garapen ekonomikoa

bultzatzea, inklusiboa, berritzailea eta jasangarria, eta kalitatezko enplegu osoaren alde egitea.

3

herritarren ongizatea

bermatuko duen eta herritarren arteko lankidetzaren zein zaintzaren baloreak sustatzen dituen gizarte eraikitzea.

4

gizarte euskalduna

bermatzea eta kultura-, kirola- eta hezkuntza- sorkuntza zein eskaintza zabala sustatzea, eragileen arteko elkarlanean oinarritutakoa.

5

bergara inklusiboa

herrigintza eta gobernantza uztartuz, bergara inklusiboa bilakatzea.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

-Aurkezpen formatua egon izan denean, bat bateko itzulpen zerbitzuarekin egin da. Aurkezpen grafikoak (Power pointa, etab...) elebitan izan dira eta hizlariak euskaraz aurkeztu dute. Udaleko euskara zerbitzuko itzultzaileak egin ditu itzulpen lanak.

-Sortu diren 13 foroak euskaraz dinamizatu dira. Xuxurlariaren figura sortu da talde guztietan (kasu askotan udal teknikari edo zinegotziren bat izan da), euskaraz ez dakienaren ondoan eseri eta itzulpen lanak egiteko.

Berdintasuna

Udal ordezkarien artean emakumeen presentzia gizonetakoena baino askoz altuagoa den arren, ez da berdín gertatu partaidetza foro desberdinetan.

Hezkuntza eta gizarte arloko foroetan emakumeen presentzia altuagoa izan da, baina gainontzeko taldeetan (11 talde) gizonetakoena.

Aniztasuna

Ndank ndank bezalako elkarteak gonbidatu dira baina ez da lortu jatorri atzerritarra duen herritarrik hurbiltzea prozesura, prozesuak izan duen hutsuneetariko bat izan da hau.

Ingurumena

Plan estrategiko hau Agenda 2030 testuinguruaren barruan kokatu beharra dago, hasieratik plan estrategiko jasangarri moduan definitu da. Ekintza eta jarduera guztiak Garapen Jasangarriko Helburuen baita kokatuko dira eta jarraipena ere Agenda 2030aren barrukoa izango da.

Udalsarea 2030ek zehazten duen metodologia orokorra Bergarako errealitatera, baliabideetara eta lehentasunetara egokitzea izango da.

Balorazio atala

Plan estrategikoak hasieratik udala osatzen duten alderdi guztien onarpenarekin garatutakoa izan nahi zuten, baina oposizioak ez du prozesuan parte hartu. Hau planak duen hutsunerik nagusia da.

Hasierako saioetako partaidetza kopurua altuagoa izan da ondorengoetan baino, baina parte hartu duen herritar kopurua oso altua izan da. Herritarren eta eragileen parte hartzea oso emankorra izakin

Metodologiari dagokionez, plan estrategikoaren atal guztiak modu parte hartzailean garatu dira, horretarako ondorengo foroak osatu dira:

1. Talde eragilea.
2. Koordinazio taldea.
3. Gaikako batzorde informatzaileak: udaleko eta mankomunitateko teknikari eta zinegotziek osatuta hiru azpialde sortu dira: lurralde arloa / herritarren arloa eta ekonomia arloa.
4. Gaikako mahai sektorialak: lurralde arloko norbanako eta eragileak, ingurumen arlokoak, herritarren arlokoak eta ekonomia atalekoak..

Talde eragileen prozesuaren helburuak eta irismena bera adostu dira. Talde eragileak, besteak beste, erabili diren baliabideak, lan-programa, udal barneko eta kanpoko partaidetza dinamikak, komunikazio plangintza eta gardentasunerako, giza-baliabideen bermerako eta berdintasunerako irizpideak barneratzeko sistemak zeintzuk izango ziren adostu ditu.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

- Helburuak adostu dira eta bost helburu nagusi identifikatu dira.
- Adostasunean jarduera programak eta ekintzak adostu dira eta lehentasunak jarri dira.
- Udal / mankomunitateko teknikariak eta herritarrek foro desberdinetan egotea egokia.
- Arlo desberdinetako eragileak elkartu direnean (adib.: kultura eta gizarte arloa) beraiek ez dute ondo baloratu.

Emaitzaren ikuspegitik:

- Guztira 150 lagunetik gora aritu dira orokorrean parte hartzen, hasieran, Covid-19agatik ezinezkoa zirudien arren.

Ikasitakoak

- Eragileekin egindako saio batzuk errepikakorrak izan dira beraientzat. Ahalik eta bilera gutxien egin behar dira.
- Ez dugu aniztasunean asmatu: jatorri atzerritarra duten herritarrik ez da egon.
- Udal teknikarien inplikazioa bermatzeko egokiena beraiek bilerak dinamizatzea eta beraien arloko lidergoa hartzea.

ELGETA

Elgeta 2030:
Elgeta, danon artian
danon herrixa

HELBURUA

Herritarren parte hartzea sustatzea eta parte hartzearen kulturaren sakontzea. Udalak martxan zituen ekimenetan herritarren parte hartze zuzena lortzea; herriko elkarte, eragile eta herritarrek parte hartzea. Elgetako herritarrekin batera hausnarketa egitea, denen artean 2030 urtera begirako erronkak eta ekintzak adostu eta Plan Estrategikoa garatzea.

PARTE-HARTZAILEAK

114 (34 emakumezko eta 80 gizonezko) -22 udal ordezkariak

IRAUPENA

2021etko martxoan

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Elgetako udala

TOKIA

Elgeta

BIZTANLERIA

1.131 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburuak

Orokorra(k):

Herritarren parte hartzea sustatzea eta parte hartzearen kulturaren sakontzea.

Zehatza(k):

Udalak martxan zituen ekimenetan herritarren parte hartze zuzena lortzea; herriko elkarte, eragile eta herritarrek parte hartzea. Elgetako herritarrekin batera hausnarketa egitea, denen artean 2030 urtera begirako erronkak eta ekintzak adostu eta Plan Estrategikoa garatzea.

Esperientziaren azalpen atala

Esperientzia aberasgarria izan da “Elgeta 2030. Plan Estrategikoa garatzeko partaidetza prozesua” aurrera eramatea. Galdeketan 70 herritarrek parte hartu zuten, eta batzar irekietara 30 herritar bertaratu ziren. Gaur egungo errealitatetik abiatuta, herritarrek dituzten beharrak, nahiak eta interesak jaso dira.

Bestetik Hirix plataforma aukerak aurreko urtetan bezala, herritarren iradokizun, kexa, gomendio edo eskaerak jasotzeko erabiltzen da.

Auzolana ezinbestekoa da partaidetza prozesu osoan. Herritarrak auzolan deialdietan parte hartu dute.

Zer lortu da

Gaur egungo errealitatetik abiatuta, herritarrek dituzten beharrak, nahiak eta interesak jaso dira. Herritarrak subjektu aktibo izatea

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Prozesu oro euskaraz egin da, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Berdintasuna

Parte hartze prozesu eta batzar orok errespetatu eta txertatu du genero ikuspegia, berdintasun plan eta irizpideak aintzat hartuz.

Aniztasuna

Batzar oro da irekia eta udalak harrera protokoloa du landuta etorri berri diren horiek udalera eta udaletxera gerturatzeko bideak errazteko.

Ingurumena

Ingurumenaren zaintza kontuan hartuta, ez dira txostenak inprimatu. Bidaltzeko bide elektronikoak erabili dira.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Betetze maila osoa. Elhuyar Aholkularitzaren eskutik partaidetza prozesua landu da.

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Kontutan izanda Elgetak 1.140 biztanleko herria dela, 70 galdetegi erantzun eta batzar irekietan 30 herritarrek parte hartzea positiboa ikusten da.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Elkarlana, partaidetza, komunikazioa, malgutasuna, ikasketa-prozesua, subjektibitatea, koordinazio eta sare ikuspegia eta ahalduntzea erabili dira egitasmoa aurrera eramateko.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Koordinaziorako ezinbesteko tresna dira batzordeak, eragile, herritar eta udalaren arteko zubia dira. Komunikazioa oso abegikorra izan da prozesu guztian. Komunikazio-baliabide hauek erabili ditugu: webgunea, sare sozialak, whatsapp eta mailing-a.

Batzuen eta besteen espektatiiben betetze-maila:

Prozesua planteatu duenak (udalak) zein bertan parte hartu duten herritarrak oso pozik agertu dira gauzatutako prozesu edo ekimen ezberdinekin. Herritarrek eskertzen dituzte horrelako aukerak.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa:

Oraindik badaude joera inkontziente batzuk gainditzeko, baina kontzienteak bideratzen eta sistematizatzen doa udala.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Parte hartzean urrats sendoak eman dira.

Emaitzaren ikuspegitik:

Herritarrek dituzten beharrak, nahiak eta interesak identifikatu dira.

Ikasitakoak

Beharrezkoak direla batzar irekiak herritarrak entzuteko.



DONOSTIALDEA

Gipuzkoako ipar-ekialdean dago. Iparraldean itsasoa du muga eta ekialdean, Bidasoa Beherea eta Nafarroa. Hegoaldean, Nafarroa eta Tolosaldea ditu mugakide; mendebalean, Urola-Kostaldea eta Tolosaldea. Guztira 305.2 km² ditu. Oiartzun, Urumea eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak eta airetik ikusita koadrikula itxura ematen diote. Donostialdea da Gipuzkoako eskualdeetan biztanleriarik handienekoa. Hamaika udal dira: Donostia, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil. Bidasoa Behereko eskualdearekin harreman hain estuak direnez, esan daiteke bi eskualdeok area funtzional bakarra osatzen dutela. Errepideko komunikabideetan, A-8 autobidea (Bilbo-Behobia) aipatu behar da; ekialdera, Bidasoa Behereko eskualdearekin lotzen du, eta mendebalera, berriz, Zarautz, Eibar eta Bizkaiarekin. N-I errepidea (Madril-Irun) autobia bihurtzen da Beasain-Donostia tartean. Bertatik abiatzen da A-15 Nafarroako autobia, Iruñearekin eta Ebroko arroarekin lotzeko. Itsasaldeko N-634 errepide bihurriak kostako herriak lotzen ditu, Eibar eta Bilbo aldera jotzeko. Trenbideetan Madril-Irun burdinbide zabala nabarmendu behar da alde batetik, RENFEk ustiatzen duena, eta Donostia-Hendaia (Topoa) nahiz Bilborainoko bide estukoak bestetik. Bilbora doan azken trenbide horrek nekez egin diezaioke lehia errepide gainera garraioari, joan-etorri laburretan ez bada. Abiadura handiko trenaren proiektuak eskualdea zeharkatzeko asmoa dauka, baina erabaki gabe dago Donostiarekin nola lotuko ote den. Itsas garraioa Pasaiaiko portuaren bitartez egiten da, eta, batez ere, txatarrekin, automobilekin eta petroliotik findutako produktuekin egiten da lan. Ekonomiaren aldetik ikusita, eskualde hau Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren gunea da. Donostian administrazio-jarduera handia dago: bertan daude Estatuko administrazioaren ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkariak. Justizia-administrazioak Donostian dauka Probintziako Auzitegia eta gainerako epaitegiak. Ospitaleak, unibertsitateak eta hainbat komunikabideren egoitzak ere hiriburuan daude.

URNIETA

Urnietako 2020ko aurrekontu irekiak

HELBURUA

Udalerriko herritarren ekarpenak jasotzea aurrekontuetan isladatzeko.

PARTE-HARTZAILEAK

407 (238 emakumezko eta 80 gizonezko)

IRAUPENA

Urtarrilaren 15etik otsailaren 2ra

ALORRA

#Aurrekontu parte hartzaileak

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Urnietako udala

TOKIA

Urnietako udala

BIZTANLERIA

6.209 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUUE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Udalerriko herritarren ekarpenak jasotzea aurrekontuetan isladatzeko.

Zehatza(k):

Herritarrak udal gobernuarekin konektatzea, haien lana eta kudeaketa ezagutaraziz.

- Gure auzotarren lehentasunak eta beharrak ezagutzea, eta guztien benetako eskaerekin bat datozen konponbideak eskaintzea.
- Urnietako auzotarren protagonismo aktiboa bultzatzea, herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle huts ez izatea lortuz.
- Udal arrazionala, eraginkorra eta gardena finkatzea kudeaketa publikoan, herritar ahaldunduekin.
- Herritarren eta toki erakundearen arteko elkarrizketa eta komunikazioa hobetzen lagunduko duten hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako bideak irekitzea.
- Herritarrekin, ordezkari politikoekin eta teknikariekin kontrastatutako aurrekontu irekiak onartzea.

Esperientziaren azalpena

Beste behin ere, Urnietako Udalak aurrekontu irekien prozesu bat jarri du martxan, udalerriko herritarren ekarpenak jasotzeko helburuarekin.

Horrela, udala kudeatzeko modu berriekin jarraitzeko eta herritarrak inplikatzeko, prozesuan parte hartu duten herritarren iritzia 2020ko udal aurrekontua egiteko erabiliko da. Horretarako, ekitaldi honetan 150.000 erabiliko dira.

Hainbat bide egon dira parte hartzeko:

Eskuorri bat helarazi egin zen Urnietako etxe guztietara.

- Online inkesta, urtarilaren 15etik otsailaren 2ra bitartean eskuragarri, udalaren webgunearen bidez.
- Informaziokarpak urtarilaren 24an eta 25ean, udalerriko hainbat tokitan.
- Udalerrian, kalean eta udal bulegoetan banatutako postontziak, partaidetza eraginkorra izan dadin.
- Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Erretiratuen Etxea, Anbulatorioa,

Egape Ikastola (Liardi eta Azkorte) eta Magale (Aurkezpena eta Salestarrak) kuxetan.

e) Udal aplikazioaren bidez, prozesuak irauten duen bitartean parte hartzeko.

Aurten, gainera, kapetan parte – hartzea sustatzeko eta areagotzeko, photcall bat jarri zen gerturatzen diren pertsonentzat.

Proposamenak, baldintza batzuk bete behar zituzten:

- Udal eskumeneko proposamenak, honako hauekin zerikusia dutenak: Hirigintza, gizarte sustapena eta garapen pertsonala, udaltzaingoa, gizarte-ekintza, sustapen ekonomikoa eta etxebizitza.
- Teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarriak diren proposamenak.
- Iraunkortasun ekonomikoa eta finantzarioa justifikatzen duten proposamenak.
- Urnietako herritar guztien interes orokorra eta guztien ona interes partikularren ginetik jartzen duten proposamenak.
- Udalerriarren lurralde oreka bermatuko duten proposamenak.
- Edukia legez kanpoko, difamatzailea edo diskriminatzailea ez duten proposamenak.


Zer lortu da

Gero eta herritar gehiagok hartzen dute parte prozesuan. Halaber, esan daiteke photocallarekin indar gehiago ematea lortu dela prozesuari.

2020ko aurrekontuan eta parte hartze prozesurekin herritarrek proposatutakoak hainbat proiektu garatu dira eta udalaren konpromesua finkatzen doa.

Ikusi da datuen arabera, herritarrek prozesuan konfidantza jarri dutela, zeren eta gero eta proposamen gehiago aurkeztu dituzte.

Dena dela, aurten prozesu berezia izan da, zeren eta COVID 19 sartu da, eta proiektu batzuk orain egiteko daude.



Laburbilduz, guztira 786 ekarpen jaso dira, gaiaren arabera honela banatuta:



Grafikoan ikus daitekeen bezala, eskaerak batez ere hirigintzako arlokoak dira.

Jarraian, udal-barneko antolamenduaren arabera banakatutako datuak aurkezten dira, Udalaren barne-prozesuak ahalik eta modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Euskararen aldeko apustua egiten da komunikazio hizkuntza gisa, erabilera lehenetsiz. Euskararen erabilera sustatzeari dagokionez, bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) egin dira prozesurako sortu diren dokumentu guztiak, eta euskararen kokapenari eta presentziari buruzko arauak jarraitu zaie, lehenetsunez, dokumentu guztietan.

Dinamizatzaileek, herritarrei dagokienez, uneoro dute bi hizkuntza ofizialean harremanak izateko gaitasuna, eta lehenetsuna ematen diote euskarazko lehen hitzari. Irizpideek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 6. eta 7. artikuluetan eta Urnietako Euskara Erabiltzeko III. Planean ezarritakoprintzipioei jarraitu diete.

Berdintasuna

Beste batzuetan bezala, udal helburuetan funtsezko eta zeharkako printzipio gisa txertatu da. Horrela, genero ikuspegia sustatzen da eremu eta jarduera guztietan, eta, horretarako, berdintasun irizpideak abiarazten dira, bai hizkuntzaren esparruan (arreta berezia jarrita sortutako material guztiei), bai aurrez aurreko fasean, emakumeen partehartzea bultzatuz, eta ahalduz teknika bilatuz, tresna teknologikoei esker, hala nola App eta Web, eta berariazko faktoreak aurrez aurreko topaketetan.

Hizkuntza inklusiboa eta prozesu osoan zeharka integratutako genero ikuspegia aipatzen dira beti, bai ahozko hizkuntzan, bai material inprimatuetan, ikusentzunezkoetan eta abarretan.

Gainera, prozesuan zehar jasotako proposamenen bideragarritasuna baloratzeko orduan, kontuan hartu dira generoikuspegia

txertatzea eta udalerrira berdintasunari dagokionez hobetzen laguntzen dutenak.

Horri buruzko datu estatistikoak jaso dira; besteak beste, emakumeen eta gizonen parte hartzearen zifrak.

Hori guztia Urnietako Udalak 2020ra arte indarrean dagoen Berdintasun Planaren barruan.

Aniztasuna

Aniztasuna ziurtatu du, bai parte hartzeko prozesuetan, bai informazioa itzultzeko eta transmititzeko bideetan. Udalerriko herritar guztien beharrei erantzuteko, edozein dela ere haien egoera eta ezaugarri bereziak, prozesuak zaindu du irakurketa errazeko materialak sortzea, pertsona guztientzat eskuragarri, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen partehartzea bultzatu da, bide presentzialak eta birtualak erabiliz, proposamenak gauzatu ahal izateko. Bestalde, prozesuaren ondorioz udalerrian egiten diren hobekuntzek beti hartuko dituzte kontuan irisgarritasun arauak kolektibo guztientzat, eta lehenetsuna emango zaie alderdi hori bultzatzen duten proposamenei. Horrela, udalerrian ezarritako eta webgunean eskuragarri dagoen Irisgarritasun Planaren gida lerroekin jarraitzen da.

Ingurumena

Ingurunea zaintzeari dagokionez, prozesua garatzeko ezinbestekoa den materiala ekoizteko neurri egokiak hartu dira, sortu ahal izan den hondakina arduraz eta ingurumena errespetatuz kudeatuz beti.

Gainera, parte hartzeko aurrez aurreko espazioak hondakinik sortu gabe ber-erabili daitezkeen bitartekoak izan dira.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Prozesua laugarren aldiz garatu da, baina aldaketak izan ditu. Horren bidez, herritarrak udal gobernuarekin konektatzea lortzen da, haien lanaren eta kudeaketaren berri emanez.

Gainera, udalerrian hartzen diren erabakietan herritarren lehenetsunak ezagutzea gero eta gehiago ahalduz.

Pixkanaka pixkanaka, kanal baliozkoa eta errepikakorra da bizilagunentzat, eta gero eta pertsona gehiagok parte hartzen dute. Nabarmendu behar da urtero egiten direla hobekuntzak prozesuan, erakargarria, hurbila eta eskuragarria izan dadin.

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Guztira, 407 pertsonak parte hartu dute prozesuan: 238 emakumek eta 167 gizonak. Partaidetza asko handitu da, aurreko urtean 107 izan baitziren. Emaizak itzultzeko ahaleginaren ondorioz, prozesuak eragin nabarmena du udalerrian.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Parte hartzeko metodologiak ahalik eta errazena izan nahi du, pertsona guztiek eskura izan dezaten. Horregatik, parte hartzeko, datu pertsonalak baino ez dira eskatzen Urnietako errolda egiaztatzeke, eta aurkeztutako eskaeraren edo proposamenaren deskribapen labur bat. Ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea errazteko, eskura dauden kanal guztiak gaitu dira, bai presentzialak bai digitalak (kalean egotea, udalapparen bidez parte hartzea, web orria, posta elektronikoa, etab.). Gainera, photocalla elementu berritzaile gisa sartzeak partehartzea areagotzea ekarri du neurri handi batean.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Eskura dituen baliabide guztiak jarri ditu prozesuaren eskura. Prozesuan parte hartzen duten udal teknikariak. Informazio saioak udal zentroetan. Hautestontziak, postontziak, informaziokarpak, etab. Nahi duten pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten. Teknikariak eta laguntza tekniko koordinatuta, prozesua, oro har, erraz garatu da.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa: Partehartzea oso anitza izan da. Gainera, nabarmentzekoa da emakumeen parte hartzea gizonena baino askoz handiagoa izan dela, partehartzaileen %60 baino gehiago emakumeak izan baitira.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Partehartzea garrantzitsua izan da eta gero eta handiagoa; beraz, emaitzak oso onak direla uste da. Partehartzaileek eta, oro har, herritarrek beren proposamenei erantzun diete, eta prozesu garden bat sustatu da, erraza dena.

Emaizaren ikuspegitik:

15 proiektu gauzatuko dira eta, guztira, 150.000 erabiliko dira prozesua gauzatzeko.

Ikasitakoak

Funtsezkoa da jende guztiak erraz ulertzeko moduko hizkuntza erabiltzea. App oso interesgarria da hedatzeko bitarteko gisa. Gamifikazioaren integrazioa oso interesgarria da partehartzea sustatzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Haurrak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egitea etorkizuneko prozesuetan txertatu beharreko elementuak dira.

USURBIL

Usurbilgo Emakumeen etxearen egitasmoa herriko emakumeen parte-hartzearen bidez zehazteko prozesua

HELBURUA

Etorkizuneko Pelaiokenan bizikide izango diren bi egitasmo nagusiak definitzea. Batetik, Usurbilgo Emakumeen Etxeak zein ezaugarri edukiko dituen Usurbilgo emakumeekin zehaztea; eta, bestetik, kalezartarren beharrak aseko dituen auzo-ekipamenduaren izaera zehaztea.

PARTE-HARTZAILEAK

104 (91 emakumezko eta 13 gizonezko)

IRAUPENA

Covid-a medio, herritarrekin saioak irailerako utzi genituen eta prozesua 2020ko urte amaieran amaitu ordez, 2021eko 1.hiruhilabetean amaituko zela aurreikusi. Horrela izan da.

ALORRA

#Berdintasuna

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Usurbilgo udala

TOKIA

Usurbil

BIZTANLERIA

6.308 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUUE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Etorkizuneko Pelaiocenean bizikide izango diren bi egitasmo nagusiak definitzea. Batetik, Usurbilgo Emakumeen Etxeak zein ezaugarri edukiko dituen Usurbilgo emakumeekin zehaztea; eta, bestetik, kalezartarren beharrak aseko dituen auzo-ekipamenduaren izaera zehaztea.

Zehatza(k):

Usurbilgo emakumeen eta Kalezarko auzotarren arteko harremanak lantzea, eta lankidetzan jarduteko baldintzak sortzea. Prozesua aberasgarria izatea parte-hartzaile guztientzat, talde gisa tresnak eta baliabideak jasotzea behin prozesua amaitutakoan ere elkarrekin lanean jarraitzeko, bai Emakumeen Etxearen egitasmoaren baitan, eta baita Kalezarko auzo-ekipamenduaren baitan ere.

Etorkizuneko Pelaiocenea errealtate bihurtzeko datozen hilabeteetan egin beharreko lanak zerrendatu eta deskribatuko dituen bide-orria lantzea.

Etxearen ezaugarriak zehaztearekin batera, Usurbilgo Emakumeen Etxea errealtate bihurtzeko egin beharreko lanak zerrendatu eta deskribatuko dituen plangintza edo bide-orria lantzea.

Herriko eragileak eta herritarrak era honetako ekipamendu baten behararen inguruan sentsibilizatzea; egitasmoari eta egitasmoan parte hartuko dutenei agerikotasuna eta ikusgaitasuna emanez; eta, oro har, egitasmoarekiko atxikimendua eta babes soziala areagotzea, ekipamenduaren helburua erreferentziazko espazioa izatea dela kontuan hartuta. Prozesuaren helburua ikastea ere izan da. Aniztasunean, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko prozesua izango da; parte hartzen, negoziatzen eta adosten ikasteko prozesua; errespetuz eta lankidetzan jardunez elkarrekin eragiteko gaitasuna indartzea bilatzen duena. Prozesu osoan zehar etengabeko ebaluazioaren ikuspegia txertatzea, eta prozesuaren amaieran emaitza eta prozesua bere orokortasunean baloratzeko tartea hartzea, ikasgaiak atera eta horiez jabetzeko aukera ematen du; aurrera begira baliagarriak izango zaizkigun ikasgaiak izango dira, baita antzeko ekimenak martxan jarri nahi dituztenentzako baliagarriak izan daitezkeen ikasgaiak ere.

Esperientziaren azalpena

Etorkizuneko Pelaiocenea eraikitzeko prozesuak herritarrekin egindako saio guztiek sei hilabete bueltan iraun ditu: 2020ko irailetik 2021eko martxora artekoa.

Parte-hartze prozesua iazko martxoan abiatu bazen ere, COVID-19aren agerraldiaren eraginez prozesuarekin aurrera jarraitzeko gutxieneko baldintzarik ez zegoela baloratu zuen Udalak, eta, honenbestez, prozesuak geldialdi bat izan zuen.

Hilabete batzuk beranduago, behin martxoan lehertutako osasun-krisia zertxobait baretu ondoren, herritarrekin prozesua berrartu zen, irailaren 19an egindako Gune Zabalaren bileraren bidez.

Aurreikusitako lan guneen bilerak hauek izan dira:

- Prozesuarentzat marko egokia zehazteko ardura izateaz gain, prozesuari etengabeko jarraipena eta segimendua egiteko ardura izan du; 8 bilera egin dira
- Emakumeen Gogoeta Gunea Usurbilgo emakumeekin lan egiteko eremua izan da. Bertan egin dira emakumeen etxearekin lotutako lanketa eta gogoeta nagusiak. 5 bilera egin dira.
- Auzotarren Gogoeta Gunea Kalezarko auzotarrekin lan egiteko eremua izan da. Bertan egin dira auzo ekipamenduarekin lotutako lanketa eta gogoeta nagusiak. 3 bilera egin dira.
- Aurreikusi gabe zegoen gogoeta gune bateratuaren bilera bat egin da prozesuaren azken fasean.
- Gune Zabalaren funtzio nagusia izan da egitasmoaren lanketarekin zerikusia duten gai guztiak ezagutu eta ekarpenak egitea. Guztira 2 bilera egin dira

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Aurreikusi zen moduan, Usurbilgo euskararen erabilera zein den aintzat hartuta, prozesuaren hizkuntza nagusia euskara izan da. Bilerak euskaraz egin dira, eta euskara menderatzen ez duten emakumeek prozesuan parte hartu dutenez, aurreikusi bezala, gune bakoitzean, kasuan kasu, egoeraren arabera xuxurlari-lanak, itzulpenak egin dira eta materiala euskaraz eta gaztelaniaz prestatu da.

Aldi berean, euskararen sustapena Udalarentzat garrantzi handikoa den heinean, proiektu honetan ere islada izan du (euskaraz aritzen da Udala). Komunikazio planean euskara sustatzea helburu garrantzitsua izan da.

Parte hartze prozesuan bidelagun Elhuyar aholkularitza izateak enpresa euskalduna eta euskalgintzakoak ere eragina izan du.

Berdintasuna

Berdintasunean eragitea izan zen finkatutako helburuetako bat eta berdintasuna sutatzeko proiektua izan da esku artean izandakoa.

Prozesua genero ikuspegiarekin garatu zedin, uneoro kontuan hartu da, herritarrek, kasu honetan emakumeek esparru publikoaren kudeaketan eta erabakietan parte hartzeko duten eskubidea ezinbestean bermatzea. 4/2005 eko legearen 3.artikuluaren printzipioei erreparatzen dionean, 4.ean genero-ikuspegiaren integrazioari erreparatzen zaio. “Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea” testuinguruan hau kontuan izanik legearen 3.artikuluaren printzipioetan, 5.ean ekintza positiboari erreparatzen die “Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteei denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko”.

Neurri zuzentzailea, ekintza positiboa da egitasmo bera bere osotasunean emakumeen etxea. Usurbilgo emakumeen etxeak, (emakumeei zuzendutako ekipamendua eta kasu batzutan berdintasunaren alde egiten elkarte edo norbanakoentzat) zer nolakoa izan behar duen zehazteko prozesu parte hartzailea da esku artean izan duguna.

Emakumeak aritu dira emakumeen etxeari dagokionean, eta auzotarrekin egindako saioetan emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua izatea kontuan hartu da, bereziki arduen banaketari dagokionean, ardura postuen banaketaz aritzerakoan, komunikazioan...

Aniztasuna

Gune desberdinetan parte hartzeko baldintza egokiak sustatu eta erraztu dira, aniztasuna kontuan hartuz, emakumeena bereziki, haien parte hartzea izan delako anitzena nagusiki; konfiantza-giroa sortu da, iritzi ezberdinekiko errespetua sustatu da, guztien partaidetza aktiboa bilatuz; etab. Hartzaileen aniztasuna bilatze aldera adin ezberdinetako pertsonak dauden guneetara hurbiltzeko saiakera egin da.

Herria anitza den heinean, Pelaionean horrek islada izatea (emakumeen etxean batipat) ezinbestean izan behar dela presente ikusten da.

Herrian aniztasuna lantzeko esku artean ditugun egitasmoetako parte hartzaileak diren taldeetako kideak bereziki kontuan hartu dira deialdia egin denean.

Balorazio atala

Egindako prozesuaren balorazioa, oso positibo da. Hori da Udal arduradun tekniko zein politikoen iritzia, parte hartu dutenena eta dinamizatu duen aholkularitza taldearena ere. Parte hartzaileek prozesua oneoro baloratzeko aukera izan dute, eta noski bukaeran ere.

Gogoeta Gune Bateratuan (denek parte hartu zuten bukaera saioaz ari gara), bileraz gain, prozesua bera era baloratu zen eta honako hauek izan dira prozesuaren inguruan gogoeta-gunean jasotako balorazioak, hitzez hitz. Prozesuaz zer nabarmenduko luketen galdetuta jasotakoak: "izan dugun adostasuna", "aurretik bide luzea dugula", "hitz egiteko aukera". Horretaz gain etengabeko balorazioa egin den horretan saio guztietan aldagai hauek baloratu dira: emankorra 4,2, gardena 4,4, konfiantza oinarritutakoa 4,5, hezteko eta garatzeko balio duena 4,1, harreman horizontalean /ahizpatasunean oinarritua 4,5, parte hartzailea, elkarlanean oinarritutakoa 4,5, eroso sentitzen garen hizkuntzan komunikatzeko aukera eskeintzen duena 3,9. Saio guztietako batz besteko balorazioa 1etik 5era atalez atal jasotakoa da.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuaren ikuspegitik ondorio orokor nagusia prozesuak bere osotasunean izan duen garapena da.

Ondorio zehatzagoari erreparatuz, auzoan modu honetako ekipamendua (eta emakumeen etxea bertan) izateak auzotarrei, eta herritarrei noski eskeintzen dien aukera (aberastasuna) balioa jartzea da. Lanketaren bidea: zertarako, zer, nola...

Bizikidetzarako gunen balioa.

Emaitzaren ikuspegitik:

Pelaioneara begira adostutako arkitektura proposamena eta kudeaketa eredia izan daitezke, prozesuaren bukaeran adibidez nabarmendu ditzazkegun bi ondorio.

Ikasitakoak

Zailtasunak zailtasun, 2020-2021 ez da orokorrean erraza izan, herritarren parte hartzera begira aparteko muga-zailtasun ugari izan ditugulako. Hala ere, horiek denak hor egonda ere denon artean prozesua aurrera eramateko gai izan gara. Horrelako egoera batean hasieran ikusitako zailtasunak gainditzeko gai izan gerala ikusi dugu.

Prozesuan landutakoak, Pelaionean koordinaziorako langune partehartzaileak sortu ditu, modu iraunkorrean egotea aurreikusten direnak. Erabiltzaileak partaide izango dira.

Beste ikasketa nagusia, meodologi partehartzailea bere horretan aberatsa dela berriro ere egiaztatzea da. Zailtasun guztien gaintetik, harremandu, komunikatu, eztabaidatu, elkar ulertu, partekatu eta adostea beti dela onuragarria herritarrentzat eta noski administrazioarentzat. Kultura-eredu partehartzailean beste pauso edo alea gehitzera eraman gaitu ikasitakoak.

Hurrego prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Ildo honetan jarraituko dugunez, eta prozesu parte hartzaileak ezinbestekoak, oinarri direla sinetsita, Usurbilgo Udalak, 2021ean zaintzaren inguruan hasi berri dugun prozesura ere ekarriko ditu hemen aipatutakoak. Prozesu honetan datu bilketa egiteko euskarriak uneoro erabiltzea, edo etengabeko ebaluazioak (hobekuntzak) unean unean egiteak izan duen balioa errepikatu eta hasi berri dugun prozesuan kontuan hartzea aurreikusi dugu.

Erabili ditugun dinamika hauek kontutan izango ditugu, baina egoeraren arabera eta landu behar diren gaiak eta parte hartuko duten herritarrak kontuan izanda, atalak aldatzea komeni izango da.



GOIERRI

Gipuzkoako probintziaren hego-ekialdean dago; 340,5 km²-ko lur eremua hartzen du, Urola eta Oria ibaien ur goien eta erdibidean. Iparraldean Urola-Kostaldeko eskualdea du muga; ipar-ekialdean, Tolosaldea; mendebalean, Deba Garaia; eta hegoaldean, Araba eta Nafarroa. Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoko herriguneez izan duten zabalkundearen indarrez, hiru udal barruti horiek elkartu egin direla esan daiteke, eta eskualdearen buru egiten duen konurbazioa sortu da. Bere erangipean bizi dira Olaberria, Arama, Ormaiztegi, Mutilloa, Zerain, Zegama, Segura, Idiazabal, Ataun, Zaldibia, Gainza, Altzaga eta Itsasondo. Zumarraga eta Urretxuk halako konurbazio txiki bat sortu dute; esan daiteke eskualdeko bigarren burua dela hori, eta bere eraginpean bizi direla Legazpi, Gabiria eta Ezkio-Itsaso. Komunikabideetan, eskualdeko bizkar hezurra N-I (Madril-Irun) errepidea da; Nafarroa nahiz Alaba aldera jotzeko bidea da, Arsuaran haranean zehar. Beasaindik GI-120 errepidea abiatzen da, Nafarroarekiko lotura egiteko. Zumarraga eta Deba Garaiarekiko lotura GI-632 errepidearen bitartez egiten da. Zumarragatik Urola-Kostaldera jotzeko GI-631 errepidea erabil daiteke, eta Legazpi edo Deba Garaira jotzeko, berriz, GI-2630 errepidea. Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen egitura sendotzeko. Oriako haranetik sartzen da Gipuzkoara trenbidea, Urolan barrena Urretxu eta Zumarragara heltzen da, eta handik ostera Oria aldera jotzen du, Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatuz. Abiadura handiko trenak Goierri ekialdetik mendebaldeko norabidean zeharkatuko du, gutxi gora-behera gaur egungo bidean Urretxuraino; handik Antzuola eta Elorriora joko du, Gasteizetik eta Bilbotik datozen adarrekin elkar jotzeko. Ezkio-Itsason bazterbide bat egiteko asmoa dago. Goierriko eskualdeko ekonomia metalgintzan oinarritzen da. Lantegi nagusien inguruan enpresa txikiagoak sortu dira.

ATAUN

AIORA - Herritarren parte hartzea sustatu eta komunikaziorako plataforma

HELBURUA

Adin ezberdinetako herritarrei herriko informazioa ahalik eta azkarren hoberen iristea.

PARTE-HARTZAILEAK

19 (11 emakumezko eta 8 gizonezko)

IRAUPENA

Uztailaren 2tik urriaren 15era

ALORRA

#Partaidetzazko plataforma

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Ataungo udala

TOKIA

Ataun

BIZTANLERIA

1.747 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k):

Orokorra(k):

Adin ezberdinetako herritarrei herriko informazioa ahalik eta azkarren eta hoberen iristea.

Zehatza(k):

Herrian zabaldu behar den informazioa adin guztietako herritarrei iritsi behar zaie eta ahal den eta modu ekologikoenean egin behar da.

Papela ahalik eta gehien baztertzea ikusten da.

Esperientziaren azalpena:

Hiru trebakuntza (uztailaren 2an, irailaren 10ean eta urriaren 15ean) saio izan ditugu denera, eta herriko elkarteak izan dira honetara deituak. Parte hartu dutenen artean daude Atauniker kultur elkarte, Otsoak dantza taldea, Biboletak Ataungo emakumeen taldea, Murkondo kultur elkarte eta Oargi kultur lekarte.

Lehenengo saioan Ataungo komunikazioa nola egiten den partekatu dugu geure artean. Zein diren denok ditugun baliabideak aztertu eta zein izango lirakekeen ahulguneak azpimarratu.

Bigarren saioan, lehen aipatu bezala, 3ko taldetan banatu gara modu praktiko batean 30 minutuko saioetan eta bakoitzak bere iritziak bota ditu galdera bati erantzunez. 3 talde izanda, 3 galdera izan ditugu, elkarteetatik haratago, herritar gisa ere nola ikusten dugun herriko informazioa: 1. Nola iristen zaizu herriko informazioa?; 2. Informazioa jasotzeko arazoak izan dituzu eta nola konpondu dituzu?; 3. Nola bultzatuko zenituzke herritarrak modu digitalean informazioa jasotzera?

Hirugarren saiorako, aurreko bi saioetan jasotako informazioa guztia eskema txikitian jaso dugu, bi taldetan banatuta: 1. Elkarteek nola zabaltzen dute informazioa; 2. Herritarrek nola jasotzen dute informazioa. Eta bi taulak ondo aztertuta, emaitzetara iritsi gara.

Zer lortu da

Ataungo komunikazio egoeraren diagnosi xumea egin dugu eta ondorioak atera ditugu:

- Paperaren erabilera murriztea.
 - Herritar helduei eten digitalean edo analfabetismo digitalean laguntza ematea.
 - Komunikazioko sare guztiak aplikazio batetara mugatzea.
- Honetaz gain, guztiok elkarbanatu dugu herrian banatzen den informazioa nola izan behar denaren kezka.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Ataunen banatzen den informazio guztia euskara hutsean egiten da. Ataun UEMAn dago sartuta eta jada ohituraz horrela egiten dugu.

Berdintasuna

Ataungo berdintasun planaren ondorioz, irizpide hauek haintzat hartzen ditugu aspalditik. Elkarrekin badakite berdintasuna nola jorratu behar duten, baita komunikazioan ere.

Aniztasuna

Herritar guztiok berdintasunean eta errespetuan bizi behar gara herrian, eta herritar ororentzat irekitako aplikazioa izango da.

Ingurumena

Ingurumena zaintzeko, paperaren murrizketa da gakoa eta herritarrak ohitu behar dira modu digitalean informazioa jasotzera.

Balorazio atala

Oraindik aplikazioa ez dugu martxan, baina urte bukaerarako bertan lan egiten ariko garela uste da. Horrekin batera ikusiko da aplikazioak zein mailatan hobetzen digun informazioa sortu eta zabaltzeko aukera alde batetik, eta bestetik, herritarrak nola jasotzen duten informazioa jakiteko.

Giro oso atsegina izan dugu, faltan bota ditugu herriko elkarte asko, baina bertaratu diren elkarteetako kideak astero dute zerbait zabaltzeko herrian, eta esan behar da eguneroko lanaren arazoari konponbidea ematera goazela denon artean. Jakintzaz hitz egin da.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuaren ikuspegitik ondorioak garbiak izan dira. Denok funtzionatu dugu lan talde moduan eta gustura aritu gara proposatutako ariketak betetzen, eta elkarrekin arazoari irtenbide bat ematen.

Lehen aipatu dugun moduan, edozein arazori konponbidea bilatzeko erreminta ona dela iruditu zaizkigu trebakuntza saioak.

Emaitzaren ikuspegitik:

Emaitzaren ikuspegitik ere, geuk, Udaletik antolatutako lehenengo saioa izan da eta emaitza bateratu bat ateratzeko eraginkorra izan dela iruditu zaigu. Lan talde bezala funtzionatu dugu, eta orain ikusi egin beharko da Ataunapek zer emaitza ematen dituen.

Espero baino jende gutxiago izan garen arren, elkartuta egon gara saio guztietan, eta emaitza, denok ikusten genuen arazoari konponbidea ematea izan da.

Ikasitakoak

Parte-hartze prozesu bat antolatu dugu 4 pertsonen artean, eta beti dago zerbait hobetzeko. Baina abiapuntu bezala ontzat ematen dugu aplikatutakoa, guk beste parte-hartze prozesu batzuetatik ikasitakoa praktikan jartzea.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Dirudenez arlo guztiak digitalak izan behar direnez, baita parte-prozesuak ere, geure burua formatu behar da gaur egungo tresnekin trebatzeko eta herritarren hitza alde batera ez uzteko eta ahal den heinean parte-hartze prozesuak martxan jartzeko.

Horretarako, ezinbestekoa izango da ahal dugun heinean behintzat, herritar helduenak formatzen hastea.

Erabili ditugun dinamika hauek kontutan izango ditugu, baina egoeraren arabera eta landu behar diren gaiak eta parte hartuko duten herritarrak kontuan izanda, atalak aldatzea komeni izango da.

BEASAIN

Beasaingo mugikortasun mahaia

HELBURUA

Udalerriko mugikortasun-eredua aldatzen lagunduko duten pertsonen eta erakundeen arteko topaketa erraztea, kultura- eta gizarte-eraldaketak bat egin dezan herrian martxan dauden politikekin.

PARTE-HARTZAILEAK

37 (14 emakumezko eta 23 gizonezko)

IRAUPENA

2020ko urtarriletik-2020ko azarora arte

ALORRA

#Mugikortasuna

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Beasaingo udala

TOKIA

Beasain

BIZTANLERIA

14.021 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k):

Orokorra(k):

Udalerriko mugikortasun-eredua aldatzen lagunduko duten pertsonen eta erakundeen arteko topaketa erraztea, kultura-eta gizarte-eraldaketak bat egin dezan herrian martxan dauden politikekin.

Zehatza(k):

Mugikortasun Jasangarrirako Plan bat egiteko irizpideak eztabaidatu eta proposatzea.

Mugikortasunarekin erlazionatutako Udalaren proposamenak kontrastatzea.

Udalak martxan jartzeko hobekuntza-proposamenak egitea, etorkizuneko Mugikortasun Planean ezarriko direnak kasu.

Beasaingo mugikortasun jasagarria sustatzeko ekintzak bultzatzea.

Papela ahalik eta gehien baztertzea ikusten da.

Esperientziaren azalpena:

Udalbatza Osoko Bilkuran hartutako akordioen ostean, Udalak erabaki zuen laguntza teknikoa behar zuela Mugikortasun Mahaia sustatzeko. Laguntza horren bidez lortu nahi zen mugikortasunaren inguruko partaidetza egituratua izatea, eta hainbat eztabaida-gaietan sakonduko zela ziurtatzea. Gai horiek, orain arte, hainbat komunikabidek ezagutzera eman dituzte, baina ez zegoen kanal formalizaturik ezta ideiak biltzeko eta kontrastatzeko sistemarik ere.

Zer lortu da

Iritziek diote, oro har, Beasain hirigintzako hobekuntzak egin direla, eta bizi-kalitateak hobera egin duela (Beasain erdigunean oinezkoen zonalde bat egin da Kale Nagusian eta inguruko kaleetan, bizikleta-bide sare partzial bat egin da, igogailu publikoak jarri dira, aparkamendua arautu egin da...). Dena den, aipaturiko arazoek eta horien arteko erlazioek adierazten dute beharrezkoa dela mugikortasunaren planifikazio integral bat egitea.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Parte-hartze saioetan nagusi izan den hizkuntza euskara izan da, gaztelania ere, neurri txikiagoan, erabili delarik.

Barne lanerako zein zabaltzeko dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dira

Berdintasuna

Parte-hartze saio presentzialetan denera 37 pertsonak parte hartu dute.

Emakumezkoen parte-hartze maila orokorra %38koa izan da, gizonetzkoena %42koa izan den bitartean.

Udal ordezkarien artean emakumeen proportzioa %40koa izan da, gizonena %60koa. Herritarren artean emakumeen proportzioa %36koa izan da, gizonena %64koa.

Egin diren 200 inkestetan parte hartutakoaren artean %51 emakumezkoak ziren eta %47 gizonetzkoak .

Aniztasuna

Mugikortasun Mahaiaren inplikaturako talde batzuk adierazi dute Beasaingo mugikortasunaren hobekuntza generoaren eta belaunaldien ikuspuntutik enfokatu behar diren garrantzia. Honek suposatzen du emakumeen, haurren eta adineko pertsonen egoerak kontuan hartzea. Kolektibo hauek zenbait leku eta gizarte-ondasunetarako iriste mugatuagoa dute, hiriko arazoei egoera zaurgarriagoan egiten diete aurre, eta guzti hau haien eguneroko rol eta jardueren mugikortasun desberdindu batean islatzen da. Beasaingo mugikortasunaren planifikazioa kolektibo hauek aintzat hartzen baditu, berauen hiriaren iriste osoa eta gozamina faboratuko du, eta bide batez onurak ekarriko ditu espazio publikoaren bizigarritasunean pertsona guztientzako.

Ingurumena

Beasainen mugikortasun jasangarriko mahaia eratu da Beasaingo mugikortasun jasangarri bat lortzeko helburuarekin. Ondorioz, mugikortasun jasangarria ingurumenaren aldeko helburua da bere horretan.

Balorazio atala

Beasaingo Mugikortasun Mahaiaren funtzionamenduaren lehen etapa honetan mugikortasun jasangarri, seguru eta osasungarriago baterantz abiatzeko arazo eta erronka nagusiak identifikatu dira. Lortutako informazioa erabilgarria izan beharko litzateke mugikortasun udal politikak landu eta abiatzeko, baita horien berrikuspen kritikoa egin ahal izateko ere. Hain zuzen, antzemandako arazo eta erronkek lagundu dezakete Beasaingo mugikortasuna hobetzeko etorkizuneko erreferentziak markoa eraikitzen.

Zentzu horretan, Hiriko Mugikortasun Jasangarrirako Plan (HMJP) baten idazketa, Udalak ezarritako helburua, aukera ezin hobea izango da Mugikortasun Mahaiak hasitako lana baliatzeko, bai bere idazketan zein aurreikusiko diren ekintzak ebaluatzerako orduan.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Mugikortasun mahaiaren Beasaingo Udalak eta herritarrak duten pertzepzioa jaso da. Datu objektiboak Udalean bazeuden baina alde subjektiboaren beharra zegoen eta ondorioz, mahaia martxan jarri zen.

Emaitzaren ikuspegitik:

Beasaingo mugikortasun mahaiaren herriko mugikortasun guztia landu da eta mugikortasun iraunkor bat lortzeko proposamen asko jaso dira, Orain mugikortasun plana lantzen denean, partaidetza prozesu honetan jasotako informazio guztia txertatu egingo da.

Ikasitakoak

Denon lanarekin aurrera atera da mugikortasun mahaia.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Beasaingo Mugikortasun Mahaiaren funtzionamendua bera definitze bidean dago, eta ireki diren kanal desberdinetan jasotako ekarpen batzuk definitze horretarako iradokizunak dira, hain zuzen. Funtzionamenduaren gakoak egokitu eta zehaztu daitezke Mahaiaren jardura garatu ahala. Komeni da urtero egiaztatzea ea egin diren eta baliagarri izan diren, baloratu zer beste egiteko den beharrezkoa Mugikortasun Mahaia sustatzeko eta egonkortzeko.

GAINZA

Gaintza parte hartze komunitarioz hirigintzarako gogoeta egiteko prozesua

HELBURUA

- Herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko hirigintza bultzatuko duen markoa eta lan ildoak identifikatzea.
- Gaintzan, herritarrekin hirigintzaren inguruko parte-hartze hausnarketa abiatzea, aniztasuna bermatuz (adina, bizi eremua, generoa, zaletasunak, ikuspegiak, etabar).

PARTE-HARTZAILEAK

55 (28 emakumezko eta 27 gizonezko)

IRAUPENA

2021 urtarrilatik-2021 martxora

ALORRA

#Hirigintza eta partaidetza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Gaintzako udala

TOKIA

Gaintza

BIZTANLERIA

114 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

- Herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko hirigintza bultzatuko duen markoa eta lan ildoak identifikatzea.
- Gaintzan, herritarrekin hirigintzaren inguruko parte-hartze hausnarketa abiatzea, aniztasuna bermatuz (adina, bizi eremua, generoa, zaletasunak, ikuspegiak, etabar).

Zehatza(k):

- Herriko lur ez urbanizableen inguruko hausnarketak, kezkek, proposamenak eta ideiak jaso.
- Etorkizuneko plan orokorrerako lan ildo nagusiak zehaztu.
- Parte-hartze komunitarioaz zer ulertzen dugun elkarrekin definitzea eta dituen erronkak identifikatzea, hauei aurre egiteko estrategia partekatutak diseinatuz

Esperientziaren azalpena

Oso esperientzia interesgarria izan da. Kontuan izanik oso herri txikia dela, erabakiak hartu aurretik jendearen iritzia jaso nahi izan da. Askotan ez da posible izan, jendearen inplikazioa

oso baxua izan delako. Farapirekin egin diren saioetan parte-hartzea oso handia izan da. Erroldatutako herritarren erdiak prozesuan parte hartu du.

Emaitzen azalpena

Ondorio nagusi gisa azpimarratu dezakegu Gaintzarrak haien herriaren etorkizunarekin konprometituta daudela. Partaide kopurua eta partaide guztien parte hartze aktiboa ikusirik haien herria hobetzeko proposamenak egiteko eta horiek lantzeko gogotsu daudela nabaritu da. Aldi berean, proiektuak hasieratik ere izan duen helburuari jarraikiz, zeharka bada ere, herritarren arteko kohesioa eta komunitate izaera ere landu dira. Gai zailetan, iritzi eta posizio ezberdinak, eta sarri bateraezinak, egon direnean ere giro ona eta errespetua nagusitu dira, guztion hitza entzun eta errespetatuz.

Prozesuan zehar Gaintzako herrian hobetzeko proposamen eta arlo mordoak landu dira. Prozesu honen helburu nagusia hirigintzako gaiak jorratzea izanik, lanketa sakonak gai hauetara bideratu dira:

- Baserriak
- Eraikinen egitura
- Udaletxe Zaharra eta Apaiz-etxea
- Altzagaraterako bidea
- Herrigunearen peatonalizazioa eta aparkalekuak

Hala ere, gai nagusi hauez gain, partaideen beste proposamen guztien jasoketa ere egin da, "Herritarren bestelako gaiak" izenpeko azpi-atalean bildu direnak zerrenda gisa.

Haurren eskaerak trataera berezia merezi dutela eta, atal honetan haien proposamenekin azpi-atal bat ere egin da.

Gauzak horrela, atal honetan, prozesuan sakonean landutako gai hauek azpi-atalka bildu dira. Gai bakoitzean hitz egindakoak, egondako eztabaidak, azken saioan gai horrekiko partaideak nola posizionatu diren, eta gai horren aurrean aurrera begira Udalak hartzen dituen konpromisoak jasoko direlarik.

Amaitzeko, Udalak gai hauen jarraipenerako herritarrei egindako proposamena jasotzen da, baita herritarrei eskatzen zaien konpromisoa ere.

Zer lortu da

Parte-hartze prozesu hau abiatuta, eta prozesuan herritarren inplikazioa ikusita, Udalak gai hauei jarraipena emateko konpromiso irmoa hartzen du.

Hala ere, parte hartze dinamikari jarraikiz, gai guzti hauei herritarrekin batera jarraipena emateko apustua ere egin nahi du Udalak. Hala, gai hauen bueltan herritarrekin urtean 2 saio egitea proposatzen da. Bilera-saio hauetan Udalak gai hauen bueltan egin dituen aurrerapenak eta jazo diren

gertaerak (aurrerapenak, bidean aurkitutako zailtasunak...) partekatuko ditu herritarrekin eta hartu beharreko erabaki edo hurrengo urratsen gogoeta egingo da.

Modu honetan, udalak herritarren benetako parte hartzea sustatuko duen sistema bat martxan jartzeko saiakera egin nahi du, herritarrek partaide egiteko, haien herriko gaiez eta erabakien jabe izateko. Aldi berean, saio hauen bitartez udalak herritarren babesa, zein laguntza eta inplikazioa ere bilatuko ditu.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Lan saio denak euskaraz izan dira kontuan izanik herri zeharo euskalduna dela.

Berdintasuna

Parte hartzea oso orekatsua izan da eta bai emakumeen eta gizonezkoen iritziak entzuteko aukera egon da.

Aniztasuna

Bestalde, udalherriaren kohesioa eta aniztasuna landu dira: prozesua guztiontzat irekita egon da.

Balorazio atala

Planteatutako helburuak erabat bete dira, herriaren erdiak parte hartu duela kontuan hartuta. Eta beti egon da jarrera ona gaiei aurre egiteko.

Esan bezala, lau saio egin dira, eta 46 helduk eta 7 adingabek parte hartu dute 120 biztanleko udalherri batean. Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua. Dinamizatzaile batekin egin dira: ideia zaparrada egon da, kezka partekatu dira, talde-lana egin da. Udalherriaren kohesioan eragin da. Saioak dinamikoak izan dira, jendeak oso ondo pasatu du eta euren artean lanean jarraitzeko asmoa agertu dute.

Ez da aurreikuspenak bete ez direla, gainditu egin direla baizik. Udal-gobernuak partaidetza-prozesua egitea onartu zuenean, herritarren parte-hartze eraginkorra eskatu zuen. Beldur ziren zenbat pertsona joango ziren saioetara, baina oso pozik daude parte-hartzaile kopuruarekin. Balorazioa oso positiboa da alderdi guztietan

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua oso egokia eta eraginkorra izan da.

Emaitzaren ikuspegitik:

Herritarrek beren iritzia eman dute, eta orain Udalak hartutako konpromisoei egin behar die aurre. Udalak urtean bitan eskatuko dizkie kontuak parte-hartzaileei, prozesuarekin jarraitzeko asmoarekin.

Ikasitakoak

Hau izan da lehen prozesu parte-hartzailea, arrakasta handia izan duena, eta azken saioan izandako beherakada nabarmena izan da. Harrera ona zela eta, hasiera batean prozesuak urtero egingo zirela pentsatu zen, baina parte-hartzea errepikatuz gero, behera egiten duela ikusi da.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Aztertu eta ebatzi beharreko gaia da.

IDIAZABAL

Gaztelekua topaleku

HELBURUA

- Eragile ezberdinen behar eta desioen diagnostiko zehatzago bat egitea.
- Erabiltzaileen, hezitzaileen eta espazioaren arteko harremanak berreraiki.
- Espazioaren erabileraren inguruko akordioak landu, berdintasunez, arduraz eta modu eraikitzailean erabili dadin.

PARTE-HARTZAILEAK

19 (9 emakumezko eta 10 gizona)

IRAUPENA

Bi hilabete

ALORRA

#Gazteria

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Idiazabalgo udala

TOKIA

Idiazabal

BIZTANLERIA

2.380 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUUE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

- Eragile ezberdinen behar eta desioen diagnostiko zehatzago bat egitea.
- Erabiltzaileen, hezitzaileen eta espazioaren arteko harremanak berreraiki.
- Espazioaren erabileraren inguruko akordioak landu, berdintasunez, arduraz eta modu eraikitzailean erabili dadin.

Esperientziaren azalpena

Dinamika zaila izan da.

Gazteen jarrera “bortitza” izan da hasieratik eta oso zaila izan da prozesua bere horretan burutzea. Hezitzaileen partetik ahalegin handia egin da momenturo gazteen jarrera bideratzeko.

Emaitzen azalpena

“Descontrol controlado” (gehiegikariari eta gazteen aisialdiari buruzko azterlanetan jasota).

Zer lortu da

Azpitaldeetan esku-hartzea egin eta kohesioa, elkartasuna, taldearen rola, autoerregulazioa eta erantzukizuna landu. Honekin batera, azpitaldeen ordezkariak bilatu eta aukeratu dira.

Erabiltzaileen (edo herriko) gurasoak prozesuan inplikatzeko. Egoeraren diagnostika aurkeztu, nerabezaroa, mugak eta gurasotasunaren inguruko informazioa helarazi eta parte hartzea eskatzea.

Elkarrizketa-mahai bat sortzea eta inplikaturako eragile guztiak gonbidatzea (udala, Xapobixi, azpitaldeen ordezkariak eta guraso ordezkariak), gaztelekuko araudi edo funtzionamendua erantzunkidetasunez eraikitzeko helburuarekin.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Dinamika guztia euskaraz egin da

Berdintasuna

Sexu berdintasuna bermatu da.

Aniztasuna

Belaunaldi horietako nerabe guztietara iristeko ahalegina egin da

Ingurumena

Errespetatu da egingako dinamiketan.

Balorazio atala

Helburuen erdiak bete dira.

- Eragile ezberdinen behar eta desioen diagnostiko zehatzago bat egitea. Egin da.
- Erabiltzaileen, hezitzaileen eta espazioaren arteko harremanak berreraiki. Ez da lortu. - Espazioaren erabileraren inguruko akordioak landu, ekitatez, arduraz eta modu eraikitzailean erabili dadin. Ez da horretara iritsi.

Giroa “tentsio handikoa” izan da, gazteen jarrera “bortitza” izan baita.

Erabili den metodologia egokia izan da.

Koordinazioa ona izan da eta komunikazioa bermatzeko behar diren baliabide guztiak jarri dira.

Ez gara Udaleko espektatiba guztiak betetzera iritsi, baina gazteen jarrera ikusita, ulertu da zergaitia.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua behar bezala garatu da eta Baketiketik lan ona egin duela ondorioztatzen da.

Emaitzaren ikuspegitik:

Emaitzen aldetik, Udalarari zer pentsatua eman dio gazte hauek izan duten jarrerak. Honi, pandemia egoera gaineratuta, momentuan gaztelekua “standby”-ean uztea erabaki da.

Ikasitakoak

Elkarlanaren garrantzia.

Udala eta ikastetxearen harremana estutzeko beharra.

Aisialdiak eta heziketa ez formalak gazteengan duen eragina.

Profesionalen beharra. Udala, bere horretan, ez baita gai horrelako prozesu bat bideratzeko.

ITSASONDO

Jolas eremua asmatzen:
Itsasondon jolas parke
berria eraikitzeko
prozesua

HELBURUA

- Herriko hurrei hitza ematea eta horretarako tresnak ematea, partaidetzan heziz.
- Kultura partehartzailea finkatzea, aurreko prozesu partehartzaileen oinarriak aintzat hartuz.
- “Haurren herria” egitasmoak arrakasta handia izan zuen. Proiektu honek atek ireki dizkie beste hainbat partaidetza egitasmoei.

PARTE-HARTZAILEAK

11 (7 emakumezko eta 4 gizonezko)

IRAUPENA

5 asteko iraupena azaroa eta abendua bitartean

ALORRA

#Haurtzaroa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Itsasondoko Udala

TOKIA

Itsasondo

BIZTANLERIA

728 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

- Herriko haurrei hitza ematea eta horretarako tresnak ematea, partaidetzan heziz.
- Kultura partehartzailea finkatzea, aurreko prozesu partehartzaileen oinarriak aintzat hartuz eta haurren partaidetza ez ezik herritar guztien parte hartzea baimentzeko bide ezberdinak garatzea.
- “Haurren herria” egitasmoak arrakasta handia izan zuen. Proiektu honek atek ireki dizkie beste hainbat partaidetza egitasmoei.

Zehatza(k):

- Haurrek herriko jolaserako eremuetako bat berdefinitzeko prozesu osoan parte hartu dezaten bermatzea, hasieratik amaierara.
- Haurrek landutako proposamena parkearen behin betiko diseinuan kontutan izatea.

Esperientziaren azalpena

Urkiye herri eskolako 6-12 urte birteko haurren taldea izan da partaidetza prozesu honetan parte hartu duena. Hala ere, herriko gazte eta helduen parte hartzea ere aintzat hartu da proiektua borobildu eta jolas parke berria guztien artea eraikitzeko.

Lanak 5 saioetan zehar burutu dira eskolako 9 haurren laguntzarekin.

- Lehen saioa: Jolas eremu berrirako hausnarketa eta galdetegiaren prestaketa.
- Bigarren saioa: Jolas eremua aztertu eta diseinatzea.
- Hirugarren saioa: Maketa egitea.
- Laugarren saioa: Maketaren aurkezpena.
- Bosgarren saioa: Udalaren erantzuna eta sari banaketa.

Jolas eremuaren proposamena udalean lantzeko unea iritsi zen. Udalak, KIMUBAT enpresako lan-taldearen laguntzarekin,

proposamenak teknikoki duen bideragarritasuna ondo aztertu eta jolas eremuaren azken diseinu bat prestatu du. Otsailaren 25ean Urkiye eskolako 9 haurrei eta beraien gurasoei azken diseinu hau aurkeztu zien eta ondoren, herritar guztiei diseinuaren berri emango die.

Bileretako aktak eta argazkiak bidaltzen ditugu.

Emaitzen azalpena

Herriko haur, gazte eta helduek egindako ekarpenekin herriko parkea berdefinitu egin da eta maketa bat egin da. Ondoren, ekarpen hauek eta maketa kontutan hartuta, proposamen hauek teknikoki duten bideragarritasuna ondo aztertu eta jolas eremuaren azken diseinu bat prestatu dute. Azken diseinu hau garatuko da.

Zer lortu da

Herriko parkea berdefinitu da herriko haur, gazte eta helduek egindako proposamen eta ekarpenekin.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Saioak euskaraz egin dira. Sortutako dokumentazioa -saioen txostenak- euskaraz idatzi dira, deialdiak eta komunikazioak bezala.

Parke berriaren diseinua herritarrei komunikatzeko ele bitan egingo da baina euskarari presentzia gehiago emanez.

Berdintasuna

Urkiye ikastetxeko haurren aukeraketan berdintasun irizpideak txertatu ziren. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko 6 neska eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko 3 mutil.

2. eta 3. zikloetan mutilen parte hartzea ez zen lortu. Honela, 1. zikloan mutilak aukeratu ziren.

Aniztasuna

Urkiye ikastetxeko haurren aukeraketan ikuspegi eta errealitate ezberdinak kontutan hartu dira.

Ingurumena

Partaidetza prozesuan erabili den materiala berrerabilgarria erabiltzea bultzatu da. Maketan aurreikusitako jolaserako elementuak kokatu zituzten material ezberdinak erabiliz (material birziklatuak hein handi batean).

Bestalde, parkea egiteko natur elementuek erabiliko dira eta hauek ere hein handi batean berrerabilgarriak izaten dira.

Balorazio atala

Partaidetza prozesuaren helburua lortu da, oso aberasgarria izan da, parkea berriro definitu da. Partaidetza prozesuan diseinatu den parkea hartu dute eredu gisa parkearen behin betiko diseinua egiteko.

Urkiye herri eskolako 9 haurrak bilera guztietan parte hartu dute.

Bestalde, marrazki eta horma-irudien lehiaketan Urkiye herri eskolako Lehen Hezkuntzako haur guztiek parte hartu dute.

Haur bakoitzak galdetegia etxera eman du eta gehien erantzuna jaso dugu.

Bilerak arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara izan dira. Bileretan parkea definitzeko garaian umeen parte hartzea beharrezkoa zen ondorioz bilera guztiak joko eran antolatuta dira.

Lehenengo bileran lan egutegia aurkeztu da eta bertan bilera egun guztiak zehaztuta zeuden. Parte hartu duten haurrek astean behin lan bilera zegoela zekiten eta prozesuaren hasiera eta amaiera data ere.

Positiboa izan da, herriko haurrei hitza eman zaie eta beraien proposamena kontutan hartu denez, haurrak oso gustura egon dira.

Udalarentzat ere oso positiboa izan da, haurrek egin duten lana eta izan duten konpromisoa eredugarriak izan baitira.

Zeharkako politikak landu dira: bilerak euskaraz izan dira, taldean mutil eta nesken parte hartzea lortu da eta aniztasunari dagokionez, Urkiye herri eskolak egin duen aukeraketan aniztasuna ere kontutan hartu da.

Partaidetza prozesu oso aberasgarria, beste proiektu batzuetara ere zabaldu daitekeena.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua oso aberasgarria izan da. Umeen parte hartzea eta inplikazioa eredugarriak izan dira. Prozesua oso era errazean aurrera eman da eta haurrek egin duten lana izugarria izan da.

Urkiye herri eskolako beste haurrak ere lehiaketan parte hartu dute eta proposamen asko jaso dira.

Emaitzaren ikuspegitik:

Parke berria partaidetza prozesutik abiatu da. Behin betiko diseinua egiteko partaidetza prozesuan egindako maketa erabili dute.

Ikasitakoak

Hitza ematen zaionari kontutan hartu behar zaio.

Haurren proposamena kontutan hartu da eta parkearen behin betiko diseinua ikusi dutenean erraz identifikatu dute beraiek proposatutako parkearekin, beraiek egindako maketarekin.

EZKIO

Bizi-ohiturei eta eskualdeari buruzko gogoeta

HELBURUA

- Inguruko lurraldearekin Ezkioko herritarrek duten harremana ezagutu, horretarako hainbat eremutan ezkiotarrek dituzten bizi-ohiturak aztertuz.
- Ezkioko Udalak inguruko administrazioekin duen lotura ezagutu eta sozializatu.
- Gaur egungo egoeraz eta etorkizuneko aukerez eztabaidatuz, herritarren iritziak aintzak hartuko dituen ondorioetara iritsi.

PARTE-HARTZAILEAK

40 (19 emakumezko eta 21 gizonezko)

IRAUPENA

2020eko Iraila - 2021eko Urtarrila

ALORRA

#Gizartea eta antolakuntza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Ezkioko Udala

TOKIA

Ezkio

BIZTANLERIA

634 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

- Inguruko lurraldearekin Ezkioko herritarrek duten harremana ezagutu, horretarako hainbat eremutan ezkiotarrek dituzten bizi-ohiturak aztertuz.
- Ezkioko Udalak inguruko administrazioekin duen lotura ezagutu eta sozializatu.
- Gaur egungo egoeraz eta etorkizuneko aukerez eztabaidatuz, herritarren iritziak aintzak hartuko dituen ondorioetara iritsi.

Zehatza(k):

- Ondorengo eremuetan herritarrek dituzten bizi ohiturak aztertu: eskola-hezkuntza; erosketak; komunikazioa eta informazioa; enpresa eta lan mundua; harreman familiarrak; harreman sozialak; aisialdia...
- Udalak bultzatu beharreko eskola mapa adostu.
- Aldaketak emateko zailtasun nagusiak identifikatu eta erabakiak hartzeko metodoak zehaztu.

Esperientziaren azalpena

Ezkioko udallerriaren izaera administratiboak aldaketak izan ditu azken urteetan. Lehenik, Itsasogandik banatu zen, eta ondoren atzera etorri da berriz ere erabaki hori. Ezkio-Itsaso zenetik, Urola Garaia eskualdearen parte izan da Zumarraga, Urretxu eta Legazpirekin batera. Hala ere, herritarrek bizitzako eremu asko partekatzen dituzte Goierri eskualdearekin. Errealitate hori ezagututa Ezkioko Udalak herritarrekin hausnarketa kolektiboa egin du, administratiboki eskualde batean zein bestean egon behar ote den baloratzeko. Hausnartu nahi da beste herriekin partekatzen dituzten zerbitzuak, kontsumo ohiturak, eskola mapa, lan eremuak... eta beharrezkoa balitz aldaketak burutzeko erabakiak hartu edota norabide bat markatu ondoren urratsak emateko.

Emaitzen azalpena

1. PROZESUAREN TESTUINGURUA

Hasteko, hausnarketa prozesuaren testuinguruari so, azpimarratzeko bi ideia nabarmentzen dira.

Lehenik, Itsasok dasenexio prozesuan atzera egin izanak ezkiotarren inguruan hainbat galdera sorraraz ditu, hori dela eta, prozesua bera baliatu da herritarrei eskura izan den informazioa partekatzeko, eta etorkizuneko eszenatokien inguruan iritziak elkarbanatzeko.

Bigarrenik, Covid 19ak sortutako salbuespen egoerak ere prozesua baldintzatu du. Prozesuaren egutegia atzeratzean gain, lan saioretarako prebentzio neurriak hartu dira eta dinamikak egokitu. Gainera, eskola komunitatearekin burutu beharreko bilera ere egokitu behar izan da, nolabait, eskolak berak burutu beharreko prozesuarekin bat egitea aurreikusten zelako.

2. UDALAK EGITURETAN PARTAIDETZA

Udalak parte hartzen duen egituren inguruan, hausnarketaren ondotik honako ondorioak lortzen dira.

Hasteko egitura batzuetan parte hartzea ez da zalantzan jartzen. Orokorrean ez dago iritzi kritikorik, ez behar-beharrezko zerbitzu jotzen diren artean beste alternatibarik ere ez da ezagutzen. Hortaz, udalak egitura hauetan parte hartzen jarraitu behar duela ondorioztatzen da: Goimen, Sasieta Mankomunitatea, UEMA eta Gipuzkoako Ur Kontzortzioa.

Jarraituz, Tolosako hiltegi mankomunitatearen kasua alderantzizkoa da. Prozesuan parte hartu duten herritarren iritzi egitura honetatik atera beharra dago, eskaintzen duen zerbitzuak ez dituelak herritarrak asetzen.

Gero, UGGASA garapen agentziaren kasuan, askotariko iritziak aintzat hartuta, uste da beharrezkoa dela eztabaidatzen jarraitzea, eta planteatu diren hiru eszenatokien balorazioa burutzeko informazioa biltzea. Hori dela eta, UGGASAREN aferari irtenbidea emateko eredu ezeberdinek ematen dituzten aukerak eta inguruneak eskaintzen dituenak aztertzen jarraitzea beharrezkoa izango da. Honakoak dira aurreikusi diren eszenatokiak eta sortu diren galderak:

(1) Goiekira pasatzea: zein da kostea? Nolakoak lirateke eskuratutako zerbitzuak? Gaur egun UGGASAK herrian daukan itzulketarekin zertan ezberdinduko litzake?

(2) UGGASAan mantendu eta zerbitzua hobetzen saiatu: zein eskaera zehatz egin UGGASARI? Bi norabidetan eman daitezke moldaketak, alde batetik, udalak UGGASAREKIKO dauzkan

konpromisoetan, eta bestetik, UGGASAK Ezkioko herritarrei eskaintzen dien zerbitzuetan.

(3) Ez batean ez bestean egotea, eta banakako hitzarmenak lortzen saiatzea hainbat zerbitzu martxan jartzeko. Zein lirateke banakako hitzarmen aukerak? Zein lirateke behar zehatzak? Ingurunean egon daitezkeen aukerak aztertzea beharrezkoa litzake.

Bertatik Bertararen kasua antzekoa da. Prozesuak balio izan du proiektuaren indarguneak azaleratzeko, eskolan ematen den zerbitzua eta egiten den lan pedagogikoa esaterako. Baina baita ere, proiektuaren hutsuneak ezagutzeko, adibidez, ekoizleen aniztasun eta produktuaren kalitatea aintzat hartzea, edota, bertako produktuak kontsumitzeko aukera falta. Dietistaren funtzioak berrikusteko beharra azalarazi da, eskola gaindituko duen kontzientziazio lana burutzeko, guraso eta herritarrengana iristeko.

Hortaz, kasu honetan baloratu beharrezkoa da identifikatutako hutsune horiei nola erantzun asmatzea Bertatik Bertara proiektuak dituen indarguneak kaltetu gabe. Aukera anitzak dira eta izan dezakeen dimentsioagatik beharrezkoa izango da proiektu baten baitan erantzutea. Bide horretan, fokoa ekoizle zein kontsumitzaileengana jartzeko beharra azalarazi da.

3. ESKOLA MAPA:

Eskolako komunitatearekin egindako bileratik ondorioztatzen da Eskola maparen inguruko erabakia hartzeko prozesu bat abiatzea beharrezkoa dela. Prozesu honek eskatutako duela herritarrak informatzea eta maila ezberdinetan emango diren eztabaidei bide ematea.

Horretarako, batetik, herritar anitzen iritzia aintzat hartzeko bideak ezartzea, eta bestetik guraso elkarteak bere baitako hausnarketa burutzea pausu garrantzitsuak izango dira. Kontuan hartu behar da prozesu horren garapenerako joko-arauak aurrez adostea.

Halaber, azpimarratzen da, gisa honetako prozesu bat aurrera eramaterako garaian, erabakia k hartzeko zein iritzi lehenesten diren partaideen artean eztabaidatzea beharrezkoatzat jotzen da.

Zer lortu da

- Inguruko lurraldearekin Ezkioko herritarrek duten harremana ezagutu da.
- Ezkioko Udalak inguruko administrazioekin duen lotura ezagutu da, herritarren artean sozializatu da eta horietaz eztabaidatu da.
- Hartu diren erabakiak honakoak izan dira:

Goimen, Sasieta Mankomunitatea, UEMA eta Gipuzkoako Ur Kontzortzioan mantentzea. Tolosako hiltegi mankomunitatutik Udala ateratzea.

UGGASA garapen agentziaren kasuan, hurrengo urratsa planteatu diren hiru eszenatokien balorazioa eta eztabaida burutzeko informazio gehiago biltzea.

Bertatik Bertara proiektuak herrian duen inpaktuaz dauden ikuspegi ezberdinak partekatzea lortu da, eta bere hutsuneak azalerazi dira, aurrera begira burutu beharreko lanketari bide emanez.

Eskola Maparen inguruan hartu beharreko erabakiaren aurretik burutu beharreko prozesuaren faseak, partaideak, edukia. . . irudikatu dira.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Prozesua euskara hutsez garatu da. Euskarazko euskarriak sortu dira, komunikazioa euskaraz burutu da eta memoriak euskaraz jaso dira.

Balorazio atala

Helburuen betetze maila handia izan da.

Partehartzea ongi baloratu behar da, herritar kopuruak adierazten du landu diren gaiak hausnarketa behar dutela. Halaber azpimarratu behar da xede talde gisa izendatu diren bi komunitateen parte hartzea: batetik, Udaleko langile eta ordezkari politikoak, eta bestetik, eskola komunitatea.

Erabili den metodologiari dagokionez, Ikerketa, Ekintza, eta Parte hartzean (I.E.P) sustraitzen da eta teoria horretatik

elikatzen da. Metodologia hau ondo egokitzen da behetik gora doan norabidean eraikitzen diren hausnarketa kolektibo nahiz antolaketa prozesuetan.

I.E.P-ren ikuspegi metodologikoan oinarritu da prozesu hau. Horrela, ikerketa bera, ikertutako subjektu eta fenomenoaren partaidetza zuzenaren bidez egiten ari da, eta beraiek zehaztutako eraldaketa beharretan oinarrituko dira aurrera begira proiektatuko diren ekintzak, ikuspegi ezberdinen loturak bilatuz. Beraz, testigantzen eta diskurtsoen ikerketa huts bat izan beharrean, ekintzen baitako ikerketa izaten ari da, eta ekintza horiek eraldaketa eta osagarritasuna bilatzen dute, eta parte diren zuzeneko subjektuek adierazitako ekarpenekin lantzen ari da.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuak oreka mantendu du herritarrei eskatutako konpromiso eta eztabaidatu diren gaiak duten garrantziaren artean. Partaidetza handituz joan da bigarren saioan eta hausnarketa gehiago mamitzea lortu da.

Emaitzaren ikuspegitik:

Lortutako emaitzak baliagarriak dira, eta prozesuak jarraipena eskatuko du lanketa handiagoa behar duten gaiei heltzeko.

Ikasitakoak

Udala eta herritarren artean informazioaren transmisioa egitea garrantzitsua da, era iraunkorrean eta bide ezberdinetatik. Beste norabidean ere, herritarren iritziak aintzat hartzearen beharra agerian gelditu da.

URRETXU

Gobernu Irekirako
estrategia baten barnean
herritarren parte hartzea
instituzionalizatzea

HELBURUA

Parte hartzea kudeatzea, hiritar arduratsuak eta informatuak bultzatuz
Udalarekiko harremanak hobetzea
Komunikazioa erraztea eta komunikazio plana egitea
Udalarekiko jarrera proaktiboak sortzea elkarreetan
Parte-hartzea plana egin eta martxan jartzea
Auzo elkarteak berreskuratzea
Auzo batzordea eratzea

PARTE-HARTZAILEAK

50 pertsona

IRAUPENA

01/01/2020tik - 31/12/2020ra

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Urretxuko Udala

TOKIA

Urretxu

BIZTANLERIA

6.829 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Parte hartzea kudeatzea, hiritar arduratsuak eta informatuak bultzatuz.

Udalarekiko harremanak hobetzea.

Komunikazioa erraztea eta komunikazio plana egitea.

Udalarekiko jarrera proaktiboak sortzea elkarteetan.

Parte-hartzea plana egin eta martxan jartzea.

Auzo elkarteak berreskuratzea.

Auzo batzordea eratzea.

Zehatza(k):

Aurrekontuak herritarren behar eta nahietara egokitzea

Herritar-udal-herritar komunikazioa hobetzea

Herritar eta elkarte guztiei aukera eman, denon artean, denontzako jai egitarau bat osatzeko.

Familia Transmisioa izeneko lantaldearen helburua familiaren esparruan euskararen erabilera areagotzea da. Bereziki gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan komunikazio hizkuntza euskara izatea, horretara bideratutako sentsibilizazio eta parte-hartze ekimenak indartzuz.

Proiektu zehatzetan, bereziki pertsona talde zehatzei zuzenduta daudenean, hauei oportunitate zehatzak eta errealak egiteko aukera ematea.

Iparragirre 2020 proiekturako jasotako proposamenak eta ekarpenak gauzatzea.

Haur, nerabe eta gazteen, Urretxuko udalan eta tokiko erakundeetan parte hartzeko organo egonkor baten diseinua.

Esperientziaren azalpena

EUSKALGINTZA: Udaleko euskara teknikariak eta euskaltegiko irakasleak urteko ekintza egitaraua prestatu zuten urtarrian, Familia Transmisioari lotutako jardueren proposamena. Horren ondoren, otsailan, ikastetxeetako eta guraso ordezkariak aurkeztu zitzaizkien egitaraua, eta urtean zehar egin beharreko ekintza guztiak adostu zituzten. Urriaren erdian, ordura arte gauzatutako ekintza guztien balorazioa egin zuten.

JAIK: San Juan, Santa Anastasia eta San Martineko jaiak landu dira, kolektibo, elkarte eta herritarren partehartzearekin.

AURREKONTUAK: barne lanketa aurreikusitakoa baino

lehenago hasi zen, COVID19a dela eta, 2021erako behar bereziak egongo zirelako pentsamenduan. Urriaren jaso dira auzoz auzoko bileren proposamenak eta 2021ko aurrekontuetan onartu dira hainbat. 6 saio burutu dira auzo eta gunen desberdinen bizilagunen partehartzearekin.

IPARRAGIRRE 2020: 2019n jasota eta landutako proiektuak exekutatu dira. kasu batzuetan bertan behera gelditu behar izan dira, osasun egoeratik, beste kasu batzuetan formatua aldatu behar izan denez, eragileekin aztertu dira aukerak eta proposamenak.

SARRALDEKO ENTSEGU LOKALAK: funtzionamendu araudia landu dugu aurten, erabiltzaileekin elkarlanean aldaketak txertatuz. Gainera, hobekuntza proposamenak jaso eta aztertzeko parte hartze saioak burutu ditugu eta adostutakoa 2020an bertan exekutatu dugu.

LABEAGA/JOSE MARI LASA PLAZA/NEKOLALDE gunea berritzea: erabilera eta irisgarritasuna hobetzeko parte hartze saioak burutzea bertako bizilagunekin, eta erabiltzaile nagusiekin saioan jasotakoak eztabaidatzeko eta erantzuna emateko beste saio bat martxoan programatuta egon arren, osasun egoera zela eta bertan behera gelditu zen. eta oraingoz proiektua gelditu dago.

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE HARTZE ORGAN

EGONKOR BATEN SORKUNTZA: Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, EDE Fundazioarekin batera, abian jarri duen proiektu pilotu batean parte hartzeko aukeratua izan da Urretxuko Udala. Honen helburua da haur eta/edo nerabeek, EAEn, udaletan eta tokiko erakundeetan parte hartzeko organo egonkorak diseinatzea. DUIIT taldeko ikasleen ZUTIK programak lagunduko digu organoa sortzen. Programa honen bitartez erronka bat planteatuko da: organo egonkorra sortzea, gazteen partehartze organoa. DUIITek PIZTU programaren bitartez dinamizatzaile lanak egingo ditu eskoletan, eta azkenean proiektu sendoena aurkeztu duen taldeari proiektua burutzen lagunduko diote, jarraipen baten bitartez **WHATSAPP BIDEZKO PARTEHARTZE BIDE BERRIA:** arlo guztietako ekintzen, albiste nagusien eta partehartze prozesuen zabalkundea whatsapp bitartez burutzeko bidea ireki genuen. Eta nola ez, kexak eta iradokizunak jasotzeko balio izan digu.

Emaizten azalpena

EUSKALGINTZA: aurreikusita zegoen bezala, gurasoekin ekintzak egin dira: mezuak, lehiaketak, hitzaldiak... Formatuetan aldaketa batzuk izan dira, baina parte-hartzea handia izan da. **JAIK:** nahiz eta aurtengo jaiak bertan behera gelditu, parte hartze prozesuak ondo funtzionatu dute eta Santa Anastasia jaiak gain, aurten izandako egoera berezia dela eta, beste herriko jaien antolakuntzarako eta erabakietarako partehartze prozesuak ireki ditugu herritarrek, osasun egoeraren informazioa jaso eta erabakiak hartu dituzte.

AURREKONTUAK: partehartze prozesuan jasotako proposamenak aztertu eta erantzun ondoren, batzuk aurrekontuetan txertatu eta urri bukaerarako lehenengo zirraborra prestatu zen. Eta azaroan behin betiko aurrekontua onartu zen. **IPARRAGIRRE 2020:** nahiz eta ekitaldi edo proiektu guztiak ezin izan ditugun aurrera eraman, hainbat eta hainbait ekimen garatu dira. 2020ean ezin izan direnak egin 2021ean egitea aurreikusten dugu.

SARRALDEKO ENTSEGU LOKALAK: aurreikusitakoa guztiz lortu da aurtengo prozesuan. Araudiaren hobekuntzarako jasotako proposamenak txertatu ziren (COVID-19atik itxita, lokalak erabili ezin izan diren hila-begetako kuotak ez ordaintzea erabaki zen, eta ordaintzeko moduak ere aldatu dira. Proposatutako hobekuntzak gauzatu dira (lokalen intsonorizazioa hobetu da panel espezifikoa instalatuz).

LABEAGA/JOSE MARI LASA PLAZA/NEKOLALDE gunea berritzea: Kasu honetan, nahiz eta prozesua ondo hasi, Covid19aren egoera ikusita bertan behera uztea erabaki zen martxoan, COVID19ak sortuko zituen beharrak, aurrekontuetan zein eragin izango zuten jakin arte.

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTEHARTZE ORGAN
EGONKOR BATEN SORKUNTZA 2020an zehar estrategia burutu da, talde motorra sortu eta 2021rako aurreikusitako organoaren sorkuntzarako dinamizazioa martxan jarri da.

WHATSAPP BIDEZKO PARTEHARTZE BIDE BERRIA: herritarren izena eman behar izan dute whatsapp taldean sartzeko eta esperientzia oso ona da oraingoz. Herritarrei parte hartze zuzena eskaintzen zaie prezesa zehatz batetan parte hartu gabe. Udalarekin komunikazio erreza eta zuzena eskeiniz.

Zer lortu da

Pixkanaka-pixkanaka, partehartze prozesu desberdinak gehitu ditugu, herriko arlo ezberdinak partehartzearen bidez lantzeko; kultura ezezik, hirigintza, gai ekonomikoak, sozialak...

Finean udal/herri bizitzaren eremu guztietan bizilagunen, erabiltzaileen edo bisitarien parte hartzea estrukturala izatea lortzea da helburua. Pausuak aurrera eman ditugu eta nabarmena da prozesuetan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Euskarak lehenasunezko trataera izan du aipaturiko parte-hartze prozesu guztietan, zein horietako une guztietan.

Berdintasuna

Berdintasun-irizpideak kontuan izango dira, bai emakumezkoen presentzia bermatu eta indartzeko, baita euren jabekuntza-prozesua indartzeko. Horretarako, hainbat neurri proposatzen eta martxan jarriko ditugu.

Aniztasuna

Aniztasunaren eta Bizikidetzaren mahai mistoa motorea da, eta bertako kideek, jatorri desberdinekoak izanik, ahalduzko-prozesu bat bizi dute, gainerako sektoreetan parte hartzeko bideak ezagutu eta zabaltzeko helburuarekin.

Ingurumena

Urretxuko Udalak herri jasangarriago bat lortzeko helburua ezarri du eta horretarako 8 urtetako indaraldia duen Agenda 21eko III. Tokiko Ekintza Plana onartu zuen 2015ean. Beraz, parte hartze bilerak Agenda 21eko Tokiko Ekintza Planarekin koordinatuko dira: bileretan hartzen diren erabakiek ingurumenean nola eragin dezaketen eta aipatutako ekintza planarekin bat egiten dute, ekintza edo jarduera ahalik eta jasangarriakoa izan dadin lortzeko.

Balorazio atala

La helburu guztiak bete direla esan dezakegu. Azaroan aurkeztutako aurrerapen txostenean azaltzen genuen bezala, parte hartze prozesu bakoitzak bere helburuak bete ditu osasun egoerak eragindako salbuespen batzuk ezik. Urte hasieran aurreikusitakoaz gain, bi partehartze ildo berri ireki ditugu.

Prozesuak ondo burutu ditugun arren, antzeman dugu eragileen urduritasuna, ezjakintasuna eta beldurra Covid19ak sortutako osasun egoeragatik. Erabakiak hartzeko momentuan arazoak izan ditugu, egoeraren aldakortasuna kontutan izanda. Gaurko erabakiak bihar ez dute balio.

Oro har espektatibetan betetze maila altua izan da. Auzo desberdinetako bileretan proposatutakoak benetan gauzatuko direla, aurrekontuetan proiektu zehatzetarako partidak onartu diren heinean, auzotarren espektatibak neurri handi batetan betetzen direla esan daiteke. 2021eko aurrekontuen parte hartze prozesuko proposamenak kontutan hartu dira neurri handi batean. Euskalgintza mahaiak aurreikusitako helburuen betetze maila altua izan da. Espektatibak bete direla esan dezakegu arlo guztietan.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Lantalde egonkorak seriotasunez lan egiten dutenak dira. Auzo-taldeetan, joan den urtekoek berriro parte hartu dute, proposamenak gauzatuta ikusi ondoren, eta bizilagun berriak gehitu dira. Helburuak finkatu dira eta ekimenak sortu dira edo daudenak indartu eta garatu dira.

Emaitzen ikuspegitik:

Festarik izan ez den arren, parte-hartzearen emaitzak onak izan dira eta erabakiak eragileekin elkarlanean hartu dira. Euskalgintzako Mahaiaren Familia Transmisioko proiektuak ere ekintza zehatzak izan ditu, eta 2021eko aurrekontuetarako proiektu nabarmenak aurreikusten dira.

Ikasitakoak

Parte hartzeko prozesuak ekintza edo lorpen zehatzetara bideratu behar dira. Auzotarrek dituzten nahiak ez dira gehienetan gai orokorreki buruzkoak, oso ekintza zehatzak baizik. Jaietan hobekuntza txikiak, aldaketa edo hobekuntza puntualak... Parte-hartzaileen helburu nagusia bakoitzaren behar indibidual eta kolektiboak asetzea da.

ZALDIBIA

Zaldibiako herritarren partaidetza sistema ereduaz hausnartzeko prozesua

HELBURUA

Zaldibiako udaleko langile eta ordezkariekin, udalerrirako partaidetza ereduaren inguruan hausnartzea.

PARTE-HARTZAILEAK

11 (6 emakumezko eta 5 gizonezko)

IRAUPENA

2020-10 / 2021-03

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Zaldibiako Udala


TOKIA

Zaldibia

BIZTANLERIA

1.658 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Zaldibiako udaleko langile eta ordezkariekin, udalerrirako partaidetza ereduaren inguruan hausnartzea.

Zehatza(k):

- Udal-gobernuaren eta Udalbatza osoaren jarduerak gidatzea, betiere herritarren partehartzea sustatu eta garatzeko xedeari begira.
- Hautetsiak eta sail desberdinetako teknikariak elkarrekin lanean jarri eta partaidetzaren aldeko motibazioa eta inplikazioa handitzea eta eredu iraunkorra sortzea.
- Beharrezko aldaketak sustatzen jarraitzea herritarren artean nahiz langile tekniko eta politikoen artean, eta egituretan eta antolamenduan, betiere udal-kudeaketan partehartzearen eta elkarlanaren kultura indartzeko helburuarekin.
- Herritarren parte-hartzearekin loturiko ekintza guztiak planifikatu eta antolatzea.
- Erabakiak hartzeko orduan herritarren parte-hartzeak benetako eragina izateko bidea egitea.
- Aldaketetara egokituko den eredu malgu bat garatzen hastea, ebaluazioa abiapuntutzat hartuta hobekuntzak etengabe egin ahal izateko.
- Herritarrak parte hartzera bultzatzea, informazioa hobetuz eta parte-hartzearen inguruko emaitzak agerikoago eginez.

Zer lortu da

Tarteko emaitzen artean izango ditugu:

- Zaldibiako partaidetza mapak:
 - Zaldibiako partaidetzaren denbora-lerroa.
 - Partaidetza mapa geosozilogikoa.
 - Partaidetza mapa sektoriala.
- AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak, Ahuleziak) matrizea.
- Ideien bilduma: erronkei zuzenean dagozkienak eta zeharkakoak edo kolateralak.

Esperientziaren azalpena

1.6. ESPERIENTZIAREN AZALPENA:

Talde Eragileak 3 bilera egin ditu: lehena prozesua antolatzeko (Lantaldeko kideen aukeraketa, egutegia, azpiegitura, oinarritzko datu-bilketa), bigarrena azken emaitza lantaldearen aurrean aurkeztu aurreko kontrasterako eta hirugarrena proiektua ixteko eta aurrera begirako plangintza zehazteko.

Prozesuko Lantaldeak 4 hausnarketa saio egin ditu eta saio horiek izan dira egitasmoko ardatza. Hausnarketa horretatik eratorri da emaitza.

Prozesuko Lantaldearen 4 bilera horietako edukiak hauek izan dira:

1. bilera:

- Harrera. Elkar ezagutu.
- Xedea, helburuak eta joko-arauak aurkeztu. Espektatibak jaso - "Ekin diezaiozun bideari... Zer dakargu partaidetzaren motxilan?" - Zer da herritarren partaidetza?.
- Herritarren partaidetza Zaldibin. Ibilbidea, denbora lerroa.
- Balorazioa.

2. bilera:

- Harrera.
- Berreskuratu lehen saioa. Gogorazi 1. saioko emaitzak. Espektatiben inguruan eztabaidatu.
- Zaldibiko partaidetzaren denbora-mapak osatuzea.
- Koherentzia testa kanpo-<>barne.
- Balorazioa eta 3. saioa lotzea.

3. bilera:

- Harrera
- Partaidetza ereduaren funtsa, xedea.
- Partaidetza ereduaren oinarritzko balioak.
- Partaidetza ereduko osagaiak.
- Balorazioa

4. bilera:

- Ongi-etorria eta prozesuaren ibilbidearen errebasoa
- Partaidetza Eredua aurkeztu
- Herritar eskaeren prozedura
- Eredurako hobekuntzak
- Aurrera begirako plana
- Balorazioa

Emaitzen azalpena

Emaitza nagusia desberdinen arteko hausnarketa partekatuen prozesua bera izan da. Izan ere, lehen aldiz egin da herritarren ordezkartza duten alderdien eta udal langileen arteko hausnarketa partekatua; eztabaida beroak eztabaida, alderdi horretatik izan da prozesua aberasgarrien.

Hausnarketa prozesuan zehar jasotako datu eta gogoetekin Zaldibiko partaidetza ereduaren osagaiak zehaztera iritsi gara eta osagai horiek Ereduen irudi batera ekartzea lortu dugu.

Bukaerako emaitzen artean izango ditugu, bestalde:

- Hausnarketa-prozesuaren bilakaera txostena, udal eragileen ikuspegi adostua barne.
- Ereduen oinarritzko gidaliburua: printzipioak eta balioak eta osagaien eta konexioen mapa.
- Ereduen irudia.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Udaleko lehen hizkuntza euskara da, bai ordezkarien, bai langileen artean eta hala izan dadin gure konpromisoa argia da. Zentzu honetan, Zaldibiako errealitate hori kontuan izanik prozesuko dinamika guztiak euskara hutsean burutu dira. Sortutako materiala, txosten guztiak, euskaraz burutu dira.

Berdintasuna

Emakumeen eta gizonen partaidetza inklusiboa lortzeko neurriak hartu dira, baita emakumeen eta gizonen premiak eta beharrak identifikatzeko, genero diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihesteko, emakumeen zein gizonezkoen parte-hartze orekatua sustatzeko eta emakume zein gizonezkoen rol aniztasunari bide emateko ere. Hala, prozesuaren muina izan den lan-taldean, udalaren genero errealitatearen isla ere izanez, 8 kideetik 5 emakumeak izan dira.

Aniztasuna

Barne mailako prozesu bat izanik, ez da bereziki landu den gaia. Hala ere, Zaldibiako jatorri aniztasunaren datuak kontuan hartuta prozesuan zehar hainbatetan atera den gaia da. Zaldibiako Udala eta herriko komunitateen arteko harremana aztertzerakoan.

Ingurumena

Zaldibiako Udalak ingurumenarekiko duen konpromisoaz, material fisiko ahalik eta gutxien sortzeko saiakera egin da, baita baliabide digitalak sustatzekoa ere. Erabilitakoak berrerabili eta berrerabilitakoak birziklatzeko moduan sailkatuta bildu dira era berean.

Balorazio atala

Zaldibiako Udaleko langile eta ordezkariekin, udalerrirako partaidetza ereduaren inguruan hausnartzea zen helburu nagusia, eta betetzat emango genuke.

Hasieratik bukaerara prozesuan inplikaturako guztiak (Udalan ordezkariak duten bi alderdi politikoetako ordezkariak, zein udal sail ezberdinetako langileek) parte hartu dute.

Hausnarketak, emandako emaitza zehatzez gain, hautetsiak eta sail ezberdinetako teknikariak elkarrekin lanean jarri eta partaidetzaren aldeko motibazioa eta inplikazioa handitzea eta eredu iraunkorra sortzea eragin du, etorkizunerako hazia jarriz.

Aipatu bezala, asistentzia erabatekoa izan da, pandemia izanagatik bilerak presentzialki izan dira (nahiz eta kasuren batzuetan kideren batek telematikoki parte hartu behar izan duen) eta orokorrean lan-giro ona egon da, eztabaida puntualen bat salbuespen izanik.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Covid-19aren testuinguruak prozesua hein baldintzatu badu ere (batez ere denboretan eta parte-hartzaileen lan-karga eta gogoan), orokorrean aurreikusi bezala garatu da, aurreikusi baino hobeto egia esanda, parte hartzaileen inplikazioari esker.

Hasieran aurreikusitako 3 saioei laugarren bat gehitu behar izan diogu emaitza ukigarrietara iristeko. Alderdi desberdinetako ordezkariak eta udal langileak lehen aldiz foro bakar baten hausnarrean jarrita, eztabaida batzuk uste baino luzeago jo dute, eta bidean baloratu da eztabaida horiei behar zuten lekua eskaintzea, prozesua luzatzearen ordainetan.

Emaitzaren ikuspegitik:

Aurreikusitako emaitzak lortzeaz gainera, ukigarriak ez direnak ere lortu dira: partaidetzaz hitz egitea denon artean, bakoitza bere errealitatetik atera eta besteenean ere kokatzea, eta batez ere, aurrera begira epe motzean emateko gogoia piztea.

Zaldibian aurrera eraman diren partaidetza egitasmoak eta esku-hartzeak irudikatu dugun Ereduaren baitan kokatzeko balio izan du, baita eredu horretako hainbat osagaitan hobekuntza-aukerak detektatzeko ere.

Ikasitakoak

- Hausnarketa konpartituak lagungarriak dira elkartu eta koordinatzen hasteko, baita desberdinen artean interes eta behar komunez jabetzeko ere.
- Bakoitza bere eremuan arituagatik, gaiak elkarrekin lantzeak emaitza hobekak eman ditzake.



TOLOSALDEA

Gipuzkoako ekialdean, 332,7 km²-ko lur eremua hartzen du eskualde honek. Iparraldean mugakide du Donostialdea; ekialdean, Nafarroa; hegoaldean, Goierri; eta mendebalean, Urola-Kostaldea. Tolosak eta Ibarrek elkarrekin sortzen duten herrigunea da eskualdeko buru, eta bere eraginpean beste 26 herri txiki bizi dira: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Gaztelu, Legorreta, Lizartza, Orendain eta Orexa. Billabona eta Zizurkil dira bi mila biztanlez gorako herri bakarrak. Billabonak eragin handia du bertatik Zarautzeraino doan GI-2631 errepidean dauden herrietan, Donostiara nahiz Tolosara jotzeko bertatik pasa beharra dagoenez zenbait zerbitzu bereganatzen baititu.

Komunikabide sarearen elementurik nagusiak N-I (Madril-Irun) errepidea eta trenbidea dira. Ibilbide laburretan, trenak garrantzi handia dauka eskualde honetan. Abiadura handiko trenak oraingo trenbidearen bide berdintsua izango du. A-15 (Andoain-Irurtzun) autobidearen irekierak, Gipuzkoak Nafarroarekin izan duen lotura zaharra, N-130 errepidea alegia, guztiz bazterturik utzi du; horren eraginez, eskualde honen zentroa Tolosatik Andoain aldera joan da. Beste errepide nagusiak dira: Tolosatik Azpeitiraino doan GI-2634 errepidea eta Tolosatik Leitzara doan GI-2130 errepidea.

Tolosaldeko industria gehienak txikiak dira, metalgintzan eta papergintzan ari direnak. Papergintzako lantegiak teknologia aldetik zaharkiturik gelditu dira oso, eta horren eraginez enpresa asko itxi eta beste asko berregituratu behar izan dira. Bestalde, Tolosak eta Billabonak industriagintzarako espazio arazo larriak dituztenez, industria berri asko Oriako haraneko beste herrietara joan da (Aduna, Zizurkil, Anoeta, eta abar). Zerbitzuen sektoreak ere pisu esanguratsua du, batez ere Tolosan.

AMEZKETA

Amezketako udalerrian etxebizitzaren beharrak zehazteko prozesu partehartzailea

HELBURUA

Amezketako etxebizitzaren beharrak ezagutzea, garapen aukera errealak zein diren jakitea eta horren arabera Udalak hirigintza alorrean erabakiak hartu ahal izateko informazioa izatea. Amezketako udalerriko esparru publikoaren kudeaketan eta erabakian herritarrak parte hartzeko duten eskubidea bermatu eta sustatzea

PARTE-HARTZAILEAK

35 (5 emakumezko eta 30 gizonezko) - 2 agente

IRAUPENA

2020ko urtarrilatik 2020ko abendurarte

ALORRA

#Hirigintza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Amezketeko Udala


TOKIA

Amezketako Kultur Etxea

BIZTANLERIA

920 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Amezketako udalerriko esparru publikoaren kudeaketan eta erabakian herritarrak parte hartzeko duten eskubidea bermatu eta sustatzea izan da prozesu honen helburua.

Parte hartze prozesua Amezketako etxebizitzaren beharrak zein diren ezagutzeko eta horren arabera Udalak hirigintza alorrean erabakiak hartu ahal izateko burutu da.

Lehenik egungo egoerari buruzko informazio bilketa egin zen, 2020ko urtarrila, otsaila eta martxoan zehar. Hasteko, indarrean dauden Arau Subsidiarioei buruzko analisia burutu zen, aurreikusitako eremu bakoitzaren hirigintza fitxa zehazki aztertuz. Egungo egoerari buruzko datu biltzea eta lantzea egiteko, Jauregi eta Larraitz bideko eragileekin bilerak egin ziren, baita herriko plazan dagoen eraikina sustatu nahiko lukeen enpresarekin eta Ergoeneko eremu ezberdinetako jabeekin ere bai. Eta datu bilketa hirigintza zerbitzu ezberdinetako arduradun diren erakunde edo enpresen eskutatik osatu zen azkenik.

Egin diren partehartze deialdiak irekiak izan dira, nola ez amezketar guztiei zuzenduak. Eta deialdiak kanal ezberdinen bitartez gauzatu dira, ahalik eta perfil ezberdinetako herritarrez osatutako bilkurak izateko.

Etxebizitza bat erosi nahi duten herritarrei informazioa emateko lehenik herri bilera antolatu zen otsailean eta partehartzea areagotzeko gazteei zuzenean gonbidapena luzatu zitzaizen.



Bertan Arau Subsidiarioek jasotzen dituzten garapen aukerei buruzko informazio zehatza helarazi zen power pointeko aurkezpena erabiliz. Bileraren amaieran etxebizitza beharrei buruzko galdeketa orriak banatu ziren. Amezketan herri txikia izanik, bilera hauen aurretik eta ondoren gazteen kolektiboari zuzendu zaio Talde Eragilea zuzenean; banaka edo talde txikietan. Eta etxebizitza bat erosi nahi duten gazteekin elkarrizketak izan dira zuzenean beraien beharrak eta nahiak ezagutzeko helburuarekin. Elkarrizketa hauek etxebizitza erosi nahi duten beste hainbat herritarrekin ere burutu dira.

Galdeketa erantzunak jaso ondoren, bildutako informazioari buruzko analisia egin zen, eta dauden etxebizitza garapenei buruzko dokumentazioa grafiko eta idatzizkoaren lantzea ere bai. Ondoren informazioaren aurkezpena egin zitzaion Udalari eta herritar guztiei informazioa helarazteko bigarren herri bilera antolatu zen uztailean.

Partaidetza prozesu honetan batez ere Amezketan etxebizitza bat erosi nahi duten herritarrek parte hartu dute, eta hauek batik batik beraien lehen etxebizitza erosi nahi duten gazteak dira. Gazte hauek herrian bizitzen geratzeak herriari bizia mantentzen lagunduko dio eta herriaren biztanle kopuruari eutsi ahal izateko lagungarri gertatuko da. Horregatik, partaidetza prozesu honen parte bezala, alokairua sustatzeko ahaleginak ere egin dira. Horretarako etxebizitza alokairuan nahiko luketen

biztanleen eta alokairuan etxebizitza eskaintzeko prest dauden jabeen artean bitartekaritza lana egin du Udalak, besteak beste aholkularitza pertsonalizatua eskainiz.

Behin herritarren etxebizitzaren beharrak zein izan daitezkeen ezagututa, hau da, zein etxebizitza tipologia duten gustukoena, zein eremutan bizi nahiko luketen, eta etxebizitza zein denbora epetan nahiko luketen ezagututa, udalak lanketa berri bati ekin zion. Etxebizitza tipologiei dagokionean, gazteek interes handia dute etxebizitza bakar edo elkarri atxikitakoetan bizitzeko, bakoitza bere lorategi eta garajearekin. Honekin, herritarren beharrak eta etxebizitza tipologiak kontuan izango dituen garapen berrien aukerak eta proposamenak definitzeari ekin diote Jauregi Eremuko sustatzaileek. Ildo honetatik, Udalak aholkularitza pertsonalizatua eskaini die herritarrei salgai dauden baserrien inguruan ere. Horretarako eraikinak eskaintzen dituen aukerak zein diren definitu dira eta baita hauek gauzatzeko gastuak zein izango lirakekeen ere. Informazioa herritarrei helarazteaz gain, erosle posibleei aholkularitza pertsonalizatua ere eskaini zaie, eraikinera bisita eginez. Azkenik, Ergoene auzoan dauden garapen txiki posibleetako sustatzaile eta erosle posibleen artean bitartekaritza lana ere egin du Udalak, eta baita eremuaren xehetasuneko azterketa lan bat ere, eremuaren garapenak eskaintzen dituen aukerak aztertuz eta kostuak baloratu.



Zer lortu da

- Hasteko, indarrean dauden Arau Subsidiarioei buruzko analisia burutu zen, aurreikusitako eremu bakoitzaren hirigintza fitxa zehazki aztertuz. Egungo egoerari buruzko datu biltzea eta lantzea egiteko, Jauregi eta Larraitz bideko eragileekin bilerak egin ziren, baita herriko plazan dagoen eraikina sustatu nahiko lukeen enpresarekin eta Ergoeneko eremu ezberdinetako jabeekin ere bai.
- Otsaileko herri bileran Arau Subsidiarioek jasotzen dituzten garapen aukerei buruzko informazio zehatza helarazi zen.
- Horretarako etxebizitza alokairuan nahiko luketen biztanleen eta alokairuan etxebizitza eskaintzeko prest dauden jabeen artean bitartekaritza lana egin du Udalak, besteak beste aholkularitza pertsonalizatua eskainiz.
- Udalak aholkularitza pertsonalizatua eskaini die herritarrei salgai dauden baserrien inguruan ere. Horretarako eraikinak eskaintzen dituen aukerak zein diren definitu dira eta baita hauek gauzatzeko gastuak zein izango liratekeen ere. Informazioa herritarrei helarazteaz gain, erosle posibleei aholkularitza pertsonalizatua ere eskaini zaie, eraikineri bisita eginez.
- Ergoene auzoan dauden garapen txiki posibleetako sustatzaile eta erosle posibleen artean bitartekaritza lana ere egin du Udalak, eta baita eremuaren xehetasunezko azterketa lan bat ere, eremuaren garapenak eskaintzen dituen aukerak aztertuz eta kostuak baloratuz. Iaritza pertsonalizatua ere eskaini zaie, eraikineri bisita eginez.

Balorazio atala

Balorazio orokorra

Proiektuaren hasierako helburuak bete dira. Udalak orain badaki Amezketan etxebizitza erosiko luketen pertsonak ze behar edo nahi dituzten eta hori kontuan izanik etxebizitza politikak aurrera eramane daitezke. Herritarrek ere etxebizitza aukerei buruz zituzten zalantza asko argitu dituzte eta aurrerantzean ere argitzen jarraitzeko aukera dute.

Parte hartu duten herritarrak benetan etxebizitza baten beharra edo nahia dutenak izan dira. Beraz, zentzu horretan interes handia agertu dute eta giro ona egon da. Hori bai, aipatzekoa eta aztertzekoa da parte hartu duten herritar guztiak gizonezkoak izan direla.

Aholkularitza bat (herriko arkitekto bat) kontratatu da partaidetza prozesua bideratzeko. Besteak beste, herri bilerak antolatu dira, aurkezpenak egin dira, lurjabeekin elkarrizketak izan dira, WhatsApp taldea sortu da eta herritarren kezak pertsonalki argitu dira.

Bilera deialdiak mugikorreko Amezketako App aplikazio bidez, web gune bidez, etab. egin dira.

- Prozesuan parte hartu duten herritarrekin Whatsapp talde bat sortu da beraien kezak eta zalantzak argitu, eta komunikazio zuzena izateko.

Udalaren ustez, parte hartze prozesu osoan jaso den informazioa oso erabilgarria izango da bai etxebizitza bat erosi nahi duten herritarentzat eta baita ere etxebizitza sustatzaile posibleentzat ere. Guztientzat erabilgarria izango da.

Oso deigarria izan da herri bilera guztietan parte hartu duten herritarrak gizonezkoak izan direla. Bileretan parte hartu duen emakumezko bakarra Udalak kontratatutako aholkularia, arkitektoa, izan da.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik Herri bilerek ondo funtzionatu dute. Whatsapp taldeak ere bai. Aztertzekoa izango litzateke emakumezkoen partaidetza zergaitik izan den horren baxua.

Emaitzaren ikuspegitik Orokorrean partaidetza prozesua oso baliagarria izan da herritarren etxebizitza beharrak ezagutu eta horren arabera eskaerari erantzuteko etxebizitza motak etorkizun motzean eraiki ahal izateko. Baita ere, etxebizitza nahi duten herritarrak lurjabeekin edo salgai dauden etxebizitza jabeekin harremanetan jartzeko.

Ikasitakoa

Udalarentzat oso garrantzitsua da etxebizitzen inguruan herritarren beharrak ezagutzea.

Beraz, prozesu honen ondoren etxebizitza politikak herritarren beharretara egokituta garatzeko informazio oso baliotsua eskuratu da.

Amezketan etxebizitza bat eskuratuko luketenen eta jabeen arteko bitartekari lanak egitea lagungarri dela ikusi da.

Kontuan izan beharrekoak

Emakumeen partaidetza nola areagotu pentsatu behar da.

ANOETA

Indarkeria sexista pairatu duten emakumeei arreta egokia emateko udal protokoloa diseinatzeko prozesua

HELBURUA

Indarkeria sexista pairatu duten emakumeei arreta egokia ematea

PARTE-HARTZAILEAK

11 (10 emakumezko eta 1 gizonezko)

IRAUPENA

2019ko udazkenetik 2020ko abendura

ALORRA

#Indarkeria sexista

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Anoetako Udala

TOKIA

Anoeta

BIZTANLERIA

2.030 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Indarkeria sexista pairatu duten emakumeei arreta egokia ematea

Zehatza(k):

Udal mailan tresna eraginkor bat diseinatzea, indarkeria sexista pairatu duten emakumeei arreta egokia emateko, arlo instituzionala zein sozialaren arteko lankidetzak bermatuz.

Esperientziaren azalpena

Esperientzia oso aberatsa izan da. Saioak oso dinamikoak, praktikoak eta parte-hartzaileak. Eta oso giro ona izan da une oro.

Hasiera batean lanketa bat egin behar genuen arlo instituzionalarekin (Ertzaintza, osasun zentroak, Anoetako

Herri Ikastola eta Anoetako udala) eta beste lanketa bat herriko emakume taldeen ordezkariarekin (Emakume taldea eta Matraka talde feminista), baina azkenean, eta ikusirik osasun egoeragatik osasun zentroak eta Ertzaintzak ez zutela azkenean parte hartuko prozesuan, erabaki genuen arlo soziala behintzat bai lantzea herriko Ikastolako zuzendariarekin, eta emakume taldeekin.


Emaizten azalpena

Prozesuaren ondorioz udal protokoloa osatu dugu, nahiz eta, esan bezala, arlo instituzionala oraindik josi gabe egon. Baina behintzat erantzun publikoaren artikulazioa nola garatu zehaztu dugu, eta ADI eta SO! behatokia sortu dugu, logoa eta guzti. Eta talde horren funtzioak eta funtzionamendua nolakoa izango den zehaztu dugu.


Zer lortu da

Lortu da gai honetaz mintzatzeko espazio bat sortzea herrian, lankidetzak guztiak martxan jartzea udala eta herriko emakume taldeen artean, eta zeharlerrotasunean lantzea gai hau udal barruan (udaleko departamentu batzuetako teknikariek parte hartu baitute: Kultura, Parekidetasuna, Gizarte Zerbitzuak, Gazteria eta Landa Garapena).

LESIO FISIKO EDOTA PSIKIKO AGUDOAK DAUDENERAKO PROZEDURA:



LESIO FISIKO EDOTA PSIKIKO AGUDORIK EZ DAGOENERAKO PROZEDURA:



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Bilera guztiak euskaraz egin dira, eta dokumentu guztiak euskara hutsean daude

Berdintasuna

Gai hau bete-betean jorratu da programan, ardatza indarkeria sexista pairatu duten emakumeei arreta egokia bermatzeko protokoloa diseinatzea izan baita.

Aniztasuna

Gai hau ere ezinbestean jorratzen da proiektuan, emakumeenganako indarkeria orokorra baita, eta anitza: edozein emakumek jasan ditzake erasoak, bai haurrak, gazteak edo helduak, bai bertakoak zein beste jatorrietakoak, eta klase sozial desberdinetakoak, bortizkeria sexista estrukturala baita.

Ingurumena

Gure kasuan, Ingurumena eta Landa Garapenerako teknikariak parte hartu du prozesuan, landa munduaren ikuspegia ere kontutan izateko, zonalde honetan baserrietan eman daitezkeen bortizkeria kasuak etab.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila handia izan da, baina ez erabatekoa, lehen esan bezala atal instituzionalaren lanketa, zuzeneko eragileena (Ertzaintza, osasun zentroak, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza Zentroa) ezin izan dugulako burutu. Baina arlo sozialari dagokionean behintzat helburuen betetze-maila handia izan da.

Asistentzia oso ona izan da, eta saio gehienetara partaide guztiak joan dira. Giroa bikaina, oso eroso sentitu dira partaideak eta ekarpenak egiteko gune polita sortu da.

Farapi Kooperatiba Elkarteko bi pertsona gidatu dituzte saioak, hainbat dinamiken bidez. Batzutan talde txikiak sortu dituzte gaiei buruz hitz egiteko, eta gero talde handian adierazi ditugu txikietan azaldutakoak. Power pointak ere proiektatu dituzte, dokumentazioa banatu, saioak baloratu etab.

Parekidetasun Sailak hartu du partaideen arteko koordinazioaren ardura, eta departamentu honetatik bidali izan dira bilera deialdiak, aktak eta beste edozein informazio.

Espektatibak arlo sozialean behintzat sobera bete dira, ADI eta SO! Eraso sexisten aurkako behatokia sortu eta guzti. Eragile zuzeneko atalaren kasuan (arlo nstituzionala) espektatibak oso handiak ziren, erakunde hauen ikuspegia eta zeregina oso garrantzitsua delako indarkeria sexistari aurre egiteko garaian, baina osasun egoera dela eta, ezinezkoa izan da behar bezala jorratzea puntu hau.

Zeharkako politiken kudeaketa egokia egin dela iruditzen zaigu.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuan zehar oso giro ona eta eroso egon da une oro, eta oso aberatsa izan da proiektuan udal departamentu desberdinetako ikuspegiak jasotzea, hala nola herriko emakume elkartenak. Proiektu hau elkarrekin jorratu izana, denon ekarpenekin, oso garrantzitsua izan da, arazo larri honen inguruan denon indarrak batuz erantzuna tinkoagoa izango baita.

Emitzaren ikuspegitik:

Emitza oparoak izan ditu prozesuak, eraso matxisten aurkako behatokia sortu baita, eta bere funtzioak, helburuak, funtzionamendua etab. adostu. Ez da gutxi.

Ikasitakoak

Elkarlanaren balioa, eta prozesua ongi bideratzeko aholkularitza tekniko egokia zein garrantzitsua den.

BALIARRAIN

Baliarraingo partaidetza sendotzen

EKIMENAREN IZENA

Baliarraingo partaidetza sendotzen.

HELBURUA

Herritarrak parte hartzea zein garrantzitsua den ohartu dira.

PARTE-HARTZAILEAK

65 (39 emakumezko eta 26 gizonezko)

IRAUPENA

6,5 hilabete

ALORRA

#Kudeaketa estrategikoa - Partaidetza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Baliarraingo Udala


TOKIA

Baliarrain

BIZTANLERIA

165 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUUE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Herritarrak parte hartzea zein garrantzitsua den ohartu dira.

Zehatza(k):

Zenbait gaien inguruan zalantzak argitu dira.

Berriro ere zalantzak azaltzeko prest agertu dira, guztien artean argitzeko. Herritarrek patxadaz azaltzen dituzte bere zalantzak .

Esperientziaren azalpena

Esperientzia oso dinamikoa, gai bakarra ez zenez aukera asko egon dira herritarrengana inguratzeko.

Esperientzia ere oso positiboa, zalantza asko argitzeko balio izan duelako eta.

Emaitzen azalpena

Aurrera begira ere herritarrek beren zalantzak argitzen jarraitzeko aukera eskaintzen da.

Horrela, herritarrek ere bere kezka eta zalantzak udalaren aurrean agertzeko aukera izatearekin partaidetza eraginkor bat sortzen ari da .

Zer lortu da

Partaidetza puntuala izan ordez, sistematikoa izatea; hau da, norbaitek zalantza edo kezka duenean, udalera jotzea lasaitasunez, eta erantzunak banaka eman ordez kolektibo baten barruan ematea .



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Erabilitako hizkuntza bakarra izan da.

Berdintasuna

Berdintasun-printzipioak osorik bete dira.

Aniztasuna

Herri anitza ez bada ere, bete egin da.

Ingurumena

Landu diren gai guztiak ingurumenarekin lotuta zeuden.

Balorazio atala

Oso ona. Izan ere, lehen esan bezala, gai asko jorratu dira. Eraitza ere oso ona izan da, eta herritarrek hala baloratu dute.

Herritarren parte-hartze handia izan da. Teknikariak antolatutako foroetan jende asko bildu da eta kasu batzuetan bere etxera joan dira.

Erabilitako metodologiak kontuan hartu ditu udalerrri txiki baten ohiturak eta kasu bakoitzerako egokiena dena ikusi da. Zaila da metodologia zehatz bat marraztea; gaiek markatzen dute metodologia hori.

Teknikariarekin komunikazioa zuzena eta arina izan da une oro.

Aurreikuspenak bete dira, baina oraindik badago zer hobetu.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Lehen esan bezala, prozesu zehatzak ezin dira idatzi; gai bakoitzaren beharren arabera aldatzen dira. Hori dela eta, prozesua egokia izan da eta ondorioak positiboak izan dira.

Eraitzen ikuspegitik:

Eraitzak oso onak izan dira. Eraitza positibo horren arrazoia da gai txikiak landu ahal izan ditugula, bizilagunen zalantzak zuzenean alderatu direla eta erantzunak egokiak izan direla.

Ikasitakoak

Era berean jarraitu behar da, bizilagunak zalantzak eta galderak aurkeztera bultzatuz, parte-hartze dinamikoa eta sistematikoa lortzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Modu berean jarraitu behar da eta gazteengana iristen saiatu.

IRURA

Hiru udal-erakinen egokitzapena eta erabilera zehazteko partaidetza prozesua

HELBURUA

Irurako herritar guztien artean udalaren jabetzako diren hiru eraikinen erabilera posibleak proposatu, adostu eta beharrezko egokitzapenak lantzea, herriak dituen espazio beharrak definiziotik abiatuta.

PARTE-HARTZAILEAK

70 (47 emakumezko eta 30 gizonezko)

IRAUPENA

2020/07 – 2020/12

ALORRA

#Gizartea eta hirigintza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Irurako Udala

TOKIA

Irura

BIZTANLERIA

1.812 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Irurako herritar guztien artean udalaren jabetzako diren hiru eraikinen erabilera posibleak proposatu, adostu eta beharrezko egokitzapenak lantzea, herriak dituen espazio beharrak definiziotik abiatuta.

Zehatza(k):

- Hiru udal-eraikinen inguruko informazio zabaldu eta partaidetza-prozesuaren berri ematea.
- Udala osatzen duten ordezkariak, zein herritarrek partaidetza-prozesuaren markoa ezagutu, baldintzak onartu eta jarraipena egitea.
- Iruran asebetek ez dauden espazio beharrak identifikatzea.
- Espazio beharrak identifikatuta eta hiru udal-eraikinen ezaugarri nagusiak kontuan hartuta, hiru espazioen erabilerak adostea eta beharrezko egokitzapenak lantzea.

Esperientziaren azalpena

Partaidetza prozesua garatzea positiboa izan da Udalarentzat eta herritarrentzat, markatu genituen helburuak lortu baititugu. Hartu diren erabakiek zilegitasun gehiago dutela esan daiteke eta partaidetzaren kulturen ikasteko baliatu dugu. Norbere interesetatik, interes kolektiborainoko jautzia eman da posizio desberdinak eta aniztasuna bermatzeko aukera erreala. Garbi dugu, etorkizunean ere estrategikoak diren erabakiak modu berean hartuko ditugula.

Emaitzen azalpena

Parte hartze prozesuak utzi dituen ondorioen datuak positiboak dira, bai kuantitatiboki zein kualitatiboki. Herritarrek asko eskertu duten prozesua burutu dugu, eta objektu ziren eraikinen inguruko erabaki zehatzak hartu ditugu.

Horrela, herritarrek ere bere kezka eta zalantzak udalaren aurrean agertzeko aukera izatearekin partaidetza eraginkor bat sortzen ari da .

Zer lortu da

Herritarrek espazio beharrak asetzeko hartu beharreko erabakiak osatu ditugu. Eraberritze edo erabilera motak eztabaidatu eta adostu ditugu. Udalak hurrengo urteetan egingo diren inbertsio nagusiak zehaztu dira eta epeak markatu.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara


Prozesu guztian, komunikazio arloan zein antolatutako batzarretan euskara izan da hizkuntz nagusia. Herritarren eskubideak bermatu dira, baina euskarak hartu du zentralitatea.

Berdintasuna

Organoen osaketatik hasita, berdintasun irizpideak jarraitu ditugu. Emakumeen presentzia bermatu zezaketen neurriak ipini dira, gogoeta saioetan zaintza zerbitzua eskaintzea adibidez. Parte hartzaileen datuei erreparatuta, emakumeak izan dira kopuru handiena lortu dutena.

Aniztasuna

Jarraipen batzordearen osaketatik hasita, aniztasuna izan dugu helburu. Izan adin, sexu edo jatorri ezberdinetakoak. Kolektiboren baten falta sumatu dugunean, hori konpontzen saiatu gara.



Balorazio atala

Egitasmoa martxan ipini genuenean markatutako helburuetan betetze maila altua lortu dugu.

Parte hartzaile kopurua ondo egon dela esan dezakegu beti nahi izaten da gehiago baina gustura gelditu gara eta oso giro atseginen joan da prozesu guztia.

Prozesua metodologikoki bideratzeko IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen den metodologiaren oinarriak hartuko ditugu kontuan. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei gizarte-sareak berreraikitze aukera ematen die, alegia, hausnarketaren bidez gizarte-sare horiek eraldatzeko aukera. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika berezien erabilera.

Gure lanerako ikuspegiak hiru urrats hauek barne hartzen ditu, hausnarketa, ekintza, eta ebaluazioa.

- Talde eragilea (hautetsiak + teknikariak).
- Jarraipen batzordea (hautetsiak + teknikariak + herritarrak).
- Batzarrak edo gogoeta saioak.
- Komunikazioa modu presentzialean zein telematikoan eman da, pandemia egoerak horrela bultzatuta. Erabili ditugun euskarriak paperean zein digitalean prestatu ditugu.
- Koordinazioa partaidetza teknikariak eta Elhuyar aholkularitza enpresak egin dute.

Kontuan izanik pandemia garai batean bete behar izan ditugun neurriak (aforoak, distantziak...), hasieran ipinitako espektatibak bete dira parte hartze ikuspegitik. Solaskideen arteko komunikazioan aurreikusten ziren zailtasunak gainditzea lortu da.

Partaidetza prozesurako kontratatu den aholkularitza enpresak asko erraztu digu zeharkako politiken kudeaketa, gai horietan formazioa duten pertsonak egin dutelako lan.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuan parte hartu duten herritarrek balorazio positiboa egin dute eta eskertu egin dute Irurako Udaleko erabaki estrategikoetan herritarrei parte hartzeko aukera eskaintzea eta euren iritzia kontutan hartzea.

Emaitzaren ikuspegitik:

Irurako udal gobernuko kideek, Jarraipen Batzordeko kideen berrespenarekin, hurrengo erabaki zuten:

- Irurako herritarrek egindako proposamenen eta lehentasunen gaineko irakurketa egin eta gero, eta balizko eszenatoki desberdinak aztertu ondoren, udaletxearen eraberritzerako aurkeztutako aukera desberdinen artean 3. Aukera lehenestea. Hau da, eraikinari anplazio bat egitea eta hirugarren solairu bat eraikitzea.
- Lehentasunen hurrunkeran, Zahar-etxeko beheko solairuan herri-ostatu bat irekitzea, kultur ekitaldietarako espazio bat izatea ere bilatuz.
- Hirugarrena eta azkena, Haurreskolako lehen solairuan erabilera anitzeko espazio bat egitea.

Ikasitakoak

- Kudeaketa plana egiten
- Komunikazio estrategia egitea

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

- Aholkularitza beharra
- Komunikazio estrategia zehaztea
- Kudeaketa plana edukitzea
- Aniztasuna lortzeko neurriak finkatzea



UROLA KOSTA

Eskualde honen iparreko muga itsasoa da. Ekialdean Donostialdearekin eta Tolosaldearekin egiten du muga; hegoaldean Goierriarekin; eta mendebalean Deba Garai eta Beherearekin. Guztira 327,2 km²-ko lur eremua dauka, hau da, Gipuzkoakoaren %16,5. Bi ibaiek zeharkatzen dute, Urola ibaiak eta Oria ibaiak. Hamaika udalek osatzen dute eskualde hau. Zarautz eta Azpeitia dira hirigunerik garrantzitsuenak. Zarautzen eraginpean daude itsasaldeko herriak: Aizarnazabal, Aia, Zumaia, Getaria eta Orío; azken herri hori oso lotua dago Donostiari. Azpeitiak bere eraginpean ditu barrualdeko herriak: Azkoitia Zestoa, Errezil eta Beizama. Komunikazioak, W-E norabidean, errepide hauen bitartez egiten dira: A-8 (Bilbo-Behobia) autobidea; N-634 kostaldeko errepidea; eta Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Errezil eta Tolosa lotzen dituen GI-2634 errepidea. Bestalde, norabide berean, Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen bide estuko trenbidea dago. Urolako arroarekin lotura GI-631 errepidearen bitartez egiten da (Zumaiatik Zumarragaraino doana), eta Goierriarekin berriz GI-2635 errepidearen bitartez (Azpeititik Beasainerraino doana). Urolako trenbidea azken errepide horren alboz albo zihonan, baina 80ko hamarkadan zerbitzua kendu eta trenbidea deuseztu zuten. Azpeitiko geltoki zaharrak Trenbidearen Euskal Museoa gordetzen du egun. Zerbitzuen sektoreak eta industriak dute pisu gehien, baina lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka hemen; bereziki herri txiki batzuetan: Getarian, Aian, Beizaman, Errezilen eta Orion. Getarian eta Orion arrantzak duen pisuak eragin handia izan dezake lehen sektore horretan hainbeste langile izateko. Turismoari lotutako jarduerak garrantzitsuak dira kostaldean, batez ere Zarauzko hondartzaren eta Zestoako bainuetxearen inguruan. Oporretako bigarren etxeak eta udaldiko alokairuak ugariak dira. Azpeitia epai barrutiko burua da; barruti horretan eskualdeko herri guztiak, Tolosaldeko Bidegoian barne, sartzen dira.

GETARIA

Turismo estrategia baterako hausnarketa

HELBURUA

Aipatu dugun moduan lan honen helburua estrategia turistiko baterako oinarriak ezartzea da eta Getariako Udalak Turismo jardueraren inguruan izan ditzakeen uste edo afekzio konkretuen azterketa burutzea.

PARTE-HARTZAILEAK

14 (9 emakumezko eta 5 gizonetzko)

IRAUPENA

1. bilera-azaroak 2 / 2. bilera-azaroak 4 /
3. bilera-azaroak 9 / 4. bilera-azaroak 11

ALORRA

#Turismoa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Getariako Udala

TOKIA

Getaria

BIZTANLERIA

2.830 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BU EE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

Aipatu dugun moduan lan honen helburua estrategia turistiko baterako oinarriak ezartzea da eta Getariako Udalak Turismo jardueraren inguruan izan ditzakeen uste edo afekzio konkretuen azterketa burutzea.

Errealitate turistikoaren argazki ahal eta errealea izatea. Errealitate turistikoan oinarritutako planifikazio iraunkorra ahalbideratzeko ezinbestekoa da turismoaren herri egoera nolako den ezagutzea. Era honetan, lan honen lehenengo

Zer lortu da

Bizilagunek turismoari buruzko beren ikuspuntua eman ahal izatea, beren kezka, zalantza eta gaizki-ulertuak mahai gainean jartzea. Denen artean hitz egin ahal izatea. Era berean, Udalean turismoan aritzen diren sektore pribatuek herritarrei beren kezka, galderak eta abar azaldu ahal izatea. Udalak bere gain hartu du informazio guztia eta hainbat ekimen jarriko ditu abian.

Orain erronka Udalarena da. Lana egin ondoren eta emaitzak ikusi ondoren, neurriak ezarri behar ditu udalherriaren bokazio turistikoaren arteko oreka lortzeko eta udalherria bizilagunentzat bizitzeko leku egokia izaten jarraitzeko.

helburua errealitatea ezagutzeko diagnostikoa burutzea izango da.

Herritarrak turismo jardueraren zentroan kokatu eta errealitatearen hausnarketa bat burutzea.

Turismo errealitateak herrian dituen eragin esparruak identifikatu eta horien inguruko lan taldeak antolatzea.

Esperientziaren azalpena

Ez da Getarian abian jartzen den lehen prozesu parte-hartzailea, baina, nahiz eta hain herri txikia izan, jendeak gogotsu parte hartu du saio guztietan.

Pertsona batzuk behin baino gehiagotan joan dira saioetara, eta gazteen inplikazioaren falta sumatu da. Hainbat bitarteko erabili ditugun arren (sare sozialak, prentsa, kartelak...), ez gara herritarren sektore honetara iritsi.

Emaitzen azalpena

Herri turistikoa izan arren, Getariak bizitzeko herria izaten jarraitzen du, eta modu berean jarraitu nahi du.

Horrela, jarduera turistikoaren jarraipena eta adierazleen zehaztapena ezinbesteko ariketa bihurtu dira.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Bilera guztiak euskaraz egin dira, baita emandako edukiak ere: elkarrizketak, galderak, azalpenak, elaborazioak, testuak, ikus-entzunezko euskarriak, etab.

Une jakin batzuetan pertsona batek edo bik gaztelaniaz hitz egin dute.

Berdintasuna

Bilera gehienetan emakume gehiagok parte hartu dute gizon baino. Erakundearen aldetik, emakumeak arduratu dira saio guztietako zereginak koordinatzeaz, eta Udaleko politikarien eta teknikarien arteko genero-berdintasuna bultzatu da.

Aniztasuna

Saioak parez pare ireki dira eta ez da inolako trabarik jarri. COVID-19ak markatutako irizpideak bakarrik hartu dira kontuan: maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, distantzia soziala, espazioa aireztatzea, etab.

Ingurumena

Bilera guztiak toki berean egin dira, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Eraikina herriaren erdigunean dago, herritarrentzat oso toki irisgarria.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila: Ona

Asistentzia, parte hartzea eta giroa: Ona, baikorra, lana egiteko prest eta ikus puntu desberdinak egon arren, errespetuzko giroa.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia: Atsegina, erraza, metodologia ulergarria. Zatiak ondo identifikatuta, azalpenak, lan eremuak eta elkarguneak.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa: Ona.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila: Herri txikia izateko, pertsona desberdinak parte hartu du eta bere iritzia, zalantzak eta kezka azaltzeko espazio bat eskaini zaie eta hori eskertu dute. Orain, ondorio horiek martxan ipini behar dira herri mailan, batzuek epe motzean eta beste batzuk epe luzeagoan.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa: Ona.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Aberasgarria.

Emaitzaren ikuspegitik:


Balorazioa egiteko goiz da oraindik.

Ikasitakoak

Oso zaila dela herriko sektore guztietara iristea. Hala ere, oso prozesu aberasgarria izan da, eta modu egokia Udala eta herritarrak harremanetan egoteko eta kaleko pultsua hartzeko, haien errealitatea ezagutzeko eta behar diren neurriak aplikatzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Teknologia berriak, bilera telematikoak... Hau al da gazteekin konektatzeko modua? .



ZESTOA

Zestoa 2020-2030 Herri Plangintzarako Partaidetza Prozesua

HELBURUA

1. Herri bezala, herriko eragileen arteko saretze lana eta komunitate izaera elikatzea, eraginkortasun kolektiboa bilatuz.
2. Partaidetza prozesuaren emaitzak Udalaren batzordeetara trasladatzea, eta Zestoako Udalak, proposamen horiek aztertu, garatu eta jarraipen bat egiteko konpromisoa hartzea.
3. 4-ZESTOA 2020-2030 HERRI PLANGINTZAren dokumentua idaztea, Zestoaren etorkizuneko erronka estrategikoak eta lehentasunezko egitekoak markatuko dituena.

PARTE-HARTZAILEAK

316 (176 emakumezko eta 140 gizonezko)

IRAUPENA

2020ko irailetik 2021eko martxora

ALORRA

#Hirigintza eta garapen komunitarioa

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Zestoako Udala

TOKIA

Zumaia

BIZTANLERIA

3.894 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

1. Herri bezala, herriko eragileen arteko saretze lana eta komunitate izaera elikatzea, eraginkortasun kolektiboa bilatuz.
2. Partaidetza prozesuaren emaitzak Udalaren batzordeetara trasladatzea, eta Zestoako Udalak, proposamen horiek aztertu, garatu eta jarraipen bat egiteko konpromisoa hartzea.
3. 4-ZESTOA 2020-2030 HERRI PLANGINTZAren dokumentua idaztea, Zestoaren etorkizuneko erronka estrategikoak eta lehentasuneko egitekoak markatuko dituena.

Zehatza(k):

1. Herritarrei iritziak eman eta ekarpenak egin ahal izateko aukera zabaltzea, edozein arlo eta gairi buruz, modu ireki eta librean, herritarren lehentasunak zein diren jakiteko.
2. Prozesuan parte hartutako herritarren partaidetza, kopuruz ahalik eta zabalena, baina batez ere ahalik eta anitzena izatea. Adin, jatorri, genero, auzo eta sentsibiltate politiko guztietako herritarren partaidetza bermatu nahi izan da; ahalegin handia egin da horretan.
3. Herritarren iritzi eta lehentasunetatik abiatuta, etorkizuneko Herri Plangintzaren oinarriak idaztea; antolatu behar dituen erabakitzeak, baita zein norabidetan jarri behar dituen jakiteko ere.

Esperientziaren azalpena

Zestoa 2030 Herri Plangintza idazteko, partaidetza prozesu bat bideratu du Zestoako Udalak. COVID-19 pandemia egoerak baldintzatutako parte-hartze prozesua izan da, ez da modu presentzialean herritarren partaidetzarako foro jendetsurik antolatu, baina bide alternatiboak erabilita, zestoar guztiek izan dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Lau informazio bide nagusi erabili dira herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko:

1- Online galdetegia: modu telematikoa edozein gairi buruz ekarpenak egiteko galdetegi zabal bat diseinatu eta zabaldu da herritarren artean. www.zestoa.eus eta www.danbolin.eus webguneetan zintzilikatuta da galdetegi horretara sartzeko lotura,

eta horrez gain, Zestoako talde eta elkarteetako solaskideekin ere harremanetan jarri da Siadeco, bakoitzak bere taldeko partaideen artean zabalpena eman eta parte hartzeko gonbidapena egiteko eskatuz.

2- Posta elektronikoa: posta elektronikoko bidez erantzuteko aukera ere izan dute herritarrek eta gizarte eragileek. Galdetegia “pdf” formatuan erantzun eta posta elektronikoko bidez Siadecora igortzeko aukera eskaini da.

3- Bilera edota elkarrizketa presentzialak: idatziz baino aurrez aurre, Siadeco-ko teknikariek bildu nahi izan dutenekin hainbat elkarrizketa egin dira prozesu honetan zehar. Aurrez aurreko elkarrizketez gain, telefono bidez edota telematikoki egindako elkarrizketak ere izan dira. Kopuru mugatuko saio presentzialak ere egin dira, gazteekin eta auzoetan.


4- Elkarrizketatu beharreko Zestoako herritar edota informatzaile kualifikatuekin bilerak: auzo bateko edo besteko edota arlo bateko edo besteko errealitatea gertutik ezagutu eta ekarpenak egin ditzaketen eragile edota pertsonen izenak lortu eta haiekin egoteko ahalegin berezia egin da.

Emaitzen azalpena

COVID-19ak baldintzatutako partaidetza prozesua izan arren, honako helburuak eta emaitzak lortu egin dira

1. Herritarrei iritziak eta ekarpenak, auzoz-auzo, edozein arlo eta gairi buruz, modu ireki eta librean jasotzea.
2. Auzoaren arabera, generoaren arabera, jatorriaren arabera eta adinaren arabera aniztasuna egotea partaidetza horretan.
3. Herritarren iritzi eta lehentasunetatik abiatuta, etorkizuneko Herri Plangintzaren oinarriak idaztea; Zestoako udal ordezkariak, herritarren lehentasunak zein diren jakitea; Zestoako Udalak, bere baliabideak nola antolatu behar dituen erabakitzeak, baita zein norabidetan jarri behar dituen jakiteko ere.
4. Azkenik, informazio iturri ofizialak erabiliz, zeharkako informazioaren analisi sakon bat ere egin da eta Zestoa 2030 Herri Plangintzaren diseinurako oso baliagarria izan da informazio hori lantzea.

Zestoak herri gisa hurrengo 10 urteetan egin beharreko ibilbidea zein izango den, landu, adostu, zehaztu eta abian ipintzea helburu duen prozesu bat gauzatu da. Horretarako, parte-hartze prozesu zabal bat bideratu da herritarrekin, 300 herritar baino gehiagok egin dituzte ekarpenak; adostasuna lortzeko, Zestoako Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztietako ordezkariekin partekatu eta kontrastatu da. Zehatza izateko, jarduera plana ere garatu da, Zestoa udalerraren ezaugarriak eta Zestoako Udalaren baliabideak kontuan hartuta, lehentasunen, proiektuen, urratsen eta baliabideen planifikazioa egiteko. Plana martxan jartzeari buruz berriz, Zestoako Udalak Herri Plangintza hau mugari izan eta martxan jartzeko urratsak emateko prestutasun osoa erakutsi du.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Zestoako herri gunea eta auzoen ezaugarri soziolinguistikoak kontuan izanik, partaidetza proiektua gauzatzeko lehen hizkuntza euskara izan da. Ahozko nahiz idatzizko jardunean euskarak lehenetasun osoa izan du. Prozesuaren komunikazio fase guztietako lan hizkuntza euskara izan da. Aurreikusitakoa baino baino altuagoa izan da euskararen erabilera eta presentzia maila. Barne erabilerarako idazki eta txosten guztiak euskara hutsean idatzi dira, kanpo komunikaziorako euskarrietan euskararen erabilera lehenetsi da eta herritarren partaidetzarako bilera ireki eta lan taldeetako harreman hizkuntza nagusia euskara izan da, euskaldunak ez diren herritarrei gaztelaniaz prozesuan parte hartzeko aukera ere bermatuta. Euskara ulertzen ez zutenei begira, komunikazio modu pertsonalizatuak erabili dira eta horietan; euskararekin batera gaztelania ere erabili da, ez ordea herritar guztiei zuzendutakoetan.

Berdintasuna

Datu orokorrekin erreparatuta, gizonezkoena baino altuagoa izan da emakumezkoen parte-hartzea. Genero berdintasunaren irizpidea, Zestoako Herri Plangintzaren, oinarriko aldagaietako bat izan da, Plangintzaren helburuetako bat, genero berdintasuna lortzeko bidean urratsak ematea izango delako.

Komunikazio guztietan berdintasunaren irizpidea zaindu da. Auzo eta adin ezberdinetako biztanleen partaidetzarekin batera, emakumezkoen partaidetza bermatzeko neurriak hartu dira. Ahozko eta idatzizko komunikazioetan hizkera ez sexista erabiltzeko neurriak hartu dira.

Aniztasuna

Zestoako auzo, gizarte sektore eta eragile ezberdinengana zabaltzeko neurriak hartu dira. Atzerriko herrialdeetatik Zestoara bizitzera etorritako biztanleen esperientziatik asko dagoela ikasteko erakutsi du partaidetza prozesu honek, eta hain zuzen ere, gizarte integrazioa da Zestoako 2030 Herri Plangintzaren ardatz nagusienetako bat. Bestalde, auzo, belaunaldi eta adin desberdinetako arteko dialogoak, genero, jatorri, hizkuntza eta erlijio aniztasunak, proiektua aberastu dute. Partaidetza egitasmo honek, ikuspegi integrala eta integratzailea izan du eta aniztasuna, egitasmo honen berezko ezaugarria izan da.

Ingurumena

Ingurumena, zeharlerrotasunez aplikatu da ingurumena partaidetza prozesu honetan, bai prozesua bideratzeko jarraitutako urratsetan, baita herritarrekin Zestoako 2030 Herri Plangintzarako ekarpenak jasotzerakoan ere. Lanketak egiterakoan kontuan hartu diren arloak izan dira, besteak beste:

- Landa eremuen egoera ezagutu eta etorkizuna bermatzea.
- Lehen sektorearen etorkizuna bermatzea
- Nekazaritza ekologikoa.
- Ingurune naturalaren zaintza.
- Mugikortasun jasangarria.
- Kontsumo jasangarria eta bertako ekonomia sustatzea.
- Efizientzia energetikoa.
- Subirautza energetikoa.
- Ekonomia berdea eta jardueren ekonomiko jasangarria.

Balorazio atala

- Herritarren parte-hartze mailarekin eta aktibazio mailarekin zerikusia duten helburuak maila altuan erdietsi dira, nahiz eta pandemia egoerak aurrez aurreko saioen antolaketa baldintzatu duen. Epeetan ere eragin du COVID-19ak.
- Partaidetza prozesuari esker, informazio asko jaso da eta oso baliagarria gertatu da informazio hori Zestoako Udalaren etorkizuneko lehenetasunak finkatzeko.
- Informazioaren deboluzioa egin bada ere, Herri Plangintzaren garapenean, Udal ordezkari eta teknikariek gain, herritarren inplikazioa garrantzitsua izango da eta hori lortzeko, jarraipen fase bat zabaldu beharra ikusten da.

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Partaidetza-prozesua aurrera eramateko erabili beharreko metodologia egokitu egin behar izan da COVID-19aren eraginez, baina hala ere, partehartze maila altua lortu dela eta partaideen espektatibak bete direla kontsideratzen da.

Emaitzaren ikuspegitik:

Informazio asko jaso da eta informazio iturri oso ezberdinetatik. Auzo guztietako herritarren iritzia eta ekarpenak jaso dira. Horrela, Zestoako 2030 Herri Plangintzarako lehenetasunak markatzerakoan, herritarren iritzia eta lehenetasunak zein diren jakin eta kontuan hartzeko tresna oso baliagarri bat du Zestoako Udalak.

Ikasitakoak

Garrantzitsua dela parte-hartze prozesuan herritarrek parte hartzerakoan, eta batez ere, sentsibilitate eta ikuspegi ezberdinak dituzten herritarren iritzia jaso nahi denean, udal gobernuan dauden ordezkari politikoez gain, oposizioko udal ordezkariak ere prozesuan inplikatzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Garrantzitsua izango da ahalik eta lasterren Zestoako herritarrek eta auzotarrek ikustea, Zestoako 2030 Herri Plangintza martxan jarri duela Zestoako Udalak eta partaidetza prozesu berri hori, Herri Plangintza horren inplementazioa nola egin eztabaidatzeko izango dela.

ZUMAIA

Zumaiako HAPOn
0. Eta 1. Faseen Partaidetza:
Herritarrek Parte Hartzeko
Programa eta Hirigintza
Informazioa

HELBURUA

Zumaiztar guztiei informazioa eta prestakuntza ematea HAPOn faseetan zehar. Helburu hori informazioa jaso nahi duten herritarrei eta parte hartu eta edukiak eman nahi dituztenei zuzenduta dago

PARTE-HARTZAILEAK

-

IRAUPENA

Bete da aurreikusitako fasea

ALORRA

#Hirigintza

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Zumaiako Udala

TOKIA

Zumaia

BIZTANLERIA

9.827 biztanle

(Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (BUEE) 2020 urteko urtarrilaren 1ean.)



Azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

1. Zumaiarrak informatu eta trebatzea HAPOn fase ezberdinetan zehar. Helburu hau soilik informazioa jaso nahi duten herritarrentzat zein parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenentzat dago zuzenduta. Herritarren parte-hartzea informazio oinarri on batetik abiatu dadin, ekintzen eta materialen edukiek ulerterrazak behar dute izan.
2. Benetako parte-hartze bat aurrera eramatea, eraginkorra dena eta ahal bezain pertsona-kopuru handi eta anitzena kontuan hartuko dituen. Parte-hartzaileen artean besteak beste gizarte-eragileak, elkarteak eta elkarrekin ez diren herritarrak, adin guztietakoak (gazte eta haurrak barne) hartuko dira kontuan, kanal anitzen bitartez (aurrez aurrekoak eta digitalak). HAPOn edukia fase ezberdinetan hausnartzea, eztabaidatzea, egiaztatzea eta argitzea ahalbidetuko duten kanalak erabiliko dira, eztabaida publiko eta sozial bat sortuko dutenak tokiko kudeaketari buruzko gai zehatz baten inguruan, hala nola, hiri-antolamenduaren inguruan.
3. Planaren proposamenei ekarpenak egitea, adostasun kolektibo handiago bat lortuz. Ikuspegi tekniko-politiko herritarrenekin osatu nahi da, esperientzialagoa baita, gizarte-talde, adin eta esperientzia aniztasunean oinarritutako ikuspuntuak aintzat hartuz eta eduki tekniko aberastuz. Alderdi honek garrantzia handia du bai HAPOn hasierako faseetan, adibidez, Aurrerakin-fasean.

Zehatza(k):

1. Plan Orokorren erredakzio-prozesua ezagutaraztea eta komunikatzea, dagozkion faseetan.
2. Herritarrei planari eta bere erredakzio-prozesuari buruzko informazioa azaltzea eta hori aztertzeke eskubidea dutela helaraztea; horretarako, lengoia tekniko herritarrentzat eskuragarria eta ulerterraza den lengoia batera itzuliko da.
3. Eztabaida sozial eta publiko bat sortzea tokiko kudeaketako gai zehatz bati buruz - hiri antolamendua -.
4. Herritarren arteko eremu digitalak zein aurrez aurrekoak

sortzea Zumaiaren etorkizuneko plangintzari buruzko komunitate-hausnarketak egiteko.

5. Planaren eduki teknikoak herritarren ikuspegiarekin aberastea, emakumezkoen eta gizonezkoen ikuspuntua erantsiz.

6. Herritarren hausnarketa, iritzi eta nabardurak herrian egindako lan teknikoari erantzea.

Esperientziaren azalpena

Planteatutako helburuak lortzeko asmoz, partaidetza-estrategia 0. fasean definitu da Herritarren Parte-hartze Programa honen bidez, eta ondoren Zumaiako Udalak egiaztatu eta baliozkotzat eman du. Estrategia Planaren fase ezberdinetan egiten den iterazio-metodologia batean datza. Metodologia horrek teknikari eta herritarren arteko ikuspuntuaren artikulazio on bat ahalbidetu du. Horretarako, eduki eta materialak prestatu ondoren, herritarrei eta parte hartu duten eragileei informazioa eskaini zaie. Jarraian, partaidetza-prozesuaren berezko ekintzak abian jarri dira (bai aurrez aurre zein digitalki ere). Eta azkenik, ekarpenen laburpena eta ebaluazio bat egin da.

Horrela, Planaren fase bakoitzari dagokion lan tekniko gauzatu ondoren, parte hartzeko eta komunikatzeko edukiak eta materialak prestatu dira eduki teknikoak "birmoldatuz", herritarrek ulerti ahal izan ditzaten; hurbila, eroso, bisuala eta edozein biztanlerako ulergarria den formatu bat erabiliz. Herritar guztiengana iritsi diren komunikazio- eta partaidetza-bideak ezarri ahal izateko, funtsezko alderdiak edo gakoak honako hauek izan dira: edukiak egokitzea, datuak bistaraztea eta eragileen mapa.

Hori guztia prestatu ondoren, hurrengo pausua informatzea izan da. Alde batetik, parte-hartze prozesua (eta fase horretan garatuko diren ekintzak) azaltzeko, eta, bestetik, HAPOn fase horretako eduki tekniko ezagutzera emateko; fase honetan, Hasierako Onespenean, Behin Behineko Onespenean eta Behin Betikoan zein Informazio-fasean eta Aurrerakinean. Helburua, beraz, partaidetza informatua lortzea izan da. Egin diren ekintzen artean topa daitezke (ez fase guztietan, baina

bai HAPOn erredakzio-prozesu osoan): erakusketak (bisita gidatuekin), informazio-hitzaldiak, kartelak, postontzietara iritsiko diren liburuxkak, informazio-bideoak, bandoak atarrietan, oharrak eta prentsaurrekoak, webgunea, artikulak udal aldizkarietan eta beste hainbat.

Informazioa eman eta gero, partaidetza-ekintzak hasi dira, HAPOn faseen arabera, bide ezberdinen bitartez. Ekintza horiek aurrez aurrekoak edota digitalak izan dira, fasearen arabera, pertsona-kopuru eta -aniztasun handiena lortzeko. Horrela, xedea askotariko parte-hartzea, plurala, barnertzailea eta parekidea lortzea izango da. Deialdian arreta jarri da eta aurrez aurreko saioak erraztu eta dinamizatu dira, eragile-talde ezberdinekin: banakako herritar edo elkarrekin, emakumeen elkarrekin, adineko pertsonekin, gazteekin, haurrekin... Baita ekonomia-arloko eragileekin, udal-teknikariekin, ordezkari politikoekin eta Plangintzaren Aholkuri Kontseiluarekin ere. Jada erabiltzen diren foroak aprobetxatu dira eta Udalarekin batera definitu da ea talde Interesdun gehiago dagoen ala ez (kirolariak, langabeak, etorkinak, etab.). Aurrez aurreko saioez gain, HAPOrako berariazko webgune bat sortu da, georreferentziadun partaidetza-plataforma digital bat izan duena. Azkenik, ebaluazio eta ondorioetan, kanal ezberdinen bidez jasotako ekarpenak bildu eta laburtu dira lengoia teknikoago batera "birmoldatzeko", eta HAPOn kontuan hartzeko. Burutu diren berariazko ekintza zehatzak honako hauek dira: partaidetza-adierazleen ebaluazioa, ekarpenen sintesia, memoria kuantitatibo eta kualitatibo bat idaztea, ondorioak ateratzea eta herritarrei ezagutzera ematea.

Emaitzen azalpena

Parte-hartzea martxoaren 10ean hasi zen. Prozesuak Covid-19aren ondorioz sortutako egoeraren erronkari aurre egin behar izan zion eta eragina izan zuen bai epeetan eta baita partaidetza-ekintza batzuetan ere.

Zer lortu da

Gai desberdinen inguruko parte-hartzea nahiko parekatuta dago. HAPO berrirako, hamar gaiek lehenetsuna izan arren, partaidetza handiena izan zuten mugikortasuna, ingurune naturala eta etxebizitza izan ziren, eta horien atzetik, turismoa, espazio publikoa eta ekipamenduak.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Komunikaziorako material guztia eta parte-hartzerako dinamizazioa hizkuntzaren trataera egokiarekin landu da, hizkuntza ez sexista erabiliz, indarrean dagoen araudia betez. Gainera, elebitan egin da, euskaraz eta gaztelaniaz,

Berdintasuna

1. Kontziliazioa errazteko informazio-hitzaldien eta parte-hartze saioen ordutegia: Sarritan, parte hartzeko saio publikoak, lanorduetatik kanpo, 19:00etatik 21:00etara egiten dira, eta horrek zaildu egiten du familia-kontziliazioa. Saioak 18:30etik 20:00etara edo 20:30etik 20:30era egitea proposatzen da, eta, gainera, beren kargura haurrak edo helduak dituzten pertsonak ere joan ahal izatea ahalbidetzea.
2. Haurrak eta adinekoak informazio-hitzaldietara eta parte-hartze saioetara joateko aukera: horiek beren kargura dituztenak haiekin joan ahal izango dira, partaidetza-taldeko langileren batek zainduko baititu. Lan-taldearen ohitura da parte-hartze prozesuetan.
3. Aukera hori dagoela jakinaraztea (karteletan, webean eta gainerako komunikazio materialean), euren ardurapean beste pertsona batzuk dituzten eta parte hartu nahi duten pertsonak saioetara etortzera anima daitezten.
4. Bere ardurapean (normalean, emakumeak) pertsonak dituzten pertsonen parte-hartzea ebaluatu eta jarraipena egitea, hala badagokio, parte-hartze inklusiboa eta berdinzalea errazteko neurriak indartzeko.

Aniztasuna

Eragileen mapa definitzean izan da kontuan. Mapa horrek biztanleriak bere baitan dituen kolektibo eta profil guztiak hartuko ditu kontutan: banakako herritarrak zein kolektibo edo elkarteetan parte hartzen dutenak, emakumeen kolektiboak, pertsona helduak, gazteak eta haurrak.

Ingurumena

Ondoren, hirigintza antolamendua egiterakoan, esanguratsuak edo garrantzitsuak izan daitezkeen naturaguneak eta elementuak batu dira. Orain bakoitzaren analisisa egingo da, gero, Aurrerakinaren dokumentuan, horien garrantzia mugatzeko eta HAPOn horiek nola barneratu erabakitzeko.

Balorazio atala

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

HAPOn erredakzio-prozesuan zehar Zumaiarren arteko parte-hartzea ahalik eta zabalena eta anitzena izateko asmotan, parte-hartze estrategiak honako eginkizunak izango ditu:

1. Eragileen mapa definitzea. Mapa horrek biztanleriak bere baitan dituen kolektibo eta profil guztiak hartuko ditu kontutan: banakako herritarrak zein kolektibo edo elkarteetan parte hartzen dutenak, emakumeen kolektiboak, pertsona helduak, gazteak eta haurrak. Azken horiez gain ekonomiaren sarean aurki daitezkeen eragile desberdinak, udaleko langile teknikoak, ordezkari politikoak eta Plangintzaren Aholkularitza Batzordea ere izango dira eragile-maparen parte. Beste kolektibo batzuen adibideak langabezian dauden pertsonak, edota etorkinak izan daitezke.
2. Eragile-talde bakoitzerako parte-hartze kanalak definitzea. Fase eta egoera bakoitzari moldatzeko asmoz baliatuko ditugun kanalak aldatu egingo dira, aurrez aurrekoak, digitalak, eta formatu eta kokapen ezberdinetakoak izan daitezkeelarik. Foro berriak sortuko dira eta jada existitzen direnak erabiliko dira, hau da, elkarte-sareak eta sare ekonomikoak (bizilagun-elkarteak, kirol-elkarteak, ingurugiroari lotutakoak, etab.).
3. Eragile-talde bakoitzerako komunikazio-kanalak eta deialdiak definitzea. komunikatu behar den edukia, egoera eta fasearen arabera, bide ezberdinak erabiliko dira. Hala nola, prentsa-oharrak edota prentsaurreko saioak, web-orria, udal aldizkariak, e-mailez bidezko gonbidapenak, telefonoz bidezkoak, postaz bidalitako liburuxkak, kartelak, edo portaletako bandoak.

Emaitzaren ikuspegitik:

Parte-hartzaile eta ekarpenen araberrako neurketa.

Parte-hartzearen etapetan zehar jarraipen eta ebaluazioa egingo da; horrela, parte-hartze gutxien izaten ari diren kolektiboen partaidetza sustatzeko komunikazioko edo parte hartzeko ekintzak moldatu ahal izango dira. Horren ostean, parte-hartzearen etapa bakoitzaren amaierako txostenean emaitzak aztertu eta ustiatuko dira eta horiek grafikoetan jarriko dira ahal den heinean. Partaidetzaren adierazleei buruzko informazioa bildu ahal izateko asistentzia-orriak erabiliko dira aurrez aurreko saioetan, eta galdetegi digitalean, aldiz, parte-hartzailearen profilari buruzko galdera batzuk egongo dira inkestaren hasieran.

Ekarpenei loturiko adierazleak honakoak izango dira gutxienez:

- Ekarpene gehien izan dituzten gaiak.
- Interes gehien sortzen duten gaiak (lehenetsiak).
- Ekarpeneen laburpena (kualitatiboa) item eta gaika.

Ikasitakoak

Une oro ikasten ari gara, gainera kontuan izanda egokitzen joan behar garela dena Covid-a dela eta.

GFA



UDA IKASTAROAK



“Online eta aurrez aurreko ikaskuntza prozesuak uztartzeko estrategiak” udako Ikastaroan aurrera eramandako esperientzia

Testuingurua

UPV/EHUko Uda Ikastaroak erreferentziako prestakuntza-jarduera eta zientzia-dibulgazioko jarduera gisa finkatu dira euskal kulturaren inguruan, eta 2019an 14.000 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren (Estatu mailako uda ikastaroetako liderra).

Ikastaroetara joaten den xede-publikoa oso heterogeneoa da (unibertsitateko ikasleak, unibertsitate aurreko eta unibertsitateko irakasleak, funtzionarioak, profesionalak eta erretiratuak). Aurrekoarekin bat etorritik, landutako gaiak hainbat gai biltzen dituzte: iraunkortasuna, hezkuntza, zahartzea, osasuna, zuzenbidea, ekonomia, zientzia eta teknologia, kultura eta psikologia, besteak beste.

Azken edizioetan ahalegin berezia egin da ikasleen parte-hartzea sustatzeko ikastaroetan, mahai-inguruen, plataforma digitalen erabileraren, eztabaida-saioen eta laburpen-saioen bidez; hala ere, ikasleen eta irakasleen gogobetetasun-inkesten arabera, publikoaren zati batek, batez ere arlo tematiko batzuetan, parte-hartze handiagoa eskatzen du.

Zentzu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UPV/EHUko Uda Ikastaroek lankidetzaz hitzarmena adostu zuten 2020ko uztailan eta adostasun honi esker, 2020 eta 2022 urteen artean, foru erakundeak bere partaidetza eredia transferituko die Uda Ikastaroari.

Praktikan, lehen urrats moduan 2020ko udako ikastaroetan pilotu modura jarriko den “TopaGune” deituriko proiektuaren bitartez gauzatuko da ekimena, eta honen bitartez Uda Ikastaroek eskaintzen dituzten jardueretan ikasleen partaidetza sustatu eta bultzatu da, 2020an, hiru pilotu aurrera eramanez, hiru ikastaroen baitan.

Kontuan izan beharra dago 2020 edizioerako gaiak hautatzerakoan elementu gisa erabiltzeaz gain, metodologia

parte-hartzaileak COVID19 pandemiaren presentziarekin ezarritako baldintza sanitarioetara ere egokitu behar izan direla. Ildo horretatik, parte-hartze dinamiketan tresna digitalak baliatu beharra testuinguruaren parte izan dela. Hala ere, partaidetza-espazio baliadunak antolatzekeo IKTak erabiltzeak aukera ematen die parte-hartzaileei beharrezko konpetentzia digitaletan trebatzeko, eta baita edukiak batera sortzeko estrategiak hedatzean metodo birtualekin zer neurritaraino funtziona dezakegun frogatzeko ere.

Zehazki, 2020rako hautatutako ikastaroen artean, pilotu hau “Online eta aurrez aurreko (ikuspegi konbinatua) ikaskuntza prozesuak uztartzeko estrategiak” udako Ikastaroaren baitan kokatzen da; Konpetentzia digitala, estrategia metodologiko konbinatuak zein ebaluazio formatiboa uztartzen dituen UPV/EHUko online ikastaroan.

Pilotuaren helburuak

2020ko “Topagune” proiektupean egindako pilotuen helburu orokorrak

2020rako hautatutako pilotuek honako helburu orokorrak izan dituzte:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza-prozesuetan erabiltzen dituen partaidetza eta baterako sorkuntza metodologiak aplikatzea udako ikastaroen baitan.
- Parte hartzeak prestakuntzari balioa gehitzen dion tresna gisa dituen aukerak testatzea; hots, formakuntza prozesu baten partaidetzazko ekimen baten erabilgarritasuna eta balioa frogatzea.
- Pandemiak ezarritako mugak gainditu ahal izateko eta hurrengo edizioetan parte hartzeko proposamenetan sartu ahal izateko tresna digitalak frogatzea, irisgarritasuna edo esperientziaren emaitza hobetzeko.
- Horrelako parte-hartze jarduerak frogatzea, ikasleei gogobetetze-maila galdetuz, UPV/EHUko Udako Ikastaroen jardueretan duten egokitasuna baloratzeko, eta gai eta helburu

ezberdinetan aplikatzeko ikasketak lortzea.

- UPV/EHUko Uda Ikastaroetako ikasleentzat partaidetza-espazioak eta komunikaziorako bideak eraikitzea.
- UPV/EHUko Uda Ikastaroetako komunitatearen saretze eta partaidetza eskakizunei erantzutea.

Hezkuntza arloko pilotuaren helburu espezifikoak

Zehazki, ikastaro honetako partaideei eta gaiari lotutako ondorengo helburu zehatzak izan ditu aurrera eramandako pilotuak:

- Jakintzen transferentzien bidez, euskal hezkuntza-komunitateari irakasleen esperientziak zein hausnarketak partekatzea online eta aurrez aurreko klaseen estrategiak hobeto bideratzeko aukera ematea.
- Udako ikastaroko partaideek, ikuspegi konbinatuari buruz ikasitakoaren inguruan parte hartzearen bidez sakontzeko aukera izatea. Horrela, ikastaroak berak duen helburua parte hartzearen bidez bermatzea: hezkuntza eraldaketa honi aurre egiteko baliabide gehiago eta ziurtasun handiagoa izaten laguntzea irakasleei (ikastaroko ikasleei).
- Bide batez, dinamika parte hartzaile ezberdinak ezagutzea etorkizunean beren lanean ere aplikatu ahal izateko.
- Arlo edo profil (hezkuntza etapa, zentru, etabar) ezberdinetatik datozen pertsonen esperientzia partekatzekeo aukera izatea.
- Harreman berriak eta elkarri laguntzeko prest dagoen “komunitate txiki” baterako lehen pausoak ematea.
- Esperientzia aldetik asebetetze maila altuko jardunaldi bat eraikitzea.

Ebaluazioa

Pilotu honetatik ikasteko, ebaluaketa bikoitza egin da. Alde batetik, partaideek izandako gogobetetze mailari dagokionez atera daitezkeen ondorioei erreparatu zaie eta bestetik, proiektuko lan taldeak egindako barne hausnarketari.

Partaideen ebaluaketa. Zer galdetu diegu?

- Zein sentsazioekin geratu diren
- Zein asebetetze maila duten ondorengoekin:
 - Partaideen profila eta kopurua
 - Erabilitako metodologia (dinamiken zentzua eta tresnak).
 - Ekarpeneak egiteko erreztasuna eta erosotasuna
 - Guztizko iraupen denbora
 - Lan taldeko eta amankomuneko faseen iraupena
 - Denon artean lortutako emaitza
 - Gehigarriak: Graphic recording murala, whatsapp taldea, etab
 - Gakorik azpimarragarriena, gehien gustatu zaiena
 - Hobetu beharrekoak
 - Komunitatean partaide moduan mantentzeko motibazioa

Dinamizatzaile taldearen ikasketak

- Zer atera da ondo?
- Zer gaizki?
- Zer errepikatuko genuke?
- Nola sentitu gara prozesuan zehar?
 - Diseinuan,
 - Antolaketa orokorrean,
 - Oztopo logistikoei dagokienez,
 - Gauzatze lanetan...

Ebaluazio orokorra

Oro har, ondorengo ebaluaketa orokorra egin daiteke esperientzia honen inguruan, honek etorkizunerako gakoak identifikatzen lagundu digularik:

- Pilotuak zehazki izan dituen helburuak (teknikak, baliabideak, esperientzia frogatze eta ikasketak ateratze aldera) bete egin direla eta oro har, partaideen eta lan taldearen gogobetetze maila altua izan dela.

- Hala ere, kasuan kasuko baliabide bat da eta ikastaro bakoitzerako beren-beregi beharrezko hausnarketa suposatzen duela, estrategia edo gidalerro amankomun batzuen barruan.

- Emaitza ukigarri bat izateak duen garrantzia bermatzen da (bai ekarpenak, bai orogarri eta gehigarriak).

- Erabilitako dinamizazio tekniken balioa frogatzen da, partaidetzarako erraztasuna eta erosotasuna sustatzen dutela frogatuz.

- Egitura bat bilatu behar dela, baina askatasuna eta erosotasuna bermatu behar direla frogatu da.

- Partaidetzak formakuntza prozesua bermatzeko aukera ematen duela ikusteko aukera ona izan da.

- Egiteko modu berrien eta praktika partehartzaileen erakuslehoi aproposa izan da, eta partaideek gerora beren lan arloan aplikatuz gero dagoeneko eragin positibo bat izango duena.

- Pilotu honek hurrengo fase baterako ikasketak ekarri dakarzkigu eta udako ikastaroetan parte hartzeak izan ditzakeen erronkak identifikatzeko aukera sortu du.

Beraz, ondoriozta dezakegu ekimen honen bitartez frogatu dugula partaidetzak formakuntza prozesu bati balioa eransten diola alde batetik, eta are gehiago, jakintza jaso, hobeto sakondu eta horretatik jakintza berria sortzeko gai dela.

Horrez gain, prozesua bera aberasgarriagoa eta intesgarriagoa dela, erakargarriagoa ikaslearentzat, eta formakuntza prozesuen eraldaketa errealitate bat dela eta izaten jarraituko duela.



Gakoak

1. Ikastaro bakoitzeko partaidetza ekimenak izan ditzaken helburuen inguruko hausnarketa egitea

Partaidetza ekimen bakoitzerako zehazki asetu beharreko helburuak eta lortu beharreko emaitza identifikatzea lehen pausua izan behar da, horrek antolatzerako orduan izan ditzaken inplikazioengatik alde batetik, eta beste batetik, partaideen espektatiben kudeaketa on bat egiteko. Zentzu honetan, gomendagarriagoa izango litzateke partaideei zuzenki, alde zurretik, galdetzea zer espero duten.

Beste era batera, hausnarketa honek ondorengo galderari erantzun beharko lioke: “Zehazki ikastaro honetan, partaidetza prozesu honek zertarako balio behar du, zergatik eramango da aurrera eta nola islatu behar da emaitza?”.

2. Partaideen profilari eta rolari erreparatzea

Kasuan kasuko hausnarketa egin beharko da partaideen profilaren inguruan, eta beraz jardunaldiak izan dezakeen egiturari. Esperientzia honetan, adibidez, ikuspegi ezberdinetatik gai beraren inguruan hausnartzea egokitzen jo bada ere (ikasleagoa, irakasleagoa eta IKTak), ez du hezkuntza etapa bakoitzaren inguruan zehazki proposamenak egiteko aukera zabala eman, edo behintzat, ariketa ez da horrela egituratu eta beren-beregi hori landu.

Beraz, hausnartu beharreko kontu bat da ikastaroko parte izan diren guztiei zuzendutako ekimen bat izan behar den, edo helburuaren arabera eta emaitzak aplikagarriagoak/erabilgarriagoak izango diren profil bereko pertsonentzat “focus group”-ak egitea komenigarriagoa den.

3. Emaitzen irisgarritasuna eta espektatiben kudeaketa aurretiaz lantzea

Helburuak zehatz identifikatuta izateaz gain, espektatibak

ondo kudeatu beharra dago emaitzek duten ibilbide eta irisgarritasunari dagokionez. Alde batetik, partaideek argi eta garbi izan beharko lukete aurretiaz egingo duten lanarekin espero den emaitza (kokreazio produktu bat, etorkizuneko gaien identifikazioa bat, soluzio bat, elkarbanaketa, beste esperientzia batzuegandik ikastea...). Bestetik, emaitza horrekin ondoren zer egingo den edo “noraino iritsiko den” ere argi izan beharko lukete (kurtso edo sare horren baitan geratuko da, “kanpoarekin” partekatuko da, publikatu egingo da, gai horren inguruan kudeaketan dabiltzan administrazioei helaraziko zaie...). Gai hau ere, partaideei galdetu dakieke, noraino iristea gustatuko litzaiekeen.

4. Metodologiaren eta tresnen etengabeko berrikuntza bermatzea

Emaitzei erreparatzeaz gain, lortu beharreko emaitzari hoberen dagozkion metodologia eta tresnen aukeraketa egoki bat egin beharra dago, oinarritzat. Hala ere, pilotu honen bitartez frogatu da, prozesuak berak ere ematen duen balioa handia dela. Horregatik, are gehiago esango genuke: parte hartze dinamika hauen arrakastari estuki lotuta egongo da etengabe berritzea zentzu honetan.

Beraz, bai jardunaldia edo prozesua bera esperientzia interesgarri bihurtzeko eta bai partaideek gerora aplikatu ditzaken dinamika eta tresnen erakus leihotzat izan dadin, etengabe berritu beharko da horrelako prozesuetan; “berria dela, ez dela dagoeneko ikusi duten zerbaite” izatea oso garrantzitsua da.

5. Formatuen egokitasuna aintzat hartzea: partaidetza bermatzeko estrategien kudeaketa eta denboren oreka mantentzea

Prozesuaren helburuen eta profilarekin lotuta joan daitekeen arren (ez da gauza bera kurtso bateko amaierako ekintza bat izatea edo gai baten inguruan hausnartzeko ekimen “libre”

bat izatea), partaidetza bermatzea erronka bat izan daitekeela ez da ahaztu behar. Horregatik, partaidetza bermatze aldera, ekimen hauek erakargarriak izan beharko dira alderdi estrategikoenetan (gaia, emaitzak, metodologiak...) baina baita ere denbora bezalako alderdi operatiboagoetan.

Ezin da ahaztu partaideek, beraien profilaren arabera denbora aldetik ere mugak izan ditzaketela, eta beraz, ondo pentsatu beharko dela (profil eta helburuen arabera), noiz duen zentzua adibidez egun osoko jardunaldi bat proposatzeak, noiz izan behar duen 2-3 orduko ekimen bat, noiz lanorduetan, noiz lanetik kanpo, edo noiz prozesu jarrai telematikoko bat ikastaro osoan zehar, adibidez.

6. Planifikazioaren garrantzia eta alderdi operatibo/logistikokoek eta protokoloek suposatzen diren erronka.

Pilotu hau Covid-19ak gehitu dituen mugen baitan eraman da aurrera, eta beraz, jardunaldi fisiko bat egiteko segurtasun neurriak izan duten garrantzia bereziki altua izan da. Hala ere, gako hau haratago doa, eta lantalde honek partaidetza arloan duen esperientziatik ere badator. Izan ere, alderdi logistikokoek beraiekin dakarten lana aintzat hartu beharrekoa da eta horregatik, horrelako esperientziak planifikatzeko denbora ondo aurreikusi behar izango da. Prozesua bera diseinatzeaz gain, horrelako zereginetarako denbora “gorde” edo aurreikusi beharra dago: deialdiak, gonbidapenak, konfirmazioen jarraipena, fisikoki zein telematikoki espazioen aukeraketa egitea, hauek ikusi ala frogatzea, segurtasun neurriak bermatzea, ikus-entzunezko baliabideak bermatzea eta frogatzea, materiala...

Gakoak

7. Ekimena diseinatu eta aurrera eramateko lan taldearen profilaren inguruan hausnartzea

Bai barneko egituratik zein laguntza tekniko batekin lan eginda, lan talde horren profilaren inguruan hausnarketa bat egitea gomendagarria izango litzateke, ikastaro eta partaideen profilaren arabera lan talde ezberdinen beharra egon daiteke eta. Adibidez, partaideek esperientziak partekatzeo aukera izatea eta dinamizazioa ondo kudeatzea ardatz nagusia izango baldin bada, garrantzitsua izango da fazilitazio tekniketan adituak direnen eskutik joatea. Baina baliteke, beste kasu batzuetan, gai tekniko baten inguruan sakonketa bat egiteko, gaiari estuki lotuta egon behar izatea, eta hortaz, profil espezializatuen beharra izatea, edo aldez aurretik gaia lantzeko bestelako laguntza bat aintzat hartu behar izatea. Horrenbestez, estrategia orokorra bermatu ostean, kasu bakoitzerako lan taldearen aukeraketan ere hausnarketa bat egitea egokitzat jotzen da.

8. Efizientzia ikuspegitik egindako parte hartze prozesuak bermatzea (helburu, baliabide eta denboren arteko oreka)

Azkenik, beti izan behar da gogoan parte hartze prozesuak txertatzerako orduan, hauek orekatuak izan behar direla lortu nahi den helburuari eta erabiliko diren baliabideei dagokienez, bereziki Administrazio Publikotik sustatuta edo babestuta daudenean. Denbora kudeaketa aipatu dugu; denboraren garrantzia ez da bakarrik kontuan hartu behar partaidetza bermatze aldera, baizik eta baita ere efizientziaren ikuspuntutik, ekimena sustatuko duen taldearen denborari begira (teknikariak, kurtsoko irakasleak, etab.), zentzu horretan ere oreka bat mantendu behar da. Noski, baliabide ekonomikoei ere erreparatu beharko zaie, lortu beharreko helburuei balio erantsi berezirik emango ez dieten tresna eta baliabideak murriztea gogoan mantendu eta aurrekontua aldez aurretik ondo zehaztu, ekimenari atxikituta egon daitezkeen hainbat jardueretarako (komunikazioa, produktuen maketazioa, adibidez).



Ikastaroak

1. Ikastaroa: Garapen iraunkorretik ekonomia zirkularrera: egungo egoera eta etorkizunerako erronkak

2020ko irailaren 14 eta 15ean egin da ikastaroa eta ekonomia zirkularraren esparruan ematen ari diren aurrerabideak aurkeztu ziren, hainbat ikuspegi uztartuz: akademikoa, enpresariala eta administrazio publikoarena.

Ikastaroa presentzialki eta online zuzenean jarraitu ahal izan da. Parte-hartze tailerra hilaren 15ean egin da, aurrez-aurreko bi talderekin eta online zuzeneko talde batekin.

Jardueraren helburua ekonomia zirkularrari lotutako ikuspegiarekin eta kontzeptuekin lotuta egon da (erakundeen kultura, erakunde-ikaskuntza, erantzukizun sozial korporatiboa, garapen jasangarria, planetaren mugak, ekonomia parte-hartzailea, erakunde barneko lankidetzak-kultura, sektore barrukoa; aldaketa erradikaletarako gaitasuna; erakundeen erresilientzia/egokitzapena/erresistentzia, komunitate-zentzua; justizia; etab.).

Mapa kontzeptual bat egin da, ekonomia zirkularra guretzat zer den ulertzen laguntzeko, gaur egun erabiltzen diren beste kontzeptu batzuk integratuz.



2. Ikastaroa: Belaunaldi arteko ituna: iragana, oraina eta etorkizuna.

2020ko urriaren 29an eta 30ean egiteko aurreikusia zegoen, belaunaldi arteko itunaren funtsezko atalei begira, bai politikoei bai sektoreei dagokienez (gizarte-zerbitzuetan, osasunean, zuzenbidean...), eta gaur egun arte metatutako ebidentzia enpirikoa aztertzeaz gain.

Ikastaro honi lotutako parte-hartze tailerra ezin izan da ospatu, COVID-19 egoera dela eta.

Jardueraren helburua Aubixa Elkarteak belaunaldi arteko harremanaren egoerari buruz online egingo duen inkestaren emaitzak kontrastatzearekin lotuta zegoen. Aurretiko emaitzak Uda Ikastaroan aurkeztuko ziren eta partaidetza jarduerak emaitza horiek egiaztatzeko eta jarduteko jarraibideak ezartzeko aukera emateko helburua zuen.



AURREKONTU IREKIAK



Aurrekontu irekiak 2020

Aurreko ekitaldietan jorratutakoaren ildoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak laugarren urtez finkatu du bere gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredia Aurrekontu Irekiak abian jarriz. Horrela, gai horren inguruan erreferentziatzko erakunde moduan finkatu du bere burua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa gidatzen duen gobernantza irekiaren eta kolaboratiboaren eredian oinarrituta, 2019ko martxoaren 1etik abenduaren 27ra bitartean, 2020 Aurrekontu Irekiak partaidetza prozesua egiten ari da, hain zuzen ere Kudeaketa Plan Estrategikoaren lehentasunezko bost helburuetako bat baita hauxe.

Gipuzkoako gizartea lurralde historikoarentzako jarduketa ildoan eta proiektu estrategikoen kudeaketaren partaide bihurtzeak berekin dakar foru erakundearen eta herritarren arteko komunikazio eredu bat definitzea, gertutasuna, ezagutza eta gardentasuna sortzea. Hori gauzatzeko, PDCA metodologia (Plan-Do-Check-Act/Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Ekin) jarraitzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia Horren barruan, prozesuaren lehen fasea amaitzera dator txosten hau, eta 2020 ekitaldirako aurrekontu ireki eta parte hartzaileak egiteko aukera emango digu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredia proposatzen du, pertsonengan etea honako hauetan oinarritutakoa:

- Eraldaketarako lidergoa, gainerako erakundeekin eta gizarte antolatuarekin partekatua.
- Esparru publikoaren eta pribatuaren elkarlana proiektu estrategiko berriak bultzatzeko.
- Etengabeko elkar eragina eta eztabaida herritarrekin eta lurraldeko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin.
- Foru Aldundiko talde politikoaren eta teknikoaren partaidetza aktibo eta protagonista gobernu ekintzaren lehentasunen jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko zorrotasun, erantzukizun eta gardentasun irizpideetatik..

Aurtengo prozesua ezberdina da aurreko urteetan egindakoekin, bai forman eta funtsean, prozesuan bertan, herritarrentzako kontsulten eta erantzunen bi faseak bereizten direlako, eta epe txikiagoetan egiten delako:




Prozesuak

2019KO MARTXOA



2019KO IRAILA



ZEHAZTU BEHAR



1go Fasea

Partaidetza. Herritarren proposamenak jasotzea hainbat bideren bitartez, eta horiek aztertzea, gero proiektu bihurtu ahal izateko. Hurrengo fasean egiteko herritarrek aukeratuko dituzten proiektuak.

2. Fasea

Proiektuak aukeratzea. Herritarrek lehen fasean egindako ekarpenetatik, aurretik ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak identifikatuko dira. Proiektuen zerrenda hori gutxienez hiru eta gehienez sei proiektuk osatuko dute aurreikusitako 6 kategorietako bakoitzean:

1. Ekonomia sustapena.
2. Gizarte politikak.
3. Garraioa eta bide azpiegiturak.
4. Ingurumena eta Lurralde Oreka.
5. Kultura, Kirolak eta Gazteria.
6. Zeharkako gaiak/Beste gai batzuk.

Gero, herritarren partaidetzaren mendean utziko da hasieran aurreikusitako kategoría bakoitzeko proiektu bat aukeratzea, eta horretarako hainbat bide jarriko dira eskuragarri.

HERRITAREN PARTAIDETZA

Prozesua sozializatzeko bideak

Komunikazio estrategia honako bide hauen bitartez egituratu da, prozesuaren zabalkundea, hedapena eta sozializazioa bermatzeko:

- Hedabideetako eta sare sozialetako zabalkundea
- Galdetegi postontzietan sartzea, frankeo ordainduarekin.
- Partaidetza birtuala
- Topaketa tematikoak entitate eta elkarteekin (Topaketak)



Zer galdetu zaie herritarrei?

2020 Aurrekontu Irekiak ekimenaren lehen fasea irekita egon da Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztientzat, hilabetez (martxoaren 1etik 31ra).

Aurrekontu Irekien prozesurako planteatutako proposamenak 3 galdera osagarri ditu, bi ataletan banatuta:

1. G. IREKIA: Zeintzuk dira zure proposamenak 2020ko foru aurrekontuetarako? Zer proposatu nahi duzue? Zer hobetu nahiko zenuke?

- Proposamenaren izendapena
- Proposamenaren deskribapen laburra

ZEIN BERRIKUNTZA DAKAR PARTAIDETZA PROZESU HORREK?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun zeinu diren praktiketan sakontzeko, 2020 Aurrekontu Irekien partaidetza ekimena prozesu berritzailea da, honako arrazoi hauengatik:

- Lehen aldiz, partaidetza prozesuak bi fase bereizi zituen, herritarren iritzia jasotzen dutenak.

- Bi partaidetza faseetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bueltatu egiten die informazioa herritarrei, eta parte hartzaileekin harremanetan jarriko da proposamenak prozesuan duen egoera azaltzeko.

- Ohiko partaidetza bideak mantendu dira, eta frankeoa helmugan ordaintzea gaineratu da, aurrez aurrekoa: Topaketak, birtuala eta udal erregistroak.

- Partaidetza ekimenaren lehen fasearen iraupena laburtu egin behar izan da, hauteskondeak aurreratu egin direla eta (2019ko martxoaren 1etik 31ra).

- Topaketak izan dira kolektibo dibertsoenetara iristeko bitarteko onena, esate baterako, askotariko elkarteetara, ikasleengana, herri txikietako herritarrengana. Guztira, 450 bertaratu izan dira topaketetan.

AURREKONTU IREKIAK

	2017	2018	2019	1ª Fase 2020
Postontzietan banatutako galdetegi kopurua	25.000	310.000	310.000	290.000
Parte hartzeko kanalak	3	3	4	4
Prozesuaren iraupena	44 egun	60 egun	83 egun	31 egun
Egondako herrialdeak herriz herri	16	38	54	-
Egondako herrialdeak topaketak	-	28 topaketa 527 pertsonekin	28 topaketa 852 pertsonekin	12 topaketa 471 pertsonekin
Herri txikietako topaketak	-	-	8 topaketa 79 ordezkariekin	-

PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZAK


Galdera:
Zeintzuk dira zure proposamenak 2020ko foru aurrekontuetarako? Zer proposatu nahi duzue? Zer hobetu nahiko zenuke?

Emaitzak

Guztira, **2020 Foru Aurrekontuen 1. fasean** herritarrek egindako **1.083 ekarpen** zenbatu dira. Horien bidez, Gipuzkoako herritar parte hartzaileek beren ezinegonak, interesak eta inbertsio proposamenak egin dituzte hurrengo ekitaldirako.


Jasotako ekarpenak kodifikatu eta aztertu ondoren, proposamen gehien jaso duten departamentuak dira **Gizarte Politikak (179)**, **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa (173)** eta **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurua eta Lurralde Oreka (120)**, jarraian ikusi daitekeen moduan.

ESKUMENEN ARABERAKO PROPOSAMENAK



Lehentasuna izan duten gaiei dagokienez, ekarpen gehien jaso duena izan da **egoitzei, eguneko zentroi eta tutoretzapeko pisuei dagokiena (58)**, **hondakinen kudeaketa (52)**, **txirringarientzako bideen sarea (46)**, **kirola (41)** eta **politika fiskala eta zergak (35)**.

LEHENETSITAKO GAIAK



Ondorioak aurrekontu irekiak 2020 beste behin, gipuzkoako herritarrek lehentasuna eman diete gizarte politikei eta lurraldeko mugikortasunari.

Aurreko ekitaldian aplikatutako foru partaidetza prozesuen argudioen ildo berari jarraituz, lortutako emaitzetan nabarmena da zein garrantzi duen kontuan hartzeak adinekoentzako egoitza aukerak, eguneko zentroak eta adinekoentzako kalitatezko arreta ematek eratorritako beharrak, baita txirindularientzako bide sarea handitzen jarraitzeak, Lurraldebusen lineak, ordutegiak eta flota berritzeak eta trenak.

Aurrekontu Irekien prozesu honen barruan, garbi ikusten da herritar partaideek interes handia dutela lehentasuna ematen jarraitzeko gizarte politikei eta lurraldeko mugikortasunaren inguruko garapen jarduketari. Bi departamentuek, guztira, jasotako eskaeren % 32,5 biltzen dituzte.

Bereziki aipatu da 2020ko foru aurrekontuetan adinekoentzako egoitzen hobekuntzarako jarduketak sartzea, baita eguneko zentroak hobetzekoak eta adinekoen, aniztasun funtzionala duten eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza hobetzean eragina izango duten politikak ere. Laburtzeko, gizarteko ahulenen bizi kalitatea hobetzen lagunduko duten politikak.

Bigarrenik, herritarrek nabarmendu dute zein garrantzi duen txirindularientzako bide sarea hedatzeak, dauden zatiak batuz, horiek ez dituzten lekuetara zabalduz eta egungo zatiak mantenduz. Horrez gain, ekarpen ugari erreferentzia egiten diote Lurraldebusen lineak eta ordutegiak handitzeari, hori beharrezkoa baita herritarren eskaria asetzeko eta garraio publikoan oinarritutako lurraldeko mugikortasun eredu baten alde lan egiteko.

Hirugarren eta laugarren lekuan daude, hurrenez hurren, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurua eta Lurralde Orokako Departamentura eta Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentura bideratutakoak. Guztira, % 20,6 dituzte.



Elkartekak

LAU HAIZETARA
Aukerak sortzen



elkartu

tu



ARRATS

Bazterkeriaren prebentziorako programa bateratua sozializazioan eta gizarte sentibilizazioan

HELBURUA

Bazterkeriaren prebentzioa sozializazioan eta gizarte sentibilizazioan. Bakardadea saihestea. Bazterkeria egoera edota arriskuan daudenen gizarte sentibilizazioa bultzatzea. Oinarrizko trebetasunak ikastea, hala nola entzute aktiboa. Esperientziak elkarbanatzea. Elkarlana bultzatzea. Inklusiora bideratutako mezuak sortu eta lankidetzat bultzatu.

PARTE-HARTZAILEAK

80 (25 emakumezko, 30 gizonezko eta 25 elkarte).

IRAUPENA

12 hilabete.

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Arrats Elkartea.

TOKIA

Donostia



Asociación
ARRATS
Elkartea
Recursos Sociales y Jurídicos
Baliabide Sozial eta Juridikoak

Esperientziaren deskripzioa

Ikusezinak Irratia proiektuaren sorreran hainbat fase planteatu ziren, horietako batzuk finkatuta eta martxan daudenak eta beste batzuk oraindik egiteke dauden prozesu batean.

2019an ezarritako helburuak finkatzea lortu da, eta, horretarako, lanean jarraitzen ari garen aldaketa progresiboak egin dira, besteak beste, irratia martxan jartzeko beharrezko diren tresnak, gailuak, web ahokalekuak, audientziak neurtzeko moduak ikusezinen blogean eta argitaratzen diren podcastetan, hobetzeko eta publiko zabalago batengana iristeko.

Webgunearen ahokalekua finkatzen eta eraikitzen hasteko, wordpress.com plataforma pribatua baztertu da eta Kataluniako enpresa baten hosting baten alde egin dugu.

Horretara garamatzaten arrazoiak, batetik, ekonomikoak dira, hiru aldiz kostu txikiagoa baitu, eta bestetik, eraginkorragoa da. Funtzionatzeko modu berri horri esker ez gaude kanpoko agente baten menpe (wordpress.com) eta edukiak etengabe eguneratzeko aukera emango du. Alderdi tekniko guztiak kontrolatuz gara dezakegu proiektua inoren menpe egon

gabe, lizentziarik gabeko software bati esker eta komunitate bolondres zabal batek mantenduz; eta hori bat dator gure lan filosofiarekin. Atalak, aurkezpena, kontaktua, irratia eta bloga mantentzen dira, eta geroago, komiki izeneko atal baten kolaborazioari ekingo diogu, aldizka argitaratuko den tira komiko bat.

Edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz daude, bereizten dituen esteka batekin.

Zeharkako politiken kudeaketa

Emaitzak: zer lortu da?

Oraindik zailtasunak daude erabiltzaileek beren kabuz programak egiteko, eta bakar batetik hirura igo dira bazterkeria egoeran programak egiten dituzten pertsonak. Baina aurtengo parte hartzeak nabarmen egin du gora, erabiltzaileek parte hartu baitute konfinamenduan zehar duten egoeraz hitz egiten, bai podcast formatuan, bai ikus-entzunezko formatuan.

Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen egindako 20 elkarrizketetatik 12 podcast (audio) formatuan egin ziren eta 8 bideo formatuan. Podcastek 5087 deskarga/4761 entzuketa izan dituzte, estatistika Ivoox plataformatik dator eta 2020ko urrira arteko deskargen zenbatekoa da. Horri gehitu beharko litzaioke webguneko audioei dagokien zatia (7570 bisita guztira). 110 programetatik 56 2020ko urtariletik abendura bitarteko aldiari dagozkio. Kontuan hartu behar da ikusezinak blogean 200 artikulua baino gehiago argitaratu direla euskaraz eta gaztelaniaz.

50 bat erakunderekin jarri gara harremanetan, eta aldian-aldian edo noizean behin 25ek kolaboratzen dute irrastian. Gainontzeko erakundeen zain gaude. Gure ustez, konfinamendua eta pandemia oztopo izaten ari dira gure helburuak betetzeko orduan.

- Sare sozialei esker bai gure mezuen bai bazterkeria egoeran dauden erabiltzaileen eta gizarte-gaien, berdintasunaren eta abar lantzen dituzten elkarten bisibilizazioa handia izan da.

- Ikusezinak Irratia “marka”-ren errekonozimendua sarean (bilatzaileak, publikoa).

- Sentsibilitate eta gai ezberdinetako erakunde eta pertsonekin harremanetan jarri gara, haien mezuak zabaltzeko.

- Gertakari esanguratsu gisa, 2020an, COVID 19aren ondorioz abian jarritako behin-behineko aterpetxeekin lan egin da, eta hainbat programa egin dira erabiltzaileekin, haien mezua, beldurrak eta ahuleziak agerian jartzeko bizi dugun garai gordin honetan.

Euskera

Euskararen normalizazioa da Ikusezinak Irratian dugun lehentasunetako bat. Hilabete behin programa oso bat dago euskara hutsean, baita modu berean egindako elkarrizketaren bat ere. Webguneko blogeko artikulua gehienak helebidunak dira, eta hori bera azpimarratzen diegu kolaboratzeko prest dauden pertsona eta kolektiboak. Gainera, irratiko koordinatzailea mintzapraktika saio batean dago, Ikusezinak Irratian gure hizkuntzaren erabilera eta hedapena hobetzeko eta bultzatzeko.

Elkarteen Foroa abian jartzean, elkarteak inplikatzeko saiakerak izan genuen helburu eta euskararen alde lan egiten dute podcastak egiten, materialak zabaltzen, lanak egiten, ekimenak antolatzen...

Berdintasuna

Berdintasuna ez da soilik Arratsen konpromisoen parte, baizik eta horren ondorioz egiten duen eguneroko lanaren parte ere bada. Berdintasuna ikusezinak Irratiaren filosofiaren oinarria. Horregatik, lehenetsuna ematen diogu berdintasuna, genero indarkeria, estereotipoen aurkako borroka eta abar lantzen duten emakumeen eta emakume elkarten parte hartzeari, bai programak eginez, bai elkarrizketatuak izanez.

Arlo honetan lan egiten duten eta beren ikuspegiak eta arazoak eskaintzen dizkiguten talde, pertsona eta kolektiboekin harremana dugu. Bestalde, LGTBIQ+ kolektiboak bere errealitate desberdinak agerian jarri ditu, eta hainbat gaitako podcastak egiten lagundu du, baita blogerako eta sare sozialetarako edukiak egiten eta/edo partekatzen ere. Helburua: berdintasuna lantzen duten pertsonekin eta elkarteekin harremanak eta lankidetzak zabaltzen jarraitzea.

Aniztasuna

Dibertsitatea islatzeko, elkarrizketa saioak egin ditugu eta elkarrizketatuak adierazi digute nola iritsi diren honaino, nolakoa den beren herrialdea, zer itxaropena duten etorkizunera begira, nola lantzen ari diren geroa (hizkuntza ikasten, eskolarizazioaren bidez, lana aktiboki bilatzen), zer balioesten dute beren destino berriaz eta zer ari diren faltan botatzen...

Ingurumena

Harremanei dagokionez, harremanetan gaude ingurumena zaintzen lan egiten duten talde, elkarte eta pertsona esanguratsu eta kualifikatuekin, blogeko artikuluek eta podcastek agerian utzi dutenez. Ingurumen zaintzari dagokionez, Ikusezinak-ek digitalizazioa aukeratu du paper kontsumoa murrizteko metodo gisa. Inprimaketa murriztu da, Internetek eskaintzen dituen sistemen bidez partekatu dira dokumentuak eta ondoren erabilitako tintak eta papera birziklatu dira. Erabilitako papera suntsiketa prozesu batetik igaro da, pribatutasun eta konfidentzialtasun arrazoiengatik.

Balorazioa

Pandemiak, konfinamendu osoa eta perimetralek zailtasun handiak ekarri dituen arren, 2020rako ezarritako helburuen zati handi bat betetzea lortu da.

Hainbat erakunde eta pertsonen erantzuna eta parte hartzea positiboak izan dira. Lankidetzak eta ekarpenak egonkortzeko joera, zoritxarrez, geldiarazi egin dira proiektuaren azken hilabeteetan. COVIDaren agerpenak baldintzatu du bilakaera: irratira gerturatzeko ezintasuna konfinamendu perimetralengatik, kutsatzearen beldurrarengatik, izurriteak elkarteak gainditu ditu...

Pertsona eta talde ezberdinekin harremanetan jarri gara. Ikusezinak erakundearen funtzionatzeko modua eta filosofia azaldu diegu, lankidetzan aritu gara, aholkuak eman diezkiegu eta programak egiten lagundu diegu alderdi teknikoan erreparatuz.

Ikusezinak programatik saioa grabatu eta editatu ondoren, podcasteko plataformetan (Ivoox, Itunes, Spotify...) eta sare sozialetan (Facebook, Instagram, Twitter, Whatsapp, Telegram...) igo eta partekatu da edukia.

Grabazio bakoitzaren aurretik eta sor daitezkeen arazo edo zalantzei aurre egiteko, koordinatzeko bilerak egiten dira hiru hilean behin.

Barne bilera bat egiten da, egoera eta sortzen diren arazoak edo beharrak konpontzeko eman beharreko pausoak baloratzeko.

Coviden eragina kontuan hartuta, 2020. urtearen hasieran ezarritako koordinazio minimoek eusten saiatu gara. Bide telefonikoak eta telematikoak ohiko bilera presentzialak ordezkatu dituzte ia erabat.

Gure ustez, parte hartzen duten pertsona eta elkarten aurreikuspenak bete dira; hala ere, helburua kopuruan eta aniztasunean haztea da. Covideko pisu astuna oztopo garrantzitsua da, baina Foru Aldundiko Elkarten Foroa martxan jartzeko eta dinamizatzeo aukera gisa ikusten dugu.

Mezu transbertsalak Ikusezinak Irratiaren filosofiaren ardatz bihurtzen ari direla egiaztatzen ari gara. Jakina, transbertsalitatea etengabeko lana da, epe ertain eta luzekoa, baina orain arte pozik gaude lortutakoaz eta gure mezuak jasotzen dituen jendeak transbertsaletasun hori balioetsi eta balioesteaz (jasotako feedback-ak).

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Positiboa izan da, baina COVID-19ak baldintzatu du azken unean. Salbuespenezko une horiek igaro ondoren, stand by egoeran geratu diren kontaktuak eta kolaborazioak berreskuratu beharko dira.

Emaitzen ikuspegitik:

Finantzaketa da proiektuak duen arazoetako bat, eta landu beharreko gaia da. Dena den, pozik gaude orain arte lortutakoarekin.

Ikasitakoak

Talde lana, elkarri entzutea, enpatia, elkartasuna, errealitateak itzalpean aurkitzea, espazio komunak sortzea...

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Proiektuan euskararen normalizazio prozesuarekin jarraitzea, pandemia garaian gelditu edo moteldu diren harremanak eta lankidetzak suspertzea, Gipuzkoako Elkarten Foroaren lankidetzak indartzea, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen parte hartzea normalizatzeko lanean jarraipena, eta stand by egoeran geratu diren lankidetzen kolaborazioei berriro ekitea.

Elkarrizketa

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Arrats gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonekin egiten du lan. Haien eskubideak eta bizi-kalitatea hobetzearen alde lan egiten dugu. Azken urteotan elkarteak kudeatzen dituen proiektuen kopurua hazi egin da.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Pandemiak arlo guztietan izan du eragina; ezin izan zaio herritarren parte-hartzeari eutsi jasandako konfinamendua dela eta. Irratsaioa egoera berrira ere egokitu behar izan da, baina bozgorailu izan da bazterkerian dauden pertsonentzat.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Elkartearentzat lan handia eta nekea ekarri ditu, funtsezko kolektibokoak baikin. Proiektu guztiak egokitu behar izan ditugu, arazoak areagotu edo larriagotu egin dira. Horretan jarraitzen dugu oraindik.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Programa eta langile guztiek egokitzeko gaitasun handia izan dute. Gauzak gaizki egin dira eta beste batzuk oso ondo. Bazterketa larriagotu da, baina erantzuna ematea lortu da. Argi dago baliabide gehiago behar direla eta horiek dibertsifikatu behar direla.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Erakundeek erakutsi dute nahi denean egin daitekeela (aterpetxeen irekiera, etxebizitzak...). Kezkatzen gaitu jarraipenik ez egoteak eta "lehengora" itzultzeak. Hondamendia izan da, baina aukera ere bai. Pixka bat gehiago itxaron behar da emaitzak bere osotasunean aztertzeko, krisian jarraitzen baitugu.



Arrats gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonekin egiten du lan. Haien eskubideak eta bizi-kalitatea hobetzearen alde lan egiten dugu. Azken urteotan elkarteak kudeatzen dituen proiektuen kopurua hazi egin da.



CEAR-EUSKADI

Tolosako
errefuxiatuekin parte
hartzeko kulturarteko
laborategia

HELBURUAK

Tolosako herritar migratzaile eta errefuxiatuen parte hartzea sustatzea, beren espazio politiko, sozial edo kulturaletan, partaidetzarako, ahalduntzeko eta trebakuntza politiko eta sozialerako Kulturarteko Laborategiaren bidez.

PARTE-HARTZAILEAK

22 emakumezko, 22 gizonezko, 5 elkarte, 1 bestekak.

IRAUPENA

10 hilabete

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

CEAR-Euskadi

TOKIA

Tolosa



Esperientziaren deskribapena

- CEAR-Euskadik Tolosan babesa eman dieten pertsonen egoera aztertzea, bai eta zein baliabiderekin lan egin den ere. Azterketa horrek erabiltzaileentzako bi tailer eta herritarrentzako hitzaldi bat egiteko beharra identifikatu zituen.
- “Elkarbizitza gure esperientzietatik abiatuz” izeneko tailerra, Tolosako migratzaile eta errefuxiatuentzat. Herritarren partaidetzako esperientziak partekatze eta baliabide komunitario interesgarriak antzemateko helburua zuen. Baliabideen detekzio horretatik abiatuta, hurrengo tailerra egin zen.
- “Ezagutzen al dituzu Tolosako elkarte sozial eta kulturalak?” izeneko tailerra. Tolosaldeko baliabideen eta migratzaile eta errefuxiatuen arteko elkarrizketa sustatzea zuen helburu.
- “Jatorri ezberdineko auzokideak” hitzaldia. Bertan, errefuxiatuen egoera orokorra eta Tolosan izandako partaidetza esperientziak aurkeztu zitzaizkien herritarrei.
- Tolosaldeko herritarren partaidetzarako laborategia sistematizatzea. Prozesuaren ikaskuntzak atera ziren.

Emaitzen deskribapena

Proiektuaren arabera, Tolosako migratzaile eta errefuxiatuak udalerriko gune politiko, sozial eta kulturetan egongo dira, eta laborategia erakartzeko eta ahalduentzako prozesuan eskuratutako gaitasunak aktibatuko dituzte.

Migratzaile eta errefuxiatuei zuzendutako tailerrek parte hartzaileek identifikatutako baliabideekin harreman zuzena izatea lortu zuten. Azken tailerren metodologiari esker, parte hartzaileek kontaktuak trukatu zituzten eta herritarrek parte hartzeko ekintzak zehaztu zituzten baliabide guztiekin espazio informal batean.

Emaitzak: zer lortu da?

Proiektuak 3 inpaktu identifikatu zituen:

- Elkartearen sareari buruzko ezagutza handitzea. Inpaktu hori migratzaileei eta errefuxiatuei zuzenduriko aisialdiko baliabideak, lanekoak eta feministak aurkezpen tailerren bidez lortu zen.
- Elkarrekin esku-hartze indibiduala handitzea. Inpaktu hori Tolosako migratzaile eta errefuxiatuekin egindako tailerren bidez lortu zen, herritarren partaidetzako esperientziak partekatze eta baliabide komunitarioak detektatzeko.
- Kide izatearen sentimendua handitzea. Inpaktu hori etengabea izan da proiektu osoan; hala, sistematizazioak jasotzen dituen ikaskuntzen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu: tokiko laguntza sarearen beharra, integratzeko tresna gisa euskara ikastea, tokiko herritarrekiko lotura eta ingurune naturalaren aprobetxamendua.

Politika transbertsalen tratamendua

Euskara

Proiektuaren hartzaileak heldu berriak diren migratzaileak eta errefuxiatuak dira; beraz, kolektibo horren euskara ezagutza urria da. Horregatik, jarduera guztietarako gaztelania komunikazio hizkuntza gisa erabiltzea erabaki da. Proiektuan zehar, parte hartzaileek euskara ikasteko beharra identifikatu dute, eta harremanetarako eta gizarteratzeko tresnatzat hartu dute.

Hedapenerako material guztiak gaztelaniaz eta euskaraz zeuden. CEAR-Euskadiren buletina, Tolosatzen Eskola Irekiaren prentsa oharra eta prozesuaren sistematizazioa ere heledunak izan dira. CEAR-Euskadik parte hartu zuen prentsaurrekoa euskara hutsean izan zen.

Berdintasuna

Harrera guneetan bizi ziren pertsonen %10 emakumeak ziren arren, proiektuan parte hartu zuten 44 pertsonetatik %50 emakumeak izatea lortu zen.

Proiektuak emakume migratzaileak eta errefuxiatuak ikusarazi zituen. “Elkarbizitza gure esperientzietatik abiatuz” tailerren emakume errefuxiatu baten esperientziaren bidez eztabaida piztu zen. “Jatorri ezberdineko auzokideak” hitzaldian aldiz, bi emakume errefuxiatuen esperientziak aurkeztu ziren.

Emakume migratzaileek eta errefuxiatuek emakumeekin lan jakin bat egiteko beharra identifikatu zuten, eta, horregatik, Tolosako Asanblada feministarekin lan egin zen, baliabide feminista gisa. Horiekin batera, erakunde sozialetan emakume migratzaileen parte hartzea handitzeko beharra hauteman zen.

Aniztasuna

Proiektuak eragin zuzena du aniztasun politikan. Ikuspegi horretatik egindako lana migratzaileentzat eta errefuxiatuentzat nahiz Tolosaldeko bizilagunentzat izan da.


Migratzaileen eta errefuxiatuen arteko aniztasuna “Elkarbizitza gure esperientzietatik abiatuz” tailerren landu zen. Premiak eta itxaropenak jatorriaren arabera bereizi ziren, eta hizkuntza izan zen bizitza pertsonaletan eragin handia izan zuen aldagaietako bat.

Tolosako bizilagunen arteko aniztasuna “Ezagutzen al dituzu Tolosako elkarte sozial eta kulturalak?” tailerren eta “jatorri ezberdineko auzokideak” hitzaldian landu ziren. Gune horietan Tolosako pertsonak eta baliabideak eta migratzaileak eta errefuxiatuak elkarrizketatu ziren.

Ingurumena

Proiektu honek ez du eragin zuzenik izan ingurumenen. CEAR-Euskadik ingurumenaren degradazioagatik desplazamendu behartuei buruz duen ikuspegia dela eta, ohikoa da erakundeak ingurumena babesten duten kolektiboekin lan egitea.

Erakunde aliatuen artean, aisialdiarekin lotutako baliabide bat bilatu da hiri-ingurunetik kanpo. Aisialdian oinarritutako baliabide komunitario batekin lan egiterakoan Tolosa CF identifikatu zen, mendi sail indartsua izan baitu, kluba sortu zenetik presente dagoena.



Balorazio atala

Planifikatutako helburu guztiak bete dira; izan ere, Tolosako herritar migratzaileen eta errefuxiatuen parte-hartzea sustatzea lortu da, arlo politiko, sozial eta kulturalen. Adierazlea 7koa zen eta aise gainditu egin da, 24 migratzailek eta errefuxiatuk parte hartu baitute (18 emakumezko eta 6 gizonezko).

Aurreikuspenak gainditu dira. “Elkarbizitza gure esperientzietatik abiatuz” tailerrean 15 lagunek parte hartu zuten (4 emakumezko eta 11 gizonezko), “Ezagutzen al dituzu Tolosako elkarte sozial eta kulturalak?” tailerrean aldiz 16 izan ziren (10 emakumezko eta 6 gizonezko) eta “Jatorri ezberdineko auzokideak” hitzaldian 25 lagunek parte hartu zuten (18 emakumezko eta 7 gizonezko). Arrakastaren zati bat proiektu osoan zehar izandako giro lasai eta informalarri zor zaio, lehenetsuna emanez pertsonen arteko sareak sortzeari eta inplikaturako eragileen arteko ezagutzari.

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Proiektu honetan prozesua bere baitan da emaitza. Tailerrak topaguneak dira, jendea aurrez aurre jartzen da eta elkarreraginean aritzeko aukera dute. Tailer presentzial eta ez birtualen aldeko apustua egiteak interkonexio horien alde egin zuen.

Emaitzen ikuspuntutik:

Helburuak eta planifikatutako inaktuak erabat bete dira. Elkarte egituraren ezagutza, elkarteetan sozializatzeko gaitasun indibiduala eta eskualdeko nortasun sentimendua areagotu dira. Proiektuaren formulazioan identifikatu ez bazen ere, exekuzioan zehar beharrezkoa ikusi da tokiko baliabideek antolatutako espazioetan parte hartzea sustatzea.

Ikasitakoak

- Pertsonen beharrak eta itxaropenak prozesuaren erdigunean jartzea. Teknikariaren esperientzia eta pertsona migratzaile eta errefuxiatuen bizipenak solasean jarri behar ditugu.
- Eragile bakoitzak bere epeak eta helburuak ditu, eta horiek guztiak dira zuzenak. Konpromiso maila desberdinak errespetatu behar dira.
- Aliantzak egiteko denbora behar da. Prozesuaren helburua ziurtatzeko eta eragileen konpromisoa lortzeko.
- Sortutako espazioak aprobetxatu behar ditugu. Eskualdeko baliabideek dagoeneko dituzten jarduerak eta espazioak aprobetxatu behar dira.
- Harrera zentroetan erabiltzaileak txandakatzen direnez, prozesu hori ziklikoki errepikatu behar da. Egoeraren analisiatik hasi eta espazio komunitarioak sustatu arte.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Udalerrian martxan jarri beharreko ondorengo ibilbide ziklikoa identifikatu da:

- Tolosan hartutako pertsonen eta tokiko baliabideen egoeraren azterketa.
- Migratzaileei eta errefuxiatuei prestakuntza eta gogoeta baliabide komunitarioei buruz ondorengo tailerren bidez; batetik, udalerriko herritarren partaidetzaren esperientziak ezagutarazten duena, eta beste tailer baten bidez baliabideak aurkezteko.
- Tolosako herritarrek sentsibilizatzeko jarduerak, non migratzaileen eta errefuxiatuen ihesaren arrazoiak eta esperientzia partekatuko diren.
- Formazio eta hausnarketa tailerretan identifikatutako beharrei erantzuten dieten gune politiko, sozial eta kulturetan parte hartzea sustatzea.

Elkarrizketa Alberto Cereijo Fernández

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

CEAR-Euskadik errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditu, eta haien garapena sustatzen du hartzen dituen gizarte berrian. 25 urtek bermatzen gaituzte Euskadin erakunde erreferente gisa, gizaki orok nazioarteko babesa bilatzeko duen eskubidea aitortzeko borrokan.

Hasiera batean, erakundeak errefuxiatuei laguntza juridikoa eskaintzea izan zuen helburu, nahiz eta nazioarteko babesa eskatzen zuten pertsonen beharrak direla eta gure esku hartzeak laguntza integrala ekarri zuen: ostatua, arreta psikologikoa, enplegua...

2020an IV. Plan Estrategikoa hasi dugu, hamarkada aldaketarekin batera. Hauek dira eguneroko bizitzan helburu nagusiak:

- Etorkinen, errefuxiatuen eta aberrigabeen garapen integrala.
- Beren eskubideak, nazioarteko babesa eta kulturen arteko bizikidetzaren defendatzea.
- Erakunde finkatua, ekitaliboa eta jasangarria izatea.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

CEAR-Euskadik bi une desberdin identifikatzen ditu herritarren parte-hartzeari buruz COVID garaian:

- Alarma egoeraren ezarpena eta deseskalatzea. Lehenik eta behin, herritarren partaidetza osoa eten zen (boluntariora eta kaleko ekintzak), eta parte hartzeko moduak birpentsatu ziren, gure erakundearen jarduera nagusia aurrez aurrekoa baitzen. Denborak aurrera egin ahala, berriro ekin genien jarduerari, baina apurka eta modu birtualean. Boluntarioak birtualki ekin zioten ikerketa lanei, erabiltzaileen jarraipenei eta gaztelaniako klaseei; eta kaleko ekintzen ordez protesta birtualak egin ziren, hala nola "arrazakeriaren aurkako leihok". Jarduera ugari amaitu egin ziren, taldekideen ahaleginak ahalegin. Deseskalatze prozesuari jarraituta, kaleko ekintza mistoak proposatu ziren, eta, kasu zehatzetan, aurrez aurreko boluntario lanetara bueltatu ginen.

- Normaltasun berrian. 2020. urtearen amaieratik gaur arte, aurrez aurreko lana egin dugu, baina oso modu kontrolatuan. Ekintza publikoak (mobilizazioak, tailerrak, hitzaldiak, ekitaldiak, prestakuntzak, eta abar) berreskuratu egin dira, baina edukierari eta hartu beharreko osasun neurriei buruzko etengabeko aldaketek sortutako ziurgabetasunekin. Bestalde, boluntarioak aurrez aurreko ekintzetara bueltatu dira, baina burbuila taldeak sortu nahi izan dituzte eta jarduera masiboak saihestu dituzte.

Pandemia garaiko ikaskuntzak bi izan dira argi eta garbi. Lehenengoa da herritarren parte-hartzea premia handia duela gizartean; izan ere, arrisku sozialean dauden kolektiboen gabeziak larrialdietan areagotzen dira, eta herritarren erantzuna, batzuetan,

erakundeena baino azkarragoa da. Bigarrena da ezbeharren aurrean sortzailea izatea garrantzitsua dela, horrela lortu baita birtualki egitea lehen bide horretatik imaginatu ezin genituen jarduerak eta moduak.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Pandemiak markatu du erakundearen 2020ko jarduera, batez ere CEAR-Euskadiko programen zentru eta harrera etxeetan: Larraña Etxean (Oñatin, 100 lagunentzako tokia duena), Zuloaga Txikin (Tolosan, 35 lagunentzako tokia duena) eta Harrera programan (Bilbon, 24 lagunentzako lekua duten 4 etxebizitza).

Krisi honen ondorio negatiboek bereziki egoera ahulagoan dauden biztanleei eragiten badiete ere (egoera horretan daude pertsona migratzaileei batipat), segurtasuna eta babesa oso garrantzitsuak direla ikusi da ondorengo esparruetan: zentroetan, pisuetan eta pertsonak laguntzen jarraitu duten talde profesionaletan.

Martxoaz geroztik, eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde publiko zein pribatuen laguntzari esker, ez da falta izan babes material indibidualik, ezta gel hidroalkoholikorik ere. Osakidetzaren eskutik osasun-protokoloak jarri dira martxan, eta lan sare berriak sortu dira informazio fluxua errazteko. Gainera, taldeek lan formula berriak bilatu dituzte hain garrantzitsuak diren formakuntza tailerrak, gaztelaniaren ikaskuntza edo aisialdiko jarduerak ez eteteko mugikortasuna mugatzeko garaian.



CEAR-Euskadik errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditu, eta haien garapena sustatzen du hartzen dituen gizarte berrian.

ELHUYAR FUNDAZIOA

Gizarte kritikoarako
bidean

HELBURUA

- Gizartean pentsamendu kritikoa sustatzeko edukiak eta dinamikak sortzea, publiko orokorra eta unibertsitatez kanpoko publiko gaztea barne.
- Pentsamendu kritikoa sustatzeko trebakuntza eta/edo dibulgazioko aktibitateak abian jartzea.
- Elhuyarrek dituen foroetan edukiak zabaltzea, aurrez aurreko eta on-line bidezko jarduerak antolatzea eta aliantza berriak sortzea.

PARTE-HARTZAILEAK

154 emakumeak, 64 gizonak, 2 eragileak, 918 online ikusleak
solasaldietan +18.000 ikusle telebistan

IRAUPENA

2020-06-01/2021-05-17

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Elhuyar Fundazioa

TOKIA

Elhuyar Fundazioaren egoitza eta Usurbilgo Udalaren Sutegi Kultur Etxea



elhuyar
ezagutuz aldatzea

Esperientziaren azalpen atala

Helburua(k)

Orokorra(k):

- Gizartean pentsamendu kritikoa sustatzeko edukiak eta dinamikak sortzea, publiko orokorra eta unibertsitatez kanpoko publiko gaztea barne.
- Pentsamendu kritikoa sustatzeko trebakuntza eta/edo dibulgazioko aktibitateak abian jartzea.
- Elhuyarrek dituen foroetan edukiak zabaltzea, aurrez aurreko eta on-line bidezko jarduerak antolatzea eta aliantza berriak sortzea.

Zehatza(k):

- Dekalogo baten eta dibulgazioko edukien sorkuntza: dekalogo bat eta formatu anitzeko edukiak sortzea pentsamendu kritikoa sustatzeko eta hainbat euskarritan zabaltzeko: paperean, webgunea, sare sozialak, telebista, irratia eta abar.
- Lankidetzaren sare baten sorkuntza: gizarte-eragileen, zientzia eta teknologiarekin lotutako eragileen eta hezkuntza-eragileen artean, haien bitartez balioak eta edukiak zabalduz pentsamendu kritikoa lantzeko.
- Sortutako lankidetzaren sarekoekin parte hartzea sustatzen duten hitzaldiak eta eztabaida-saioak antolatzea (presentzialak eta on-line), gizaritari esparru desberdinetako adituekin eztabaidatzeko aukera emanez eta pentsamendu kritikoa sustatuz.
- Gamifikazioa: Pentsamendu kritikoa buruz sortutako edukiak gamifikatzea, euskarri telematikoen bitartez pentsamendu kritikoa garapena sustatu eta zabaltzeko gizartean oro har.
- Sortutako edukiarekin tailerrak diseinatzea eta ematea (presentzialak edota on-line).
- Sortutako lankidetzaren sarearen bidez pentsamendu kritikoa zabaltzea dibulgazio eta STEAM-hezkuntzako foroetan.

Esperientziaren azalpena

Gizarte kritikoa bidean proiektuak pentsamendu kritikoa zabaltzea zuen helburu. COVID-19ak eragindako sindemiaren garaian, gure ekarpena baliagarria izango delakoan gizartean. Horretarako, lehenik edukien sorkuntzatik abiatu ginen. Dekalogo bat sortu genuen, eta, dekalogoaz gain pentsamendu kritikoa lotura duten beste hainbat eduki interesgarri.

- Zer da pentsamendu kritikoa?
- Pentsalari kritikoa baten ezaugarriak
- Pentsamendu kritikoa garatzeko gomendioak
- Pentsamendu kritikoa glosario laburra
- Fake news-ak identifikatzeko gomendioak
- Zer da metodo zientifikoa?

Eduki horiez gain, dekalogoko puntu bakoitza ilustratzaile batek animazio bidez ere adierazi zituen, hala irudizko adierazpena ere sortu genuen.

Behin edukiak garatuta, trebakuntzarako materiala sortu genuen, eta hala ikastaro baten hezurdura egin genuen batez ere irakasleei, begiraleei eta gazteekin lan egiten duten kolektiboari begira eskolatan erabi zezaten.

Hala, trebakuntza saioak eskaini ditugu, esaterako, HUHEZIn 50 irakasleri baino gehiagori pentsamendu kritikoa garatzen laguntzeko beren ikasleekin.

Hirugarren atal gisara, Elhuyar soasaldiak antolatu genituen eta 2021eko apirila eta maiatza bitartean asteazkeneko Usurbilgo Sutegi aretoan gauzatu dira presentzialki eta online zientzia.eus eta usurbilkultura.eus webguneetan.

Hau izan da egitaraua:

- Apirilak 14: COVID-19aren korapiloak deslotzen. Ana Galarraga Aiestaran (Elhuyar)
- Apirilak 21: Zaintzaren demokratizazioa. Maite Santxo Castiello (Matia) eta Miren Aranguren (Emagin).
- Apirilak 28: Pentsamendu kritikoa garatzen. Agustin Arrieta Urtizberea (EHU).
- Maiatzak 5: Ekonomiaren berreraikuntza ekologikoa alde. Arturo Elosegi (EHU) eta Mirene Begiristain (EHU), gidaria Ana

Galarraga (Elhuyar).

- Maiatzak 12: Adimen artifiziala hizkuntzan, nola eman ikuspegi soziala. Xabier Arregi (EHU) eta Xabier Saralegi (Elhuyar), gidaria Itziar Cortes (Elhuyar).

Solasaldiak izan dira herritarrekin elkarrekintza eta parte-hartzea gehien sustatu den ekintza. Solasaldi hitzak adierazten duen bezala, guztietan bertaratu diren herritarrekin hitz egiteko, iritziak partekatzeke, galderak egiteko tarte egon da eta jendeak gogotsu hartu du parte.

Lehen saioan esaterako ordu betez luzatu zen solasaldian jendearen parte-hartzea. Besteetan 45 minutuz aritu gara, batzuek beste.

Azkenik, pentsamendu kritikoa sortu dugu eta ikusgai jarri zientzia.eus-en. Jokoak erronka batzuk ditu informazioa egiaztatzea behartuko gaituztenak eta gure pentsamendu kritikoa aktibatuko dutenak. Horrez gain, gure asmoa da partida gehiago sortzea gazteen parte-hartzearen bidez. Haiek jokoak elikatu eta ikas dezaten.

Zer lortu da

Gure helburuak lortzeko bitarteko guztiak garatu ditugu. Hala, gizartean pentsamendu kritikoa zabaltzen joateko baliabide berriak sortu dira, elkarlana baliatu dugu beste erakundeekin, zuzeneko eta onlineko parte-hartzea bultzatu dugu eta, erabilgarri dauden formatu anitzeko jokoak eta edukiak sortu dira.

Parte-hartzaile kopuruari dagokionez, solasaldietan guztira presentzialki 218 pertsona izan ditugu eta hori COVID-19 garaian aforo mugatua izan dugula eta aurrez izen-ematea egin behar zela kontuan izanda. Presentzialki Sutegin egon direnez gain, solasaldien bideoek izandako ikustaldi kopurua 918koa izan da eta kopuru hori igotzen joango da. Kontuan izan, esaterako, azken hitzaldia maiatzaren 12an dela.

Horrez gain, telebistako Teknopolis saioan pentsamendu kritikoa erreportajea emititu zen maiatzaren 15ean eta audientzia 18.000 ikuslekoa izan zen gutxi gorabehera.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Proiektuaren hizkuntza euskara izan da. Eduki guztiak euskaraz sortu dira, trebakuntza ere, eta jokoak zein solasaldiak euskaraz daude. Hala ere, bigarren solasaldian euskarako aldibereko itzulpena eskaini zen Maite Castiello gaztelaniaz aritu baitzen bera Madrildarra baita.

Berdintasuna

Berdintasuna proiektuan modu integralean hartu da kontuan hasieratik. Ez soilik komunikazio ez sexistako dekalogoak aplikatuz, baizik eta proiektuan parte hartu dugun antolatzaile, hizlari eta gainerako hornitzaileekin berdintasun-irizpideak aplikatu ditugu.

Hori horrela, emakumeak zein roletan agertu garen zaindu dugu (aditu, ikertzaile, antolatzaile, komunikazioan, itzulpenetan, partaide) eta ikusgarritasuna eman diegu hizlarien mahaiari erdian kokatuz; hitza lehenik haiei eskainiz...

Aniztasuna

Adin-tarte guztietako partaideak izan ditugu eta komunikazio-kanpainak bideratzean, gazteetatik hasi eta herri mugimenduetako elkarteetaraino jo dugu.

Hala, dekalogoaren kanpaina twitter bidez egin zen, edukiak webguneetan jarri ditugu, joko bat dugu gazteentzat batez ere, trebakuntza irakasleentzat eta irratian zein telebistan programak emititu dira ahalik eta publiko zabalenera iristeko.

Ingurumena

Proiektuan zehar ez da materialik xahutu, gauza gehienak online kudeatu eta sortu dira.

Solasaldien kasuan, 30 kartel besterik ez genituen inprimatu eta gainerako kanpaina iragarki, twitter eta banerren bidez egin zen.

Ur botilak ez dira erabili, haien ordez, pitxerretan jarri zen hura solaskideentzat.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila gure ustez ona izan da. Antolatu behar genituen ekintza guztiak aurrera eraman genituen eta jendearen erantzuna oso positiboa izan da parte-hartzaileen artean.

Asistentzia ezinhobeia izan dela uste dugu, izan ere, Sutegei aretoaren aforoa bete dugu solasaldi batean baino gehiagotan.

Parte-hartzeari dagokionez, bai solasaldietan jendearen galderak eta ekarpenak, zein antolakuntzan erakundearen artean oso giro ona egon dela esan dezakegu. Guztiak gustura gelditu gara antolakuntzarekin eta emaitzarekin. Metodologia baliagarria izan zela esan dezakegu. Prestatutako solasaldiak eta herritarren parte-hartzea egokiak izan dira.

Horrez gain, jokoak ere parte-hartzeko aukera eskaintzen du eta trebakuntza-saioretan ere irakasleei galdetzeko, proposamenak egiteko aukera eskaini zitzaion.

Oinarrian dugu egiten ditugun proiektuetan parte-hartzea sustatzea eta beti hartzen dugu kontuan elementu hori berdintasuna bezala modu transbertsalean proiektu guztian zehar, bai lantaldean erabakiak hartu eta lanak gauzatzeko, bai kanpora begirako edozein ekintzetan eta beste erakundeekin lankidetzan aritzean.

Aipatu bezala, Elhuyarrez gain Usurbilgo udalak ere parte hartu du solasaldietan esaterako.

Haien egituren eta gureen arteko komunikazioa jarraitua izan da asteazkeneko solasaldi bat antolatzeko.

Komunikazio-arduradunak, teknikariak, hizlariak, streaming-eko teknikariak, itzultzaileak, aldibereko azpituak, kudeaketa, aurkezleak guztiak bikain koordinatu gara eta solasaldi guztiak garaiz hasi ditugu eta teknikoki arazorik gabe gauzatu dira.

Horrek erakusten du koordinazio eta komunikazio ona izan dugula denetarako.

Espektatibak asebeteta ditugu bai Elhuyarren baita Usurbilgo udalean ere. Oso pozik agertu dira lankidetzarekin eta aurrera begira ere errepikatzeak aukerarik legokeen aipatu digute.

Zeharkako politika guztietan zorrotz aritu ginela uste dugu, izan hizkuntza-kudeaketan, zein berdintasunean eta inklusibotasunean.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

COVID-19ak baldintzatutako prozesua izan da, baina lan gehigarria ekarri badu ere, uste dugu egoki planteatuta genuela.

Emaitzaren ikuspegitik:

Emaitzak oso onak izan dira eta bai trebakuntzari, bai jokoari, bai solasaldiei aurrera begira errepikatzeak eta ibilbide luzeagoa egiteko aukera eskaini nahi diegu.

Ikasitakoak

Solasaldiak modu presentzial zein onlinekoan ondo funtzionatzen dutela eta presentzialera itzultzea jendeak eskertu egin duela.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Urte beteko epean egiteko, agian, ekintza gehiegi izan direla eta epekin estu ibili garela.

Helburu xumeagoak jarri behar ditugula eta ekintza bakoitzari ibilbide luzeagoa eman.

Elkarrizketa Garazi Andonegi

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Elhuyar zientzian, euskaran, adimen artifizialean, hizkuntza teknologietan eta gizarte eraldaketan diharduen erakundea da. 1972an sortu zen zientzia eta euskara uztartu eta gizartean txertatzeko, eta, gaur egun ere kultura zientifikoa zabaltzen eta euskararentzat eremu berriak sortzen lan egiten dugu, betiere ikuspegi soziala galdu gabe.

Bilakaerari dagokionez, aitzindariak izan gara euskararen esparruan hainbat teknologia eta proiektu abian jarrita (aldizkaria, telebista-programak, euskarazko zientzia webguneak, ahots sintesia euskararako, berdintasun- eta partaidetza-planak eta abar) eta horretan jarraituko dugu.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Ez daukat daturik irizpidez zerbait adierazteko COVID-19a eta partaidetzari dagokionean. Gizarte-ekintzak gutxiagotu diren heinean, uste izatekoa da parte-hartzea ere gutxituko zela. Gainera, kalean edo toki itxietan egiten ziren ekintzetako asko bertan behera utzi behar izan direnez, horrek ere eragina izango zuen.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Gure Fundazioan zorionez helburuak, egitasmoak betetzeko moduan izan gara, nahiz eta egitasmo edo proiektuetako ekintza batzuk formatuz aldatu behar izan ditugun (presentzialetik onlinera esaterako). Langileon bizitzari dagokionez, aldiz, etxetik lan egin dugu askoz gehiago eta, orain, eredu mixto batera pasa gara: presentziala/etxetik.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Elhuyarreko langileok lehendik ere bagenuen etxetik lan egiteko aukera, eta, ondorioz, itxialdian eta geroko hilabeteetan produkzioari, aurrekontuei eta egitasmoei eusteko moduan izan gara.

Irakaspen nagusia izan da, gure jardueraren zati handi bat presentzialki zein online egiteko gai garela, baina, harremanetan galera bat sortzen dela. Talde kohesioa zaindu behar da ere, horregatik, eredu mixtura pasa gara, egun gehiagoz berriz ere bulegoan elkartuz.

Horrek harreman informalak bultzatzen ditu eta bestelako sormena eta giroa sortzen du. Beharrezkoak diren elementuak dira lanerako.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Ez daukat daturik ez informaziorik egokitzapen horren inguruko iritzirik emateko.



Elhuyar zientzian, euskaran, adimen artifizialean, hizkuntza teknologietan eta gizarte eraldaketan diharduen erakundea da. 1972an sortu zen zientzia eta euskara uztartu eta gizartean txertatzeko, eta, gaur egun ere kultura zientifikoa zabaltzen eta euskararentzat eremu berriak sortzen lan egiten dugu, betiere ikuspegi soziala galdu gabe.



ELKARTU

Covid-19 eta desgaitasuna duten pertsonak: informazioa jasotzeko prozesu parte hartzailea eta eskubideak defendatzeko jarduera proposamenak

HELBURUAK

Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea sustatzea desgaitasunaren arloko politika publikoen diseinuan, garapenean, eta, bereziki, Covid-19tik eratorritako testuinguru sanitarioan, sozialean eta ekonomikoan.

PARTE-HARTZAILEAK

160 emakumezko, 160 gizonezko, 10 elkarte

IRAUPENA


2020-12-03

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Elkartu

LEKUA

Online



Esperientziaren deskribapena

Helburuak

Orokorrak:

Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea sustatzea desgaitasunaren arloko politika publikoen diseinuan, garapenean, eta, bereziki, Covid-19tik eratorritako testuinguru sanitarioan, sozialean eta ekonomikoan.

Zehatzak:

- Desgaitasuna duten pertsonen parte hartzeko eskubidea bermatzea.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonak ikusaraztea, Covid-19tik eratorritako pandemiaren esparruan.
- Covid-19ak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioak aztertzea, landu beharreko eremuetan.
- Pandemiaren testuingurutik ikaskuntzak ateratzea, desgaitasunaren esparruan politika eraldatzaileak bultzatzeko.
- Herritarrek parte hartzeko modu berriak bultzatzea, pandemiaren testuinguruaren ondorioz.

Esperientziaren deskribapena

Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean prozesu parte hartzaile bat egin da, Covid-19ak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren esparruan desgaitasuna duten pertsonen egoerari eta beharrei buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa lortzeko, eta bereziki azpimarratu da desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioan aitortutako eskubideen bermea.

Emaitzen deskribapena

Prozesuari esker, azalera atera dira desgaitasun fisikoa duten pertsonak pandemiaren testuinguruan, eta, hain zuzen ere, prozesuaren ondorioetako bat izan da ikusezin bihurtu direla. Desgaitasun fisikoa duten pertsonak ahalduz ere balio izan du, parte hartzeko eskubidean sakonduz.

Emaitzak. Zer lortu da?

Azterketa txosten bat egin da, baina baita desgaitasunaren arloko politika eraldatzaileak bultzatzeko jarduera proposamenak ere. Gai horiek gizarte osoari helarazi zaizkio ikus-entzunezko dibulgazio materialaren eta komunikazio kanpaina baten bidez.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Hizkuntza politikaren arloan indarrean dagoen araudia bete da, baita Elkartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aurreikuspenak ere. Proiektuari lotutako alderdi guztiei lotu zaio hitzarmena: komunikazioak, ekitaldi publikoetako azalpenak, material didaktikoa, hedabideetan zabaltzea, eta abar.

Berdintasuna

Genero ikuspegia funtsezkoa da federazioaren aldarrikapen eta ordezkaritza ekintzetan, desgaitasun fisikoa duten emakumeek jasaten duten diskriminazio anitzei modu horretan heltzeko; izan ere, egoera desberdinean daude gizonekiko, generoaren eraikuntza sozialaren ondorioz, bai eta desgaitasunik jasaten ez duten pertsonen artean ere.

Errealitate hori formalki aitortu du pertsona desgaituen eskubideei buruzko konbentzioak berak, eta, bertan, honako hau jasotzen da: “Estatuek aitortzen dute desgaitasuna duten emakume eta neskek diskriminazio mota ugari jasan behar dituztela”. Errealitate horrek hainbat neurri behar ditu, desgaitasun fisikoa duten emakumeen aukera berdintasuna eta erabateko parte-hartzea bermatzeko.

Ildo horretan, hasiera-hasieratik Elkartuk lan egin du desgaitasuna duten emakumeen eskubideen alde. Orduan, eta gaur egun ere, federazioaren helburu nagusiak izan ziren desgaitasuna duten pertsonen mugimenduaren barruan genero berdintasuna lortzea eta desgaitasuna genero politiketan sartzeko.

Gai eta ikuspegi horiek kontuan hartu dira proiektuaren faseetan.

Aniztasuna

Elkartu elkartearen beraren helburua da aniztasuna bermatzen eta errespetatzen duen gizarte bat bultzatzea, aniztasuna balioesten duen herritarren kontzientzia bultzatuz, gizarte inklusiboagoak eraikitzea eragiten duen elementu gisa.

Ingurumena

Proiektuaren faseetan arlo honetako betebeharrak errespetatu ditu.

Balorazioa

Proiektuarekin planteatutako helburuak behar bezala lortu dira.

Deitutako ekintzetara jende asko bertaratu da, eta parte-hartze mailak eta izandako giroak ere balorazio ona merezi dute.

Erabilitako metodologiek aukera eman dute dinamika parte-hartzaileetan sakontzeko eta proposamen ugari ateratzeko. Nabarmentzekoa da metodologiek Covid-19tik eratorritako pandemiaren testuingurura egokitu behar izan dutela, eta baliabide telematikoak gailendu direla presentzialtasunaren gainetik.

Proiektuan parte hartu duten eragileen arteko koordinazioak balorazio ona merezi du.

Parte-hartzaileek planteatutako itxaropenak behar bezala bete dira.

Politika transbertsalen kudeaketa kontuan hartu da proiektuaren fase guztietan, eta balorazio positiboa merezi du.

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspuntutik:

Proiektuari esker, federazioaren dinamiketan eta partaidetza-prozesuetan sakondu ahal izan da, eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarrekin jardueran eta desgaitasunaren arloko politika publikoen diseinuan duten parte-hartzea sendotu da.

Emaitzen ikuspuntutik

Lortutako emaitzek partaidetzaren sustapenean sakontzen lagunduko dute elkarrekin ekintzaren bidez, eta, era berean, bide telematikoak horretarako funtsezko tresna gisa ematen dituzten aukerak bultzatu dituzte.

Ikasitakoak

Teknologia berrien potentzialtasuna, desgaitasuna duten pertsonen parte hartzeko tresna gisa.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoa

Covid-19tik eratorritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ikaskuntza gisa ateratako parte hartzeko modu berriak kontuan hartzea.



Elkarrizketa Mikel Malcorra

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Desgaitasun fisikoa duten pertsonekin lan egiten dugu.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratzea, eta gizarte inklusibo baten alde lan egitea da gure helburua.

Hurrengo loturan gure historian zehar izandako bilakaera ikusi daiteke: <https://elkartu.org/argitalpenak/gure-historiaren-bilduma/>

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Orokorrean kalte handia eragin dio, parte-hartzea presentzialtasunean oinarritzen baita neurri handi batean. Dena den, online moduan egiteko aukerak ireki ditu ere, ondorioz berrikuntza sustatuz.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Helburuak eta lana berdin jarraitu dute, baina moduak berri behar izan ditugu, online moduari lehentasuna emanez.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Balorazio positiboa egiten dugu egoera berriari egokitzeko izan dugun gaitasunagatik, eta horrek lehen momentutik gure funtsezko lana bermatu duelako, batez ere desgaitasuna duten pertsonak ordezkatu, eta bere eskubideak defendatu eta sustatzea.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Osasun neurrien arloan eta zerbitzuak emateko orduan testuinguru zail batera egokitzeko gaitasuna erakutsi dute, baina herritarrei ahotsa emateko orduan, gehien bat hirugarren sektore sozialari zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak ordezkatzeko duen sektore bezala, gabezi handiak egon dira. Hau da, gobernantza eredu egoki bat ez dugula agerian geratu da.



Desgaitasun fisikoa duten pertsonekin lan egiten dugu.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratzea, eta gizarte inklusibo baten alde lan egitea da gure helburua.



EVA CAMPO MÜLLER

Parte Hartzeaz
Irunen euskalgintza
hauspotzea

HELBURUA

Irunen euskararen erabilera eta euskararekiko gertutasuna sustatuko duten proiektuen definizio parte-hartzailerako prozesua aurrera eramatea

PARTE-HARTZAILEAK

24 emakumeak, 23 gizonak, 14 eragileak, 33 bestelakoak

IRAUPENA

2020/09/01 - 2021/07/19

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Eva Campo Müller

TOKIA

Irun



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Irunen euskararen erabilera eta euskararekiko gertutasuna sustatuko duten proiektuen definizio parte-hartzaileako prozesua aurrera eramatea.

Zehatzak:

- Proiektua aurrera eraman, eta aurrera begira euskalgintzaren saretzeari begira egongo den talde motorra osatu.
- Herritar partaidetzaz proiektua definitzeko prozesu zabal eta parte-hartzailea bat aurrera eraman.
- Prozesuan elkarteak eta norbanakoak saretu erabakiko den proiektu hori gauza-garri egingo duen babes soziala oinarria osatuz.
- Euskararen erabilera, eta euskaren egoeraren eztabaida irungo jendartera ekarri berriz.
- Inklusiboa eta askotarikoa izango den kalitatezko parte hartze prozesu bat bururaino eraman.
- Egungo politika publikoak iristen ez diren leku eta formak osatu, herri partaidetza olatu berri bat hauspotuz.

Esperientziaren azalpena

Azalpena: Prozesu parte hartzaileaz hitz egiten dugunean talde motorraz gain foroak ere hartzen ditugu kontuan. Goian adierazitako datuak 1. foroan jaso genituenak dira. 2. foroan antzeko datuak lortu genituen. Lan taldean 6 emakume eta 6 gizonezko gaude lanean. Lan taldeetako kideak kontuan hartuz: 11 emakume ea 9 gizon gara.

Esperientziari dagokionez, foroetan jarriko dugu fokoa:

Talde motorrean helburuak finkatu eta kanpaina komunikatibo bati ekin genion: zirikatze kanpaina EZTENA izenpea (ez dagoena, eszenatokia). Bertan, proiektuaren berri eman genien eragile ezberdinei proiektuaren bultzatzeko argazki bat ateratzeko eskatuz gero sare sozialetan partekatzeke. Hori izan zen gure proiektua zabaltzeko lehen bidea. Sare sozialetan arrakasta izan zuen eta jendea erakarri zuen nahiz eta ez jakin proiektua zertan zetzan. Urtarrilean antolatu genuen lehenengo foroa ikusita interesa zuen jendea eta

ikusita bagenuela harrera ona eragileen artean eta orohar, gehienen artean sintonia bazegoela. Lehenengo foroan, jendea begi onez ikusi zuen proiektua eta klabe ziren galdera batzuk plazaratu ziren: Nola hartu dezakegu parte? Espazio bat izango du egitasmoak? Noiz gauzatuko da? Udalak parte hartuko al du? Talde motorrean galdera horiek eztabaidatu genituen 1. foroan jaso genituen erantzunak kontuan hartuz eta horiek erabakita, 2. foroa abiatu genuen. Bertan parte hartze zuzenagoa izateko aukera eskaini eta aurreko foroan zintzilik geratu ziren galderak erantzun genituen. Foro horretatik parte hartu nahi zuen ororen kontaktua jaso genuen. Azken jarduera zabala ekainean egingo dugu, beste ideia batekin, proiektua bizirik dagoela plazaratzea, proiektuaren egungo egoera eta beste behin, iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

Emaitzen azalpena

Lehenengo foroan jasotako emaitzak galdetegi fisiko zein digitalaren bitartez jaso genuen. Bertan, plazaratu genituen galerez gain, beste zenbait ere agertu ziren, ez bakarrik proiektua nola gauzatu behar zen galdetzeko, baita ere proiektuaren izaera eta espero zutena galdetzeko. Modu honetan, erantzun funtzionalak bilatzeaz gain, termometro gisa balio izan zuen, jakiteko ea zein zen norbanakoen ikuspuntua eta ea ordurarte egondako eragileenarekin bat zetorren. Eta hala izan zen, lehenengo ekintza parte hartzaile zabala arrakasta hutsa izan zen eta argi ikusi genuen beharrezkoa zela halako proiektu bat Irun bezalako hiri batean.

Bigarren foroan helburua jendearen parte hartze zuzena lortzea zen, hau da, taldea handitzeko egin genuen bigarren foroa. Esan bezala, aurrekoan zintzilik gelditu ziren galderei erantzuna eman eta eztabaidarako unea utzi zen arren, adostasuna lortu zen emandako erantzunekin. Ondoren, lan taldeen zeregin eta metodologia azaldu eta parte hartzeko galdetegia banatu zen eta bertatik lan taldeen antolaketa burutu genuen eta moldaketa metodologikoak egin behar izan genituen. Dena dela, beste behin herritarren prestutasuna argi geratu zen emaitzetan.

Zer lortu da

Laguntza bai fisiko, bai intelektuala. Zenbait ekimen antolatzeko helburua genuen harren, egoera pandemikoak ez du aukerarik eman hauek gauzatzeko. Hala ere, laguntza eskaini zutenek adierazi dute egoera hobetzen denean ekintzak gauzatu nahiko lituzketela. Intelektualari dagokionez, foroan bertan korapilo ezberdinen gainean eztabaidatu zen eta puntu ugariaren abordatzeko ideiak jaso genituen. Foroaren ostean ere, eragile eta parte hartu zutenekin harremanetan jarri ginen entzundako ideien garapena entzute aldera. Proiektua definitzerako orduan ere ekarpen ugari jaso ditugu eta euskararen zuzentasuna zaintzeko ere laguntza eskaini digute.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Egitasmoa euskalgintza eta euskararen erabilera hauspotzeko den heinean, euskara hutsea gauzatu dira proiektuarekin zerikusia duten bilkurak eta proiektuari dagokion komunikazio material guztia. Hala ere, eta Irungo errealitate soziolinguistikoa denagatik, harreman biran egindako zenbait aurkezpen erdaraz egin behar izan dira, eragileek eskatuta.

Berdintasuna

Lan talde eta koordinazio taldean berdintasuna presente izan dugu eguneroko jardunean. Baita ere egin diren foroetan. Iritzi guztiak hartu dira kontuan eta balio bera izan dute egin diren ekarpen eta kritika guztiak, guztiak izan dira aztergai eta eman behar zitzaizkien garrantzia eman zaie. Ez koordinazio taldean, ez lan taldeetan, ez da egon isitilurik berdintasun edo parekidetasunari dagokionez. Esan beharra dago, estrategia definitzerako orduan, elkarte feministen laguntza izan dugula.

Aniztasuna

Taldeetan adin tarte ezberdineko norbanakoak biltzen ahalegindu gara. Harreman biran, talde ezberdinekin eta norbanako ugariarekin bildu gara, hiri berean bizita ere, kontestu oso ezberdinak bizi dutenak. Erantzuna, ahalik eta osoena izan dadin, garrantzitsua iruditu zaigu hala izatea.

Ingurumena

Sortu nahi dugun komunitatean, besteak beste, ingurumena babeste duten joerak bultzatu nahi ditugu. Gure aldetik, saiatu gara ahalik eta gehien zaintzen arlo hau eta hasieratik saiatu gara egin ditugun euskarri fisikoak ahalik eta gutxien izatea eta formatu digitala erabiltzen.

Balorazio atala

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Sare edo komunitatean parte hartu nahi zutenen elkar ezagutza. Euskararen erabileraren inguruko eztabaida bizirik zegoen arren, zenbait eragileren egunerokora ekarri dugu.

Espazio baten beharra adostu da.

Babes sozial zabala lortu da eta honen bueltan, euskalgintzan eta kulturgintzan lan egiten duten eragileen komunitatea ikusarazi eta trinkotu da batean.

Parte hartze prozesua inklusiboa izan da eta izaten jarraitzen du.

Emaitzaren ikuspegitik:

Talde motor egonkorra eta eraginkorra sortu da. Proiektuan aktiboki parte hartzen duen jende kopurua nabarmenki handitu da.

Eragile parte hartzaile kopuru handia. Egin ditugun bi foroetatik emaitza onak, parte hartze handia. Interesa piztu, jendeak galdetu baitigu proiektuaren inguruan.

Euskalzale eta kulturzaleen hauspotzerako olatu berriaren oinarriak argi ikusi. Antolaketa beharra, ordea.

Ikasitakoak

Hiri berekoak izanda ere, euskal komunitatetik urruti dauden eragile ezberdinen ikuspuntu eta jarrerak ulertzeko aukera izan dugu. Muga horiek apurtzeko eta euskararen normalizazioan aurrera pausuak emateko bideak bilatu eta topatu.

Komunikazioaren eta koordinazioaren garrantzia proiektu baten ongizaterako. Bai barne komunikaziori dagokionez, bai kanpo komunikazioari dagokionez, proiektua harremanak eta saretze bat sortu behar du arrakasta izateko aukerak izan nahi baditu eta parte hartze ona bermatu nahi bada.

Sistematizazioari eta metodologiari dagokionez, bileren egitura errespetatu behar da jendeak jakin dezan zer landu nahi den, zein den horretarako espazioa eta nola landuko den. Bileretan erabakitzen diren gauzak errespetu behar dira, eta hau behin baino gehiagotan argi utzi behar izan da, parte hartzaile ezberdinek zentzu ezberdinetan egiten baizuten arraun.

Azkenik, antolaketari dagokionez, helburu zehatz eta gauzagarriak adostu behar dira, mugari errealak jarritz. Modu honetan, motibazioa sustatzeaz gain, ekintzara pasatzea errazagoa da eta plano teorikotik irten eta parte hartzeko aukera handiagoak lortzen da.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

- Komunikazioa findu: Bai barne (koordinazio-talde, lantaldea), bai kanpo (koordinazio-eragile/ koordinazio-norbanako).
- Helburuak betetzeko estrategiak argi eduki behar dira. Helburuak lortzeko pausuak definitu eta lan hori egiteko arduradunak antolatu. Modu honetan, airean geratu daitezkeen zalantzak ekidin eta eginkizunak argi bana daitezke.
- Zaintza lana: Lanean ari garela, askotan ez gara ohartzen sortzen diren frikzioez. Noizean behin, zaintza saio bat antolatzea ez legoke soberan.
- Informazio eta dokumentuak modu txukun eta antolatuan jasotzeko dinamika hasiera-hasieratik adostu. Dokumentuen galera ekiditeko eta aurrera begira denbora aurrezteko.
- Denboralizazioa hobetu zehaztu behar da eta epe errealak jarri behar dira, inor ez dadin ito.

Elkarrizketa Andoni Eizagirre

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Elkartearen esparrua motz-motzean definitzen ez da erraza.

Elkarteak gizarte eraldaketa eta tokiko garapena ditu helburu. Euskararen sustapena horren barne.

Bularreko minbiziari dagokionez ere ezagutza eta gaixo zein inguruko parte hartzea bultzatu nahi ditu, baina helburu honi ez diogu heldu.

Elkartea sortu genuen gure adiskide Eva zenaren omenez. Bere ikuspegi zabala eta egiteko moduak inspirazio iturri zaizkigu.

Elkartea bereziki Txingudi-Oiartzun-Donostia aldean kokatzen da.

Bere jarduera esparrua zabala da, nolana ere.

Mugaz gaindiko izaera izan du hasieratik.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Kolpe handia izan da, herritarren parte hartzea erabat baldintzatu eta zaildu duena. Hala ere, egoera zailenetan bizi indarrari eusten zaiola nabarmentzekoa da.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Gure elkarte xumea da eta pandemia aurretik ere egin izan ditugu online bilerak: kideak ez gara herri berean bizi eta horietako batek bolada luzeak ematen ditu atzerrian. Hala ere, bistan dena, apenas elkartu ahal izan gara aurrez aurre, eta 2020ko apirilaren hasieran aurreikusitak genituen ekitaldiak bertan behera utzi behar izan genituen, ia dena prest genuenean. Gainerakoan, 2021ean egokitu ginen egoera eta osasun neurrietara, eta urteko egitasmo nagusiak gauzatu ahal izan genituen.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Ba moldatu gara eta hitz egin dugu pandemiaren eta berri kudeatzeko neurriez. Elkar zaintzaren garrantzia, lehenagotik bagenuena, agerikoagoa egin zaigu.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Parte hartze zerbitzua nola egokitu ote den erantzuteko ez gara gai. Ikusi dugu egitasmoei eta dirulaguntza deialdiei eusteko saiakera egin dela. Erakunde publikoen egitekoari dagokionez, luze joko luke erantzunak, gainera ez dugu elkartekide guztiok zertan iritzi bera izan. Argi da egoeraren larria ikusita aspektu batzuetan zegoen mailan izan direla, eta beste zenbait kontutan, galduta, inkoherente, gaitasunik gabe, etab.



Elkartea sortu genuen gure adiskide Eva zenaren omenez. Bere ikuspegi zabala eta egiteko moduak inspirazio iturri zaizkigu.

GARAION NATURARTEA ELKARTEA

Bizi Bizia. Jolasgune berdeen sortzea

HELBURUA

Herrietako parkeetan herritarrekin jolas-gune berdeak diseinatu eta eraikitzea

PARTE-HARTZAILEAK

175 emakumeak, 100 gizonak, 7 eragileak, 7 bestelakoak

IRAUPENA

2020ko urtarriletik 2021eko martxora

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Garaion Naturarte Elkarte

TOKIA

Otazan, Eskoriatzan, Oñatin eta Tolosan



garaion
naturArtea

Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Herrietako parkeetan herritarrekin jolas-gune berdeak diseinatu eta eraikitzea

Zehatzak:

- 2020ko azarotik – 2021eko martxo bitartean Gipuzkoako herri ezberdinetan herritarren artean adostu, landatu eta eraikitzea.
- Gipuzkoako herritarrei jolasgune biziak partehartzea bultzatuz lantzeko aukera, formazioa eta balioabideak eskaintzea.
- Herrietan, guraso talde, aisialdi talde, eta udalak elkarlanean jartzea zume biziko jolasgune bat sortzen. Herri bakoitzean gutxienez 30 pertsona bilduz (15 emakume eta 15 gizon gutxienez)
- Jolasgunea burutzean egindako lan guztiak bere inguruan azaltzea (argazki eta marrazkiekin) eta sareetan eta komunikabideei zabaltzea.
- Sortuko den espazio berria zaindu eta babesteko ardura lortzea partaideen aldetik. Sortutako harreman sarea zaindu eta harremanak mantentzea. Sarea haunditzea.

Esperientziaren azalpena

Eskoriatzako Luis Ezeiza eskola publikoarekin eta udaletxearekin elkarlanean herriko parke publikoan tipitunela egin genuen.

Tolosako San Maniego ikastetxearekin jolas partehartzailearen proiektuaren jarraipena. Haur eskolako zume biziko jolasleku berdea, bi hankadun bidea.

Oñatiko zizarea eta nagusien tipia, udaletxea, ludoteka eta gaztetxokoarekin elkarlanean.

Emaitzen azalpena

Gipuzkoako herrietan zumezko jolasgune berde gehiago eraiki dira. Herritar gehiagok ezagutu dute arkitektura berdea. Otarregintza garaikideko oinarrietako batzuk ikasi dituzte, beraiek ere egin ahal izateko. Jolasgune biziak herrian izatean

denen begietatik ardurara pasatzeko aukera zabaldu da, elkarlana sustatzekoa.

Harreman sare berriak sortu dira, jarraikortasuna ahalbideratzen dutenak. Partehartzearekin esperientzia atseginak bizi izan dira eta aurrerantzean errepikatzeko ateak ireki. Esperientzia Gipuzkoako beste herri batzuetara zabaltzeko bideak eraiki ditugu.

Zer lortu da

Modu partehartzaile batean ikasle eta herritarrek elkarlanean jolastoki mota ezberdin bat sortzea. Hasieratik bukaerarako prozesua beraien esku egonik. Diseinu amankomun baten sorrera ideia ezberdinetatik abiatuz, eta guztion artean eraikia. Horrela, jarraipena guztion arteko zaintza eta zumearen ziklo ezberdinak ezagutzeko aukera izateko testuinguru egoki bat sortu da.

Partaidetzarako harreman sareak ezarri ditugu erakunde, elkarte eta familien artean. Baita langile espezializatuekin ere. Ureztatze sistema instalatzaileak, zumegintzan adituak... Lortzen den beste ezaugarri bat motibazioa da, egiteko ahalmenaren motibazioa.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Guk euskaraz egiten dugu lan, eta bai bitartekari eta bai partehartzaileekin euskara hutsean egin dugu. Gainera, helduen artean euskara ez zekienari euskaraz egin diogu, hori baita gure filosofia, modu natural batean ikasi ahal izatea.

Herrialdez herrialde ezberdintasunak ikusi ditugu, partehartzaileen arteko erabileran, dena dela identitatea argi erakusten dugu esan beharrik gabe.

Berdintasuna

Bizi Bizia proiektua sexu roletatik at dagoen proiektu bat da. Partehartzaile guztiek izan dituzte tresna berdinak eskura eta denen eskuetatik pasatzea bermatzen duen metodologia sortuta daukagu. Partehartzailetasunaren oinarrietako bat dela uste dugu, genero perspektiba lantzea. Elementu naturalekin sortutako jolasgune berriak eta askorentzat ez ezagunak izaten jarraitzen dutenak dira, estereotiporik ez dago. Hezkidetzara bideratutako jolasak naturalki irtetzen dira, betiko jolas patioetatik ezberdinduz, eta jolasa bersortzeko aukera ematen dute.

Beste alde batetik gure lantaldea emakumez osatutakoa da, eta erreferentzia horrekin ezagutzen dute jardun berri hau. Lanabesak guk eramaten ditugu eta guk askotan erakusten diegu nola erabili askotan, nahiz eta konturatzeko garen hortarako bai emakume bai gizonezkoek baserrietan dituztela beraien sustraiak. Bakoitzaren nahien arabera egin dezakete lan zehatzago bat jardunaren arabera baina ezarritako rolak agertu bezain laister antzeman eta aldatzen saiatzen gara.

Aniztasuna

Hezkidetzara emateko proiektu eroso eta seguru bat den bezala, aniztasunean egiten den jardun bat da. Jatorri ezberdinetako jendea dago herrietan eta eraikuntzetan aritu garen partehartzaileen artean ere. Gure baloreen artean elkarganako errespetua eta errekonozimendua garrantzitsuenetako bat da, eta denen artean zerbait egiten dugunean argi uzten dugu, inongo diskriminaziorik ez dugu onartzen. Gainera elementu

naturalen erabilera kultura guztietako ezaugarria izan da, bakoitzak bere ingurukoa erabiliz. Zumea ezaguna da leku askotan eta hori daukagu topagune. Zumea erabiltzeko modu berri hau interesgarria egiten zaie bakoitzari bere abiapuntutik, eta aniztasunaren aberastasuna balorean jartzeko ideia azpimarratzen dugu.

Ingurumena

Erabilitako material nagusia zume bizia izan da. Zume bizia landatuz bizitzaren zikloenganako gertutasun bat ematen da, bizirik irauteko behar dituen oinarrizko lehengaiak (lurra, eguzkia eta ura) agerian gelditzen dira eta urtaro ezberdinetan itxura aldatzen joaten denez naturarekiko gertutasun bat nahitanahiez gertatzen da. Gainera jolastokiak izatean erabili egiten dira. Partehartzaileek zainketarako konpromisua hartzen dute. Naturarenganako begirunea gero eta argiago dagoela ematen du eta jolasgune bizienganako interesa ere handiagoa da.

Hirietan natura gerturatzeko modu bat da.

Jolas-guneetara jasangarritasuna eramateko modu bat da.

Askotan hiritik naturara txangoak egitean hirietako jolas-gune berdinak aurkitu izan dira.

Poliki-poliki ideia hori aldatzen ari da, eta hirietarako norantzan ere berdina egin nahi dugu.

Balorazio atala

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuak fase ezberdinak izan ditu. Hasiera batean “bizia”ren ideia transmititzea apurtxo bat kostatu zaigu, ezjakinak garelako horren inguruan. Patioen eraldaketa beharra ere askok ez dute ikusten eta ideia hau ere mahai ganean jarri behar izan da. Urte hauetan gizartea ideia hau barneratzen ari dela ikusten dugu, agian egungo egoerak ere badu zerikusia.

Partehartzearen ideian pausuak ematen ari dira, eta oraindik eman beharra daukagu. Guretzat partehartzeak inplikazioa suposatzen du, eta gure jardunean horrela egiten dugu trabak topatzen baldin baditugu ere.

Saio parte-hartzaileak politikak eta emankorrak izan dira, bai herritarrentzat, bai guretzat. Pertsona askorekin lan egiteko modua definitu dugu, pixkanaka. Gehien gustatu zaiguna guztion nahiak ezagutzea eta herritarrekin batera lan egitea izan da. Garrantzitsua da arlo guztietan parte hartzeko espazioak irekitzea

Emaitzaren ikuspegitik:

Emaitzak ikusgarriak dira eta komunikabideetako interesei esker albistea zabaldu ahal izan da. Jarduera honen nondik norakoak ikus eta azter daitezke. Landarean gertatzen dena, haren bizi-zikloa, zer gertatu den ikustea, zume-barietateen arteko aldea.

Ikasitakoak

Ikasi eta ikusi dugun gauzarik garrantzitsuena denboraren joana da. Bakoitzaren nahiei erantzuteko denbora, denon arteko adostasunetara iristeko denbora, modu lasaian jarduteko denbora... Azkenean, parte-hartzea pertsonen artekoa da. Gauzak goxotasunez egin behar dira, erritmo guztiak errespetatuz.

Gainera, jolas-eremu biziak zaindu beharrak inplikazioa eta parte-hartzea eskatzen du denboran zehar, eta hori bermatu ahal izateko, denbora eskaini behar zaie komunikazio eta koordinazio-lanei. Parte-hartzea jardueraren bidez ikus daiteke, baina partehartzearen kontzientzia neurtzeko adierazleak ez dira hain ikusgarriak izan; jolasguneen jarraipenean ere partehartzearen emaitza neur dezakegu.

Testuinguruak ere badu eragina. Adibidez, parte-hartzaileen inplikazioan: pertsonak, elkarteak eta udalak. Lehen esan dugun bezala, etengabe ari gara balorazio-irizpideak sortzen eta bermatzen, nahiz eta asko argiak eta zehatzak izan

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Hurrengo prozesuetan kontzientziario eta partehartze kontzeptuan sakontzea aberasgarria izango litzateke. Partehartzearen kontzientziarioan, ez bakarrik momentuko ekintzak suposatzen duenarekin, baita jarraipenean ere; partehartzeak suposatzen duen inplikazio eta arduraren lanaren gardentasunean; elkarlanaren beharrean; elkar entzun beharrean...

Jardun hontan zehazki zainketaren jarraipenean, harreman sareen jarraipenean, jolas-gunearen nondik norakoaren neurgailuen jarraipenean. Biziak direnez, aurretik pentsatutako hainbat orokortasunek ez dute balio; beraz, ezin da hain orokorra izan.

Guzti honek denbora behar du, eta emaitza ikusgarria bada ere prozesua berari ere behar baina garrantzia handiagoa eman diogu.

Elkarrizketa Miren Beitia Arriola

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Garaion Naturartearen ardatz nagusiak, natura, sormena eta ondare soziala dira. 3 horien inguruan, batez ere kulturen eta hezkuntzan egiten du lan. Jendearekin partehartzean, bai sormenean baita bitartekaritzan ere. Kultur espazio bat gestionatzen dugu, non artistak eta ikusleak elkar ezagutarazten ditugun, eta herriz herri mugitzen gara partehartze prozesuak burutzen.

Bizi Bizia proiektua duela 12 urte Garaioek natur elementuekin hasitako jardunean du jatorria. Land art kontzeptutik abiatuta iragankorrak ziren artelanak sortzetik, bizirik eta jarraipena duten egitura berdeak sortzera pasatu gara.

Herritarrekin egiten dugu lan, beraien herrietan. Horretarako kolektibo, erakunde eta pertsonak elkarlanean jartzen ditugu guztien artean guztiontzat izango den egitura bizi baten sortze prozesuan. Harremanak jarraikortasuna izateko bide bat sortzen da zume biziko egitura baten inguruan.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Jendearekin egiten dugu lan, aurrez aurre. Eta hortan sinesten dugu. Harreman zuzenean. Gure jardunean ere harreman polita sortzen da prozesu guztian, eta batez ere sortze (landaketa) saioan. Covid-aren neurriak izan direla eta, hau erabat mugatuta egon da, eta zentzu horretan erabateko eragina izan du

gure jardunean. Ikastetxe asko berrantolatuta egin behar izan dira, udal askok ez dute jendartean egiteko ekintzarik antolatuta nahi izan, kolektibo askoren egoitza eta elkartzeko guneak itxita egon dira...

Partehartze presentziala bultzatzen dugu, eta hori erabat mugatuta egon da.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Naturari garrantzia ematea, pertsonen sortzailetasunean sinestaztea eta gure aitona-amonon jakinduria presente izatea dira gure helburu nagusienetakoak. Ideia horiek indartu egin dira gurean pandemia garaian, eta eman beharreko garrantziaz mintzatu gara. Naturaren garrantzia argi izan dugu, gurean dauden egiturak berdetzen eta indartzen ikusi ditugun bitartean; sortzailetasuna, sortzera gerturatu diren sortzaileen gogo eta lanean ikusi dugu egunero bizitzen ari ziren egoerari aurre eginez; eta gurean ohitura izan den auzolan eta elkarlanaren beharra egoerei aurre egiteko erabat argi gelditu zaigu, elkarzaintzaren behararekin batera. Guzti horiek indarra hartu dute, nahiz eta gure kanpoko jardunak gelditu egin ziren. ABEEan egon behar izan gara ia urtebetez, eta asko borrokatu behar izan dugu ekonomikoki aurrera egiteko.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Gure ahalmena gure jardunean dugun sinesmenarekin erabat lotuta dago. Hasieratik

bizirik jarraitu nahi izan dugu, elkar entzun, hitzegin eta elkar zaindu nahian. Ezarritako neurriak gure ekintzetan uztartzen saiatu gara. Eta nahiz eta dena “gelditu” izanaren sententzia izan, egitura berdeak bizirik jarraitu dute gure harreman partehartzaileekin. Ikaspen nagusia, zailtasunak zailtasun elkarzaintzaren beharra eta hau praktikatzeke ikasi, eta solastu beharraz jabetzea izan da. Asko solastu beharra.

Harreman “sanoak” eskainiko dituen espazioen beharra eta garrantzia ikusi dugu. Segurtasun espazioak, bai bakarkako bai talde ideiak garatu ahal izateko. Natura gure bizitzan bizitzeko beharrezko hartzea aspaldi hasitako ikaspenetako bat da. Natur zikloez jabe izateko beharra, aldaketez, eta gu eta haren arteko harremanaren garrantzia eta eraginaren kontzientzia izatearen beharra. Arlo askotan gizarte gaixo bat garela ikusi dugu.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

GFako Parte Hartze zerbitzuak erraztasunak eman dizkigu zailtasunetan. Harremana zuzena eta gertukoa da eta hori eskertzekoa da. Harremanak ez dira eten eta alternatibak elkarrekin hausnartzeko aukerak erakutsi dizkigu.



**Garaion
Naturartearen ardatz
nagusiak, natura,
sormena eta ondare
soziala dira**

GEHITU

Gehitu Elkartearen barne hausnarketarako aholkularitza, 2020

HELBURUA

Norbanakoaren behar, gogo edo egoera abiapuntu, lan komunitarioa balioan jarri eta talde-ikuspegia lantzea.

Elkarteko partaideen artean talde lanaren eta parte izatearen kultura indartzea.

Partaide bakoitzaren ekarria balioan jartzea, eta aldi berean, berdintasuna sustatzea. Edozein dela ere elkartean duen rola, ardura, betetzen duen funtzioa; edozein dela ere generoa edota jatorria... taldekide guztiak berdintasunean aritu ahal izateko bitartekoak sortzea.

PARTE-HARTZAILEAK

%31 emakumezkoak, %66,7 gizonezkoak, %2,4 bestelakoak.

IRAUPENA


2020/03/01-2020/10/02

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Gehitu, Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Intersexualen Elkarte

TOKIA

Gehituko egoitza eta jaurdunaldirako Egiako Kultur Etxeko Areto Nagusia



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Norbanakoaren behar, gogo edo egoera abiapuntu, lan komunitarioa balioan jarri eta talde-ikuspegia lantzea.

Elkarteko partaideen artean talde lanaren eta parte izatearen kultura indartzea.

Partaide bakoitzaren ekarria balioan jartzea, eta aldi berean, berdintasuna sustatzea. Edozein dela ere elkartean duen rola, ardura, betetzen duen funtzioa; edozein dela ere generoa edota jatorria... taldekide guztiak berdintasunean aritu ahal izateko bitartekoak sortzea.

Zehatzak:

Gehituko bazkideek gaur egun elkarteari buruz duten iritzia, egiten duten balorazioa, eta aurrera begira sumatzen dituzten lehentasuneko gaiak jasotzea inkesta bidez.

Gehitu elkarteak duen egituraren arabera, gune ezberdinetako pertsona klabeekin elkarrizketa sakonak egin, galdetegiaren bidez sortzen den diagnostia kontrastatzeko eta sortzen den prospekzioa baloratzeko.

Galdetegitik eta elkarrizketetatik lortutako informazioa dokumentatu eta txosten batean jaso.

Gehitu elkarteko kide ezberdinekin batera, lan jardunaldi bat antolatzea, betiere sortutako diagnostia baloratzeko, eta baita aurrera begirako proposamena osatzeko eta lehenesteko.

Esperientziaren azalpena

Prozesuan parte hartu duten pertsonak, galdetegiaren bidez, elkarrizketetan, edota jardunaldian elkartearen etorkizunari dagokionez hainbat proposamen eta hausnarketa partekatu dituzte. Diagnostian identifikatzen diren ahulguneak hobetzeko eta elkartea eraginkorragoa izan dadin aldaketak egitea beharrezkoa ikusten da. Ondoren jaurdunaldi batean presentzialki parte hartzera gonbidatu zitzaizkien bazkideei, eta bertan mahai-inguru bat sortu eta gero, bazkideak, bolondresak, LGTBI kolektiboa orokorrean eta kanpoko elkarte eragileak kontuan edukiz prozesu osoan, hainbat konklusio ateratu ziren. Honekin, aurrera pausoak emateko asmoa dago, helburu komunitaria iristeko asmoz.

Emitzen azalpena

Gehituko bazkideak ikuspuntu berbera dutela ohartu dira, barne gatazkak alde batera utziz helburuak zehaztu dituzte eta lankidetzarako bidean etorkizuneko ildoak jorratzeko asmoa dute. Barne hausnarketa bat izanik, lortu dena zera da, berriro ere Gehitu talde sendo bezela sentitzea eta bazkide bakoitzak ondokoaren iritzia entzutea eta hau baloratzea. Ondoren ondorio komun batzuk jorratuz aurrera begiratzea. Honekin, ikuspegi desberdinak kontuan hartu dira eta erronka estrategikoak zein funtzionalak identifikatu dira, etorkizunera begira betetzeko helburuarekin.

Zer lortu da

Orokorrean lortu diren emaitzak oso positiboak dira. Hala ere kontuan izan behar da hau hausnarketa izan dela, aurrerago abiapuntu bezala erabili beharreko baliabide gisa hurrengo prozesuetan.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Prozesuan zehar hizkuntzaren erabilera erdipurdi egin da. Hala ere, Gehituko kidegoaren errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta aldaketak egitea proposatzen bada, prozesua hasi aurretik, kontuan hartuko dira.

Prozesuan zehar beti euskarari eman zaio lehentasuna, hizkuntzaren erabilera honela egin da. Hala ere, beti kontuan eduki da Gehituko bazkideen errealitate soziolinguistikoa:

- Gehituen komunitateari zabaltzeko informazio euskarriak elebitan izan dira: eskutitza, galdetegia, e-mailez, sms-az eta jardunaldirako gonbidapen euskarria.
- Jardunaldiko metodologian kontuan izan da bi hizkuntzak erabiltzeko aukera, eta errealitate soziolinguistikoa arabera euskarriak euskara hutsean edo elebitan antolatu dira.

Herritarrek hitza hartzen dutenean, erosoan zaien hizkuntza erabiltzea ahalbidetu da.

- Saio irekietako euskarriak elebitan sortu dira: ppt-ak, papelografoak...etab
- Elkarrizketen ustiaketa fitxak herritarrek erabilitako hizkuntza berean bildu dira, ekarpen zehatzak bere horretan (literalki) jasotzeko asmoz.
- Prozesuaren fase bakoitzaren amaieran sortu diren txostenak bi hizkuntzatan sortu dira.

Berdintasuna

LGTBI pertsonen eskubideen alde borrokatzen duen elkarte gisa, gure gain hartzen dugu gure proiektu eta jardueretan genero-desberdintasunaren eta jokabide matxisten arloan gure inguruneak oraindik pairatzen duen edozein gizarte- eta lan-praktika oker ez errepikatzen konpromisoa.

Elkartearen estatutuen helburua da gayen, lesbianen, bisexual transexualen eta intersexualen erabateko errealizazio pertsonala ahalbidetuko duten baldintzak sortzea eta indartzea, bai eta haiek integratzea eta berdintasunean parte hartzea ere; horregatik, uste dugu gizarte-desberdintasunen aurrean egiten ditugun aldarrikapenek kolektibo osoari eragiten diotela. Gure estatutuen 5. artikuluan berariaz aipatzen da:

“5. artikulua.- Elkartearen helburua da gay, lesbianen, bisexualen, eta transexualen erabateko errealizazio pertsonala ahalbidetuko duten baldintzak sortzea eta indartzea, eta orientazio heterosexualeko pertsonen berdintasunean integratzea eta gizartean parte hartzea.”

Horri dagokionez, elkarteak honako helburu hauek dituzten jarduerak guztiak sustatuko ditu:

Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako politiketan parte hartzea.

Gehitu, halaber, Donostiako Emakumearen Kontseiluko kide da, M8ko jardueretan parte hartzen du eta urte osoan jarrera

feminista eta feminismoaren bidezko gizarte-eraldaketaren aldekoa da.

Gehituk emakumeen, gizonen eta beren burua kategoria horietako batean ere aitortzen ez duten pertsonen parte-hartze eraginkorra bilatzen du.

Bereziki, proiektua egiten laguntzen duten boluntarioen artean, bai eta gure elkartearekin lotura zuzenik ez duten pertsonen eskatzen zaizkien unean uneko lankidetzetan ere.

Aniztasuna

Kontuan izanik Gehitu LGTBI kolektiboaren elkarte delako, inkesta pasatzerako eta datuak jasotzerako momentuan, iritzi eta sentsibilitate ezberdinak kontuan izan dira edozein kasutan. Gainera, elkarrizketak egiteko hartu den lagina anitza izan da zentzu zabalean.

Elkarteko bazkideen aintzinasunari dagokionez, galdetegiari erantzun dioten 27 lagunek 15 urte baino gehiago daramatzate elkartearen, hau da, guztien herenak. Beste heren bat Gehituko bazkide egin zen duela 5-14 urte. 21 pertsona sartu dira azken 4 urteetan, eta gainerakoek ez dute data zehatza gogoratzen.

Balorazio atala

Gehituko bazkideek gaur egun elkarteari buruz duten iritzia jakitea eta elkarbanatzea lortu da, balorazio komun bat eginez, eta aurrera begira lehentasunezko gaiak jasoz.

- Gehitu Elkarteak duen egituraren arabera, gune ezberdinetako pertsona klabeekin elkarrizketak egitea lortu da, galdetegiaren bidez sortzen den diagnostia kontrastatzeko eta sortzen den prospekzioa baloratuz.

- Galdetegitik eta elkarrizketetatik lortutako informazioa dokumentatu eta txosten batean jasotzea lortu da.

- Gehitu elkarteko kide ezberdinekin batera, lan jardunaldi bat antolatzea, betiere sortutako diagnostia baloratzeko, eta baita aurrera begirako proposamena osatzeko eta lehenesteko helburua ere lortu da.

Garrantzitsuena, mahai-ingurua sortzea lortu da eztabaidarik gabe eta giro onean, gertutasuna lortu da eta prozesuarekin aurrera jarraitzeko nahia piztu da.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua oso baliagarria izan da. Egitasmo honetan GEHITU Elkartearen barne egoerak aztertu eta partaideen artean horietaz hausnartzeko prozedura burutu da.

Gehitu elkarteko partaide ezberdinek egun elkartearen egoera, funtzioa eta funtzionamenduari buruz egiten duten diagnostia.

Sortu den diagnostiarenean baitan kontsentsuzko proposamena aztertu eta adostu da, gutxienean atal hauen arabera: aurrera begira, elkartearen funtzioak, lan ildoak, antolaketa eredu eta funtzionamendua.

Emaitzaren ikuspegitik:

Prozesuan bazkideek elkarlanean ikuspegi komun bat sortzea lortu da, ondorio desberdinak ateraz:

Bazkideen desiretatik abiatuta epe ertain batean elkarte ezaugarrituko duten aldagaiak jaso dira.

Bazkideen iritziak, elkartearen behar edo hutsune nagusietatik sortuta erronka desberdinak azpimarratzen dira. Estrategikoak dira, elkartearen egungo egoera gaingaitu eta irudikatutako ikuspegira gerturatzeko etapa berri bati ekitea ahalbidetuko dutelako.

Ikasitakoak

Bulego teknikoak eta bazkideen iritziak ezarritako bideek lan-ildo berdinetan bat egiten dute eta aurrerapauso berberak eman nahi dituzte; azken batean, batzuk eta besteak bide beretik doaz eta erronka berriak ezarri dira etorkizunean aurreratu egiteko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Abiapuntu gisa erabili behar da. Gehituentzat aurrerapauso handia izan dela barne-hausnarketa komuna egitea, eta, oro har, guztion iritziak bigarren prozesu batekin jarraitu behar duela, kanpoko enpresa baten zerbitzuarekin edo gabe. Beti hartu behar dugu kontuan ikasitakoa, etorkizunean hausnarketan ezarritako ondorioen baliabide baliotsu gisa erabili ahal izateko.

Elkarrizketa Jokin Esnaola

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Ehunka emakumek eta gizonak osatzen dugu elkarte, eta gayen, lesbianen, bisexualen eta transexualen duintasunerako, berdintasunerako eta gure sexu-afektibitatea askatasunez garatzeko oinarrizko eskubideak erabat aitortzeko helburuak batzen gaitu, bai eta orientazio sexualaren edo identitate transexualaren ondoriozko diskriminazio legal eta sozial oren amaierak ere.

Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, independentea, plurala eta demokratikoa, legez inskribatuta dagoena, eta erakunde publikoekin eta beste GKE batzuekin lankidetzan aritzen da planteatutako helburuak dituzten programak eta jarduerak kudeatzeko. Elkarte bazkideen kuoten eta jasotzen dituen diru-laguntza publikoen bidez finantzatzen da.

Era berean, Gehituk jarduerak eta ekimenak egiten ditu gure eskubideak defendatzeko erabakigarriak diren espazioetan, bereziki komunikabideetan, erakunde politikoan aurrean eta hezkuntzaren eremuan.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Pandemiak elkarteari eragin zion osasun-krisiaren ondorioz geldirik geratu ziren jarduera askotan, baita gure bulegoetatik igaro ohi ziren eta neurrien ondorioz eta libre mugitzeko gaitasunari egoitzara joateari utzi zioten pertsona askotan ere.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Helburu asko pandemiak baldintzatu zituen, baina egoerari egokitzuz gure jarduna aurrera eramanez dugu.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Uste dut pandemia ikasketa handia izan dela jende askorentzat, eta elkartetik ikasi dugu, batez ere, egoera berrietara egokitzen eta zaintzari garrantzi handiagoa ematen, bai langileena bai bazkideena.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Uste dut ahal dutena egin dutela.



Ehunka emakumek eta gizonak osatzen dugu elkarte, eta gayen, lesbianen, bisexualen eta transexualen duintasunerako, berdintasunerako eta gure sexu-afektibitatea askatasunez garatzeko oinarrizko eskubideak erabat aitortzeko helburuak batzen gaitu, bai eta orientazio sexualaren edo identitate transexualaren ondoriozko diskriminazio legal eta sozial oren amaierak ere.



HERRIBIZIGUNE

Partehartze
dinamika: plazaetxeberri

HELBURUA

- Zizurkilgo herrigunean dagoen Plazaetxeberri eraikinarekin egin zitekeenari buruko hausnarketa partehartzaile herritarra gauzatu.
- Partehartzearen errealitatea bihurtzeko oinarri praktikoa jarri.

PARTE-HARTZAILEAK

EMAKUMEZKOAK: Gehiengoa prozesu osoan. Zenbakia oso aldakorra ekimeneti ekimenera. GIZONEZKOAK: Zenbatekoa oso aldakorra prozesuko ekimen batetik bestera ERAGILEAK: Udala, herritarrak.

IRAUPENA

2019-10/ 2021-04

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

HERRIBIZIGUNE ELKARTE SOZIALA

TOKIA

Elkartek ez du berezko espaziorik. Udalarekin adostuta, herriko hainbat gunere erabili ditugu: kultur etxeetako aretoak, plazak, frontoi estalia, Plazaetxeberri eraikina,...



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

- Zizurkilgo herrigunean dagoen Plazaetxeberri eraikinarekin egin zitekeenari buruko hausnarketa partehartzaile herritarra gauzatu.
- Partehartzearen errealitatea bihurtzeko oinarri praktikoa jarri.

Zehatzak:

- Eraikinean egin daitezkeen ekimenak zehaztu eta epe labur, ertain eta luzean zehaztu egingarritasuna.
- Herritarrek ahaldundu, ekimen hauetan aktibo bilakatzeko.

Esperientziaren azalpena

Udalak sortutako Partehartze batzordean planteatu zen udalak erositako Plazaetxeberri eraikinean zer proiektu gauzatu behar zen erabakitzeko partehartze prozesu bat martxan jartzea. Herriko hainbat eragile ezberdin, horien artean herriBIZigune elkarteak, batzorde honetara deituak izan ginen. Udalak partehartze dinamikari eman nahi zion garrantziaz jabeturik, HerriBIZigune elkarteak Plazaetxeberri eraikinari buruzko dinamika partehartzailea bermatzeko eta gauzatzeko proposamen bat egiteko ardura hartu zuen.

Horretarako, herriBIZigune elkarteak oinarrizko hiru irizpide garatu zituen:

- Partehartzearen errealitatea bihurtzeko oinarri praktikoa
- Dinamikaren plangintza eta metodologia

Batzordeak, aho batez, dinamika honen dinamizazioa herriBIZigune elkarteari delegatzea erabaki zuen. Eta geroztik elkarteak dinamizatu du prozesu osoa.

Eraitzen azalpena

herriBIZigune elkarteak prozesu partehartzailea bermatzeko eta gidaritza lana egiteko ardura hartu zuenean, prozesurako plangintzaren eta metodologiaren aurkezpena egin zuen.

Herrigunearen komunitatearen errealitatearen irakurketa bat egin zen eta jendeak herrigunerako beharrezkoak ikusten dituen proiektuak bildu genituen.

Euskal Herriko hainbat proiektu ezagutu, ikasi eta ondorioak atera genituen.

Martxan jarri behar dugun proiektuaren zehaztapena egitea lortu genuen eta herri kooperatibaren ideia atera zen. Horrekin batera, Plazaetxeberri eraikinaren antolaketa eta proiektuak nondik hasi garatzen (txinparta) zehaztu genuen.

Txostena prestatu, erredaktatu eta sozializatzeko bidean gaude.

Zer lortu da

- Herritarren artean partehartzearen beharra zabaldu da.
- Herritarrek aktibo izatera salto egindute, orainartean oso hotz zegoen komunitatea kohesionatzen hasi delarik.
- Hurrengo pausoak emateko gogoia eta ilusioa piztu da.
- Bidean, herrian egon daitezkeen beste behar batzuk agertu dira. Etorkizun laburrean lantzen joan beharko direnak.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Gure proiektuaren nortasuna eukalduna da. Gure ekimenetarako komunikazio osoa euskeraz egiten dugu, baita ekimenak berak ere.

Orainartean, lortu dugu 100% horrela izatea.

Berdintasuna

Gure proiektuaren nortasuna feminista izatea da. zentzu honetan, gure senan daramagun ildoak da berdintasuna bermatzearren hautua; horretarako, bilkurak egiteko garaian, kontutan hartzen ditugu orduetegiak, guneak,... baita komunikazio bideak, etab.

Aniztasuna

Gure proiektuaren nortasuna inklusiboa izatea da. Gure herriko errealitatean txertatuta gaude eta gure proiektua edonori irekia dago.

Ingurumena

Gure nortasunaren ezaugarrietako bat, ekologistak izatea da; eta ingurumen ekologikoaz gain, kulturala ere zaindu behar dugula ulertzen dugu. Zentzu honetan, herriaren eraikin historikoa zaindu eta mantendu behar dugula pentsatzen dugu, bertan gauzaten den proiektua herritar guztientzako baliogarria izanda gainera. Ulertzen dugulako herria eta ingurumena maitatzen badugu, zainduko dugula.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Orokorrean, hasieran irudikatutako helburuak bete direla esan dezakegu, eta beste erronka batzuk sortu direla. Aurrera begira, beste prozesu partehartzaile bat jarriko dugu martxan, egindako honek eman duenari erantzuteko; behin azken txostena aurkeztu ondoren adostu beharko ditugu hurrengo fase honen nondik norakoak.

Prozesua, parte hartzea eta giroa:

- Prozesua oso jendetsua izan bada ere, oso aldakorra izan da ekimen batetik bestera. Lehenengo pintxo tertulian 60-70 lagun egon baginen, formazioko zenbait saioetan 25 lagun egon gara, adibidez.
- Partehartze aldetik, herritarrak oso implikatuak egon dira, aktibo bilakatu dira, iritzia, proposamenak eta ideiak emanaz.
- Giro oso atsegina izan da. Bilkura guztietan saiaturako gara pintxo tertulia formatua ematen, modu erlaxatuago eta lasaiago batean, talde txikietan, jendearen partehartzea bermatzeko; zentzu honetan, asmatu dugulakoan gaude.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

- Behaketa: Datuak jaso eta irakurketa egin. Jasotako datuak eta norberak izan ditzakeen inpresio subjektiboen arteko posizioak hurbildu.
- Sormena: Ikuspuntu subjektibotik norberaren ametsak adierazteko aukera eskaini. Jasotako datuak eta jendearen nahiak gurutzatuz, posizio egingarri eta bateratu batera iritsi.
- Dokumentatu: Beste proiektuak modu teorikoan ikertu eta ezagutu. Euskal Herrian dauden gure nahiekin bat egiten duten beste esperientziak ezagutzeko bisitak antolatu.
- Formatu: Ekonomia Sozial Eraldatzailea proiektuaren kantoiharria.
- Proiektuaren izaera juridikoa aztertu eta definitu.
- Auzolana sustatu.

Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Harremanaren oinarrian gardentasuna, informazioa eta konfiantza egon behar du. Horretarako beti saiaturako gara: Informazio publikoa egitea (panela, kartelak, webgunea, whatsapp taldea,...)

Deialdiak publikoak egitea (kartelak, webgunea, whatsapp taldea,...)

- Egutegiak markatzen zuen erritmoari baino, pertsonen arteko adostasunari garrantzia ematea.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:

Orokorrean giroa eta sentsazioa ona da; jendeak jarritako espektatibak betetzen ari garelakoan gaude. edozein partehartze prozesuetan bezala, diseinatutako bidetik, momenturo ibilbidea moldatzen saiaturako gara, nahiz eta beti partehartzaile guztien erritmoak berdinak ez diren izan.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa:

Gure nortasunaren muina dira, gure senaren ezaugarriak biltzen ditu. Zentzu honetan, ez ditugu zeharka landu, ezta aparteko trataera eman ere, gure ekimen guztietan barne dauden lan ildo garrantzitsuak baitira, gure herriari begiratzeko derrigorrezko betaurrekoak.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua kohesionatzailea izan da, eta posizioak hurbiltzeko bide bat. Jarraitzeko motibazioa azkeneraino indartu da. Garai berriari aurre egiteko gogoia eta baliabideak bermatuta daude.

Adostasunez iritsi gara aldiaren amaierara. Adostasunetik aldi berrirako jauzia egiteko baldintza bermatuta dago.

Emaitzaren ikuspegitik:

Zizurkilgo herriguneko komunitateak higidura pairatzen ari da. Komunitatearen higidura sortzeko arrazoiak anitzak dira: arkitektoniko-urbanistikoa, zerbitzuak, aisialdia, etxebizitzak,... Plazaetxeberri eraikina Zizurkilgo herrigunea indartzeko eta sendotzeko tresna izan daiteke. Plazaetxeberri eraikinean bertan proiektu kooperatibo, komunitario eta publiko antolatuz Zizurkilgo herritarren herriarekiko sentipena eta atxikimendua sustatuko da.

Ikasitakoak

- Komunitatearen bilakaera zein den jakiteko behatokia sortu behar da.
- Komunitatea kohesionatzeko inbertsioak (anitzak) egitea ezinbestekoa da.
- Ez dago atxikimendua partaidetza ez badago.
- Benetako partehartzea gobernantza hasten den unetik pizten da (kogestioa/autogestioa).
- Dinamika sozialetik, motibazioa indartzen da.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Onartu behar da hasiera batean egiten zen planteamendua aldatzen joan daitekeela prozesuan zehar. Hasierako diseinua ezin da zurrunezia izan.

Erakutsitako konpromisoaren arabera, parte hartzeko hainbat mekanismo eskaini behar dira. Horrekin jendearen inplikazio askotarikoagoa lor daiteke.

Elkarrizketa Izaro Lizarraga

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Herribizigune elkarteak hainbat lan ildo ditu, ekimen guztiekin hiru balore hauek landu nahi ditugularik:

-Bizimoduaren kalitatea hobetu, horren balioa eta gauzatzearen inguruko kontzientzia sustatu eta pertsonen artean elkarlana bideratuz auzokidetasuna egonkortu eta indartu; burujabetzaren bidean (elikadura, energia, mugikortasuna,...), herritarren eta herriaren ahalduntzea helburu.

-Auzokidetasunaren bidez komunitatearen sentipena sakondu nahi dugu.

-Komunikazioa ezinbestekoa da komunitatea indartzeko; baita sentsibilizazio lana egiteko. Horrela, orain dela urte pare bat Elikadura Sarea sortu genuen (oraindik martxan); ondoren, udalaren partehartze batzordeko kide ginelarik, Plazaetxeberri izeneko udal eraikinean zer nolako proiektua gauzatu nahi genuen hausnartzeko partehartze prozesuaren dinamizatzaile lana hartu genuen (2 urte iraun duena eta oraindik ere martxan dagoena). Hortaz gain, eskolako komunitatearekin (haur, guraso eta irakasleak) herrigunean eraiki nahi dugun proiektu sozial eta kooperatiboaren inguruko hausnarketa prozesua abiarazi genuen. Eta aurtengo neguan, herritarren jakintza etxeetatik plazara, eskuetatik eskuetara proiektua jarri nahi dugu martxan, herritar bakoitzaren jakintzak elkartrukatzeko hilean behin egingo ditugun topaketak.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Gure kasuan, erabat puskatu zuen partehartze prozesua (Plazaetxeberri), ez bait genuen ulertzen prozesua ez bazen elkartuz eta elkarrekin bidea eginez egin genezakeen zerbait bezala. Saiatu gara, ahal izan den momentuetan ekiten, eta aurrera jo dugu Euskal Herriko beste dinamikak ezagutuz, talde txikiagoetan hausnarketa eta tertulia momentuak bilatuz... Zaildu egin du edozein ekimen egiteko garaian izan genezakeen bapateotasun eta naturaltasuna (autobusak antolatzeako irteeretara, dastaketak, ekoizleen lantegietara bisitak, beste probintzietara txangoak...)

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Nekezagoa izan da elkartearen bizitza eta bere egitasmoak aurrera eramatea, aurrez aipaturiko arrazoiengatik. Gure proiektua komunitatea indartzea da azken finean, eta Covid garaia komunitate izaerari izugarritzko kaltea egin dio, herritarrok elkartu eta elkarrekin sortzeko guneak eten dira eta ekimen asko bertan behera geratu dira momentuko osasun-larrialdirengatik. Gure eginahala izan da egoerari buelta ematea eta formula berria bilatzea. Lehen puntuan esandako prozesu guztiak mantsotu ditu eta etenaldiak izan dituzte.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Gustura gaude egindako esfortzuak bere fruituak eman dituelako (40 famili-bazkide gara Zizurkilgo herrigunean) eta herritarren ahalduntzean pauso garrantzitsuak eman direlako.

Inoiz baino garbiago ikusi dugu komunitatearen beharra, burujabetasun ezberdinen beharra eta elkarrekin antolakuntzarako beharra.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Ez dut aldaketa haundiegirik somatu aurretik, pandemiako momentu larrietan eta gaur egun.



Bizimoduaren kalitatea hobetu, horren balioa eta gauzatzearen inguruko kontzientzia sustatu eta pertsonen artean elkarlana bideratuz auzokidetasuna egonkortu eta indartu; burujabetzaren bidean (elikadura, energia, mugikortasuna,...), herritarren eta herriaren ahalduntzea helburu.

HEZKIDE ESKOLA

Ireki begiak,
elkartu eta ekin!

HELBURUAK

- Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritasuna eraikitzen jarraitzea.
- Parte hartze eta boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa eta boluntarioen erakarpena sustatzea Gipuzkoako hezkuntza eremuetan.

PARTE-HARTZAILEAK

Elkartek: 9 Ikasleak: 907

IRAUPENA

2020

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Hezkide Eskola

TOKIA

Proiektuaren diseinu eta prestaketa Gizalde Gipuzkoako Boluntariotza bulegoen (Autonomia kalea 19, behea. Donostia) eta programaren egitaritza Gipuzkoako ikastetxeetan.



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

- Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzen jarraitzea.
- Parte hartze eta boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa eta boluntarioen erakarpena sustatzea Gipuzkoako hezkuntza eremuetan.

Zehatzak:

- Gazteen artean, elkartasuna, doakotasuna, berdintasuna eta orokorrean gizartearen aldeko balioak sustatzen jarraitu.
- Gazteak, gizartearen hobekuntzan eragiteko parte hartzea eta boluntariotzaren garrantziaz jabetuarazi.
- Gazteak etorkizunean gizartean aktiboki parte hartzera animatu.
- Gizarte arloko entitateekin elkarlanean, ikastetxeetako ikasleen gizarte parte hartzea sustatu.
- Elkarte sareari heziketa zentroetara sarbidea erraztu.

Esperientziaren azalpena

Ireki begiak, elkartu eta ekin, 2008an sortutakoa, gazteen artean gizarte parte hartzea eta boluntariotza sustatzeko programa da. 15-18 urte bitarteko ikasleak dituzten heziketa zentroetan burutu da. Ikasleek, gizarteko hainbat errealitatearen aurrean begiak ireki eta errealitate horietan eragiteko duten aukerez eta ardurez jabetzeko hausnarketa sustatu da. Era berean, entitateetan boluntarioek nola parte hartzen duten gertutik ezagutzeko aukera izan da.

Emaitzen azalpena

Hausnarketa hori baliatuz, gazteek euren inguruan dituzten parte hartzeko aukerak eta ardurak identifikatu dituzten eta hainbat kasuetan horietaz baliatu, bai parte hartzen hasteko edo parte hartzen jarraitzeko; gazte guztiak ez baitira pasiboak eta parte hartzen dute jada.



Zer lortu da

Programan zehar burututako hausnarketekin zein bistaratutako elkarteetako eguneroko lanarekin, gazteak, parte-hartzeak eta boluntariotzak bere baitan dituzten elkartasun, doakotasun, berdintasun eta orokorrean gizartearen aldeko balioez jabetu dira.

Gazteek, entitateek eta bertan parte hartzen duten boluntarioek burutzen duten lana gertutik ezagutu dute; parte hartzeari aurpegia jarri diote, eta edonoren esku dagoela ikusi dute.

Gipuzkoako elkarteek beren lana heziketa zentroetako gazteei erakutsi ahal izan diete, gazte hauei gizartearen errealitate zehatzena ikustaraziz.

Programa honen ondorioz hainbat ikastetxek parte hartzearen arloko ekimen ezberdinak martxan jarri dituzte. Programa aurrera eraman den hainbat ikastetxetako irakasle zein ikasleak ondoren Gizaldera hurbildu dira elkartegintza, parte hartzea edo boluntariotzaren inguruko informazio bila.



Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Ikastetxe guztiekin kontaktua ezartzeko eta mantentzeko hizkuntza euskara izan da. Saioak euren eskaeraren arabera izaten dira, gaztelera edo euskaraz. 2020an saioen %100 euskaraz izan da, nahiz eta zenbait ikasgeletan zenbait azalpen erderaz eman behar izan diren, EAera etorri berri ziren ikasleak zeudelako eta euskara guztiz menperatzen ez zutelako.

Berdintasuna

Hezkideren eta Gizalderen berdintasun politika aplikatzen da. Hau da, erabilitako material eta hitzaldi guztietan, genero ikuspegia kontutan hartu da. Gainera, saioetan gazteen partehartzea sustatu ohi denez, guztien partehartzea sustatzen da. Saioetan hitz egiteko orduan, nesken eta mutilen arteko parekotasuna bilatuz.

Aniztasuna

Aniztasuna kontutan hartzen da, taldeen aniztasuna ikustaraziz, bai eta hura kontuan hartzen behar espezifikoren bat aurkitu denean.

Ingurumena

Ingurumenarekiko errespetuz jokatu dugu, erabilitako materiala formatu digitalean eraman da eta ekintzetan erabiltzen den materiala berrerabiliz. Bulegoan, diseinuan eta kudeaketan, paperaren erabilera murrizten saiatzen garen arren, erabili izan dugun papera birziklatu egin da, baita ahal den neurrian paperak berrerabili ere. Ikastetxeetara bidaiak ahal den guztietan transporte publikoan egin dira.

Balorazio atala

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Heziketa zentroak programan parte hartzera animatu daitezzen lortzeko egin beharreko esfortzua handia da. Ikasturte hasieran email bidalketa berezia egin da Gipuzkoako heziketa zentro guztietara, baina programaren difusiorako urte osoan zehar burutu da lana, email bidez, web gunearen bidez, sare sozialen bidez, eta neurri txikiago batean telefono bidez. Programa martxan jarri zenetik, heziketa zentroen artean ahoz ahokoak ere funtzionatu duela ikusi dugu, eta kasu batzuetan programaren berri elkarren artean informazioa emanez ezagutu dute. 2021erako Gipuzkoako bi Berritzeguneko orientazio bileretan parte hartzeko saio dugu adostuta.

Heziketa zentro bakoitzarekin izandako harremana ezberdina izan da. Batzuekin harremana puntuala da; une zehatz baterako egiten dute eskaera, eta saio bakar batekin nahikoa izan dute. Beste batzuekin ordea, programa sistematizatuta daukate eta hein batean zentroko heziketa proiektuan barneratuta dago. Heziketa zentroak “gai guztiak” lantzeko espazio bihurtu direla dirudi, sentsibilizazio zein prebentzioa egin nahi dugun entitate orok bertan sartu nahi izaten dugu eta bertan ekintzak egiteko kompetentzia handia dago, zailtasun bat bihurtuz. Batez ere bigarren hezkuntzaren kasuan, ikas orduetan burutzen baitira ekintzak. Jada, Gipuzkoako eskualde guztietan aurrera eraman da programa.

Emaitzaren ikuspegitik:

Programaren fase ezberdinetan hartzaileek izan duten parte hartze maila anitza izan da, taldearen edota heziketa zentroaren ezaugarrien arabera. Saioetan erabili izan den metodologia ezaugarri horiei egokitu zaie, beti asmatu ez bada ere.

Programaren inpaktua neurtzea zaila bada ere, hainbat ikastetxek oso positiboki baloratu dute eta urtero parte hartzen dute. Programan parte hartu ondoren, irakasle/ikasleen inplikazioa lortu da; ikastetxeetan bertan garatu diren solidaritatearen inguruko hainbat ekimen antolatu dituzte eta

ikastetxetik kanpora ere ekimenak egin dituzte. Programan parte hartu ondoren, handik hilabete batzuetara gazte zein irakasleak, Gizaldera hurbildu izan dira, entitatearen batean parte hartzeko asmotan, edo gutxienez boluntariotzaren inguruko informazio zehatzagoaren bila.

Programaren garapen egokirako ezinbestekoa den Gipuzkoako elkarte sarearen parte hartzea. Honi dagokionean berriz, programa martxan jarri zenetik beraien inplikazioa garrantzitsua izan bada ere, egoera ekonomikoagatik elkarte sareak dituen zailtasunen eragina sumatu izan da. Nabari da entitateetako baliabide eta langilerian jasaten ari diren murrizketak eta beraz beraiekin kontatzeko garaian zailtasun gehiago izan ditugu. Aurtengoan, pandemiaren ondorioak gehitu behar zaizkio: langileak ABEEan izan dituzte elkarte batzuk, beste kasu batzutan pertsona zaurgarriekin lan egiten dutez boluntariotza eta elkarlan guztiak eten dituzte, ... Badira oraindik ikastetxeetara ez sartzeko erabakian tinko jarraitzen dutenak (batez ere adineko pertsonekin, aniztasun funtzionala duten pertsonekin, ... lan egiten dutenak).

Ikasitakoak

Ikasleek euren inguruko errealitatearen eta premien inguruan analisi gutxi egin dute lehendik, nahiz eta errealitatea ezagutzen duten askotan eta egoera latzen berri duten gehienetan. Errealitate horiek, hala ere, ez zaizkie gertukoak egiten, eta oso urruti ikusten dituztenez, analisi falta nabari zaie.

Kasuren batzutan, inplikaziorik gabeko irakaslegoa aurkitu izan dugu. Hau da, programaren inplementazioa gure baitan utzi eta irakasleek ez dute inplikaziorik erakutsi. Horrelako egoeretan, programaren emaitzak eta inpaktua gutxitzen dira.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Irakaslegoaren inplikazioaren beharra azpimarratzea programaren zabalkunde kanpaina egiterako garaian, baita programaren inplementazioa planifikatzeko garaian ere.

Elkarrizketa Miren Gurrutxaga

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Hezkide Eskola, 1977. urtean sorturiko Donostiako Elizbarrutiko zerbitzua da. Bere sorrera, Gipuzkoako parroketan zeuden astialdi taldeetan sumatu zen beharretatik etorri zen, talde haiek egiten zutenari beharrezko indarra eman eta bertako begirale eta zuzendarien formazioa bermatu asmoz. Egun, Hezkide Eskolak, sorreran jorratzen zuen astialdiko formazioa jorratzeaz gain, susperketa soziokultural eta boluntariotza-arloetako formazio-eskaintzak ere baditu, besteak beste.

Hezkide Eskola, gizarte-heziketarako erakundea da.

Esperientzian oinarrituriko heziketa ez formal eta aktiboak diren metodologiaren bidez, pertsona, talde eta ekimen kritiko eta askatzaileak hezi eta indartzea da bere zeregina, besteak beste.

Zuzeneko lana egin eta partaidetza eta elkartegintza sustatzen duten elizbarrutiko eta zibilak diren ekimen eta taldeak laguntzen ditu; formazioa, bitartekaritza, bide-laguntza eta aholkularitza ekintza eta zerbitzuen bidez, bereziki gizarte-heziketako baliabide eta euskarri metodologikoen ekarpena eginez astialdian, boluntariotzan, 3. sektorean eta elkartegintzan, gizarte bazterkerian eta garapen komunitarioan.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Errealitate berri batean murgildu gaitu COVID-ak eta errealitate horretara moldatu behar izan dugu. Ez da erreza izan eta elkarteek orokorrean, asko sufritu dute, desgaste handia egon da. Hasieta batetan entitate askoren ohiko programak geldiarazi ditu, baina ondoren ber-asmatu egin dira eta batzuetan irudimen handiarekin, hainbat zerbitzu aurrez aurreko formatutik formatu digitalera pasa dira.

Beste batzuk ia desagertzeraino geldirik jarraitu dute, batez ere adineko pertsonen osatuak, beldurragatik edo, eta formatu birtualak urrun gelditzen zaizkienak.

Bestalde, sorturiko hainbat egoeren aurrean, auzotarrak antolatu eta bapateko ekimen asko sortu ziren. Ohiko boluntariotza entitate eta administrazio askok baina antolakuntzarako gaitasun azkarragoa agertuz. Itxialdi garaia printzipioz auzokideen artean positiboki eragin duenaren sentsazioa dut. Baina denbora pasatzen doan heinean ekimen horietako asko desagertu egin dira, kasu batzuetan administrazioek antolatzeke denbora izan dutelako eta agian baita horrelako ekimen espontaneoak denboran luze mantentzea ez delako ohikoena.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Arlo guztietan izan du eragina, pertsonalki, langileengan, boluntarioengan, ikasleengan, ekonomikoki,...

Eragina orokorrean negatiboa izan bada ere, zerbait positiboa bilatu nahian, egia da bidean asko ikasi dugula, besteak beste digitalizazioan, eta ohiko zerbitzuak eskaintzeko beste modu batzuk asmatu behar izan ditugu.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Orokorrean egokitzeko gaitasuna izan dugu. Gutxi edo gehiago digitalizazio gaitan aurrera pauso txikiak emanak bagenituen ere, egoerak azkar murgilarazi gintuen. Zerbitzuak batez ere aurrez aurre eskaintzera ohituak ginen eta eskualdeetara iristea beti izan da erronka. Lehen egunetako sorpresa egoerari buelta eman genionean, lan dinamika berehala egokitu genuen.

Itxialdian aurrez aurrekotasuna derrigor eskatzen ez zuten zerbitzuak eskaintzen jarraitu zen, informazio eta aholkularitza zerbitzuak, koordinazio gune eta formakuntzak ere bai. Itxialdia bukatu eta deseskalatzearekin lanera itzuli ginenean, zerbitzuetan aldaketak somatu ziren.

Boluntariotza eta parte hartzea sustatzeko programaren inguruan, on line formatuan eskaini ahal izateko dena prestatu zen, baina ikastetxeek aurrez aurrekoa nahiago izan zuten.



Egun, Hezkide Eskolak, sorreran jorratzen zuen astialdiko formazioa jorratzeaz gain, susperketa soziokultural eta boluntariotza-arloetako formazio-eskaintzak ere baditu, besteak beste. Hezkide Eskola, gizarte-heziketarako erakundea da.

ITURRIZAHAR GURASO ELKARTEA

Patioa denona da

HELBURUAK

Alegiako Herri Eskola patioa eraldatzeko parte-hartze prozesua bultzatzea, haurren iritziak eta nahiak kontuan hartuz eta baita irakasle, guraso eta herritarrenak ere. Jolastokiaren eraldaketaren bidez, egungo jolastokiaren gabeziak gainditu nahi dira, sexu, adin eta ezaugarri ezberdinetako haurren beharrei tokia eginez, eta azken batean, haurren sormena, jolasa eta elkarbizitza osasuntsua sustatuz. Patioaren eraldaketa proiektua eskola komunitatearekin modu parte hartzaile batean garatzean, hezkuntza komunitatea kohesionatu, eta potentzialidade guzti hau proiektu hau garatzera bideratzeak, patioa bere horretan transformatzeaz gain eskola osatzen duen hezkuntza komunitatea kohesionatzea da helburua.

PARTE-HARTZAILEAK

113 emakumezkoak, 84 gizonezkoak, 5 eragileak.

IRAUPENA

2020ko otsailetik 2021eko maiatzera

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Iturrizahar Guraso Elkarte

TOKIA

Alegiako Herri Eskolako eta Aralar Institutuko gelak eta patioa bera



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Alegiako herri eskolako patioa eraldatzeko parte-hartze prozesua bultzatzea, haurren iritziak eta nahiak kontuan hartuz eta baita irakasle, guraso eta herritarrenak ere. Jolastokiaren eraldaketaren bidez, egungo jolastokiaren gabeziak gainditu nahi dira, sexu, adin eta ezaugarri ezberdinetako haurren beharrei tokia eginez, eta azken batean, haurren sormena, jolasa eta elkarbizitza osasuntsua sustatuz. Patioaren eraldaketa proiektua eskola komunitatearekin modu parte hartzaile batean garatzean, hezkuntza komunitatea kohesionatu, eta potentzialidade guzti hau proiektu hau garatzera bideratzeak, patioa bere horretan transformatzeaz gain eskola osatzen duen hezkuntza komunitatea kohesionatzea da helburua.

Zehatzak:

- Jolastokia hezkuntzarako eremua den heinean, balore egokietan hezteko bitarteko eta espazio konfigurazio egokia egitea
- Genero berdintasunean oinarritutako jolastokia sortzea
- Adin guztietako haur eta gazteentzat eskaintza egokia eskeiniko duen patio izatea
- Natura, parte-hartzea, aniztasuna, autonomia, jolasa eta sormena ardatz izango dituen jolas eremua sortzea

Esperientziaren azalpena

Eskolako jolaslekua, Alegiako Herri Eskolak eta Aralar Institutuak partekatzen duten jolaslekua da, hau da Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak partekatzen duten espazio batetaz ari gara. Era berean, behin eskola orduak amaituta, arratsalde zein asteburuetan herriko haurren jolasleku garrantzitsuenetako bihurtzen delarik. Proiektu honen helburua gure eskolako eta era berean, gure herriko jolasleku garrantzitsuena dena eraberritzeko asmoa da.

Patioaren diseinua hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin egin da eta bere eraldaketarekin egungo gabeziak gainditu nahi dira. Patioaren diseinua jolastokiaren erabileran parte hartzen duten komunitate osoarekin landu eta garatu da. Talde sustatzaile bat eratu da ibilbide osoan zehar erabakiak hartu eta jarraipena

egin duena. Talde sustatzailea eragile hauekin osatua dago: Alegiako Herri Eskolako irakasle eta gurasoak, Aralar Institutuko irakasle eta gurasoak, Iturri Zahar Guraso Elkarteak, Aralarpean Guraso Elkarteak eta Alegiako Udala. Parte-hartze prozesuren erdigunean umeak egon dira, beraiek izan dira protagonista nagusiak patioaren eraldaketaren inguruko hausnarketa egin eta proposamenak bultzatzeko, era honetara umeak txikitatik kultura parte-hartzailean hezi daitezten.

Horretaz gain, hezkuntza komunitate osoa ere inplikaturik egon da, bai irakasleak eta eskolako zuzendaritza alde batetik eta baita gurasoak eta guraso elkarteak. Patioaren erabilera herri osora zabaltzen denez, herriko beste eragileen parte-hartzea ere ezinbestekoa izan da, Alegiako Udalararena barne. Azken finean komunitate osoko eragileen arteko elkarlana izan da eta denon artean sarean lan egiteko aukera bikaina, sare hauek sendotuz eta etorkizunerako lan-egiteko era berriak ikasi eta txertatzeko.

Eraitzen azalpena

Diagnostiko fasetik jasotakoa oinarri hartuta, eta ikasleak, irakasleak eta gurasoak, diseinu fasean helarazitako nahiak kontuan hartuz, proposamen teknikoak garatu du aholkularitza enpresak. Diseinu faseko saioak burutu ostean, esan dezakegu, gaur egun patioak sortzen dituen kezka haundienak eta aurreraterako erronka bilakatuko direnak, ondorengo bi gakoetan oinarritzen direla:

- Patioa materialtasun artifiziala eta naturaren urruntasuna.
- Jolas lasai edo semi aktiboak garatzeko elementu eza eta ondorioz ezintasuna. Honek dakarren, zenbait jolasen zentralidade arazoakin.

Jolastokia berdintasunean oinarrituta egon behar duen espazio bat da, non, aniztasuna eta zonifikazioa aberatsak diren, eta ikasle bakoitzaren beharrei egokitzen diren. Espazioen naturalizazioa ezinbestekoa deritzogu, horretarako material bigun eta naturalengatik apostu egin dugu. Alegiako Herri Eskolako jolastokia espazio bakar bat bezala ulertzen dugu, jarraikortasuna izango duena, nahiz eta zonalde batzuk adin batzuetarako egokiagoak izango diren. Espazio desberdinak bereiztea proposatzen dugu, eskolako ikasleak ikasteko, ikertzeko eta jolasteko aukera anitzak izan ditzaten.

Zer lortu da

Hasiera batean emiatza nagusia Alegiako hezkuntza komunitate osoak proposatu eta adostutako patioa berriaren diseinua lortzea izan da.

Baina ekintza honek emaitza gehiago lortu ditu:

- Komunitate osoko eragileen arteko sare-lana bultzatu, sare hauek sendotuz eta etorkizunerako lan-egiteko era berriak ikasi eta txertatzeko
- Eskola komunitatea diseinu eta sorkuntza kolektiboaren inguruan trebatzea eta lan kooperatiboa eta parte hartzearen inguruko esperientzia positiboa eta eraldatzailea sortzea, era honetara umeak ere txikitatik kultura parte-hartzailean haz daitezten.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Gure herria, udalerrri euskalduna izanik (UEMAren arabera euskararen arnaguneetako bat da), gure erakundeak euskaldunak dira. Hau da Guraso Elkarteko eta eskola komunitate euskalduna ditugu. Eraldatu nahi dugun patioa, herriko jolasleku garrantzitsuenetako izanik bai eskola garaian, bai eskola garaitik kanpo euskara entzun eta hitz egiten den gune bat da.

Orain arte aurrera eraman diren ekintza guztiak euskaraz izan dira: sortu den talde eragilea euskara hutsean aritu da eta aurrera eraman diren dinamika parte-hartzaileak ere euskaraz izan dira.

Proiektuaren inguruko informazio eta komunikazio osoa euskaraz egin da nagusiki, soilik euskal hiztunak ez diren gurasoei laburpen bat gazteleraz eskainiz.

Berdintasuna

Ohiko edo jolasleku klasiko bat daukagu, bertako espazio zentrala futbolak hartzen duela eta bestelako jolas edo ekintzetarako aukera bigarren leku batean geldituz eta batzuetan desagerrararaziz. Jolas ohitura hauek, genero aldetik dakartzan desberdintasunak oso nabarmen gelditzen dira, hau da; batez ere futboleko mutilak aritzen dira, erdigunean, protagonismo eta bisibilitate gehiena duen espazioan eta aldiz neskak, espazio periferikoetan geratzen dira inongo ariketa fisikorik egin gabe.

Jakin badakigu, gure eskolako jolaslekua herriko gune hezitzaile garrantzitsuena dela eta gaur egun genero aldetik sortzen duen arrakala azaleratzen du. Espazioaren diseinuak gizarteak ezarritako genero rola lausotu ditzake, genero berdintasuna indartuz.

Jolaslekua gune aberats, atsegina eta erakargarriagoa bihurtu nahiko genuke haurrentzat, bertan guztiak libreki eta berdintasunean mugitu, jolastu, gozatu, ikertu, harremanak eta amesteko aukera izan dezaten.

Aniztasuna

Irakaskuntza zentroetako jolas garaiean erabilitako espazioak jolasteko eremuak izateaz gain harremantzeko ere badira. Harreman hauek espazioaren konfigurazio eta ondorioz erabileraren arabera izaten dira. Hortaz, zentroetako patioek duten konfigurazioa oso garrantzitsua da haurren harreman hauek sustatu eta eraikitzerako orduan, bai genero berdintasuna zein adin ezberdinetako haurren erlazioa eta orokorrean elkarbizitza lantzeari begira.

Bestalde, jolasa hezkuntzarako tresna izanik, ezinbestekoa da hezkidetzak eta elkarbizitza balioetan oinarritutako jolas aniztasun bat eskaini ahal izatea eremu honetan ere, konfigurazio "tradizional"-etatik ihes eginez. Patioan garatzen diren ikasleen arteko harremanak hezkidetzak eta elkarrespetuzko balioetan oinarritutako izan daitezkeen espazioa ere balio horietan oinarrituz diseinatzea ezinbestekoa da.

Jolastokiaren eraldaketaren bidez, egungo jolastokiaren gabeziak gaitzitu nahi dira, sexu, adin eta ezaugarri ezberdinetako haurren beharrei tokia eginez, eta azken batean, haurren sormena, jolasa eta elkarbizitza osasuntsua sustatuz.

Jolastokia berdintasunean oinarrituta egon behar duen espazio bat da, non, aniztasuna eta zonifikazioa aberatsak diren, eta ikasle bakoitzaren beharrei egokitzen diren.

Ingurumena

Patioaren eraldaketan ezinbestekoa izango da ingurumenarekiko errespetua bultzatzea eta ahal den heinean elementu naturalak erabiltzea.

Parte-hartze prozesuan zehar ingurumenarekiko sentsibilizazioa areagotzeko ekimen bat egin nahi izan da, eta horretarako ikasleei hamaiketako eramateko xorroak eman dizkiete. Xorro hauek berrerabilpena bultzatu eta aitzaki bat izan dira ikasleekin plastikoa ez erabiltzearen eta zaborra ez sortzearen eta berrerabileraren inguruan hitz egiteko. Honetaz gain patioan ere kartelak jarri dira kontzientziazio hau areagotzeko. Ekintza xume hauekin ikasleengan pixkanaka ingurumenarekiko kontzientzioa garatu nahi da eta gai hau ardurak kolektiboak dela erakusten joan.

Balorazio atala

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesuak aukera eman du lehen aldiz hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileak elkarlanean aritzeko eta etorkizunera begira lan egiteko erak aldatzeko.

Bestalde, ikasleak ere protagonista izan dira eta ala sentitu dira, beraien hezkuntzan paper aktibo bat dutela ikusiz, eta honek herritar aktibo izateko bidean urrats txiki bat emateko aukera ekar dezake.

Prozesuak garrantzi handia izan du, lan kolaboratiboak, konplexuagoa izanagatik ere aberasgarriagoa suertatu baita.

Emaitzaren ikuspegitik:

Modu irekian parte hartzeko aukera eskaintzea eta denok elkar entzuteko beharra, zirikusi handia izan du aurretik adostutako diseinuan. Horrela, emaitza askotarikoa eta aberatsa izan da, eta denok plano berean kokatzeko aukera eman digu.

Ikasitakoak

Ezberdinen arteko lankidetzak prozesua aberastu du. Gainera, mahai gainean jarri dira askok buruan ez zituzten gaiak: patioaren diseinuak genero-ikuspegitik duen garrantzia, adinaren arabera behar espezifikoak, herriko eragileen koordinazioa...

Parte-hartzeak ahalegin eta baliabide gehiago merezi ditu prozesuan zehar ikasitako guztiagatik: elkarri entzutea, besteak errespetatzea, ekarpen guztiak baloratzea... eta belaunaldi guztiak guztion beharrak kontuan hartuko dituen helburu komun batean inplikatzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Horrelako prozesu batek eskatzen duen denbora eta inplikazioa aurretik ondo baloratzea eta aurreikuspenak egitea, prozesua bera ondo joan dadin eta zama gisa sentitu ez dadin. Aurretik prozesuaren diseinu egoki bat egiteak eta prozesua denok argi izateak asko lagunduko du, prozesuaren garapenean.

Elkarrizketa Olatz Irazustabarrena

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Herri txiki bateko mendi eta naturarekiko ekimenak bultzatzen jarduten dugu. Aspalditik mendiko taldean antolatzen ziren irteerak galtzear zeudenez, hori bultzatzeko asmoarekin hasi ginen.

Bilakaera ona izan da, baina orain irteerak antolatzaile izatetik haratagoko pausoa eman nahi dugu.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Oso era kaltegarrian. Orokorrean jende bilkurak, bilerak, elkarretaratzeak debekatuak izan diren momentutik, bolondres moduan jarduten dugun taldeok ezin izan gara bildu ez eta ezer antolatu. Beraz, ez dakigu etorkizunean jendeak ohitura zaharrak berreskuratuko dituen.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Gure elkartean une honetan ez gara gai ikusten irteerak eta abar antolatzeko eta bestelako ekimenetan pentsatzen ari gara. Batez ere gazteekin, naturara nola gerturatu eta nola sortu naturarekiko harremana.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeke (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Ez dugu ahalmenik izan, erabat gelditu behar izan dugulako jarduera. Orain gure herrian berriro ekintzak martxan jartzekoak direnez, ikusiko dugu gure ekintzek nolako harrera izango duten.

Ikasi duguna da herriko elkarteak oso ahulak eta bigarren mailakoak garela, eta erakundeak beste behin gutaz ahaztu egin direla. Beti bezala hitzetan balio handia ematen digute eta ekintzetan gutxi.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Erakunde publikoetan aurrez aurreko kontsultak ia desagertu zirenean, herritar konkretu batzuk ezin izan dute GFARA gerturatu. Telematikoki ezin dira herritar guztiak komunikatu, beraz uste dut berriro lan presentzialera, zuzenekora, bueltatzeko ahalegina egin behar dela; horrela ez bada, balio handi bat galtzen ari gara. Guk geure kasuan Parte Hartze Zerbitzutik jaso dugun arreta oso ona izan da, beraz oso gustura gaude. Foru Aldundiak parte hartzeari garrantzia gehiago eman beharko liokela uste dugu.



Herri txiki bateko mendi eta naturarekiko ekimenak bultzatzen jarduten dugu. Aspalditik mendiko taldean antolatzen ziren irteerak galtzear zeudenez, hori bultzatzeko asmoarekin hasi ginen.



KAEBNAI

PARTICIP-ACTION!!!

Gazteen hezkuntza ez-formaletik herritarren parte-hartzea sustatzeko formazioa.

HELBURUAK

Gazteen hezkuntza ez-formaletik herritarren parte-hartzea sustatzeko formazioa ematea.

PARTE-HARTZAILEAK

% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak, KAEBNAI, Ortzadar eta beste elkarte batzuk.

IRAUPENA

2020ko urtarrila-abendua

ERAKUNDE PROMOTOREA

KAEBNAI

LEKUA

Birtuala eta aurrez aurrekoa ikastetxeko geletan



kaebnai
kultur arteko ekintza berria
nueva acción intercultural



Esperientziaren deskribapena

Helburuak

Orokorrak:

Gazteen hezkuntza ez-formaletik herritarren parte-hartzea sustatzeko formazioa ematea.

Zehatzak:

- Gazteentzako guneak sustatzea, eztabaidarako eta hausnarketarako, bertan tokiko eta nazioarteko ekimenak antolatzeko helburuarekin eta horrekin efektu biderkatzailea lortzea.

- Gipuzkoako gazteen eta, bereziki, haien hiritartasun europarra aktiboa sustatzea, partaidetza aktiboko prozesuen bidez erabakiak hartzeko orduan ahaldunduz.

- Euskal gazteriaren solidaritatea eta tolerantzia sustatzea, gizarte kohesioa eta interes kolektiboen defentsa indartzeko, nazioartean hedatuko diren tokiko ekintza txikien bidez.

- Euskal gazteek beste herrialde batzuetako gazteekin elkar uler dezaten bultzatzea, teknologia berriak erabiliz, gazteen inplikazio aktiboaren eta herritarren parte-hartzearen bidez, haien eskubide zibil eta politikoak lortzeko.

Esperientziaren deskribapena

Proiektu honetan egin diren jarduera nagusiak honako hauek izan dira: online formazioa ikastaroa, tailerrak hezkuntza formaleko ikastetxe batean eta gazteek gazteentzat egindako tailerrak modu birtualean.

“PARTAIDETZA-Action! ikastaroa gazteen hezkuntza ez-formaletik herritarren parte-hartzea sustatzeko ikastaroa” modu birtualean egin zen 2020ko irailaren 24, 25, 28, 29 eta 30ean. Ikastaroa 16:00etatik 19: 00etara egin zen birtualki, Zoom plataformaren bideo deien bidez.

Ortzadar Ikastetxean 9 tailer egin dira 3 talde/klaserekin, adimen-urritasun txikia duten gazteekin eta adimen mugatua duten pertsonekin.

Online ikastaroan parte hartu duten gazteek antolatutako eta egindako tailerrak. Aurretik, modu birtualean egin dituzte tailerrak beste gazte batzuk.

Emaitzen deskribapena

Helburuak lortu dira eta pozik gaude lortutako emaitzekin. Horrelako formazioa modu birtualean egitea erronka izan da, eta gure aurreikuspenak bete ditugu.

Emaitzak: zer lortu da

Helburuak lortu dira eta pozik gaude lortutako emaitzekin. Erronka izan da horrelako ikastaro bat modu birtualean egiteko, eta gure aurreikuspenak bete ditugu. Parte-hartzaileek oso balorazio ona egin dute ikastaroari buruz, eta aurreikuspenak gainditu dituzte. Ikastaroak, tresna digital berriekin eta ingurune birtualean metodologia ez-formal berriekin ikasteko eta eguneratzeko balio digu. Balio izan digu konturatzeko horrelako formazio edukatiboak metodologia ez-formalarekin egin daitezkeela, modu birtualean ere bai, eta emaitza onak lortzen direla. Gainera, tresna berri horiek lantzen eta aztertzen jarraitzeko motibatzailea izan da, egungo egoerara egokitzeko edota estrategia berria eta ona izan daitekeelako gazteekin lan egin eta konektatu ahal izateko.

Politika transbertsalen tratamendua

Euskara

Euskararen erabilera beti dugu gogoan eta nolabait lantzen dugu. Online ikastaroa gaztelaniaz egin zen gehienbat, parte-hartzaile guztiei egokitu ahal izateko, mundu guztiak elkar ulertu eta praktikoagoa eta eskuragarriagoa izan zedin. Hainbat lagunek ez zuten euskararen inolako noziorik edo oso gutxi. Hala ere, zenbait unetan kolaboratzaileek euskara erabili zuten, baita erabiltzen ditugun elkarlaneko dokumentuetan eta inskripzioetan ere. Ortzadarreko tailerrak euskara hutsean batzuk eta beste batzuk elebidunak izan ziren. Azkenik, gazteekin egindako tailerretan, ikastaroan bezala, arrazoi berberengatik izan dira gaztelaniaz, euskara ahaztu gabe.

Berdintasuna

Genero aniztasuna agerian utzi dugu eta genero ikuspegia ezarri da ikastaro eta tailerretan. Esate baterako, hizkera inklusiboa erabiliz, neskak mutilak bezain beste parte hartzen, aukera berdina izan ditzaten, eta, batez ere, genero berdintasuna modu transbertsalean landu delako tailerretan eta ikastaroan.

Ikastaroan, emakume gehiago gonbidatu ditugu hainbat proiektutan izandako esperientziak kontatu ditzaten, eta, gainera, online ikastaroaren gaietako bat genero berdintasuna izan da; horregatik, zehazki landu da ikastaroko saio batzuetan. Tailerretan genero berdintasunaren gaia ere landu dugu.

Aniztasuna

Aniztasuna eta inklusioa beti ditugu gogoan, bai proiektuko parte-hartzaileekin batera lan egiteko orduan, bai prozesuan zehar haiekin landu beharreko gai gisa, sentsibilizatze helburuarekin.

Talde hartzailea heterogeneoa izan da, hainbat nazionalitate, kultura, adin, genero, profil, ikasketa, gaitasun eta trebetasun kognitibotako partaideekin.

Parte-hartzaile batzuk KAEBNAIko boluntario gazteak dira, beste batzuk erakundetik kanpokoak eta beste batzuk Ortzadar ikastetxeko ikasleak.

Ingurumena

Jasangarritasuna eta ingurumen-erantzukizuna kontuan hartzen dira gure proiektu guztietan, gure eguneroko lanean eta baita gure bizitzetan ere. Beraz, gai transbertsala da, gero eta kontzientzia handiagoarekin lantzen duguna.

Hona hemen ingurumena errespetatzeko edo gai horri buruz kontzientziatzeko egiten ditugun ekintzen adibide batzuk: soilik ahalik eta modu jasangarrienean bidaiatzea, materiala murriztu eta berrerabiltzea, birziklatzea, eta abar.

Lantegietan eta ikastaroan landu beharreko beste gaietako bat izan da. Ingurumenari lotuta dauden proiektuak ikusi ditugu eta ingurumenaren sentsibilizaziorako dinamikak egin ditugu.

Azken finean, gure aztarna ekologikoa eta proiektuarena ahalik eta gehien murrizten saiatzen gara, eta proiektuaren talde osoa inplikatzeko eta kontzientziatzeko saiatzen gara.

Balorazio atala

PARTICIP-ACTION!!! Esku hartzeak ikuspegi psikoafektibo bat erabili zuen, norberaren esperientziaren bidez ikasteko aukera eman du, enpatizatuz. Metodologia hori ikaskuntza ez-formalean kokatzen da erabat, eta ikaskuntza kognitiboa ikaskuntza-bizipenekin konbinatzen ditu, enpatia sortzeko ahaleginean; hau da, elkarrekotasuna lortu nahi du, bestearekiko konpromiso sentimentu bat. Hartzaileen aldetik metodologia aktibo eta parte-hartzaile baten bidez garatu nahi izan zen programa, parte-hartzaileen esperientzia pertsonalei protagonismo berezia emanez. Lehenik eta behin, jarduera guztietan giro egokia eta ezagutza-bizipen konbinazio hori garatzeko beharrezko baldintzak sortuz. Bigarrenik, bizipen enpiriko batetik abiatuta. Hirugarrenik, bizipen horretan ikasitakoa eta bizitakoa deskribatuz. Azken finean, hitzekin hezitzeaz gain, ekintzak helburu duen sentsibilizazio planteamendu bat egin behar da.

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspuntutik:

- Proiektuaren prozesu guztia oso bizia eta aberasgarria izan da.
- Gazte talde bat proiektuaren prozesu osoan inplikatu ahal izan dugu modu eraginkor eta egokian.

Emaitzen ikuspuntutik:

- Emaitzak oso positiboak izan dira.
- Inplikaturako pertsona guztien ebaluazioak oso positiboak izan dira.
- Proiektuari dagokionez, taldearen ebaluazioak oso positiboak izan dira.

Ikasitakoak

Ikastaro honi esker, tresna digital berriekin eta ingurune birtualean metodologia ez-formal berriekin ikasteko eta eguneratzeko balio izan digu. Balio izan digu konturatzeko horrelako ikastaroak metodologia ez-formalarekin egin daitezkeela, birtualean ere bai, eta emaitza onak lortzen direla. Gainera, tresna berri horiek lantzen eta aztertzen jarraitzeko motibatzailea izan da, egungo egoerara egokitzeko edota estrategia berria eta ona izan daitekeelako gazteekin lan egiteko eta konektatzeko. Gainera, hauek dira beste ikaskuntza batzuk:

- Egoerara egokitzea eta alternatibak bilatzea proiektua gauzatu ahal izateko.
- Profil eta gaitasun desberdinak dituzten gazteekin lan egitea; malgutzatzea, egokitzea eta erraztea.
- Gazteen gaitasunez eta ahalduzkoak ohartzeko.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

- Online jarduerak egitea posible da, eta emaitza onak ere lor ditzakegu.
- Jarduerak parte-hartzaileen ezaugarrietara eta gaitasunetara egokitu behar dira.
- Beste gazte batzuk hasieratik inplikatzeko eta proiektuaren prozesu osoan modu aktiboan parte hartzea erraztu dezakegu.

Elkarrizketa Jorge Sáez Martínez

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Hezkuntzan lan egiten dugu. KAEBNAI onura publikotzat jotako erakunde bat da, tokiko eta nazioarteko sarean lan egiten duena, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan, kulturarteko hezkuntzatik herritar aktibo, kritiko eta parte-hartzailea sortzen laguntzeko, pertsona guztien inklusioa eta duintasuna lortzeko behar den gizarte eraldaketarako prozesuan ekarpenak egiteko gai izango dena. 16 urteko ibilbidearen helburua izan da tokiko proiektuak egonkortzea eta nazioarteko proiektu batzuk zabaltzea.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Hasiera batean, nahiko ziurgabetasun, beldur eta aldaketarekiko erresistentzia handiarekin.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Tokiko proiektu hezigarriak aurrez aurrekotik birtualera egokitzea lortu dugu. Oraingoan, mugikortasuna sustatzen duten nazioarteko proiektuak atzeratu ditugu. Bilerak eta tailerrak era birtualean landu ditugu. Orain, pixkanaka, aurrez aurreko dinamikara itzultzen ari gara.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Uste dugu azkar egokitu garena "errealitate berrira". "Berrasmatzearen" erronka aukera gisa baloratzen dugu; hezigarritasunean lan egin dugu birtualtasunetik baliabide berriekin lan egiteko.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Erakunde publikoek egokitzapen motelagoa izan dute, oro har. Foru Aldundiak nahiko ondo ematen ditu datuak, argi eta garbi. Zehazki, Partaidetza Zerbitzua, hornidura eta diru-laguntzei dagokienez, malgua izan da hark babestutako proiektuetan eta gure erakundeak antolatutako ekitaldi edo mugarri birtualetan parte hartzeari dagokionez.



Hezkuntzan lan egiten dugu. KAEBNAI onura publikotzat jotako erakunde bat da, tokiko eta nazioarteko sarean lan egiten duena, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan, kulturarteko hezkuntzatik herritar aktibo, kritiko eta parte-hartzailea sortzen laguntzeko, pertsona guztien inklusioa eta duintasuna lortzeko behar den gizarte eraldaketarako prozesuan ekarpenak egiteko gai izango dena.



KALE DOR KAYIKO DEMAN THAJ LETU!!

HELBURUAK

Haur ijitoen parte-hartzea bultzatzea

PARTE-HARTZAILEAK

215 emakumezko, 205 gizonetzko, 5 herritar erakunde.
Hainbat erakunde: Dunboa LHI, Txingudi Ikastola, Lekaenea LHI, Toki Alai LHI, Hirubide BHI, Bizarain Ikastola, Koldo Mitxelena BHI, Intxaurren Ikastola, Inmakulada Ikastetxea... Besteak beste.

IRAUPENA

2020ko maiatzetik 2021eko otsaila arte.

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

KALE DOR KAYIKO ELKARTEA

LEKUA

Bidasoa Beherea, Oarsoaldea, Donostialdea eta Goierri.



Esperientziaren deskribapena

Helburuak

Orokorrak:

- Haur ijitoen parte-hartzea bultzatzea.

Zehatzak:

- Espazio komunak erabiltzea herritarrek parte hartzeko.
- Ijito gazteen (eta ijito ez direnen) arteko eztabaida bultzatzea
- Gipuzkoako kultura aniztasunaren onarpenera indartzea.

Esperientziaren deskribapena

Deman THAJ LETU!! programaren bidez, prozesu parte-hartzaile bat diseinatu, planifikatu eta garatu da, 10 eta 20 urte bitarteko haur eta gazte ijitoen partaidetzan hezteko. Jarduera batzuk egin ditugu Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat ikastetxetan (Bidasoa Beherean, Oarsoaldean, Donostialdean eta Goierri) 2020an zehar.

Deman THAJ LETU!! ekimenak 400 haur eta gazteren parte-hartzea sustatu du (ijitoak eta ijito ez direnak); horietatik 215 mutilak eta gazteak izan dira, gainontzekoak, berriz, neskek.

Dinamizatzaileak prestatzeko mintegi bat egin zen 2020ko ekainean: 2 emakume izan ziren; bata ijitoa, bestea ez. 2020ko ekainean eta irailean ikastetxeetan zabaldu zen ideia. Irailean lantaldeak ezarri genituen bi irizpide hauen arabera: adina (10-15 eta 16-20 urte artean) eta kokapena (Behe Bidasoan-Donostialdean eta Goierri-Oarsoaldean). Irailetik aurrera, hainbat bilera egin ditugu lantaldeak ezartzeko eta gaiak lantzeko.

Iraila eta urria bitartean 1go (sentsibilizazioa) eta 2. (ametsa) faseak egin ziren.

1go fasea: alde batetik, ordu eta erdiko bi saio egin ditugu, parte-hartzearen garrantziaz sentsibilizatzeko, protagonista izan ahal izateko eta eragiten digun guztian erabakiak hartzeko, identifikatuta sentitzen garenekin eta parte garenekin. COVID-19ak (koronabirusak) sortutako egoera baino lehen,

gogoeta egin dugu eta esperientzia positiboak partekatu ditugu, bizitzarekin, bizikidetzarekin eta ikastetxean egiten diren jarduerekin lotuta.

2. fasea: ametsa eta kontrastea: parte-hartzaile guztien artean pentsatu dugu nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen bizikidetzak ikastetxean. COVID-19aren koronabirusaren ondorioz, bizi izan dugun salbuespeneko egoerak emozionalki markatu ditugure haurrak, eta, programa honen bidez, entzun, baloratu, ezagutu, izendatu eta kontuan hartu nahi izan ditugu haien sentimenduak egoera horretatik indarberrituta ateratzeko.

Abiapuntua amets indibidualak izan ziren, eta gainerako ikaskideekin partekatu zituzten.

3. fasea: zereginak lehenestea. Aurreko fasean deskribatutako ametsa iristeko, egin behar genituen ekintzak lehenetsi ziren oro har eta ondoren gauzatu beharreko jarduerak edo ekitaldia zehaztu zen.

Azaroan 3. fase hau itxi genuen egin beharreko jardueraren erabakiarekin: Gabonetako Postalen Lehiaketa beste behin ere antolatu da. Bertan, haur eta gazte bakoitzak postal baten bidez Gabonak nola ospatu nahiko lituzkeen adierazi zuten, eta mezu positibo bat bidali zuten, koronabirusa gainditzeko.

2020. urtea pandemiak markatu du eta izurriteak sortutako beldur eta ziurgabetasunekin bizi izan gara, muga eta murrizketekin, eta jardueren parte-hartzeak egokitu behar izan dira prozesu osoan zehar. Hala, aurten ezin izan dugu ekitaldi publikorik egin, baina parte-hartzaile guztiek izan dute protagonismoa eta errefortzua, egindako lanagatik eta sorkuntzengatik (banaka, beren senitarteko eta elkarteko ijito erreferenteekin batera).

Prozesu osoan zehar, hainbat fasetako argazkiak egin dira, eta egindako prozesuaren laburpen-bideo bat egin dugu. Proiektuaren ebaluazioa eta azken txostena 2021. urteko lehen hiru hilabeteetan egin dira.

Eraitzen deskribapena

Deman THAJ LETU!! programak 400 haur eta gazte baino gehiagoren parte-hartzea sustatu du (ijitoak eta ijito ez direnak).

Horietatik, %52 kasuak neskek dira, eta Gipuzkoako 4 eremutako 9 ikastetxek (eta, zeharka, ikasle desberdinen irakasleek), 3 gizarte eta hezkuntza baliabidek eta 3 gizarte-erakundek parte hartu dute.

Horri gehitu behar zaizkio gure programa zeharka ezagutu duten irakasleak, beren eskoletan ekintzaren bat ezarri ahal izan dutenak, bai eta parte-hartzaileen familia zuzenak ere (anai-arrebak, gurasoak...). DEMAN THAJ LETU!!! proiektua martxan jarri den hilabeteetan, 400 haur baino gehiagori (ijitoak eta ijitoak ez direnak) beraientzat ezezaguna den partaidetza-kultura hurbiltzea lortu dugu, eta, hori da gure ustez, bermatu beharreko kultura.

Haur horiei galdetu, entzun eta errespetatu egin zaie, pentsatu egin behar izan dute, erantzukizuna eta erabakiak hartu behar izan dituzte, eta hori, beren garapenean funtsezkoa dela uste dugu.

Emaitzak: zer lortu da

DEMAN THAJ LETU proiektua ezarri den hilabeteetan, 400 haur baino gehiagori (ijitoak eta ijito ez direnak) beraientzat ezezaguna den partaidetza kultura bat hurbiltzea lortu dugu, eta gure ustez kultura horretan hezi behar dugu.

Haur horiei galdetu, entzun eta errespetatu egin zaie, pentsatu egin behar izan dute, erantzukizuna hartu behar izan dute, erabakiak hartu behar izan dituzte eta hori beren garapenean funtsezkoa dela uste dugu.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Saio guztietan euskara erabili da normalki.

Berdintasuna

Proiektuaren arduraduna emakumea izan da, bi dinamizatzaileak ere emakumeak izan dira, eta partaideen gehiengoa emakumeak izan dira, %52a.

Aniztasuna

Proiektuan, ijitoak eta ijito ez diren ikasleak parte hartu dute (baita beste kulturetakoak).

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila.

Pozik.

Gure helburu nagusia parte-hartzean sentsibilizatzea eta hezteaz zen, eta gaur egun bizi dugun egoeraz jabetuta, hau da, koronabirusaren pandemiaren denbora eskaxa kontuan hartuta, programaren hartzaileen adin eta izandako mugez jabetuta, oso pozik gaude emaitzekin.

Unean uneko jarduerak egokitu ditugu, eta erantzuna ona lortu dugu, partehartzaileen parte-hartze maila handia izan baita.

Funtsezkoa da lan horretan jarraitzea, emaitzak epe luzera ikusiko baitira.

Berlaratzea, parte-hartzea eta giroa.

Oso pozik.

400 haur baino gehiagorekin "parte-hartzearen" kontzeptua sartu eta landu ahal izatea erronka bat iruditzen zaigu, eta horretan lan egiten eta aurrera egiten jarraitu behar da. Ez gaituzte horretara prestatzen eta ez gaude ohituta parte-hartzera.

Lan egiteko moduak, erabilitako metodologia.

Gure ustez, metodologia eta kronograma kontrastatuta daude eta emaitza onak eman dizkigute.

Dinamizatzaileen prestakuntza.

Ikastetxeekin koordinatzea.

Programaren zabalkundea eta publizitatea.

Taldeak ezartzea.

Barne ebaluazioa.

Memoria egitea.

Norberaren itxaropenen betetze-maila.

Gure itxaropenak oso ondo bete dira. Gure asmoa zen haur ijitoak eta ijito ez direnak prozesu batera hurbiltzea, erantzukizuna har dezaten eta eragiten dien eta partaide sentitzen diren guztiaren protagonista izan daitezen.

Jakin badakigu ijitoek ez dutela inoiz parte hartu gizarte-prozesu komunitarioetan, eta elkarrengandik urruntzeko eta baztertzeko joera izan dugula, hainbat beldur eta desberdintasunengatik.

Beraz, hartzaileen itxaropenak ezagutzen ez baditugu ere (kasu honetan haurrak eta gazteak dira), etorkizuneko garapenerako oso prozesu onuragarria dela uste dugu, eta horren alde egiten jarraitu behar dugu.

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspuntutik:

2020. urteak baldintzatu egin gaitu koronabirusaren pandemiaren ondorioz bizi izan dugun egoerak. Maiatzean eta ekainean konfinatuta geunden, ikasleak on-line ikasten ari ziren, eta gure lanaren ardatza izan da proiektuaren dinamizatzaileak prestatzea eta 2020ko irailetik proiektua ikastetxeetan garatzeko oinarriak ezartzea.

Ikastetxe bakoitzeko segurtasun eta higiene protokoloak, burbuila taldeak... errespetatu behar izan ditugu, eta, ondorioz, saio gehiago egin behar izan ditugu ikastetxeetan.

2020ko irailean beldurrak eta ziurgabetasunak markatu zituzten ikastetxeak... Ez genekien proiektuarekin jarraitu ahal izango genuen, baina ikastetxeen, irakasleen eta ikasleen harrera ona eta parte-hartze maila altua ikusita, proiektuak aurrera egin du, eta emaitza ona lortu dugu.

Emaitzen ikuspuntutik

Oso pozik. Lanean jarraitu behar dugu eta datorren urterako beste 400-500 umerekin lan egin nahi dugu parte-hartze prozesuan.

Elkarrizketa

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Gizarte- erakundea gara, anitza eta irabazi-asmorik gabekoa. 1989. urtean jaio zen Bilbon eta 2006.urtean Gipuzkoan hasi ginen lan egiten, Irunen eta Erreterian. Ijitoak gainerako herritarrek bezela, eskubideetan eta betebeharretan baldintza berdinetan bizitzea da gure helburua, horretarako formakuntza akademikoa, gizarlean parte- hartzea eta balioetan hezte, gure komunitatea bizitzaren eremu guztietan ahalduzko funtsezko oinarriak direla uste dugu.

Gure xedea aukeraz beteta dagoen gizarte bidezkoago bat sortzen laguntzea da, guztiontzat, Ijito Herriarentzat baita ere. Gure ikuspegia Euskal Herrian bizitzen ia 600 urte daraman eta historia, kultura eta identitate propioa duen herri baten onarpena eta errespetua herri gisa lortzea da.

Ijito Herriak biziraupena, egoerak datozen ziren bezala aurre egitea eta etorkizunerako ekintza plan argi bat ez izatea ezaugarri izan ditu, hala ere, gure helburua ijitoak bere zailtasunei aurre egiteko eta gainditzeko inplikazio handia izatea eta beraien eraldaketan protagonistak direla kontzientziaztea da.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Partaidetza-prozesuak mugatuz une batzuetan (batez ere konfinamenduan). Bizi izandako egoeraren arabera, izandako baldintzen arabera, partaidetza-prozesu horiek, jarduera horiek, etabar egokitu eta errealtate berrira egokitu dira, formula berriak bilatuz prozesu bakoitza aurrera ateratzeko.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Jarduerak eta proiektuak bizi genuen egoerara egokitu behar izan ditugu, kontuan hartuta izandako murrizketa eta muga guztiak, ezarritako euste-protokoloak...

Elkartean inoiz ez diogu lan egiteari utzi, ijitoei (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak) arreta ematen jarraitu dugu, DSBEari, etxebizitzari, gizarte-zerbitzuei, hezkuntzari... buruzko informazioa ematen, aholkuak ematen, kudeaketak eta online izapideak egiten.

Haur eta gazteei laguntzen jarraitu dugu eskola-prozesuetan, animatzen, zalantzak argitzen, orientatzen, etabar baliabide teknologikoen bidez (watsapp-ak, deiak, bideo-deiak, emailak...).

Ijitoen gazteriarekin (eta ijito ez direnekin) lanean jarraitu dugu, erreferentzia-ereduak erakutsiz, motibazio-elkarrizketak eginez. Eskura ditugun baliabide teknologiko guztiak

erabili ditugu, une batzuetan gure lana egin ahal izateko funtsezko bitarteko bihurtu baitira. Jarduera batzuk garatzeko, berriz ere egutegia egin behar izan dugu eta egoerak ahalbidetu duenean, gauzatu ahal izan ditugu. Ikastetxeetan egiten dugun lanari dagokionez, haien euste eta segurtasun protokoloetara egokitu behar izan dugu (burbuila-taldeak, adibidez) jarduerak garatzeari begira, eta denbora eta dedikazio gehiago inbertitu behar izan dugu (lehen, saio batean, klase desberdinekin egon zintezkeen eta COVID saioan klasez klase joan behar izan dugu, burbuila-taldeak errespetatuz, eta horrek ahalegin handia ekarri du).

Hainbat gairi buruzko artikuluak, iruzkinak eta irudiak argitaratzen jarraitu dugu: adibidez, apirilaren 8an, Ijito Herriaren Nazioarteko Egunean, ijito erreferenteak erakutsi ditugu komunikabideetan, gabonetako Postal Lehiaketa, komunikabide lokalak, irratiak eta abar erabiliz.



Gure xedea aukeraz beteta dagoen gizarte bidezkoago bat sortzen laguntzea da, guztiontzat, Ijito Herriarentzat baita ere. Gure ikuspegia Euskal Herrian bizitzen ia 600 urte daraman eta historia, kultura eta identitate propioa duen herri baten onarpena eta errespetua herri gisa lortzea da.

LANDETXA AUZO ELKARTEA

Auzo-lanean

HELBURUAK

- 1) Bakoitzaren erabakia eta beharretatik abiatuz auzoaren diseinuan osatzeak duen garrantziaz jabetzea.
- 2) Abiatutako prozesuak osatzen jarraitzea (egitasmo batzuk urte betean amaigabeak baitira).
- 3) Auzoko jende ezberdinak elkartzeko espazioak berreskuratzea:
 - a. Irurtzunzar inguru berdea: auzotar guztiontzat gune berdea ahalbidetzea
 - b. Familien txokoa: egoitzaren inguruko txokoak egokitzea
 - c. Maraguri-Baratza kooperatibo-ekologikoa: espazioaren egokitasuna-lorategia

PARTE-HARTZAILEAK

351 emakumezkoak, 336 gizonezkoak, 17 herritar erakundeak, 20 bestelakoak

IRAUPENA

2020-04-01/2021-05-16

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Landetxa auzo elkarte

TOKIA

Irun (Landetza Auzoan)



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

- 1) Bakoitzaren erabakia eta beharretatik abiatuz auzoaren diseinuan osatzeak duen garrantziaz jabetzea.
- 2) Abiatutako prozesuak osatzen jarraitzea (egitasmo batzuk urte betean amaigabeak baitira).
- 3) Auzoko jende ezberdinak elkartzeko espazioak berreskuratzea:
 - a. Irurtzunzar inguru berdea: auzotar guztiontzat gunee berdea ahalbidetzea
 - b. Familien txokoa: egoitzaren inguruko txokoak egokitzea
 - c. Maraguri-Baratza kooperatibo-ekologikoa: espazioaren egokitasuna-lorategia

Esperientziaren azalpena

- Familien txokoa. Eskola zaharreko kanpoko egoitza berrantolatzeke lehen pausuak eman dira eta 2020-2021 urte osorako plangintza adostea lortu da.
- Aurreikusitako baratz komunitarioa bizirik mantendu eta egindako lana gizarteratzeko txabola berregin-margotu eta ekimenaren berri ematen dituen kartel informatiboak jarri.
- Pandemiak utzi gaituen egoerari unean uneko erantzun posibleak eman. Ahal zenean oharrak edo ekimenak sustatuz.

Emitzen deskribapena

- Aurreikusitako ekimenetatik asko aldatu da.
- Irurtzunzahar parkea ez da ezer egiterik izan.
 - Familien txokoa pausutxo batzuk eman dira, baina esanguratsua izan da taldearen inplikazioa Auzo Elkarteke beste ekimenetan (sartzen ari da).
 - Maraguri Baratza Komunitarioak aurreikusitako ekimenak garatzeko aukera izan du eta aspaldian nahi bezala panel-kartelak jartzeko aukera izan du; txabolan murala auzolanean egiteko, kide berriak sartu dira eta eskolatik bisitak izaten hasi da.
 - Covid egoera dela eta 11 ekimen ezberdin garatzeko aukera izan da eragile berriak inplikatuz.

Zer lortu da

- Auzo elkarteare errealitate berrietara egokitzeko prest dagoela sinestea.
- Ekimen berri bat abian jartzeko gutxieneke talde motor bat sortu, ilusioz eta helburu argiak izanik, pausu garrantzitsuak eman daitezkeela
- Pandemiare garaitan arduratsu jokatzuz, kultura, komunitatea eta elkar zaintza bermatu daitezkeela nahiz inguruko gainontzeko elkarte eta erakundeek erabaki hori modu batean eta bestean kuestionatu.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

- Talde motor gehienak euskaraz egin dira.
- Familien txoko ekimen guztiak, deialdiak, etabar euskara hutsean egiten hasi gara.
- Haurrentzat bideraturiko ekimenak, euskaraz bakarrik zabaldu dira. Gurasoren batek gazteleeraz itzultzeko eskatu ezker, orduan bidaltzen zen elebitan.
- Inkesta 82k erantzun dute; ia erdiak euskaraz.
- Haur eta nerabeei zuzenduriko baliabideak, euskara hutsean egin dira.
- Iñauterietako dokumentala elebitan egin da.
- Auzoko ipuinak hizkuntza ezberdinetan egiteaz gain, azpigituluetan elebitasuna bermatzen da.

Berdintasuna

- Lantalde/batzorde gehienetan emakume gehiago dago.
- Sustatu diren ekimenetan, genero perspektiba bermatzen saiatu gara.
- Parekidetasuna bermatzen saiatu gara: Adib. iazko ipuineko protagonista mutila zen, aurtengoan neska.
- Irakurleen artean ere emakume gehiago daude gizonak baino.
- Familien txokoko patioke diseinuan gurasoak inplikatzen saiatu gara (gizon batek ere parte hartu du).

Aniztasuna

- Nazioarteko ipuinan adibidez, auzoan dauden jatorri ezberdinetako kideek parte hartzen dute.
- Auzoko bideoetan saiatzen gara jatorri ezberdinetako familiko kideei presentzia ematen.
- Egutegian, bereziki lehenetsia daukate jatorri ezberdinetako pertsonak agertzeari eta bertan ere jasozten dira erlijio eta kultura ezberdinetako data esanguratsuak.

Ingurumena

- Baratz komunitarioa mantendu eta babestearen garrantzietako bat auzo elkartearen egitekoen artean, gunee berdeak sustatzea da.
- Burutzen diren ekintza ezberdinetan, natura ezagutzeko eta errespetatzera animatzen da.
- Auzo elkartearen zaborraren kudeaketa bermatzen da zabor ontzi ezberdinak jarriaz, berrerabiliaz (papera bi aldeetatik, apaingarriak urtero erabiliaz), eta birziklapena sustatuz.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

- 1) Bakoitzaren erabakia eta beharretatik abiatuz auzoaren diseinuan osatzeak duen garrantziaz jabetzea. Pandemiak argi utzi du bakoitzak bere aldetik jartzea ezinbestekoa dela auzo sena mantentzeko, elkar zaintza bermatzeko, irudimena elkarrekin garatzeko, eta erronka berriei modu baikorrean erantzuteko. Beraz, pozik gaude urtean garatu diren 11 egitasmoengatik.
- 2) Abiatutako prozesuak osatzen jarraitzea (egitasmo batzuk ezin dira urte batean amaitu). Hasitakoak mantendu eta errealtaterara egokitzea lortu da.
- 3) Auzoko jende ezberdinak elkartzeko espazioak berreskuratzea:
 - a. Irurtzunzar inguru berdea: auzotar guztiontzat gune berdea ahalbidetzea. Udalak baimena eman arte ezingo da aurreratu.
 - b. Familien txokoa: egoitzaren inguruko txokoak egokitzea. Familien txokoak aurreikusitakoa agian ez da bere osotasunean garatu, baina sare berrietan parte hartu du eta hori oso garrantzitsua izan da. Beraz, pozik emandako mailarekin.
 - c. Maraguri-Baratza kooperatibo-ekologikoa: espazioaren egokitasuna-lorategia. Urte oparoa izan da alde guztietatik.

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Talde txiki ugari jarri dira abian eta sare sozial eta espazio digitaletara ere salto egin behar izan da. Orokorrean, jendea gustura egon da pandemia garaian zehar ere auzo elkartea ez delako gelditu, ekimenak egiteko jendea inplikatuarazi duelako eta inguruan izandako errealtatearekin alderatuz, kultur ekimen eta auzolan ezberdinak garatu direlako.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Talde motorrak abian jartzen dira (3-5 lagun) eta hauen artean diseinatzen da prozesua, zehazten dira helburuak, zehazten da prozedura eta bilatzen dira baliabideak. Hori izan da urteko lan sistema eta emankorra izan dela esan genezake.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Aurten pandemia dela eta, whatsapp, meet eta antzeko sistemak izan dira erabilienak. Bilera batzuk ordea presentzialki egitea erabaki da partaideen profila ikusita. Baina orokorrean esan behar da, zailtasunak zailtasun komunikazio ona izan dela eta koordinaziorako aukerak ahalbideratu direla (aktak jaso, baliabideak partekatu, ardurak banatu, e.a.). Elkarte eta talde ezberdinetako kideak parte hartu dute ekimenetan eta hori, bere horretan oso berri ona da.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:

Orokorrean eta pandemia urtea dela ikusita, asebetetze maila altua dela esan daiteke. Auzoko jaiak eta Irungo jaiak bertan behera ez utzi izanak eta alternatibak proposatu izanak, orokorrean jendeak ongi hartu du. Urtean zehar ekintza ludiko kulturalak egiten jarraitu denez, familiak oso eskerturik agertu dira eta agerian utzi dute beraien poza. Talde motorretan ibilitako jendea ere pozik daude lortutako plangintza eta emaitzekin. Aurten bideo ezberdinak egin dira eta auzoko historia ezberdinak ezagutzeko aukera izan da (iñauteriena, auzoko txistulariena, auzoko hizkuntza ezberdinak entzun dira...).

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Datozen urteetarako jende gehiago inplika daiteke. Auzo-elkartearen inguruan, 100 bat pertsona egongo dira, proposatzen diren ekintzei zuzen eta modu positiboan erantzuteko prest (talde eragileko kide izateko, unean uneko jarduera batean laguntzeko edo parte-hartzaile gisa).

Emaitzaren ikuspegitik:

2020a hasi zen bezala hasteko, emaitzak bikainak dira.

Ikasitakoak

- Aukera ematen bazaie, bizilagunak inplikatzen prest daude (argitu egin behar da zertarako eta zenbateko inplikazio-maila izango luketen).
- Gehienek esaten zuten pandemian zehar egiten zen edozein jarduera “arduragabekeria” zela, baina mugak argitzeko eskatzea eta alternatibak bilatzea estrategia ona izan da.
- Posible dela udalari mugak behin eta berriz kontsultatzea, adostutako protokoloa azaltzea eta ekintza garatzea.

Hurrengo prozesuetan kontuan hartu beharrekoak

- Talde motorren aniztasuna bermatzea.
- Nahiz eta talde batek bere ezintasuna edo desadostasuna erakutsi, beste talde batzuen babesa lortuz gero, ekimenak aurrera atera litezke.
- Helburua lortuz gero, ohiko erabilerak alda daitezke. Egoera berrietan, irudimena lehenestea.

Elkarrizketa Maider Martiarena

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Landetxa Auzo Elkarte (AE) auzo baten errealtateari atxikiturik dagoen elkarte bat da eta Irungo Katea auzoan kokatua dago. 1964 urte inguruan sortu zuten auzotar batzuk nahiz estatuto aldetik beranduago erregistratu zuten. Gure auzoko biztanleen bizitza kalitatea hobetzea izan zen hasierako helburu nagusia. Garai hartan, gerra bat eta diktadura baten ondoren, bizi baldintzak, kultur ekimenak eta eskubide politikoak kaxkar zeuden; horiei aurre egiteko elkarte eta auzolana sustatu behar izan ziren. Horretarako sortu zen elkarte, interes horiek batu eta Udalaren aurrean presioa egiteko. Gure auzoa Irun erditik urruti dago kokatuta eta udal politikak askotan, gutxietsi gaituztenaren sententzia izan dugu. Udal politikak garatzean, ez da zuzenean auzotarren iritzia aintzat hartu eta horren lekuko dira hainbat eskaera lortzeko, burutu diren manifestazio, sinadura bilketa eta bestelako presio ekintzak. irudimena ere erabili izan dugu: inauterietan konpartsa ateratzea iritsi ginen eskola berritzeko eskatuz edo ia-ia Behobia-Donostia lasterketa gelditu arazi genuen semaforo batzuk jartzeko. Urtetik urtera, horretan jarraitzen dugun arren, bestelako ekimen batzuk ere hartu dute garrantzia. Komunitatea sustatzeko jaiak, ekintzak eta azken aldian prozesu parte-hartzaileak burutu ditugu: auzo plana osatuz, hainbat espazioren berrerabilpena zehazteko prozesua; espazio batzuk eraldatzeko; e.a. Azpimarratu nahi dugu ekimen guzti hauek burutzeko auzoan dauden eragile, elkarte eta erakundeen arteko

elkarlana ezinbestekoa dela bai eta maila pertsonalean murgiltzen diren bolondresak ere.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Ez du batere lagundu. Atzera pauso bat izan da eta sare sozialak sustatu eta indartu dituen arren eta elkartzeko beste espazioa eskaini digun arren, ordurarte sustatutako mugimendu eta auzotar sareak, ahuldu edo eta kasu batzuetan, desegin direla esan genezake. AEk dituen gabeziak agerian jarri ditu. Gure bailarako errealtatea ikusita, AE askoren jardura bertan behera geratu da urte betez, auzoko liburutegiak ere bai; Auzo elkarteetako bolondresak egoera berrietara egokitzen ez dugu agian jakin. Erakundeek zabalduetako mezua barneratu da eta ekimen gehienak bertan behera geratu dira. Covidak antsietatea, bakardadea, depresioa, beldurra, urruntasuna, etabar eragin duenean, Auzo Elkarteek (bai eta bestelako elkarte gastronomiko, kultur, kirol eta udal zerbitzuek) ekimen gehienak bertan behera uzteak, errealtate hori gordinago egitea zekarren. Barneratutako hainbat jokabide, lan ohitura, metodologia eta motibazioak, indarra galdu dute eta pandemia garai honetan zaila egiten ari da berreskuratzea; poliiki-poliiki berriz ere hasi beharko dugu indarrak batzen.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Covid-ak iraun duen bitartean erreakzioak eta lanerako aukerak ez dira berdinak izan; ez eta

jendearen inplikazio eta indarrak ere. Itxialdia eta maiatza arte ordutegi murriztarekin: guztiontzat egoera berria izanik, irudimena asko landu dugu eta ekintza ezberdinak garatzeko aukera izan dugu hainbat eragile sortutako talde motorrekin. Gehienak, elkarrekin zuzenean egon gabe eta modu birtualean sustatu ditugu eta horrek adin bateko pertsonak edo sare sozialetan ez dabilzanak kanpoan utzi ditu. Azpimarragarria izan da sare sozialek izandako presentzia. 2020ko ekainetik 2021eko apirila bitartean: malgutasun berriarekin aurrera egiten da ilusioz. Talde motorrek elkartzeko aukera dute. Aukera berriaren aurrean (bereziki urritik-urtarrila bitartean), auzo elkarteak bere eskuetan duen eraikin bat ekintza kulturalerako prestatu dugu eta hainbat ekimen garatu ditugu. Batzuk parte-hartzaile-pasibo ikuspegitik; hau da ipuin kontalariak, mago ikuskizunak, bertso saioak, etabar antolatuta dira. Beste batzuetan, parte-hartzaileagoa izan da eta jendartearen inplikazioa handiagoarekin: stop-motion tailerrak, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, etabar. Baina gutxienez ekimen kultural batzuen inguruan, elkartzeko aukera sustatu nahi izan da. 2021eko apirila-iraila arte, animoz ere bajuxeago zegoen jendea; talde motorrak ere ez dira hain fin ibili. Sare sozialez eta zoom-ek nekatuagoak eta "normaltasunera iristeko behararekin". Ekintzak egiteko zailtasun handiagoa zegoen: nekea, jendea elkartzeko pereza-beldurra, talde txikietan elkartu beharra eta distantzia soziala mantendu beharra... Osasun neurriak aintzat hartuz, ekimen berriak egiteko irudimen falta sumatu da. Denok "egoera normalaren" zain egongo bagina bezala.



Landetxa Auzo Elkarte (AE) auzo baten errealtateari atxikiturik dagoen elkarte bat da. 1964 urte inguruan sortu zuten auzotar batzuk nahiz estatuto aldetik beranduago erregistratu zuten. Gure auzoko biztanleen bizitza kalitatea hobetzea izan zen hasierako helburu nagusia.

LAU HAIZETARA

“Lau Haizetara. Aukerak sortzen”
parte hartze prozesua

HELBURUAK

- Hausnarketa bideratzea, Errenteriaren etorkizuneko erronkei eta bereziki euskal hiztunen komunitatearen garapenari modu eraginkor eta partekatu batean erantzuteko.
- Hiztunen antolakunde eredu berri bat sortzea, eta sare komunitario sendo bat ehuntzea politika publikoen konplizitatearekin batera.
- Elkarte berrasmatezea, proiektu eta ideia berriak landuz.

PARTE-HARTZAILEAK

32 emakumezkoak, 42 gizonezkoak

IRAUPENA


2020.10.29 - 2021.01.21

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Lau Haizetara euskaltzaleen topagunea

TOKIA

Errenteriako udalerrria



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

- Hausnarketa bideratzea, Errenteriaren etorkizuneko erronkei eta bereziki euskal hiztunen komunitatearen garapenari modu eraginkor eta partekatu batean erantzuteko.
- Hiztunen antolakunde eredu berri bat sortzea, eta sare komunitario sendo bat ehuntzea politika publikoen konplizitatearekin batera.
- Elkarte berrasmatea, proiektu eta ideia berriak landuz.

Zehatzak:

- Parte hartzaileei entzunez, topagunearen etorkizuneko jardun ildoak marraztea.
- Parte hartzaileei entzunez, topagunearen egitura eraberritua zehaztea.

Esperientziaren azalpena

Mugarri hauek izan ditu prozesuak, hiru saioetan zehar:

- 1.- Lau Haizetararen eta Oreretako euskalgintzaren ibilbide historikoaren azterketa.
- 2.- Aurrera begirako elkarrizketa gidatua, parte hartze prozesuaren zentzuaz eta beharraz.
- 3.- Lehen saioaren indar ideiak, hiru mailatan sailkatuta: banakoa, hizkuntza komunitatea eta gizartea.
- 4.- Herritarrak eta euskara: aktibazioaren gakoen azterketa.
- 5.- Topagunearen etorkizuneko iparren zehaztapena.
- 6.- Lanerako edo eragiteko arloen definizioa.
- 7.- Eragin arloetan garatu daitezkeen proiektu eta ekintzen zehaztapena.

Emaitzen deskribapena

Prozesuak aukera eman du elkarteko talde dinamizatzailearen intuizioak eta prozesuko partaideen iritzia bat datozela ikusarazteko, betiere hizkuntzaren garapena eta garapen komunitarioa eskutik joan beharri dagokionez.

Zer lortu da

Hona hemen lorpen nagusiak: euskal hiztunen komunitatearen diskurtsoa, praktikak eta egitura berritzeko beharra agerian jartzea, elkarte eraberritze bidean jartzea, elkarte Errenterian ikusgarriago egitea eta lehenari begiratzuz etorkizuneko jardun ildoak zehaztea, bai eta proiektu batzuk garatze bideak jartzea eta beste batzuk irudikatzea eta herriko pertsona eragile batzuk identifikatzea ere.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Prozesuaren atarikoak, prozesua bera eta ondorengoak euskaraz izan dira. Partaidetza prozesuaren helburua bera izan da euskalgintzaren eta herrigintzaren artean aliantza berriak sortzea eta diskurtso eta praktiketan hizkuntza ikuspuntua sartzeko pedagogia soziala egitea.

Berdintasuna

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu da: prozesuaren talde eragilearen osaeran eta jardueran ez ezik partaideen artean ere berdintasuna presente egon da eta saioen aurkezle herriko emakume ezagun bat aukeratu zen. Lehen saioan 26 parte hartzaile izan dira (10 emakumezko eta 16 gizonezko); bigarrean, 26 pertsona (13 emakumezko eta 13 gizonezko); eta hirugarrean 24 pertsona (9 emakumezko eta 15 gizonezko).



Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Maila onargarri batean bete dira elkarteak hasieran jarritako hiru helburuak: batetik, hausnarketa partekatu bat egin da, udalerraren etorkizuneko erronkei eta, partikularki, euskal hiztunen komunitatearen garapenari modu eraginkor eta partekatu batean erantzuteko asmoz; bestetik, oinarriak jarri dira, elkartearen antolaketa eredu berri bat eta udalerrian sare komunitario sendo bat sortzeko, betiere udal politika publikoen konplizitatearekin batera; eta, azkenik, prozesuan bertan irudikatuta gelditu da elkarte berrasmatzeko ideia (hizkuntza arloko interbentzio sozialean herritarren balore katearekin bat egitearen ezinbestekotasuna, jardun arlo berrien definizioa, antolaketa eredu kolaboratiboaren garrantzia, udalerrian sarean jardutearen berrikuntza...).

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Asebeteta gelditu da elkarte. Kontuan hartu behar da prozesua ariketa esperimental zela eta covid-19aren pandemiaren une gogorretan (saioren bat egitean udalerrira eremu gorrian zegoen). Horiek horrela, udalerriko entitateetako 76 eragile aktibok parte hartu dute guztira, eta hiru saioetako asistentzia orekatua izan da (26, 26, 24). Lan giroa ona izan da, hasieraz geroztik handitzen joan baita bertaratuen partaidetza.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Emun aholkularitzaren lana txukuna izan da. Hasieraz geroztik, dinamikak hobetzen eta sendotzen joan dira, eta horrek parte hartzearen mesedetan izan da: aurkezpen eta azalpen saioak, elkarrizketak, talde txikiko saioak, talde ertaineko saioak eta talde handiko saioak. Hobekuntzarako iradokizun moduan, teknologia berrien erabilera areagotzea proposatu da.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Koordinazioa egokia izan da. Prozesuaren jarraipenerako egitura nagusia talde eragilea izan da, non prozesua gidatu

da Emun aholkularitzak lagunduta. Hiru saioetako bakoitzaren aurretik hura prestatzeko juntadizo bat edo bi egin dira, eta saio bakoitzaren ondoren hura baloratu da.

Horrez gain, elkarteko zuzendaritza batzordearen bileretan ere saioen emaitza baloratu da. Gainera, saiotik saiora kontraste lana egin da parte hartzaile batzuekin.

Azkenik, komunikazio ahalegin handia eta egokia egin da. Izan ere, saio bakoitzaren ondoren, prozesuko partaideei, elkarteko bazkidideei eta herritarrei: saio bakoitzaren kronika, bideo spot, akta edota laburpena.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:

Prozesuko talde eragilearen eta, beraz, elkartearen itxaropenak bete dira neurri handi batean. Pandemiak eragindako zalantzen aurrean, elkarteak erabaki zuen parte hartze prozesua aurrera eramatea, betiere osasun eta udal agintariak ezarritako segurtasun neurri zorrotzak betez. Oztupoak oztupo, gauzatu egin da prozesua eta itxarotakoa bete da: udalerriko eragile aktiboekin prozesua egitea, haiei entzunez elkartearen etorkizuneko ikuspuntua irudikatzea, udalerrian hizkuntza eta gizarte arloan sarean (pertsonek, entitateak, Herri Administrazioa) jarduteko adostasuna gorpuztea eta antolaketa eredu berriaren inguruan adostasuna lortzea.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa:

Zeharkako bi politika jarri dira erdigunean prozesu honetan: hizkuntza berdintasuna eta genero berdintasuna. Lehenari dagokionez, prozesu osoa euskaraz gauzatu da; beraz, nahiz eta erdal elebkarrentzat laguntza mekanismoak prestatuta egon, ez da beharrezkoa izan ahopeko interpretazioa erabiltzea. Bigarrenari dagokionez, bete dira talde eragilearen barruan eta partaideen multzoan oreka mantentzea, emakume eta gizonen partaidetzari dagokionez.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

2013an lehen parte hartze prozesu antolatu baten esperientzia izan genuen Lau Haizetaran, euskalgintzari zuzenduta. 2020-2021ean, ordea, herrigintzako entitateetako eragileei zuzenduta egon da prozesua. Horrek konpromiso handiagoa eskatu dio elkarteari (antolaketa, aurrekontua, kudeaketa, komunikazioa, jendaurreko agerkera) eta, aldi berean, oihartzun handiagoa eman dio Erreterian (sare sozialak, prentsa idatzia, kale giroa). Prozesua oso baldintza berezietan eraman da aurrera (covidaren pandemia).

Planifikazioa osorik gauzatu da eta koordinazio egokia landu da. Talde eragilea hazten joan da prozesuan zehar. Parte hartze saioak ondo joan dira, eta saiotik saiora hobetzen joanda.

Emaitzaren ikuspegitik:

Nahiz eta ez garen iritsi hasieran jarritako xehetasun mailara, norabide argi bat ekarri du prozesuko partaideei egindako entzuketak: “euskalgintzatik herrigintzara” esapiduan laburtutako mentalitate aldaketa ahalbidetzea, sarean lan egitea eta antolaketa eredu berriak irudikatzea.

Ikasitakoak

- Udalerriri begira parte hartze prozesu baten antolaketaren esijentziak.
- Jendeari entzutea zer garrantzitsua den, hari begira esku hartze soziala egin nahi denean.
- Barne kohesioak berebiziko garrantzia du parte hartze prozesu ireki baten antolaketan.

Hurrego prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Komeni da hasieratik osatzea prozesua bultzatuko duen talde eragile bat. Era berean, eraginkorra da antolatzaileek edo talde eragileak ere prozesua beraren eta emaitzen ikuspuntu bat lantzea, hori guztia aholkularitzaren esku gelditu ez dadin.

Elkarrizketa Mikel Azkarate Perez

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Lau Haizetara euskaltzaleen topagunea 1992an sortu zenean, bere helburua zen euskara eta euskal kultura sustatzea. 2020ko parte hartze prozesuaz geroztik, gure elkarteak ikuspuntua aldatu du: hizkuntza berdintasuna eta, bereziki, euskara sustatuz pertsonen eta komunitatearen garapena bultzatzea da bere xedea. Horiek horrela, euskararen sustapenaren aldeko lana osatu nahi da, komunitatearen garapena ere landuta. Gure pentsamenduaren bilakaerari esker, praktika berrietarako bidea urratzen hasiak gara esparru berrietan: adibidez hizkuntza eta kultur aniztasunari (harrera zerbitzua), osasunari (odola emateko saioak) zaintzari (familia etorri berrien seme-alaben eskola sostengurako sarea) eta elikadurari (kontsumo taldea) lotuta.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Oso eragin handia izan du. Osasun neurri publikoekin batera, zuhurtziaz eta beldurrez ere jokatu dute herritarrek. Jarduera sozialerako murriztapenen ondorioz, herritar askoren bizitza soziala mugatuta gelditu da, eta horrek parte hartze soziala jaitzi da, nahiz eta eremu telematikoan parte hartze bide berri batzuk urratu diren.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Era berean, horrek jendea geldiarazi du, adibidez, gure topaguneak antolatutako parte hartze prozesuan aritzeko orduan. Halere, elkarteak erabaki zuen barne eta kanpo bizitza osorik ez gelditzea, betiere osasun neurri zorrotzak hartuta eta askotan kanal telematikoak erabilia. Hori horrela, arrisku handiena zuten ekimen gutxi batzuk gelditu ditugun arren (Kantu Jira), gainerako jarduerak mantendu ditugu; eta parte hartze prozesua egiteko apustua egin genuen, pandemiak sortutako egoera sozialari aurre egiteko erabaki kontziente gisa. Gainera, pandemiak gizartean eragiteko beharra eragin du gure kasuan.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Adierazi dugun bezala, pozik gaude elkarteak hartutako erabakiarekin (pandemia egoerara moldatu eta herrigintzari lotutako ekimenak areagotu). Pertsonak eta taldeak elkarrekintzan aritzen direnean, komunitatea indartsuagoa dela erakutsi digu egoera honek. Gainera, sarean lan egitea ezinbestekoa (eta eraginkorragoa) dela ikasi dugu.

Eta nola egokitu dira, zuen ustez, erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Gure esperientziaren arabera, Errenteriako Udalaren jarduera batzuk gelditu arren, oro har modu egokian eta txalogarrian eutsi dio erakundearen martxari. Aldundiari dagokionez, elkarteekiko jarduera mantendu du Parte Hartze Zerbitzuak, batez ere harremanei eta hainbat ekitaldiren antolaketari dagokienez (elkarteen topagunea...). Bereziki, parte hartzearen aldeko diru laguntzen programa mantentzeak pandemia egoeran Gipuzkoan parte hartze ekimen interesgarriak egiteko aukera eman du.



... hizkuntza berdintasuna eta, bereziki, euskara sustatuz pertsonen eta komunitatearen garapena bultzatzea da bere xedea. Horiek horrela, euskararen sustapenaren aldeko lana osatu nahi da, komunitatearen garapena ere landuta.

LLENO DE NARANJAS

Arimarako begi niniak plataforma parte-hartzailea

HELBURUAK

1- Gizartea hobetzeko, gizarteratzeko eta eraldatzeko plataforma parte-hartzaile baten sorrera sortzea, hasieratik amaierara bitarteko prozesu parte-hartzaile baten bidez. Ondo finkatutako plataforma da, herritarrak eta gizarte eragileak kontuan hartuko dituen esku hartze koordinatua ezartzeko.

2- Herritarrak aktiboki inplikatzeko gizartea hobetzeko eta eraldatzeko proiektu sortzaileetan.

3- Parte-hartzaileak ahalduzko norberaren eta besteen bizi-kalitatea hobetzeko helburu duten topaketa eta proiektuetan parte hartzea.

4- Esperientzia pilotu bat garatzea, gero partekatuzko, eta beste herritar erakunde batzuek herritarrekin partaidetza prozesuak bultzatzeko duten gaitasuna indartzea.

5- Herritarren parte-hartzea sustatzea, sormena sustatzea eta hainbat kolektiboren inklusioa bultzatzea, kultura aniztasuna goranzko balio gisa kontuan hartuta.

PARTE-HARTZAILEAK

880 emakumezko, 620 gizonezko, 40 helduen elkarteak, 28 ikasle talde

IRAUPENA

18 hilabete

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Lleno de Naranjas Elkarte

LEKUA

Online



Esperientziaren deskribapena

Helburuak

Orokorrak:

- 1- Gizartea hobetzeko, gizarteratzeko eta eraldatzeko plataforma parte-hartzaile baten sorrera sortzea, hasieratik amaierara bitarteko prozesu parte-hartzaile baten bidez. Ondo finkatutako plataforma da, herritarrak eta gizarte eragileak kontuan hartuko dituen esku hartze koordinatua ezartzeko.
- 2- Herritarrak aktiboki inplikatzeko gizartea hobetzeko eta eraldatzeko proiektu sortzaileetan.
- 3- Parte-hartzaileak ahalduntzea norberaren eta besteen bizi-kalitatea hobetzeko helburu duten topaketa eta proiektuetan parte hartzera.
- 4- Esperientzia pilotu bat garatzea, gero partekatzeko, eta beste herritar erakunde batzuek herritarrekin partaidetza prozesuak bultzatzeko duten gaitasuna indartzea.
- 5- Herritarren parte-hartzea sustatzea, sormena sustatzea eta hainbat kolektiboren inklusioa bultzatzea, kultura aniztasuna goranzko balio gisa kontuan hartuta.

Zehatzak:

- 1- Proiektu berritzaile baten elkarrizketarako, erakusketarako, sorkuntzarako, ekintzarako eta eraikuntza kolektiborako espazioak irekitzea.
- 2- Taldearen protagonismoa langileengan uztea. Norberaren eta taldearen ahalduntzea bultzatzea ideia edo proiektu sortzaileen bidez, horiek plataforma komun batean proiektatuz.
- 3- Ideien trukaketa, gizarte-kohesioa eta ezagutzaren eta sormenaren trukea babestea, sortzen diren jarduerak aprobetxatuz balioetan sentsibilizatzeko, gizarte errealitatea hobetzeko edo dauden beharrei erantzuteko.
- 4- Kultura eta ideia sortzaileak lantzea, ez bakarrik alderdi artistikoa kontuan hartuta, baita beste alderdi batzuk ere, hala nola gogoetatsua, iraultzailea, terapeutikoa, hobekuntzako, kontzientziarazketa eta eraldaketa sozialekoa. Hau da, kultura eta ideia sortzaileak erabiltzea gizartea eraldatzeko eta balioak eta eskubideak transmititzeko tresna gisa.

- 5- Elkarrekin, boluntarioak, eragileak eta publikoa dinamizatzea, sarean lan eginez eta sormenez, bakerako, bizikidetzarako, hobekuntzarako eta gizarteratzeko balio positiboak sustatuz.
- 6- Proiektu osoan helburu transbertsalak lantzea: berdintasuna, hizkuntza ofizialak, aniztasuna, eskubideak eta gizarte balioak.
- 7- Kontzientzia soziala modu berritzailean sustatzea eta sormen trukea eta elkarte sarea sustatzea.
- 8- Gizartean inpaktua izango duten proiektu garrantzitsuak sortzea, parte-hartzea fidelizatzeko eta talde eta komunitate parte-hartzaile berriak sortzeko.
- 9- Ideien trukaketa, gizarte koehesioa eta elkarte-ereduen birsorkuntza babestea, gazteak, seniorrak eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden hainbat kolektibo barne.
- 10- Genero ikuspegirako eta hizkuntza ofizialen erabilerrako neurriak ezartzea, emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuz estereotiporik gabeko jarreretatik, emakumeen ahalduntzea bultzatuz.

Esperientziaren deskribapena

Esperientzia oso aberasgarria izan da. Taldearen parte-hartzea %100ekoa izan da. Koordinatzailearen inplikazioa totala izan da bai lanean, ekonomikoki eta emozionalki. Topaketak astean behin antolatu dira, eta bertan 40 eta 120 pertsona inguruk parte hartu dute zoom plataformaren bidez. Lehiaketan parte hartu duten proiektuen parte hartzea handia izan da. Proiektuaren alderdi guztietan inplikatu dira parte-hartzaileak, edukietatik, hizlarietatik, kartelgintzatik eta abarretatik abiatuta. Dena kontsulta eta parte-hartze prozesuen bidez egin da.

Emaitzak. Zer lortu da?

- Eskabidean azaldutako helburu orokorrak, espezifikokoak eta zeharkakoak betetzea.
- Prozesu osoan herritarren parte-hartze handia mantentzea.
- Plataforma sortzaile, berritzaile eta gizarte hobekuntzako baliodun baten egitura amaitzea, komunitatearen parte-hartzea eta ahalduntzea bultzatu eta sustatzeko.
- Plataforma honen amaierako produktuak amaitzea: herritarren manifestua, partaidetza lehiaketa, proiektu solidarioa eta gizartea hobetzeko eta eraldatzeko foroen jaialdia.
- Aurten egindako guztiari jarraipena ematea hurrengo edizio parte-hartzaileetan.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Asko hobetu beharreko gaia da, eta, horregatik, plan bat aktibatu dugu: EUSKARAREN ERABILERRAREN ARLOAN SINATUTAKO IRIZPIDEAK 2020-2024. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, bereziki euskarazko arretari dagozkionak. 2020-2024 estrategiak hastea, elkartearen barruan ahozko eta idatzizko komunikazioaren erabilera areagotzeko. 2020 eta 2024 bitartean eskaintako zerbitzuen publikitatea elebiduna ahozko zein idatzizko komunikazioan. Horrela, komunikazio elebiduna bermatzen da kanpo proiektuaren. Ekitaldietan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea. PLANTEATUTAKO BEHARRAK 2020-24. Euskararen erabilera sustatzeko komunikazio-plan orokor baten beharra, eta ezagutzatik hizkuntzaren erabilerrara igarotzea erraztuko duten mekanismoak ezartzea. Erakundeen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako harreman sare iraunkorrak ezartzeko beharra. Euskararen erabilera sustatzeko metodologiak eta baliabideak, bereziki jarraipena egiteko.

Berdintasuna

1. Parte-hartzea, aukeren berdintasuna eta tratu berdintasuna bermatu ditugu. Era berean, bi sexuetako boluntarioak sustatu ditugu.
2. Aukeren berdintasuna kontuan hartzen duen antolaketa kudeatu dugu, aukera berdintasunaren aldeko ekintzen garapenean inplikazioa sustatuz.
3. Komunikazio korporatiboan “hizkera ez-sexista” eta “hizkuntza ez diskriminatzailea” erabili ditugu.
4. Berdintasuna, tolerantzia, enpatia, errespetua eta bizikidetzat lantzen dituzten edukiak landu ditugu.
5. Bizitza pertsonalaren eta lanaren kontziliazioa hobetzeko neurriak ezarri ditugu (proiektuak lantzen da).
Foro parte-hartzaileen jaialdian, berdintasuna hobetzeko proposamenak egiteko egun bat dago, eta gai hori bertan lantzen da.

Aniztasuna

Proiektuaren helburuetan aniztasunaren gaia goranzko balio gisa planteatu dugu, eta, era berean, kultura aniztasunaren inklusioa sustatu dugu, baita dibertsitate funtzionala duten pertsonak ere.

Ingurumena

Aurten, COVIDa dela eta, ekitaldi asko streaming bidez egin dira. Baina aurrez aurreko ekitaldiak aurreikusten dira, 2021erako neurri ekologikoekin.
Foro parte-hartzaileen jaialdian ingurumena hobetzeko proposamenak egiteko egun bat dago, eta gai hori lantzen dute.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila.

Emaitzak aktibatze gure proposamen eta protokoloen arabera:

Hasierako proposamenaren helburu orokorrak, espezifikoa eta zeharkakoak % 100 bete dira; izan ere, helburu horien arabera, 64 parte-hartze topaketetan, amaierako foroan jaialdian eta amaierako produktuetan lan egin da.

Berlaratzea, parte-hartzea eta giroa.

Parte-hartzea ebaluatze gure proposamen eta protokoloen arabera:

COVID egonda ere, espero baino asistentzia handiagoa izan da; izan ere, jarduera guztiak online izan dira, eta ekitaldietan eta azken produktuetan parte hartzea erraztu da, telefono bidezko azalpenen bidez.

Giroa oso ona eta errespetuzkoa izan da, eta parte-hartzea leial mantendu da.

Norberaren itzaropenen betetze-maila.

Betetze-maila oso ona izan da.

Koordinatzailea guztiz inplikatu da, baita koordinatzaile ekonomikoa ere, COVIDa dela eta diru-laguntza bat galdu duelako, eta bere poltsikotik jarri du dirua, boluntarioen eta parte-hartzaileen hasierako aurrekontuari ez kentzeko, eta oso malguak izan dira gertatzen ziren aldaketa guztiekin.

Ondorio orokorrak

Prozesuaren ikuspuntutik:

Prozesua oso luzea izan da, iritzi guztiak eta parte-hartzaile guztiak gogoan izan nahi genituelako. Horrek kalitatezko azken proiektu bat sortu du, baina oso garestia izan da eta estres handikoa, batez ere justifikazio ekonomikoaren puntura iritsi garenean, saila honetan oso gogorra baita.

Puntu horretara iritsi arte prozesua zoragarria izan da, jendeak primeran erantzun du, eta oso gustuko plataforma egin dugu.

Emaitzen ikuspuntutik

Pandemia egon arren, helburu guztiak bete dira eta amaierako produktuak gauzatu dira.

Teknologikoki egokitu gara eta parte-hartzea espero baino handiagoa izan da.

Aurreikusitakoa baino proiektu zabalagoa sortu da, baina egoerak hala eskatzen zuen, eta parte-hartzea handia izan da.

Elkarrizketa Imatxi Rico

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Gure elkarteak hirugarren sektoreko parte-hartze sortzailearen arloan lan egiten du. Ideiak eta pertsonentzat lan egiten duten pertsonak antolatzen ditugu. Plataformak, ekitaldiak eta tailerrak egiten ditugu, besteei laguntzeko ideiak eta balioa emateko. Gizartea hobetzeko eta eraldatzeko espazioak, plataformak eta ekitaldiak sortzeko helburu osasungarriarekin sortu zen. Gure bilakaera oso ona izan da, eta jende askok ezagutzen du gure elkartearen "laranja kolorea".

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Pandemia gogorra izan da esparru guztietan.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Gure kasuan, ekitaldiak online proiektatu ditugu, eta gure elkartearekin zerikusia duen jende askok parte hartzen jarraitu du. Baina kontaktu pertsonalaren falta sumatzen da..

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitze (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Gure egokitze gaitasuna ona izan da, sormena oso presente baitago gure elkartearen... Eta badakigu bizitza eraldaketa hutsa dela.

Eta nola egokitu dira, zuen ustez, erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Erakundeen aldetik sumatu duguna da egokitze eta erantzuteko gaitasun ona izan dutela. Oso lan ona egin dute.

Gure elkarteak hirugarren sektoreko parte-hartze sortzailearen arloan lan egiten du. Ideiak eta pertsonentzat lan egiten duten pertsonak antolatzen ditugu. Plataformak, ekitaldiak eta tailerrak egiten ditugu, besteei laguntzeko ideiak eta balioa emateko. Gizartea hobetzeko eta eraldatzeko espazioak, plataformak eta ekitaldiak sortzeko helburu osasungarriarekin sortu zen. Gure bilakaera oso ona izan da, eta jende askok ezagutzen du gure elkartearen "laranja kolorea".



MUGAN

Herritarren Partaidetza
Eredua Mugan 4.0.
Covid-19ra egokitua

HELBURUAK

Mugan 4.0ren plataforma eta komunikazio-sare osoa egokitzea, elkartearen eta herritarren artean sortutako komunikazio eta harreman berrietara, Covid19aren pandemia dela eta. Topagune birtualak ezartzea zen helburua, herritarren, Irungo merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektorearen artean. Eragileen artean hurbilketa egon da eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea lortu da. Horrela, hobetu eta ahal den neurrian ordezkatu nahi izan da konfinamenduan desagertu eta murriztu zen arreta fisikoa eta pertsonala. Helburu orokor hori osorik lortu da, eta hurbiltasuna erraztu da herritarren eta Muganen jardueraren eta Irungo merkataritzaren eta ostalaritzaren artean. Pandemiari buruzko informazioa jaso dute herritarrek, eta izurritearen ondorioen berri izan dute.

PARTE-HARTZAILEAK

2 emakumezko, 5 gizonezko, elkarte

IRAUPENA

2020/09/01- 2021/05/17

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

Mugan Elkarte

TOKIA

Online



Esperientziaren deskribapena

Helburuak

Orokorrak:

Mugan 4.0ren plataforma eta komunikazio-sare osoa egokitzea, elkartearen eta herritarren artean sortutako komunikazio eta harreman berrietara, Covid19aren pandemia dela eta. Topagune birtualak ezartzea zen helburua, herritarren, Irungo merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektorearen artean. Eragileen artean hurbilketa egon da eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea lortu da. Horrela, hobetu eta ahal den neurrian ordezkatu nahi izan da konfinamenduan desagertu eta murriztu zen arreta fisikoa eta pertsonala.

Helburu orokor hori osorik lortu da, eta hurbiltasuna erraztu da herritarren eta Muganen jardueraren eta Irungo merkataritzaren eta ostalaritzaren artean. Pandemiari buruzko informazioa jaso dute herritarrek, eta izurritearen ondorioen berri izan dute.

Zehatzak:

Helburu zehatz hauek lortu dira:

- Muganen eta herritarrekin lotutako jardueren arteko partaidetza eta komunikazio kanalak, Covid-19aren pandemiak erangindako behar berrietara egokitu dira.
- Informazio eta komunikazio mekanismoak artikulatu dira, jarduera ekonomikoetatik eta horien elkarreetatik Covid-19aren krisiaren ondorioz herritarrek dituzten benetako premietara.
- Herritarrek elkartearen estrategien eta horri lotutako jardueren diseinuan parte hartzea sustatu da.
- Merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzuek egiten duten kohesio lan garrantzitsua zabaldu da herritarren artean, baita unerik zailenetan ere.
- Covid-19aren pandemiarekin lotutako egiazko informazioa helarazi zaie herritarrei eta elkartekideei, eta, beraz, adierazi behar da elkartearen zerbitzu publikoko lan garrantzitsua egiten ari dela.

Esperientziaren deskribapena

Proiektua hiru jarduera edo fase nagusitan garatu da:

- Lehenik eta behin, proiektuaren gidaritzak hartzeko hasierako fase bat izan da: “Mugan 4.0. Herritarren Partaidetza Eredua, Covid-19a egokitua”. Bertan, Muganen jarduerak biltzen dituen ordezkariak parte hartu dute, elkartearen zuzendaritza batzordearen eta Prospektiker-en aholkularitza enpresaren bidez.
- Bigarrenik, praktika egokiak agerian uzten duen benchmarking zabala egin da eta herritarrek, merkataritza eta ostalaritza harremanetan jarri dira modu birtualean. Ikuspegi bikoitzetik egin da azterketa; alde batetik, diseinatutako partaidetza edo eredu formatua, eta bestetik, aztertutako esperientzia edukiak landu dira. Guztira, mota askotako hogeiki esperientzia identifikatu dira, bai Estatuan, bai nazioartean. Aurkezten den dokumentu batean, esperientzia horien xehetasunak jasotzen dira.
- Hirugarrenik, eta benchmarking azterketatik abiatuta egin daitezkeen jarduketetan oinarrituta, MUGAN 4.0 komunikazio eta partaidetza tresnak egokitu dira, aurreko fase horretan behatutako ereduak eta edukiak aplikatuz. Horiek positiboki baloratu dira, Muganen kasuan aplikatzeko.

Esperientzia positiboa izan da oso, bai proiektuarengatik, bai horrek dakarren sormen lanarengatik, bai jaso diren balorazio onengatik. Gogoan izan MUGAN 4.0. eta Muganen komunikazio elementuen multzoa herritarren, Muganen eta Irungo saltoki, ostalaritza eta zerbitzuetako ordezkarien artean proposamenak, hausnarketa, eztabaida eta erabakiak hartzeko etengabeko gune iraunkorra dela, une bakoitzeko errealitatera egokitzeko modukoa, Covid-19aren pandemiak gaur egun eragiten dion moduan.

Emaitzak. Zer lortu da?

Proiektu honen bidez lortu den emaitza nagusia izan da Mugan 4.0. izeneko komunikazio eta partaidetza espazioa Covid-19aren pandemiaren inpaktuak sortutako behar berrietara egokitzea; bereziki, Muganek bere ohiko komunikazioan erabiltzen dituen plataformen edukietan oinarritu da egokitzapena. Hori oso jauzi kualitatibo garrantzitsua da, elkartearen pertsonengandik gertuago egon dadin, pertsona guztientzat eta gizarte osoarentzat bereziki zaila den une honetan. Gune horri esker, etengabeko harremana izan daiteke herritarrekin.

Lortutako beste emaitzetako bat benchmarking-a egitea izan da. Horri esker, hogeiki bat praktika egoki identifikatu ahal izan dira, eta, horren ondorioz, Muganen kasuan ezar litezkeen hamalau ekintza posible daude. Ekintza posible horietatik bost inplementatu dira, hala nola herritarrei Covid-19ari buruzko abisuak ematea, saltokirik gustukoenak, udalerriek merkataritzari eta ostalaritzari ematen dioten babesaren konparazioa, herritarrei eskerrak ematea... Une honetan, Mugan da argi eta garbi Covid-19aren pandemiaren inguruan informazio eta parte-hartze kantitate eta kalitate handiena sortzen duen erakundea, proiektu honi esker. Gainera, etorkizunean martxan jarri ahal izango diren beste ekimen batzuk ere geratzen dira.

Azken batean, lortutako emaitzak proiektuaren hasieran aurreikusitakoak dira, eta balio dute Mugan Elkartearen Covid-19ren aurreko komunikazioan erreferente gisa eratzeko, eta, beraz, elkartekideen zerbitzura ez ezik, ez ezik, herritarren zerbitzurarekiko tresna gisa duen balioa aldarrikatu da.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Proiektuan zehar, arreta berezia jarri diogu komunikazio guztietan euskara erabiltzeari. Proiektu hau garatzean, lan saioetan edo proiekturako ekarpenetan parte-hartzaileek erabili nahi zuten hizkuntza erabiltzeko aukera eman da uneoro. Izan ere, euskarazko iritziak egotea bultzatu da. Proiektuaren entregagaiei dagokienez, benchmarking dokumentua egin da, bai gatzelaniaz, bai euskaraz.

Gainera, aipatu behar da proiektuaren helburua euskara sustatzearekin ere lotuta dagoela. Izan ere, erakunde publikoekin elkarlanean diharduen Mugan elkartearen lan ildoan artean, Irungo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak euskararen eguneroko erabilera sentsibilizatzea dago. Horren harira, proiektua hizkuntzaren inguruan ere egituratzen da eta euskara/Irungo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen binomioa eztabaidaren erdian dago. Herritarrek inplikatu beharreko elementuetako bat da, bai Muganek berak edo beste erakunde batzuek egin ditzaketean lan ildoak diseinatzen eta gauzatzen.

Berdintasuna

Proiektuak genero ikuspegia txertatu du prozesu osoaren barnean. Eztabaidarako eta hausnarketarako uneak eta guneak diseinatzetik, emakumeen parte hartzea sustatuz. Indarrean dauden berdintasunaren araudiak (3/2007 Legea eta 4/2005 Legea) ezarritako gomendioak jaso eta bereganatu ditugu proiektuaren alor eta maila ezberdinetan: pilotajea eta koordinazioan, inpaktuaren neurketan eta jarraipenean, eta modu inklusiboan erabili ditugun hizkuntza, irudi eta edukietan.

Aniztasuna

Proiektua garatu da aniztasun kulturala, jatorrikoa, sexuala, funtzionala eta abar kontuan hartuta, bai proiektua gauzatu zenetik, bai Mugan 4.0 espazioa birdiseinatu zenetik. Ikuspuntu horretatik, espazioa ere, euskararen eta berdintasunaren kasuan bezala, eztabaidarako eremu bat da, diseinatutako espazioan landu beharrekoa, eta herritarrek beren ikuspegia eta gogoetak eman ditzakete. Ildo horretan, eztabaidarako gaiak aztertu dira, hala nola adinekoek edo etxean konfinatuta daudenek saltokiek ematen dituzten zerbitzuetara edo ostalaritzara jo ahal izatea. Mugan etengabe ari da alderdi horiek lantzen eta herritarren beharrei erantzuteko konponbideak bilatzen.

Ingurumena

Jakina, ingurumen-irizpide nagusiak kontuan hartuta gauzatu da proiektua. Zalantzarik gabe, hori ere eztabaidagai nagusietako bat da Mugan 4.0 gunean: poltsen birziklatzearekin lotutako alderdiak, erabilitako arropa edo beste edozein produktu berrerabiltzea... Ildo horretan, aipatzekoa da Mugan 4.0 espazioak herritarren eta jarduera ekonomikoaren arteko harremanaren edozein alderdiri buruzko eztabaida modu ordenatu, berritzaile eta erakargarrian egiteko aukera ematen duela, eta ingurumena zaintzea gogoeta komuneko eremu horietako bat dela. Ildo horretan, aipatzekoa da Muganek, Dendartean Elkartearekin elkarlanean, saltokietan eta etxeetan elikagaiak ez xahutzeko argitaratu dituen gidak.

Balorazio atala

Ondorioak

Prozesuaren ikuspegitik:

Azken batean, oso positiboki baloratu behar da proiektua egiteko prozesua, eta batzordeko buruan egindako elkarlana nabarmendu behar da, horrek ahalbidetu baitu proiektua aurrera egitea eta arrakastaz burutzea. Era berean, nabarmentzekoa dira Muganen eta Prospektikerreko aholkularitza taldearen arteko lankidetzak eta sinergiak, proiektuaren azken emaitza ona lortzea ahalbidetu eta erraztu baititu.

Emaitzaren ikuspegitik:

Lehenik eta behin, esan behar da oso pozik daudela Mugan eta proiektuko gainerako parte-hartzaileak, lortutako azken emaitzazatik; izan ere, aukera eman du Mugan 4.0. izeneko komunikazio eta partaidetza-espazioa Covid-19aren pandemiaren inpaktuak sortutako behar berrietara egokitzeko, bereziki, erabiltzen dituen plataformen edukietan oinarritu da egokitzapena. Ildo horretan, Muganek uste du komunikazio lan handia egin dela merkataritzarekin, ostalaritzarekin eta zerbitzuen establezimenduekin eta Irungo herritarrekin. Azken finean, zerbitzu publikoko lan garrantzitsua egin da une zail hauetan, Covid-19aren pandemiaren kalteen ondorioz. Mugan pozik agertu da proiektuaren emaitzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketarik gabe ez baitzen posible izango.

POLITKI ELKARTEA

Guneak Zabaltzen

HELBURUAK

Ekimen honen helburua ertamerikako emakumeek, #Defensoras, bizitza eta lurraldea defendatzeko egiten duten lana ikusaraztea da.

Topaketa hau esperientziak eta proposamenak aztertzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta trukatzeko da, ondasun komunen, lurraren eta lurraldearen defentsaren barruan elkarguneak identifikatzeko.

Bizitzaren jasangarritasuna eta zaintzan ematen ari diren ekintzak ikustaraztea, horren inguruko elkarriketa-guneak sortuz.

PARTE-HARTZAILEAK

12 emakumezkoak, 5 gizezkoak, 5 eragileak

IRAUPENA


2021eko otsaila, martxoa eta apirila

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

POLITKI ELKARTEA

TOKIA

Donostia.



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Ekimen honen helburua ertamerikako emakumeek, #Defensoras, bizitza eta lurraldea defendatzeko egiten duten lana ikusaraztea da.

Topaketa hau esperientziak eta proposamenak aztertzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta trukatzeko da, ondasun komunak, lurraldearen defentsaren barruan elkarguneak identifikatzeko.

Bizitzaren jasagarritasuna eta zaintzan ematen ari diren ekintzak ikusaraztea, horren inguruko elkarrizketa-guneak sortuz.

Zehatzak:

#Defensoras kanpaina ikusaraztea.

Bizitza eta lurraldearen defentsaren inguruko elkarrizketak bideratzea.

Beste lurraldeetan ematen ari diren ekimenetatik ikastea. Lumaltik eta Politiki elkarlanean aritzea.

Esperientziaren azalpena

Lumaltikek ekoiztutako hamar minutuko bideo bat proiektatu da. Horren ondoren Daila Argueta, Red Nacional de Derechos Humanos Honduras, eta Reyna Tercero, Feministas por Nicaragua, parte hartuko dute sistema arrazista, extraktibista

eta patriarkalak emakumeei eta haien gorputz eta lurraldeei egiten dieten biolentzia sistematikoak salatzen eta ikusarazten. Saioaren bigarren partean mugimendu sozialeko pertsonekin eta herritarrekin elkarrizketa dinamizatu da.

Hitzaldiak gaztelaniaz izan dira eta euskaratik gaztelaniarako aldibereko itzulpen zerbitzua egon da. Edukiera mugatua izan da eta Okendo kultur etxeak daukan COVID neurriei erantzun dio.

Emaitzen deskribapena

Guatemala eta Honduraseko egoeren berri jakin izan genuen, hango Defensoras-en testigantzak entzunda.

Elkarrizketa eman zen eta proposamenak jaso genituen.

Parte-hartzaileen zerrenda jaso genuen.

Guapinol herria babesteko argazkia eta bideo laburra egin genituen.

Ekitaldi hau grabatu egin genuen eta bideoa editatu. Webgunean ikusgarri dago.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

Euskaratik gaztelaniarako itzulpen zerbitzua eskaini genuen, saioaren aurkezpena eta bideoa euskaraz izan zirelarik. Parte hartzaile guztiek bai euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal zuten.

Berdintasuna

Oraingoan parte-hartzaile gehienak emakumezkoak izan ziren. Lan guztiak emakumezkoek aurrera eraman zituzten, bai agerian zeudenak (aurkezpenak eta dinamizazioa) baita ikusten ez zirenak (itzulpenak, grabaketa, logistika).

Aniztasuna

Beti bezela aniztasunari ongiatorria ematen diogu. Beti ere, aniztasun horren ordezkari nola bermatu dezakegun ikasteko prest gaude.

Ingurumena

Ez genuen ia zaborrik sortu, plastikozko ur botilak ezik.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Pozik gaude helburuen betetze-mailarekin.

Egoera honetan eta horrelako formatuan erronka handia da jendeak hitza hartzea eta elkarriketa gune horizontala bermatzea.

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Giroa oso atsegina izan zen.

Asistentziarekin pozik gaude, beti ere handiagoa izatea nahiko genuke.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Bi elkarteentzako elkarlanaren emaitza izan da jarduera hau.

Gure artean rolak eta lanak banatu genituen.

Bi elkarteentzako artean diseinatu genuen saioa.

Metodologiarekin pozik gaude.

Bideo-forum gehiago antolatzen ari gara elkarlanean.

Egiturak, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:

Pozik gaude koordinazioarekin, positiboki baloratzen dugu.

Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:

Positiboki baloratzen dugu emaitzen betetze-maila.

Zeharkako politiken kudeaketaren balorazioa:

Zeharkako politiken kudeaketa oso positiboki baloratzen dugu.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Prozesua oso xamurra izan da, aldez aurretik Politiki eta Lumaltik elkarteak harremanetan geunden eta ekimen bateratua aurrera eraman eta diseinatzea oso erraza izan zen, nahiz eta lurralde ezberdinetan egon.

Beti bezala kartela, deialdia eta zabalpena, izenematea eta eguneko logistika, antolatze eta dinamizazio lanak egin genituen.

Positiboki baloratzen dugu.

Emaitzaren ikuspegitik:

Horrelako jardunaldi bati begira, ondorio nagusia da interesa duen edonork eskuragarri duen bideo bat sortu izana. Era berean, Donostiako eta inguruetako pertsona berriengana iritsi ahal izan da.

Ikasitakoak

Oso interesgarria da ekimenak elkarrekin antolatzea, inpaktua handiagoa delako eta lankidetzaren beti atsegina delako. Entregagarri berri bat sortu dugu, jardunaldiaren bideoa.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Egoera berezi honetan, kasu batzuetan zailagoa da parte-hartzea bermatzea. Horri nola aurre egin hausnartzen jarraitzen dugu. Bestalde, kalitatezko aurrez aurreko elkarriketak bermatzeko zer gune eta jardunaldi gara ditzakegun pentsatzen ari gara. Pertsonen kalteberatasunarekin lotuta egon behar badute, orain arte antolatu ditugun topaketak ezin izan ditugu lasai antolatu.

Elkarrizketa María Alonso del Val

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Politki Elkarteak herritarren parte-hartzearen arloan lan egiten du. Eremu guztietan bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko helburuarekin sortu zen. Horretarako, parte hartzeko espazio irekiak antolatzen ditugu. 5 urte daramatzagu parte hartzeko espazioak antolatzen, hainbat gai eta formatuarekin.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Uste dugu herritarren parte-hartze presentziala zaildu eta birtuala sustatu duela.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Gure kasuan kolpe handia izan zen, antolatu ohi ditugun jarduerak aurrez aurrekoak baitira eta pertsonen arteko mugimendua eta kontaktu hurbila eskatzen baitute. Horrek, gure proiektuak eta jarduerak birplanteatzea eragin digu.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Horretan ari gara. Egokitzen gara eta egokitzen jarraitzen dugu, gure helburuak lortzeko modu berriak bilatuz. Ikasgai nagusia emozioen garrantzia eta kolektiboki espazioa ematea da.

Eta nola egokitu dira zuen ustez, Erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Gure ustez, parte hartzeko zerbitzuak ahalegin handia egin du Foroa martxan mantentzeko, bai aurrez aurre, bai online moduan. Presentzialtasuna lehenesten ari direla uste dugu; hori asko baloratzen dugu.



Politki elkarteak herritarren parte-hartzearen arloan lan egiten du. Eremu guztietan bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko helburuarekin sortu zen. Horretarako, parte hartzeko espazio irekiak antolatzen ditugu. 5 urte daramatzagu parte hartzeko espazioak antolatzen, hainbat gai eta formatuarekin.



TOPAGUNEA

Aisialdiaren etorkizuna irudikatzen Gipuzkoako Euskara Elkarteekin

HELBURUAK

- Egungo eta etorkizuneko aisialdiaren behar eta nahien hausnarketa sustatzea euskara elkarteekin artean.
- Etorkizuneko aisialdi estrategiak adostea.
- Euskaltzaleen Mugimenduaren etorkizuneko aisialdi estrategia bateratua adostea (txostena, markoa)..

PARTE-HARTZAILEAK

16 emakumezkoak, 2 gizonezkoak

IRAUPENA

2020ko irailetik 2021eko martxora

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA FEDERAZIOA

TOKIA

Bergara, Elgoibar eta online



euskaltzaleen
topagunea



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

- Egungo eta etorkizuneko aisialdiaren behar eta nahien hausnarketa sustatzea euskara elkartearen artean.
- Etorkizuneko aisialdi estrategiak adostea.
- Euskaltzaleen Mugimenduaren etorkizuneko aisialdi estrategia bateratua adostea (txostena, markoa).

Zehatzak:

Euskaltzaleen Topagunearen baitan aisialdia lantzen duten bazkideen arteko harremanak sustatu eta artikulaziorako edo lankidetzetarako aukerak aztertu eta bideratzea.

Esperientziaren azalpena

Topagunearen baitan aisialdia lantzen dugun elkarteak biltzen hasiak ziren batzorde bat eratuta, baina lankidetzaz sendo eta egituratuago baterako beharra somatzen genuen. Hala, artikulazio hori benetan beharrezkoa zen eta zein itxura izango lukeen aztertzeke 3 eguneko prozesua antolatuta genuen bazkideekin.

- Lehenengo saioaren helburuak elkar-ezagutza eta egoeraren azterketa izan ziren. Horretarako, elkarte bakoitzak bere AMIA ekarri zuen eta guztion artean Topagunea Federazioaren AMIA osatu genuen, abiapuntua zein zen ikusteko. Prozesuak zer nolakoa izan behar zuen definitzeko Ametsen Zirkulu bat ere egin genuen.
- Bigarren saioan aurrera begira jarri ginen, artikulazio honek izan beharreko xedea, ekintzak eta helburuak zehazteko. Horretarako, Dragon Dreaming metodologia erabili genuen, norbanakoen ideietatik talde moduan plangintza osatzen joateko.
- Hirugarren saioan, xedea definitzen amaitu eta aurreko bi saioetan egindakoa ekintza-plangintza batera ekarri genuen. Horretarako, ekintzak bi multzotan banatu genituen: sarearen artikulazioari begirakoak, batetik; eta sare moduan egin nahi genituenak, bestetik. Azkenik, ekintzak lehenetsi eta ardurak banatu genituen.

Emaitzen deskribapena

Topaguneko aisialdi sektorea artikulatzeko beharra hasieratik azpimarratu zen eta, horren harira, Topagunearen baitan ahots eta ordezkartza propioa izango dituen entitatea sortzeko lehen urratsak ematea adostu da.

Horrez gain, artikulazio horretarako lehen eginbeharrak definitu eta ardura banaketa egin da, prozesua amaitu bezain laster lanean jarraitu ahal izateko.

Bestetik, Topaguneko bestelako elkartearen interesa ere piztuenez, proposamena bestelako elkarteetara zabaltzeko aukera ere ikusi da.

Prozesuan parte hartu duten kideen testigantzak jasotzen dituen bideo bat ere egin da.

Zer lortu da

Covid-ak eragindako krisia dela eta asko sufritu du aisialdiaren sektorea eta, behar erreal horretatik, elkartzeko eta indarrak batzeko premiari erantzun zaio.

Topagunea osatzen duten elkartearen arteko harremanak estutzea, elkartearen atzean dauden pertsonen elkar ezagutzea eta kohesioa lantzea lortu dugu prozesu honekin.

Oso abiapuntu interesgarria izango da Topaguneko elkarteak indartu eta aisialdi eredu euskaltzale, hezitzaile eta berritzaile bat sustatzeko.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskera

- Euskaltzaleen Topaguneko elkarte izanda, euskararen sustapena eta babesa erdigunean dauden helburuak direla esan genezake.
- Aisialdiaren esparruan ere, aisialdi euskaltzaleari buruz aritu gara.

- Era berean, prozesuaren komunikazioa eta prozesuaren hasieratik bukaerainoko fase guztiak euskara hutsean egin dira.

Berdintasuna

- Aisialdiaren esparrua oso eremu feminizatua dela esan genezake. Hortaz, normalean gizon eta emakumeen parte hartzea bermatzeko egiten ditugun ahaleginak ez dira beharrezkoak izan. Kontrara, mutilen parte-hartzea egon zedin egin behar izan dugu ahalegin berezia.
- Hizkuntza ez sexista izan dadin zaindu da prozesuan zehar.
- Datuak sexuaren arabera berezita bildu dira.

Aniztasuna

- Gonbidapenak bidaltzeko orduan kontuan izan dira parte-hartzaileen generoa, adina, elkarte, rola eta lurraldetasuna.
- Elkartearen tamaina, aisialdi sektorearen garapen maila eta ordezkarien esperientzia maila ere kontuan izan dira.
- Talde anitza lortu dugula esan genezake, genero ikuspegitik mutil bakarra egon den arren. Lurraldetasunean Nafarroako elkarteak faltan bota ditugu, baina ibilbide ezberdinak dituzten elkarteak eta pertsonak biltzea lortu dugu, oso gune soziolinguistiko ezberdinetakoak, gainera. Elkarrizketak askoz ere aberatsagoak izan dira arrazoi honegatik.
- Topaguneak ere parte hartzeak bestelako ikuspegi bat eman dio prozesuari, lurralde ezberdinetan zerbitzuak emateaz gain, saioetan parte hartu ez duten elkartearen informazioa ere ekarri duelako.

Ingurumena

- Bergarako ludoteka (Covid 19aren eraginez bi saio Bergaran egin behar izan ditugu osasun neurrien ondorioz Elgoibarko egiturak erabiltzea ezinezkoa egin zaigulako).
- Elgoibarko Aita Agirre kulturunea.
- Zoom. Prozesua prestatzeko eta aurrelanketak parte-hartzaileekin partekatzeke zoom plataforma erabili dugu.

Balorazio atala

Helburuen betetze-maila:

Hasieran finkatutako helburuak bere osotasunean bete dira, Topagunean aisialdia lantzen duten elkarten arteko sarea sendotzeko norabidea zehaztuta. Hare gehiago, estrategia bateratu bat izateko elkarlanerako oinarriak jarri, bide horretan egin beharreko lehen urratsak zehaztu eta funtzioak banatzea ere lortu da hiru saioetan zehar.

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Orohar, oso asistentzia maila altuak izan ditugu saioetan, gonbidatutako pertsonen gehiengoak saio guztietan hartu baitu parte. Topaguneko bestelako elkarte batzuek ere prozesuaren amaieran sortzen den egituraren parte hartzeko edota informazioa jasotzeko nahia ere helarazi digute.

Saioetako giroa ere oso gertukoa eta eraginkorra izan da. Lehenengo saioan, batez ere, ahalegin berezia egin genuen giroa goxoa sortu eta parte-hartzaileek elkar ezagutu zezaten. Abiapuntu horretatik, konfiantza giroan aritu gara, sortzeko eta ideiak partekatze espazio eroso batean. Batzuek elkar ezagutzen bazuten ere, baziren pertsona berriak ere eta horrek aberastasuna, berritasuna eta freskotasuna ekarri ditu taldera.

Lan egiteko modua, erabili den metodologia:

Hiru saioetan egin diren dinamika metodo parte-hartzaileetan oinarrituak izan dira, elkarteetako kideen ekarpenak jaso, elkartu, osatu eta guztion artean emaitza bateratu batera heltzeko. Hain zuzen ere, Dragon Dreaming metodologian oinarritu dira dinamika gehienak, betiere taldearen beharretara eta abiapuntura moldatuta.

Saioen artean, elkarte guztietara aktak bidali eta hurrengo saiorako ekarpen berriak egiteko aukera eman zen, elkarteetako gainontzeko kideen ahotsak ere presente egon zitezten.

Parte-hartze zabala bermatu nahian, online ere parte hartzeko aukera eskaini zen. Izan ere, COVID-19aren eta joan-etorrien eraginez pertsona batzuek nahiago izan zuten aurrez aurreko

saioetara ez etorri. Hala, saioetan Zoom bidez konektatu ziren 3-4 pertsona izan genituen. Saioak jarraitzeko gai izan arren, dinamikaren arabera euren parte-hartzea mugatuagoa zen, hainbat ariketa papelografo eta post-it bidez egin baitziren. Hala ere, garrantzitsua izan zen euren parte-hartzea ere ahalbideratzea eta horretarako aukera eskertu ziguten.

Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa

Prozesu hau hasi aurretik Topaguneko aisialdia batzordea martxan zegoenez, hori izan da parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko bidea. Horrez gain, Topagunearen egitura orokorrean aisialdiko eta zuzendaritzako kideak ere harreman estuan egon dira, ikuspegi estrategikoa duen prozesua izan delako.

Orohar, email bidez egin dira komunikazio gehienak, baina tartean zoom deiak eta telefono deiak ere egon dira, saioaren prestaketari zegozkien gaiak lantzeko, batez ere.

Espazioen erreserbak herri horietako elkarten bitartez egin dira.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Euskaltzaleen Topagunearentzat oso prozesu aberasgarria izan da, hainbat ikuspegitatik. Alde batetik, Topagunearen baitako elkarten kohesioa eta elkar-ezagutza sustatzeko balio izan du; bestetik, Topagunearen baitako aisialdiaren sektorea ahalduntzeko, indartzeko eta sendotzeko lehen urratsak eman dira; azkenik, Topagunetik lantzen den aisialdi-eredu eta lan egiteko moduez hausnartzeko espazioa izan da.

Saioez haratago, aisialdiaren gaia Topaguneko bestelako erabakiguneetara eramateko ere baliagarria izan da, zuzendaritza taldean, zuzendaritza batzordean eta batzar orokorrean landu den gaia izan baita prozesuarena.

Emaitzaren ikuspegitik:

Lehen aipatu moduan, prozesua oso emankorra izan da. Aisialdiaren sektorea egit uratzeko plangintza eta funtzio banaketa zehaztuta amaitu ditugu 3 saioak, lanean hasteko prest.

Bestalde, udari begira urgentziazko kontuak lantzeko taldetxoak ere sortu da, aurtengo udalekuak ezohiko baldintzetan egin beharko baitituzte elkarte guztiek.

Ikasitakoak

- Online eta offline formatuak nahastearen zailtasunak. Dinamikak bietara moldatzea oso zaila da eta, bata edo bestea, beti lehenetsi behar da bat.
- Urgentziazko gaiei (udalekuen kudeaketa, kasu honetan) tokia eta espazioa eskaintzearen garrantzia, saioen gai zentrala ez izan arren, partaideentzako garrantzitsuak diren heinean, euren buruetan baitaude.
- Elkar-ezagutzarako tarteak utzita, pertsonen arteko harremanak zainduta, konfiantza giroa sortu eta parte-hartzearen kalitatea hobetzen da.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

- Gizonezkoen parte-hartzea bermatzen saiatu.
- Ariketa batzuk tangibleagoak egin, jendea kokatuta eta zentratuta mantentzeko.
- Online eta offline formatuak nahastea konplikatua da. Online daudenek saioa jarraitu dezakete, baina parte hartzeko zailtasunak izango dituzte. Bata edo bestea aukeratzea hobe da.

Elkarrizketa Mikel Ozaita Azpirotz

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Euskaltzaleen Topagunea ehunka euskara elkarte eta euskaltzale taldek osatzen dugun mugimendu zabala da. Mota askotako egitasmoak antolatzen dituen gizarte mugimendu anitza da, Euskal Herrian tokian-tokian jendartearen parte hartzea ardatz duena.

Euskaltzaleen Topagunearen misioa:

- Euskararen erabileran eragiteko herri proiektu ilusionagarria sortzea
- Euskararen aldeko giro soziala aktibatzea eta hedatzea Euskal Herrian
- Euskaltzaleak gizarte mugimendu gisa antolatzea eta jardutea
- Bisioa luzera (ametsa): euskara erabiltzea ohikoa eta eroso izan dadin Euskal Herrian
- Balioak:
 - Aniztasuna
 - Ausardia
 - Autonomia
 - Berdintasuna
 - Elkarlana
 - Gizarte mugimendu izaera
 - Partaidetza

• Tokiko eta EH mailako izaeraren uztarketa
 Ildo estrategikoak 2020-2023 (4 urterako bisio edo ametsa):

Topaguneak 2024rako euskaltzaleen mugimendu indartua eta berritua irudikatzen du; tokian tokian hedatzen diren eta euskararen erabilera eta motibazioan eragingarriak diren eremu ez formaleko proiektu arrakastatsuek proposatzeko gai dena eta mugimendu sozio-politiko modura gizartea aktibatu eta ilusionatzeaz gain, hizkuntza politikatan eragiteko gai dena. Mugimenduaren

iraunkortasuna eta jasangarritasuna bermatzea, aurreko guztia aurrera eramateko funtsezko balio eta ezaugarriak ditu
 Jarduera alorrak:

- 1ERATU: Euskara elkarten sustapena, formazioa, saretzea eta komunikazioa.
- Euskaraldia: Euskaraldiko koordinazio mahaiko partaide eta EKko koordinazio teknikoak
- Kultur arloa. Honako egitasmoak: Kultur Errota, Udagoieneko Ostera, Ikusentzunezko ekosistema (Irudienea, Laburbira, Kameratoia, Demasa eta Benito Ansola beka), Gau Beltza, Irakurri Gozatu eta Oparitu eta Elkarrizketa Musikatuak.
- Aisialdia: Kukulaisi elkartearen sorrera prozesua. Aisialdi egitasmoak: 3 blai, Harrapazank, Ikusi eta ikasi, Biziber...
- Mintzapraktika eta mintza aldaerak; Kuadrillan mintza eta Guraso lagun.
- Aniztasuna: Auzoko harrera linguistikoa, hizkuntza errefortzuak eta gizarte elkarrizketak.
- Hizkuntza politika eta harremanak. Topalabe taldea. Nafarroan aldeotasuna indartzeko ekimena. Partaidetzak: Euskalgintzaren Kontseilua, Tokikom, Kukulaisi aisialdi federazioa, Soziolinguistika Klusterra, Puntueus eta Garabide.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Pandemiak herritarren oinarriko beharrei erasan die lehentasunak berkonfiguratu. Hauskor sentitu gara, segurtasun ezaz eta libre ibiltzeko ezintasunez. Egoera horretan, Topaguneak bere bazkideekiko sareak eta harremanak indartu ditu, euskara elkarten premiak eta ziurgabetasuna komunak zirelako. Inoiz baino Topaguneak jakin izan du

egoerara azkar egokitzen eta lidergoa hartzen. Egitasmoek eta jarduerak, oro har, aurrera egin dute, egokituta badira ere. GFako partaidetza zuzendaritzatik babestutako "Proiektu azoka" partaidetza egitasmoak, esaterako, aurreikusitako baina partaidetza altuagoa izan zuten, onlinerako egokitu zelarik.

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

Osasun larrialdi eta krisialdi ekonomiko honek euskaren biziberritze prozesuari ere eragiten dio: euskara bigarren mailan geratu da eta euskaraz bizi al izateko hautua zaildu da, era beran. COVID-19aren eraginez bizi izaten ari garen pandemia egoerak gure jarduna baldintzatzen jarraitzen du. Geure mugimenduko elkarteon egunerokotasuna oztopatzen jarraitzen du: lantaldeetako bajak gaixotasunagatik, neurri sozial murriztaileek eraginda egitasmo gehienak momentu bakoitzeko egoerara egokitzen egon behar izateak suposatzen duen lan gehigarria eta esfortzua, iaz bertan bera geratu zirenak berreskuratzeko ahalegina, ziurgabetasun handia azken batean. Eta honek guztiak, antolamendua oztopatu eta jarduna zailtzeaz gain, ekonomikoki ere ikaragarri eragiten digu, ezegonkortasun handia eraginez. Pandemiak azaleratu zuten Elkarteok betetzen dugun funtzioa zein den: kultur eskaintza, aisialdi eskaintza, sentsibilizazioekin lotutako ekintzak eta abar bertan bera geratu, atzeratu edo egokitu behar izan direnean. Ageri agerian geratu da elkarteok daukagun funtzioa soziala dela eta funtzio horrek herritar askoren premiei erantzuten diela. Eta gainera ikusi da premia horiei elkarteok erantzuten ez badiegu ez diela beste inork erantzuten.



Euskaltzaleen Topagunea ehunka euskara elkarte eta euskaltzale taldek osatzen dugun mugimendu zabala da. Mota askotako egitasmoak antolatzen dituen gizarte mugimendu anitza da, Euskal Herrian tokian-tokian jendartearen parte hartzea ardatz duena.

ULIA

Ulia mendia:
donostiarrok
marrazten dugun
plana

HELBURUAK

Donostiako udalarekin (baita Pasaiako udalarekin ere) elkarlanean aritzea Ulia Mendiaren Plan Berezia idazteko.
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere lankidetzan aritzea.
Ulia mendiaren ezaugarriak jakinarazteaz gain, erabakiak hartzeko informazioa eta prestakuntza ematea.

PARTE-HARTZAILEAK

3 emakumezkoak, 3 gizonetzkoak

IRAUPENA

2020eko martxotik urria arte.

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

ULIAKO AUZO ELKARTEA

TOKIA

Donostia



Esperientziaren azalpen atala

Helburuak

Orokorrak:

Donostiako udala lagundu, (baita Pasaiako udala ere), bien artean egin behar duten Uliia mendiko plan bereziaren erredakzioan.

Gipuzkoako Foru Aldundiari ere lagundu.

Uliia mendiko ezaugarriak jakinarazteaz gain, informazioa, formazioa eman, ondoren erabakiak hartzeko.

Zehatzak:

- Parte-hartze kolektiboko eskubide politikoetan sakontzea: bai Eusko Jaurilaritzaren Uliako itsaslabarren eremua kudeatzeko planean, bai Donostiako Plan Orokorren Uliako Plan Bereziaren idazketan.

- Donostiako bizitza kolektiboa dinamizatzea, baita auzoetakoa ere. Uliakoa bezalako eremu bat Donostia eta Pasaiako osoari dagokio.
- Eztabaidarako guneak eta foroak proposatzen dira, ideiak eta esperientzia komunikatiboak trukatzeko: tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak kultur etxeetan.
- Gizarte-dinamizazioa eta auzo-harremanak sustatzea. Uliian paseatuz, hitzaldiak eta erakusketak kultur etxeetan.
- Bizilagunei komunitateko kide direla sentiaraztea eta auzoa ezagutaraztea: hiriaren kohesio soziala sustatzea Okendo, Larrotxene eta Casares kultur etxeetan erakusketak eta inkestak eginez. Inkesta guztiak aztertuta, bateratze-lana egin Okendo kultur etxean.

- Erakundeen arteko sare-lana bultzatzea, erakundeekin eta herritarrekin batera.

- Bi dokumentu horietan – Uliako itsaslabarrak kudeatzeko plana eta Uliako Plan Berezia – adierazten den bezala, proiektu honen bidez gizartearen parte-hartzea sustatu nahi dugu Uliako KBEan ez ezik Uliia osoan ere eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan, baita eremu horren kontserbazioan herritarren inplikazioa bilatu ere.

- Azken batean, eremu horren sozializazio-prozesua abian jartzea.

- Gai honi buruzko informazioa eta prestakuntza.

Emaitzen deskribapena

Espero dezagun proiektuaren onuradunak Pasaiako eta Donostiako herritar guztiak izatea. Haiekin kontaktzea pentsatzen genuen, baina pandemiak ez du lagundu; are gehiago, oztopo handia izan da. Hala eta guztiz ere, erakundeak (udalak, Foru Aldundia) erreferentziatzat hartzea espero dugu.

Helburua donostiarren eta pasaitarren bizi-kalitatea hobetzea izan da. Boluntarioak hainbat lekutatik etortzen dira. Hainbat elkarte inplikatu nahi izan ditugu, eta guztion artean elkarlanean aritu gara, baina giroak ez du lagundu.

Oro har, proiektuaren balorazio ona egiten dugu. Uliia ezagutzera ematen ari gara eta jendea kontziente da egiten dugun lanaz. Erregularitasunez, Uliako biodibertsitatearen kontserbazio-egoerari buruzko informazio ulergarria ematen zaie herritarrei, bai eta egoera txarrak eragiten dituzten kausei, horri buruzko politika publikoei eta horien emaitzei buruzkoa ere.

Zer lortu da

Donostiarrek Uliia mendia ezagutzen dute eta horri buruzko iritzi osatua dute. Haien parte-hartzearekin, auzotar batzuek gai publikoetan parte hartzeko ohitura sortzen hasi gara. Ikuspegi guztiak ikusi eta jasotzea espero genuen, baina oraindik gizarteko sektore askoren ahotsak falta dira. Horretan ari gara.

Espero dugu Uliako eremu hau, inguruko biztanleentzat aisialdiko eta naturako erreferente bihurtua, guztion gozamenerako leku bihurtzea. Informazio gehiago, memorian eta eranskinetan.

Zeharkako politiken kudeaketa

Euskara

Euskarari eman diogu lehentasuna ekintza guztietan eta une guztietan.

Berdintasuna

Berdintasunari eman diogu lehentasuna ekintza guztietan eta une guztietan.

Aniztasuna

Aniztasunaren alde egin dugu lan beti.

Ingurumena

Ingurumena kezka izan da beti.

Balorazio atala

Asistentzia, parte hartzea eta giroa:

Ona, pandemiak lagundu ez badu ere. Emaizak, memoria eta eranskinetan.

Ondorio Orokorrak

Prozesuaren ikuspegitik:

Pandemiak ez du lagundu. Giro txarra sortu du eta ez du parte-hartzea sustatu.

Ikasitakoak

Ahulguneak eta indarguneak.

Batetik, pandemiak sortutako egoera.

Hain inkesta luzeek ez dute lagundu eta horrela jendea nekatu dezakegu. Baina informazio baliotsua ere eskuratu dute.

Hurrengo prozesuetan kontuan izan beharrekoak

Urteek aurrera egin ahala, gero eta gizarte-sektore gehiagotara iritsi nahi dugu. Zehazki, mendiarekin zerikusirik ez duten horietara. Hori zen helburuetako bat, baina pandemiak eragotzi egin du guk aurrera eramatea.



Elkarrizketa Joxe Artze

Zein esparrutan lan egiten du zuen elkarteak? Zein helbururekin sortu eta lan egiten du? Zein izan da zuen bilakaera?

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

A) Udal agintariekin eta erakunde ofizialekin lankidetzan aritzea auzoari eta hiriari eragiten dieten arazo guztiak konpontzeko, hala nola hirigintza, ekipamendu kolektiboak, osasuna, ingurumena eta bizilagunen bizi-baldintzen hobekuntzari eta aisialdiari eragiten dien beste edozein arazo.

B) Erakunde administratibo eta judizialen aurrean elkartearen helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatzea.

Nola uste duzu eragin diola Covid pandemiak eta haren kudeaketak herritarren parte-hartzeari?

Bereziki uste dut eragina izan duela, denboraren zati bat konfinatuta egon gara. Ezin ziren egin nahi genituen gauza asko (edo batzuk).

Eta zuen elkartearen helburu, egitasmo eta bizitzari?

San Juan sua ere bertan behera geratu da. 5.000 pertsona edo gehiago etortzen ziren.

Nola baloratzen duzue Covid egoera berri eta aldakorrera egokitzeko (izan) duzuen ahalmena? Zeintzuk dira ikaspen nagusiak?

Ikaspeni buruz, ez gaudela prestatuta eta ez dakigula pandemia hau amaitu den edo urteetarako daukagun.

Ahal dugun moduan moldatzen gara, lehen baino lan gehiagorekin, baina lanerako eta gure helburuengatik dena emateko izpirituekin, nahiz eta batzuetan gure udalarekin batez ere topo egin behar dugun, bere okerra ikusarazteko.

Eta nola egokitu dira, zuen ustez, erakunde publikoak orohar eta zehazki GFA, Parte Hartze Zerbitzua barne?

Covid aprobetxatuz, hitzorduak jarriz eta guztia edo ia telematikoki eginez. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugu arazo gutxien.



Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

A) Udal agintariekin eta erakunde ofizialekin lankidetzan aritzea auzoari eta hiriari eragiten dieten arazo guztiak konpontzeko, hala nola hirigintza, ekipamendu kolektiboak, osasuna, ingurumena eta bizilagunen bizi-baldintzen hobekuntzari eta aisialdiari eragiten dien beste edozein arazo.

B) Erakunde administratibo eta judizialen aurrean elkartearen helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatzea.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

